garatzea, euskal hedabideen datu-basea sortzea, irakasleen eta profesionalen komunitatea ahalbidetzea eta euskal hedabideei buruzko topagunea garatzea. Bi norabideko jario-dun atea. Alde batetik, lan akademikoa enpresetara hurbiltzeko; bestetik, sektorearen beharrak zein kezka unibertsitatara gerturatzeko. Hartara, bi norabide horiek noranzko bakarra izango dute helburu: bizi ditugun erronkei aurre egitea jakintza-transferentziaren bidez.

2. Euskal hedabideak kartografiatzen, datutegia abiapuntu

Hasieratik, Behategiaren lehen helburuetako bat izan da euskal hedabideen sektorearen datuak bildu eta antolatzea, eta datu-base hori ikertzaileentzako eta sektoreko enpresen esku uztea. Horrela, sektoreak eta akademiak premiaz behar zuten lanerako oinarri hori abian da 2016az geroztik, eta bertan bildutako datuetan oinarritutako euskarazko komunikabideen erradiografia egingo da ondorengo lerroetan.

Euskal hedabideen datu-basea, datutegia (datutegia.behategia.eus), lau oinarriren gainean eraiki da. Alde batetik, eskualdez eskualdeko datu sozio-ekonomiko ugari bilduz, hala nola lurraldea, demografia, azpiegitura, administrazioa, ekonomia, heziketa eta hizkuntzari dagozkionak. Bestetik, sektoreak berak bildutako egiturazko datuak jasoz: ekoizpen-maila, banaketa eta merkaturatze sistema, sustapena eta marketina, enpresa egitura eta azpiegitura teknikoak, berrikuntza-maila, gastu eta aurrekontuak, diru-iturriak eta finantzaketa. Hirugarrenik, sektore publikoak edo administrazioak emandako diru-laguntzak edo audientzia neurketen inguruko datuak pilatuz, eta, azkenik, unibertsitateak berak emandako hainbat datu ekarriz eta antolatuz. Hartara, orain arte inoiz bildu gabeko datu-basea eskaintzen du datutegiak, eta horri esker, euskaraz diharduten hedabideen argazki panoramikoena eta osatuena egiteko ezinbesteko baliabidea jendarteratu du Behategiak.

Horrenbestez, artikulua hurrengo azpiataletan, datutegian bildutako adierazleen azterketa egingo da, lau ataletan banatuta: hasteko, hedapenari dagokion informazioa, hau da, euskarazko hedabideen Euskal Herrian zeharreko banaketa; gero, euskal hedabideen ekoizpenaren zenbakiak; ondoren, euskal komunikazio-enpresen erradiografia eta sektorearen aurrekontua zein


finantzaketa-sistemari lotutako hainbat datu; eta, azkenik, hartzaileak: euskarazko hedabideek ekinen dihardute, baina zer gertatzen da beste aldean?

2.1. Hedapena: hedabideen banaketa Euskal Herrian barna

Euskal hedabideen zabalpen handia da sektorearen datu esanguratsuene-tako bat, izan ere, ia euskararen lurralde geografiko osora zabaltzen baita eskaintza. Hedabide nazionalen gain –teorian, behintzat, horiek Euskal Herri osoan irakur, entzun edota ikus daitezke–, ia eskualde guztietan dago euskarazko hedabideren bat kontsumitzeko aukera, bai bederen euskal hiz-tun kopuru esanguratsua duten eskualde guztietan eta zazpi hiriburutan. Gainera, zabalpen hori nahiko orekatua eta oso barreiatua dago.

Orotara, 215 komunikazio-produktu eskaintzen dira euskara hutsean. Jar-raian, euskarriaren eta motaren arabera sailkatuko dira proiektu horiek guz-tiak, eta banaketa geografikoa ere irudikatuko da mapan. Horra euskarazko komunikabideen eskaintza oparoaren banaketari dagozkion xehetasunak:

1. irudia. Euskal hedabideen banaketa euskarriaren, motaren eta udalerrriaren arabera



Iturria: datutegia.behategia.eus

Euskarriari erreparatuta paperezko argitalpenak dira euskarazko komunikazio-produktuen ia erdia (%49,1), hain zuzen, 90 agerkari. Bigarren multzoa atari digitalek osatzen dute 77 webgunerekin (%35,8). Ondoren datoz irratiak (%16,7) eta telebistak (%5,6): zehazki, 36 irrati eta 12 telebista.

Euskal hedabideen sektorea osatzen duten komunikazio-produktu gehienak, 146, tokikoak dira; 49 tematikoak, 16 nazionalak eta lau hedabide –Nafarroako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Ipar Euskal Herriko *Hitza*-k– lurraldekoak. Beraz, motaren arabera banaketa eginez gero, tokikoak –herri zein eskualdeetakoak– dira hiru hedabidetatik bi (%67,9). Jarraian datoz tematikoak (%22,8), nazionalak (%7,4) eta lurraldekoak (%1,9).

Izaera juridikoari dagokionez, aldiz, elkarteak dira hedabide horiek kaleratzen dituzten ia %40, eta beste %30 inguru erantzukizun mugatuko sozietateak. Halaber, komunikazio-enpresa gehienak, hirutik bi, Hekimen Euskal Hedabideen Elkartean daude bilduta (zehazki, euskarazko hedabideen %67,2).

Betiere hedabide nazionalak kontuan hartu gabe, datutegiak geografiko-ki dauden hutsuneak bistaratzeko aukera ematen du. Lerro batzuk gorago adierazi da euskarazko hedabideak euskal lurraldearen ia eskualde guztietara zabaltzen direla, eta, hala da, honako hutsuneak salbuetsita: ez dira iristen Nafarroako hegoaldera, ezta Bizkaiko lau eremutara ere (Mungialdea, Orozko, Alonsotegi eta Enkarterri). Hain zuzen ere, Mungialdea kasu esanguratsua da, euskaldunen kopurua %60tik gorakoa izan arren, oraindik ez baita bertan tokiko euskal hedabide iraunkorrik garatu. Gainerako eskualde guztietan bada euskarazko hedabide idatziaren eskaintzarik.

Arabian, 2015. urtea arte, bakarrik hiriburura (*Hirinet*) eta Aiaraldeko herrietara (*Aiaraldea.eus*) iristen ziren tokiko euskal hedabideak, baina *Alea* hedabideari esker, gaur egun lurraldeko kuadrilla guztietako informazioa jaso daiteke euskaraz, baita hiriburukoa ere, sarean zein paperean.

Bizkaian, berriz, sei tokiko aldizkari, sei Internet atari digital eta telebista bat daude euskaraz. BERRIaren paperezko edizioarekin batera banatzen den *Bizkaiko Hitza* astekariaz gain, beste hamahiru hedabide daude udalerri edo eskualde mailakoak: sei tokiko aldizkari, eskualdeetako dozena erdi Internet

atari eta telebista bat. Denera, 108 udalerritan zabaltzen dira paperezko hedabideak, hau da, Bizkaiko biztanleriaren erdia bizi den eskualdeetara iristen da eskaintza; baita Bizkaiko euskaldunen erdia bizi den herrietara ere.

Gipuzkoa da euskal hedabideak gehien eta sarrien zabaltzen diren eremua, baita kontzentrazio handieneko gunea ere. Gipuzkoako herri eta eskualdeetakoak dira tokikoak diren Hekimeneko 82 hedabideetatik 51 (%62); lurralde osora zabaldutako paperezko hedabideaz gain (*Gipuzkoako Hitza*), Gipuzkoako ia udalerrri guztietara iristen dira paperezko hedabideak. UPV/EHUko HEKA (Europar Hizkuntza Gutxituetako Hedabideak eta Kazetaritza) unibertsitate iker-taldearen arabera, hain zuzen ere, Gipuzkoan daukate euskal hedabideek irismen tasarik altuena, alegia hitzun kopurua hedabideekiko (2015, 38). Horrek esan nahi du ez bakarrik kontsumo tasak altuak direla dagoen hitzun kopuruarekiko, are gehiago, proportzionalki hedabide asko daudela hartzaile potentzialarekin alderatuz gero.

Hor dute, beraz, euskal hedabideek estaldurarik handiena, prentsa, irratia, telebista eta agerkari digitalen bidez. Horrez gain, nabarmendu behar da tokiko bost telebista daudela lurralde honetan, hirurogeita zazpi udalerritarababaltzen direnak. Horrek esan nahi du herritarren %95,4k eta Gipuzkoako euskaldunen ia %94 inguruk ikus dezakeela hauetako kateren bat. Gainera, bi tokiko irrati ere badira, Gipuzkoako biztanleriaren %17,3 eta euskaldunen %17 bizi den lurraldean zabaltzen direnak.


Nafarroa izango da, hain segur, euskal hedabideen tokiko zabalpena urrien daukan eskualdea, geografikoki kontuan hartuta. BERRIAk argitaratzen duen *Nafarroako Hitza*-z gain, euskarazko hedabideek Iruñerrian –bertan bizi da nafar biztanleriaren erdia– eta hortik gorako ipar mendebalderantz dagoen eremuan zabaltzen dira. Hiru tokiko aldizkari, lau Internet atari, hiru tokiko irrati eta telebista bat zeuden 2015ean, Behategiko Datutegian kontsultagarri dauden datuak jaso zirenean. Gaur egun, egoera franko aldatu da, besteak beste, baita euskarazko komunikabide publikoen esparruan ere. EITBren emisioak zuzen jaso daitezke ia lurralde osoan, Nafarroako Gobernuak hartutako ekimenaren ondorioz, eta euskarazko bi telebistaren emisioak ikus daitezke hiriburuan: sortzez Baztangoa den *Xaloea Telebista*, eta *Hamaika Telebista*.

Iparraldean, tokiko irratia dira bertako euskarazko komunikazioaren eragile nagusiak, Euskal Irratiak zigilupean batuta ageri dira, hots, Ipar Euskal Herriko irratien sarean bilduta: bi Lapurdikoak dira *–Antxeta Irratia* eta *Gure Irratia*–; bat Nafarroa Beherekoa *–Irulegi Irratia*–; eta beste bat Zube-roakoa *–Xiberoko Botza*–.

2.2. Ekoizpena zenbakitan: orriak, aleak eta emisio-orduak

Ekoizpena aztertzeko bi ataletan banatuko da datuen irakurketa: alde batetik, paperezko argitalpenen orri zein ale kopurua zenbatekoa den argituko da; bestetik, irradi eta telebisten emisio-orduak adieraziko dira. Honako irudiak batzen ditu zenbaki guztiak:

2. irudia. Euskal hedabideen ekoizpena zenbakitan: paperezkoen orrialdeak eta aleak, eta irradi-telebisten emisio-orduak



Iturria: datutegia.behategia.eus

Hekimeneko partaide diren elkarteek, astero, 40 egunkari edota aldizkari ezberdin argitaratzen dituzte paperean; eta, astean, 2.200 orritik gorako ekoizpena kaleratzen dute, 50.000 bat orrialde urtero.

Orotara, urtean ekoitzitako orrialde kopuruaren %40 tokiko aldizkarietarako, eta %28 *Berria* egunkariari. %13 tokiko egunkarietarako, zertxobait gutxiago aldizkari espezializatuak (%12) eta %7 aldizkari orokorrei.

Hartara, 31 milioi orrialde baino gehiago banatzen ditu hilero eguneroko prentsak; horietatik %79 eguneroko prentsak eta %21 tokiko prentsak –datu horietarako eguneroko maiztasuna baino azkarragoa, bi azkarragoa zein hila-betekoaren dutenen ekoizpena ere gehitu behar zaie–.

Honek esan nahi du 17,3 milioi ale inguru zabaltzen direla euskaraz urte bakar batean, Euskal Herri osoan, eta horietatik 7,6 milioi inguru harpidetza ordaindu egiten duten irakurleek jasotzen dituztela; hau da, ordaindutako harpidetza bidez banatzen dira euskal hedabideen sektoreak ekoizten dituen aleen %44,1. Salmenten bidez banatzen den kopurua askoz txikiagoa da, bi milioi ale inguru (%3,2), eta doan banatzen direnak –izan doako harpidetzak, sustapenerakoak edo bestelakoak– 7,7 milioi ale dira, hots, aleen %48,4.

Nabarmendu beharrekoa da harpidetza bidezko kopuru altu hori, gure inguruko beste hedabide esparruetan parekorik gabeko kopurua delako: ordaindutako harpidetzen bidez zabaltzen dena paperezko hedabideen ekoizpenaren %44,1 da. Horrek diru sarreraren kontrola ziurtatzen die hedabideei, urte osoko plangintza errazago aurreikusteko aukera alegia. Era berean, fidelizazio ikur ere bada ehunekoa, euskal hedabideek eragiten duten atxikimendu eta funtzio sozialaren erakusgarri. Aitzitik, ikusgarritasuna eskasten du, nabarmen, produktua desagertu egiten delako nolabait kioskoetatik edota gune publikoetatik. Hala ere, harpidetzaren aldeko apustua estrategikoa izan delako ustea nahiko zabalduta dago sektorean.

Halaber, doako harpidetzek are kopuru altuagoa osatzen dute, %48,4. Banaketa mota horrek ikusgarritasuna ziurtatzen du, etxe askotan euskal produktuak egoteko aukera. Oso datu esanguratsua da, era berean, halako ahultasuna ere erakuts dezakeelako –hala erakusten du azken urteetako doako prentsaren beherakadak eta ia desagertpenak, hau da, merkatuaren gorabeheren menpe egotea arriskutsua izan daitekeela–.

Ekoizpenari dagokionez, paperezko hedabide gehienen produkzioa mantendu egin da azken urteotan, baina lau hedabidetatik batek aitortzen du jaitsi egin behar izan dutela produkzioa.

Urtero argitaratzen diren orrien ia erdia, zehazki 23.418 orri, tokiko hedabideen ekoizpenari dagokio. Horien artean, *Goiena* aldizkaria da orri gehien ekoizten duena: 1.968 orri urtero. *Tolosaldeko Ataria*-k 1.896 orri ekoizten ditu, *Lea-Artibai*, *Mutriku* eta *Busturialdeko Hitza*-k 1.768, eta *Anboto*-k 1.616.

Hedabide tematikoen artean, berriz, *Gaztezulo* aldizkaria da ekoizpen handiena daukan produktua: 894 orri kaleratzen ditu urteko. *Jakin* pentsamendu aldizkariak 870 orri ekoizten ditu, eta *Bertsolari* aldizkariak, aldiz, 850. Guztien artean, Hekimen barruko aldizkari tematikoek 5.492 orri argitaratzen dituzte urtero –ekoizpen osoaren %11–. Gehienek aitortzen dute ekoizpena mantendu egin dela azken urteotan. Tematikoen kasuan, publizitateak orrien %6 baino ez du betetzen. Edonola ere, iragarki-tarteen tasak baxuak dira bestelakoe-tan ere: nazionaletan %4, tokiko eta lurraldeko argitalpenetan, berriz, %14.

Paperezkoei dagokienez, aipatu behar da lurraldeko argitalpenen artean, *Gipuzkoako Hitza*-k 912 orri ekoizten dituela urte osoan zehar.

Bestetik, irrati eta telebistako ekoizpena aztertuz gero, denera, irrati eta telebisten artean, 2.184 ordu emititzen dute astero Hekimeneko hedabideek. Beraiek egindako programen emisio orduak, berriz, 558 ordu dira epe berean, eta irrati eta telebista desberdinek elkarlanean egindako saioen orduak, aldiz, 98 astero.

Irratien artean, Ipar Euskal Herriko irratiek sortzen dute ekoizpen tasarik altuena, 80 bat ordu astero bakoitzak, eta telebisten arloan, *Hamaika Telebista*-k 68 emisio ordu sortzen ditu astero, produkzio propioari dagokionez.

Ekoizpen osoa aintzat hartuta, nabarmendu beharrekoa da azken urteotako joera. Ekonomikoki urte zailak izan direla aitortu arren, hedabideen %75ek adierazi du azken bost urteotan ekoizpena handitu dutela edo eutsi egin diotela. Bostetik batek erantzun du ekoizpena jaitsi behar izan dutela. Horietatik gehienak idatzizkoak dira eta, haien artean nagusi dira aldizkari orokor edo espezializatuak, tematikoak. Galdetu zitzaientean ea zein ziren horretarako arrazoiak, gehienek aipatu zuten krisi ekonomikoa, paperezko


prentsa idatziaren krisia, kostuen garestitzea, diru-laguntzen eta publizitatearen beherakada eta harpidetzek behera egin izana.

Ekoizpen bolumenaren murrizketa horiek, esan bezala, batez ere aldizkari eta egunkarietan gertatu dira. Irrati gehienek ekoizpen-mailari eusten diote, baita telebistek ere, eta azken hauen kasuan, hein batean behinik behin, elkarren arteko sinergia eta elkarlanari esker lortu omen da ez soilik eustea, baita handitzea ere.

2.3. Komunikazio-enpresen erradiografia

Datozen paragrafoetan, euskarazko komunikabideetan lan egiten duen profesionalaren profila osatuko dugu lehen kolpean. Behin langileen jarduerara nolakoa den deskribatuta, bai lan arloa, bai lan banaketa ere aintzat hartu ondoren, euskal komunikazio-enpresen alderdi ekonomikoa nolakoa den deskribatuko da bi azpiataletan: aurrekontua eta finantzaketa-sistema. Ondoko irudiak biltzen ditu erradiografia horren zenbaki orokorrak:

3. irudia. Euskal hedabideetako langileen jarduera, sektorearen aurrekontua eta finantzaketa-sistema




Iturria: datutegia.behategia.eus

Hekimeneko 57 enpresek 530 zuzeneko lanpostu sortzen dute. Zuzenean kontratatutako langileez gain, kolaboratzaile, *freelance* eta boluntarioak ere badituzte hedabideok: 600 kolaboratzaile inguru, gehienak aldizkari eta egunkarietan, eta 1.000 boluntariotik gora, gehienak tokiko hedabideetan. Hortaz, azken urteetan asko garatu den enpresa multzoen esku dago euskal hedabide gehieneko ekoizpena.

Langileen erdia baino gehiago, ia hamarretik sei, emakumezkoak dira (%58,3). Baina aldeak daude hedabideen izaeraren arabera: hedabide nazionaletan gehiago dira gizonezkoak (%51), eta desoreka nabarmenagoa da tematikoetan, non emakumeak %60 diren, tokikoetan %62, edota lurraldekoetan %83. Langileen jarduera arloa aztertuta, hona generoaren arabera euskal hedabideen argazkia:

4. irudia. Lan arloa generoaren arabera euskal hedabideetan




Iturria: datutegia.behategia.eus

Orokorrean, nahiko orekatua da generoaren arabera lan arloa. 4. irudi honetako zenbakiak sektore osoari dagozkion batez besteko zenbakien pareko ageri dira, hau da, 3. irudiko indizeetatik gertu-gertu: oro har, hiru lanpostutatik bi inguru (%68,1) kazetaritza eta produkzio lanekin zerikusia dutenak dira; gainerako gehienak, kudeaketa eta funtzionamendu oroko-

rrari lotuak (%15,6) edo komertzial lanekin zerikusia dutenak (%10,9). Euskarriaren zein motaren arabera aldatzen da argazkia. Nazionaletan gehiago dira produkzioan ari diren langileak, lautik hiru hain zuzen ere, eta toki-koetan, berriz, %63,5. Generoari dagokion rol banaketan nabarmentzeko bi puntu: alde batetik, emakumeak gutxiengo dira I+G arloan eta gehienbat sorkuntza lanetan dihardute, eta ez kudeaketari zein agintaritzari lotutako postuetan –adibiderako, lurraldeko argitalpenak: emakumeen %80 produkzio lanetan ari da bertan eta gizonen %100 kudeaketa zein funtzionamendu orokorreko jardueretan–.

Bestalde, generoaren arabera lan banaketak sektorearen argazki are desorekatuagoa dakarkigu: gizonezko gehiago ari dira egun osoko lanaldian eta, aldiz, emakumezkoak dira gehiengo lanaldi partzialean. Kolaboratzaileek eta *freelance*-ek gizonezko aurpegia dute eta boluntarioek, aldiz, emakumezkoak.

5. irudia. Lan banaketa generoaren arabera euskal hedabideetan



Iturria: datutegia.behategia.eus

Halaber, euskarriaren arabera alde nabarmenagoak aurki daitezke: hedabide nazionalak dira generoen arteko lan banaketa orekatuena ageri dute-

nak; lanaldi partzialetan emakumezko gehiago aritu ohi da –tematikoetan gizonezkoen %8 eta, aldiz, emakumezkoen %20 edo tokikoetan %5 eta %12 hurrenez hurren–; eta emakumezko boluntario gehiago daude nabarmen tokikoetan.

Hedabide motaren arabera azterketak ere antzeko datuak dakartza eta, batez ere, boluntarioki egiten den lanak emakume aurpegia duela dio: esaterako, paperezko argitalpenetan diharduten gizonezkoen %20 da boluntarioa eta emakumeen %36. Kontuak horrela izan arren, horrek ez du emakumeen hedabideetako agerpena bermatzen, hala berresten dute hedabideetan emakumeek duten ikusgaitasuna aztertzeko UPV/EHUko Ikus-entzunezko Komunikazioa eta Publizitatea Saileko Emakumeak Ikusgai lan taldearen ikerlanek (2018): EAEn eta Nafarroan argitaratzen diren egunkarietan, batez beste, iritzi-artikuluen %22 dira emakumeek idatzita-koak (2018ko urtarrileko datuen arabera), eta epe berean, gurean, *Berria* egunkaria izan zen agerkari parekideena, artikuluen %33 emakumeek sinatuta. Hala ere, urrun oraindik parekidetasunetik.

2.3.1. *Aurrekontua*

Herri-ekimeneko 57 komunikazio-enpresen aurrekontua, urtean, 23,5 milioi euro ingurukoa da; gastu horren herena baino gehiago egunkariei dagokie (8,3 milioi euro, %35,1), eta tokiko aldizkariak kudeatzen dute %21,9: 5,1 milioi euro. Aldizkariak (%14,3, 3,4 milioi euro) eta tokiko telebistei (%12, 2,8 milioi) dagokie aurrekontuaren gainontzekoa.

Gastuaren %61,4 ekoizpen gastuetan joaten da. Kudeaketarako doan aurrekontuaren ehunekoa, aldiz, %16,9koa da (hedabide nazionaletan, berriaz, %6,5 baino ez da, ohikotik oso behera). Gainerako gastua banaketari (%10,4), sustapenari (%7,7) edota garapenari (%1,9) dagokio.

Are gehiago zehaztuz gero, euskal hedabideen aurrekontuaren zatirik handiena langileen kontratazioan doa (%48,4), kanpoko profesionalen ordainsariak datoz jarraian (%23,5) eta koska bat atzerago kanpoko hornigaiak edo erosketak, %10,4 eta %8,1 hurrenez hurren.

2.3.2. *Finantzaketa-sistema*

Gastua argitu ondoren, aurrekontu hori bideratzeko gaitasuna aztertzea da hurrengo urratsa. Urtean 22 milioi euro inguruko diru-iturriak dituzte Hekimeneko hedabideek: horietatik %61,2 dira diru-iturri propioak eta %38,8 diru-iturri publikoak.

Diru-laguntzen pisua nabarmen altuagoa da irratien sarreretan (%60,3), tokiko Internet atarietan (%48), Internet atari espezializatueta (%49,5) eta tokiko aldizkari (%45,2) eta bestelako aldizkarietan ere (%44,3).

Beraz, oro har, autofinantzaketa %61,2 da Hekimeneko hedabideetan, eta ehuneko hori %70era iristen da hedabide nazionalen kasuan.

Iturri propioei dagokienez, harpidetzak dira diru-iturri nagusia sektorean, %39,1. Publizitate pribatua %27,6 da, eta publizitate publikoa, berriz, ez da %10era iristen. Hemen ere, aldaketa esanguratsuak dira izaera eta euskariaren arabera. Hedabide tematiko eta nazionaletan, harpidetzetatik jasotzen den diru kopurua handiagoa da beste sektoreetan baino, %61 eta %56 hurrenez hurren, eta tokikoetan publizitate pribatua da diru-iturriarik garrantzitsuenak: %40.

Diru-iturri publikoei dagokienez, Eusko Jaurlaritza da diru laguntzaile handiena, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren (HPS) bidez diru-laguntzen %52,1 banatzen baitu. Atzetik datoz udalak, ekarpen publikoaren laurdena egiten dutenak (%24,2) eta, ondoren, Foru Aldundiak %15,8. Hedabide nazionalen kasuan, HPSrena da ekarpen ia bakarra, %94, baina tokikoen kasuan, udalak dira finantzatzaile nagusienak, ekarpenen %40 egiten baitute.

Ekonomikoki urte zailak izan dira azkenak euskal hedabideentzat. Hala adierazi zuen duela bost urte aurkeztutako Eusko Jaurlaritzaren «Euskararen aurrekontu eta baliabide publikoen estatistika» txostenak ere (Eusko Jaurlaritza, 2013): frogatutzat eman zuen euskararen aldeko ahalegin publikoak asko nabari duela kontu publikoetan 2008ko krisiaz geroztik egondako beherakada. Hartara, aurrekontuak kuantitatiboki igo direnean, ez dira proportzio berean igo euskararentzako diruak; diru publikoak jaitsi direnean, berriz, proportzio-

nalki gehiago jaitsi dira euskararentzako poltsak. Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa egin du Elixabete Larrinagak (2018) eta, 2018ko urtarrilean defen-datu berri duen doktorego-tesian ere, antzeko gorabeherak aipatzen ditu: EAEko aurrekontuak gora edo behera egiteak hedabideentzako diru-laguntzen poltsak gora edo behera egitea ekarri du, baina ez modu proportzionalean.

Beraz, diru-laguntza publikoek behera egin arren, hala ere, galdetu zaie-nean, hedabideetako ordezkariak adierazi dute prest daudela inbertsio be-riak egiteko, lan prozesuaren gaineko hobekuntzak abiatzeko (%88), pro-duktuetan hobetzeko (%86) zein marketin eta sustapenaren gaineko hobekuntzetan eragiteko (%85).

Bestetik, duela pare bat urte mahai gainean jarritako balio sozialaren kon-zeptua ere kontuan hartu behar da atal honetan; hain zuzen, hedabideen balio sozialaren inguruan 2015ean Mondragon Unibertsitateko Hezikom ikerketa taldeko ikertzaileek egindako ikerketa (Bidegain, eta beste, 2016). Hiru kontzepturen inguruan egin zen lana. Lehenik, eragin soziala duen balio ekonomikoa neurtu zen, hau da, hedabide horrek zenbat pertsona dituen soldatapean; inguruko hornitzaileei zenbateko erosketak egiten dizkien; zen-bat diru inbertitzen duen inguru hurbilean, eta abar. Bigarrenik, balio sozial espezifikoa kuantifikatu nahi izan zuten: euskarazkoetan, adibidez, hizkuntza-ren normalizazioan edo lurraldearen kohesioan eginiko ekarpenak. Hiruga-rrenik, Administrazioari zerga bidez (PFEZ, Gizarte Segurantzak, BEZ, Sozie-tate Zerga) itzultzen zaiona kontuan hartu zuten. Horrela, hiru kontzeptu horien batuketatik kalkulatu zuten balio sozial globala delakoa. Soilik hiruga-rren aldagaia kontuan hartuta, alegia, administrazioari zergen bidez itzultzen diotena kontuan hartuta, ikerketa taldeak ondorioztatu zuen funtzio sozial garbia duten eta balio sozialaren neurketa izan duten beste enpresa batzuek baino itzulera ekonomiko handiagoa ziurtatzen zutela euskal hedabideek.


2.4. Hartzaileak: zer gertatzen da beste aldean?

Euskarazko komunikabideak zenbat lagunak kontsumitzen dituzten jakitea garrantzitsua da, baina baita hartzailea zer-nolakoa den argitzea ere, horrek

eskainiko baitio sektoreari bere eginahala ahalik eta ondoen egokitzeko aukera. Horretarako gero eta datu gehiago eskaintzen ditu gaur egun sareak, beraz, horiek ere izango dira hizpide audientzien atal honetan: audientzia digitalaren eta sare sozialetako audientzien rola, hain zuzen. Bi kolpetan datoz, beraz, azken atal honetako zenbakiak: lehenik, audientziari erreparatuta euskal hedabideen hartzaileen bolumena eta profila, eta, azkenik, sareko audientzien xehetasunak.

2015eko urtarrila eta uztaila bitartean Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak egindako inkestaren arabera (Eusko Jaurlaritzak, 2015), aurreko eguneko kontsumoaz galdetzean, 773.000 lagunek adierazi zuten euskarazko hedabideak kontsumitu izana, eta horietatik 467.000 lagunek 10 minutu baino gehiagoko kontsumoa izan zutela esan zuen. Inkesta horretan batutako zenbakiak eta hartzaileen profil orokorra irudikatzen dira ondoko irudian:

6. irudia. Euskal hedabideen audientzia: hartzaileen bolumena eta batez besteko profila



Iturria: datutegia.behategia.eus

Eguneroko hedabideek, berriz, 891.000 pertsonako audientzia dute egunero zein astean 3 edo 4 aldiz. Noizean behingo kontsumoa egiten omen du, aldiz, 530.000 lagunek.

Oro har, audientziaren %51 emakumezkoa da eta %49 gizonezkoa. Datu orokorrekin jarraituta, 16 eta 34 urte bitartekoa da euskal hedabideen kontsumitzaileen %30; 35 eta 49 urte bitartekoa beste %30; eta %40, berriz, 50 urte edo gehiagokoa.

Lehen mailako ikasketak ditu audientziaren %23k, bigarren mailakoak %42k eta goi mailakoak %34k.

Datu soziolinguistikoekin bat, gipuzkoarra da euskal hedabideen audientziaren erdia baino zertxobait gehiago, %52; bizkaitarra %30, nafarra %15 eta arabarra %3.

Hori da audimetria tradizionalaren argazkia, baina zer gertatzen da sarean? Internet da, gaur egun, euskal hedabideek duten erronkarik handienetako bat, kazetagitzak mundu mailan dituen erronka orokorrekin bat datorren desafioa.

Datuek garbi erakusten dute: euskal hartzaileak ontzat jo du sarean egingadako ahalegina. Hainbat kasutan, Interneten egiten den lana muina izatera pasa da, eta ez dira gutxi nagusiki sarekoak izatera pasa direnak, edo horri begira bizi direnak.

7. irudia. Euskal hedabideen sareko audientzia eta sare sozialak



Iturria: datutegia.behategia.eus

2015ean Hekimen elkarteak martxan jarri zuen Hekimen Analytics tresnari esker, gaur egun badakigu Hekimeneko webguneen garapena garbia dela: goranzkoa. 2013. urtean 12 milioi saio edo bisita izan ziren Hekimeneko webguneetan. 2014. urtean, 13,9 milioi saio edo bisita; 2015ean 18,1 milioi, 2016an 20 milioi bisita eta iaz 23,3 milioi. Batez beste, hileko 1,9 milioi pasatxo, beraz. Gora etengabe: aurreko urtean baino %16,5 bisita gehiago izan zituzten 2017an.

Erabiltzaile edo gailuak zenbatuz gero, aldiz, 2013an 4,9 milioi erabiltzaile/gailu izatetik 2017an 9,1 milioi biltzera pasa da sektorea; lau urtean %85eko hazkundera.

Arloz arlo, esan behar da webgune kopurua asko hazi dela azken urteetan baina, batez ere, tokiko webguneak gehitu direla. 11 ziren 2011n, eta 23 ziren 2015ean. Bisita kopuruaren gorakada bi baldintza horien erantzuna da: martxan zeuden webguneak indarra hartzen doaz, eta gainera webgune berriak agertu dira. Horren adierazle dira esaterako tokiko hedabideak, hain zuzen, kopuruz eta bisitaz handitu baitira: 2011n bisiten %25 inguru ekartzen zuten sektorerara; 2015eko lehen seihilekoan, berriz, %42; eta, 2016ko irailean, lehen aldiz, gainditu egin zuten hedabide nazionalen kontsumoa.

Euskarazko hedabideen sareko hazkundera handia da, baita inguruko bestelako hedabide batzuekin alderatuta ere. Ariketa horixe egin zuten, besteak beste, 2017ko Euskal Hedabideen Urtekarian argitaratuko artikuluan Josu Azpillagak eta Mikel Lizarralde (2017, 81). Hekimenen datuak Hego Euskal Herriko hainbat hedabideren datuekin alderatu zituzten (*eitb.eus*, *Deia*, *Noticias de Gipuzkoa* eta *Noticias de Navarra*), hala nola baita Kataluniako *Ara* eta *Vilaweb* hedabideen zenbakiekin ere. Hurbilketa horren emaitza: 2013-2017 bitartean gehien hazi dena tamainaz txikiena dena izan da: %98. Hurrengo postuan dago Hekimen sareak osatutako hedabide multzoa, gainerako guztien aurretik, urte amaieran %93ko igoerarekin. Beste hedabideak, handiagoak guztiak, proportzioan gutxiago hazi dira; hortaz, euskarazkoen multzoak pisua irabazi du hedabide horien baitan.

Bestetik, gailuen araberako kontsumoari dagokionez, gailu guztietako kontsumoak igo badira ere, proportzioan nabarmena da mugikorren bidez egindako irakurketek edo kontsumoak eman duten iguera.

Hain zuzen, trafikoaren hazkundera mugikorretatik hazi dela nabarmentzen dute datuek; ordenagailu bidezko kontsumoak, aldiz, gero eta proportzio txikiagoa dauka kontsumo orokorrean. Gailu mugikorretatik (tabletak zein sakelako telefonoak) iristen diren bisiten kopurua ordenagailutik datozenak baino gehiago da: %55 eta %45, hurrenez hurren. Dena den, alde handiak daude webgunetik webgunera. Badira batzuk, bisiten %70 inguru mugikorretatik eskuratzen dituztenak; aldiz, sektoreko beste batzuk %30 inguruan dabiltza. 2011. urtean, bisiten %3 inguru egiten zen telefono mugikorraren bidez. 2017an, %49ra iritsi zen batez besteko datu orokorra, ia erdira. Ordenagailuen joera bestelakoa da: kopuru absolutuetan eutsi dio 10 milioi inguruko bisitari, baina kontsumo hori pisu erlatiboa galtzen ari da urtez urte. Webguneak banan-banan aztertuz gero desberdintasunak dauden arren, hazi diren webguneak batik bat mugikorre-er esker hazi direla esan daiteke.

Azpimarratzeko beste datu bat da tokiko hedabideak hazi direla gehien azken urteetan: %140 igo dira azken lau urteetan. Gorakadaren arrazoiak atzean, bi nagusi: webgune berriak sortu izana eta hedabide bakoitzak trafikoa irabazi izana. 2016. urtean, Hekimeneko webguneen trafiko osoaren erdia izan zen tokiko hedabideei zegokiena, lehen aldiz hedabide mota bisitatuena izan ziren –hiru urte lehenago laurdena baino ez ziren–. Kontuan izan behar da kopuruz ere nagusi direla tokiko hedabideak: 31 webgune, analitika tresnaren bidez aztertu diren 48 webguneen %65.

Hedabide orokorrek ere trafikoa irabazi dute, %25 inguru. Batez ere trafikoko mugikorra izan da igoera eragin duena, 2 milioi bisita gehiago etorri baita bide horretatik azken urtean.

Hedabide tematikoek, berriz, %71 inguruko hazkundera izan dute 2013tik 2017ra bitartean. Hekimeneko webguneetan batez beste gertatutakoa baino handiagoa, beraz. Hedabide tematikoetara iristen diren bisitak hedabide guztien bisiten %4 inguru dira. Kasu honetan, ordenagailua da oraindik gailurik erabiliena, alde handiz: mugikorretatik iristen direnen halako ia bi iristen dira ordenagailutik. 12 webgune aztertu dira multzo honetan.

Bestalde, sare sozialak dira, gaur egun, baita euskal hedabideentzat ere, zabalpenerako bide. Hekimeneko lau hedabidetatik hiruk adierazten du egunero zabaltzen dituztela berriak sare sozialen bidez, eta horretarako bide

erabilienak Twitter (%24), Facebook (%23) eta Youtube (%16) omen dira. Esanguratsua da Twitterren nagusitasuna, adituak behin eta berriro nabarmentzen ari direlako Facebooken dagoela sareko kontsumorik handiena eta Hekimen Analyticsen datuek ere hala adierazten dutelako: trafiko soziala aipatzean, Facebookeko trafikoa da nagusi, 5 milioi bisita 2017an, hain zuzen –trafiko osoaren %20 inguru–. Klik arrantza arrakastatsuagoa da Facebooken Twitterren baino (epe berean 2 milioi bisita eskuratu baitzituzten euskal hedabideek sare horretan). Hortaz, sare sozialen unibertsoan ere datuak behatzea da abiapuntua. Hori dela eta, lehenbizikoz, xehe-xehe aztertzen da trafiko sozialaren eta zehazki Facebook sarearen afera 2017ko Euskal Hedabideen Urtekarian (Mimenza, 2017). Bertatik ondoriozta daiteke, esaterako, honako ideia: Facebook izan da hedabideen bestelako trafiko iturriekin alderatuta gorakada handiena izan duena azken lau urteetan. Hala ere, sare sozialaren pisu erlatiboa aldatu egiten da komunikabide motaren arabera: pisu handiagoa du tokikoetan (%30) gainerakoetan baino (%18 tematikoetan eta %12 orokorretan). Nolanahi ere, badira aparteko aipamena merezi duten kasuak, izan ere, hainbat komunikabidek euren webgunetako trafikoaren erdia ere lortzen baitute edukiak partekatzeko plataforma zabalduenaren bidez. Hekimeneko komunikabideen Facebook sareko jarraitzaile komunitatea %32 baino gehiago hazi zen 2017an eta, hilabete bakarrean, irailean hain zuzen, 4.667 eduki argitaratu zituzten: *post* horiek zenbat aldiz erakutsi ziren erabiltzaileen pantailetan? 13 milioi pasa izan ziren inpresio totalak; bakarrak, aldiz, hiru milioitik gora. Euskal hedabideen sektorean biziki eztabaidatua den irismenaren auzian hartzen al dira kontuan tamaina honetako datuak? 2017an 170 milioi inpresio pilatu zituzten Hekimen elkarteko komunikabideek Facebook sare sozialean, horietatik 40 milioi inpresio bakar. 40 milioi agerpen bada arretaz aztertzeko eta aintzat hartzeko zenbakia.

Beraz, sare sozialetan garatzen den estrategia ere garrantzitsua da hedabideentzat eta, berezitasunak berezitasun, argi dago geroz eta saio kopuru gehiago lortzen dituztela euskarazko hedabideek sare horien bidez –eta, batez ere, Facebook bidez–; hala, sare sozial horren pisu erlatiboa ere gero eta handiagoa da audientzia digitala aztertzerakoan, are erabakigarria hainbat kasutan.

Zalantzarik gabe, bisita kopuruaz gain, irismenerako beste hainbat bide ere zabaltzen dituzte bai audientzia digitalak, baita sare sozialek ere; horrenbestez, horiek modu sistematikoan aintzat hartzea ere izango da erronka.

Era berean, gero eta zailagoa da gaur egun ekoizpen zein kontsumo tradizionala eta digitala bereiztea, hortaz, neurtu egin beharko da zein ehunekotan ordezkatzan ari den edo osatzen ari ote den Internet bidezko kontsumoa irakurketa tradizionala. Ikerketen arabera, badirudi, oro har, paperezko edizioen irakurleak ez direla edizio elektronikoetara joan papera alboratuz; kasu askotan bertsio bat bestearekin osatzen baitute, eta beste kasu askotan, edizio elektronikoak irakurle berriak erakarri baititu. *Berria* egunkaria bete-betean sartzen da joera horietan. Horixe Josu Amezagak eta Gorka Salcesek 2016ko hondarretan argitaratu zuten artikuluan gai horri emandako erantzuna (2016, 47), baina horrez gain, beste bi ideia interesgarri ere heldu zieten, bi helburu argirekin: alde batetik, gaur egun euskarazko komunikabideek lortzen duten hedadura zein den erakustea; bestetik, azken urteetan izan diren bilakaera eta aldaketa nagusi batzuk aztertzea. Horretarako, bereziki bi inkesta hartu zituzten aintzat: CIES enpresak erregulartasunez egin ohi dituen neurketak, eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (HPS) 2015ean enkargatu zuen audientzia neurketak zabala. Ondorioetan, bi ikertzaileek nabarmendu zuten, hasteko, alde handiegia daudela bi neurketen artean kopuruak erabat fidagarriak direla onartzeko. Beraz, horrelako inkestak joera orokorrak antzemateko bai, baina haien gainean erabaki garrantzitsuak hartzeko ez zutela balio azpimarratu zuten. Kontsumoari dagokionez, oro har, euskarazko komunikabide tradizionalak euskaldunen erdiarengana iristen direla ondorioztatu zuten: kontsumo hori txikiagoa da gazteen artean eta produktu bakarrera mugatu ohi da. Hauskorra da, beraz. Nolanahi ere, azken urteotan igo egin dela izan zen ikerketaren beste ondorioetako bat. Duela zortzi urte, Hego Euskal Herriko 14 urtetik gorako populazioaren %15ek kontsumitzen zuen, egunero, euskarazko komunikabideren bat; iaz, %19k. Zentzu hone-tan esan daiteke, oraindik irabazi beharreko eremu ugari dagoen arren, euskarazko komunikabideak lan handia egiten ari direla euskaldunak euskarazko eremu publikoan integratzeko.

3. Mapa berriak adosteko garaia

Euskarazko hedabideen inguruan inoiz egin den datu-bilketa handienetik abiatuta ehundutako euskara hutsezko hedabideen kartografia honek erakusten ditu sektorearen zabalpen handia, borondate publikoa eta elkarlaneanerako asmoa.

Lan honen lehen zatian adierazi da euskarazko komunikabideek Euskal Herrian barna duten banaketa zenbatekoa den, eta zabalpenak hutsune gutxi ditu, ia euskararen lurralde geografiko osora zabaltzen baita eskaintza. Nahiko orekatua eta barreiatua den hedapen horren hutsune handiena Nafarroako hegoaldean ageri da, bertan Euskal Herri osora zabaltzen diren hedabide nazionalak baino ez baitaude eskura.

Artikuluaren bigarren zatian, berriz, ekoizpenaren zenbakiak deskribatu dira, eta horietatik pare bat azpimarratuko ditugu ondorioen gune honetan: 31 milioi orrialde baino gehiago banatzen ditu hilero eguneroko euskarazko prentsak, eta 17 milioi aletik gora zabaltzen dira urte bakar batean. Gainera, ordaindutako harpidetza bidez eskuratzen da ekoizpen horren ia %45 eta harpidetza datu hori gure inguruko beste hedabide esparruetan parekorik gabeko kopurua da, euskarazko hedabideek betetzen duten funtzio sozialaren isla. Halaber, ekonomikoki urte zailak pasa arren, hedabideen %75ek adierazi du ekoizpena handitu edo mantendu egin dutela azken bost urteotan.

Hirugarren atalean, ekoizleei erreparatuta, ondorioa argia da: azken urteetan asko garatu den enpresa multzoaren esku dago euskal hedabide gehienen ekoizpena –horren adibide dira Hekimen elkartearen baitako 57 komunikazio-enpresek sortzen dituzten 530 zuzeneko lanpostuak, edo 600 kolaboratzaile inguruko sarea, eta 1.000 boluntariorik gorako komunitatea–. Langileen erdia baino gehiago, ia hamarretik sei, emakumezkoak dira eta sektorean, oro har, nahiko orekatua da generoaren araberako lan arloa; aldiz, lan banaketaren azterketak argazki desorekatuagoa jarri du agerian. Era berean, emakumeak dira batez ere boluntarioki egiten den lanaren erantzule, baina horrek ez du emakumeen hedabideetako ikusgaitasuna bermatzen.

Datu gehiagoren bila, aurrekontuak eta finantzaketa-sistemak ere aipatu dira aurreko ataletan. Euskal hedabideen finantzaketaren %60 diru-iturri propioetatik dator, eta %40 diru-iturri publikoetatik. Autofinantzaketa, kasu batzuetan –esaterako hedabide nazionalen kasuan–, %70era ere iristen da. Hala ere, diru-laguntzak ezinbestekoak dira sektorearen biziraupenerako, eta azken urteetan krisi ekonomikoaren eskutik diru-laguntza publikoek behera egin duten arren ere, hedabideetako ordezkariak inbertsio berriak egiteko prest agertu dira. Beraz, funtzio eta balio sozial garbia duten euskarazko komunikabideen aitortza eta babes ekonomikoa duintzeko administrazioaren erabateko eginahala estrategikoa izango da.

Amaitzeko, laugarren eta azken zatian, euskal komunikabideen hartzaileei jarri zaie arreta eta audientziak hartu dira hizpide. Bart euskarazko hedabideren bat kontsumitu izana aitortzen dute 773.000 lagunek. Audientzia hori honela banatzen da: %51 emakumezkoa da eta %49 gizonezkoa; 16 eta 49 urte bitartekoa da %60; eta datu soziolinguistikoekin zein hedabideen eskaintza geografikoarekin bat eginda, euskal hedabideen audientziaren erdia baino zertxobait gehiago gipuzkoarra da. Audientzia digitala, mugikorren bidezko kontsumoa eta sare sozialen erabileraren hazkundea goraka doaz geldiezin. Hortaz, bada joko zelaia erabat aldatu duen prozesu bat: digitalizazioa. Interneten garapenak, eskuragarritasunak eta gaur egun daukan ia erabateko omnipresentziak komunikabideen esparrua bete-betean jodu, kazetaritza-iraultza eragin du. Abiadura biziko aldaketa horrek, besteak beste, ekoizpen prozesuetan eragin du, edukietan zein kontsumo ohituretan, eta etengabeko egokitzapenean jarri ditu komunikazio-entresak: kezka nagusia negozio eremuan asmatzea da.

Horiek euskara hutsezko hedabideen kartografiak utzitako zenbakiak. Artikuluaren sarreran adierazi den bezala, erantzun bila abiatutako azterketa hau galdera berriekin itxiko da azken paragrafoetan. Aurrera egiteko, kezka mahaigaineratzea izan ohi da lehen urratsa.

Izan ere, hainbat galdera jartzen ditu mahai gainean azterketa honek: zer egin euskarazko hedabideen hedapena euskararen lurralde osoan bermatzeko? Nola heldu Nafarroa hegoaldera? Euskara hutsezko 215 komunikazio-produktu behar al ditugu? Eskaintza oparoa indargune ote da, edo ato-

mizazioa ahuldade al da? Eta horren arabera bideratu behar ote da gero eta elkarlan zein sinergia gehiago? Euskarazko hedabideetan lanean ari diren profesionalen lan-baldintzak nolakoak dira? Zer behar da prekaritatea gainditzeko? Nola eskuratu euskal irakurle eta ikus-entzule gehiago? Nola bateratu audientzia tradizionalaren ohiko adierazleak (orri eta ale kopurua edo emisio orduak) eta audientzia digital eta sare sozialetako audientzia-indizeek dakartzaten aldagaiak? Etengabe gorantz doan mugikor bidezko konsumora behar bezala egokitu ote da sektorea? Eta abar, eta abar, beste dozena bat azterbide ere iradoki baititzake gai horietako bakoitzak.

Bada, galderak izan ohi dira aurrerabide eta datuak, berriz, aurrera egiteko bide egokienak arakatzeko lehengaiak. Euskal komunikabideen ikerketa-eremuan, ziklikoki, modu batera edo bestera hainbat azterketa egin izan dira gurean. Orain, lanerako espazio bateratua eskaintzen du datutegiak eta, horrenbestez, hortik abiatuta kartografiatu daiteke sektorearen osasuna. Egoera ezagutu, beharrak zerrendatu eta ekinbideak bideratzeko lana-besa da.

Kartografoek etengabeko neurketak eta egokitzapenak dituzte bizigarri, lurraren ezagutza eta irudikapen ahalik eta errealea xede. Halaxe euskal hedabideen inguruko esplorazio lanetan ere: datutegia osatu behar dugu, aldagaiak doitu, euskarazko hedabide guztiak aintzat hartu, adierazle sistema propio bat adostu eta, finean, datu-base iraunkor eta baliagarria sortzeaz gain, bertan jasotako informazioa baliatu sektorea indartzeko. Lurra badugu. Orain, sektoreak, administrazioak eta akademiak, elkarlanean, mapa berriak adosteko garaia da.

Bibliografia

Bibliografian bildutako lanez gain, artikulua osatzeko beharrezko datuak biltzeko honako webgunea ere baliatu da, Euskal Hedabideen Behatokiaren datutegia: <http://datutegia.behategia.eus/>

AMEZAGA, J., eta SALCES, G., 2016, «Euskarazko komunikabideen hedadura», *Euskal Hedabideen Urtekaria* 2016, 47-64. <http://behategia.eus/wp-content/uploads/2016/02/Urtekaria-2016.pdf>

AZPILLAGA, J., eta LIZARRALDE, M., 2017, «Hekimeneko webguneen trafikoaren analisia Hekimen Analytics tresna oinarri», *Euskal Hedabideen Urtekaria* 2017, 81-96. <http://behategia.eus/wp-content/uploads/2017/12/urtekaria2017-WEB.pdf>

BIDEGAIN, E., eta beste, 2016, «Goiena eta BERRIA komunikabideen balio soziala: neurgailu berri baten lehen egokitzapenak, euskal prentsarako», *Uztaro* 98, 79-96. <http://www.uztaro.eus/artikulua/128/goiena-eta-berria-komunikabideen-balio-soziala-neurgailu-berri-baten-lehen-egokitzapenak-euskal-prentsarako/1637>

EMAKUMEAK IKUSGAI, 2018, «Emakumeen ahots gutxi espainiar Estatuko egunkarietan», <https://emakumeenikusgaitasuna.wordpress.com/2018/03/12/emakumeen-ahots-gutxi-espainiar-estatuko-egunkarietan/>

EUSKO JAURLARITZA, 2013, *Euskararen aurrekontu eta baliabide publikoen estatistika (EAE 2012)*, *emaitzen txostena*, http://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/adjuntos/Eus_aurrekontuak_2012_Txostena_II.pdf

———, 2015, *Euskarazko hedabideak* [txosten argitaragabea]. Gasteiz: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, Eusko Jaurlaritza.

———, 2016, VI. Inkesta Soziolinguistikoa. *Euskararen eremu osoa*. https://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/9954/VI_INK_SOZLG-EH_eus.pdf?1499236557

LARRINAGA, E., 2018, *Diru-laguntza publikoak eta hizkuntza gutxituetako hedabideak: Eusko Jaurlaritzak 2005-2013 epealdian euskara hutsezko hedabide inprimatuei eskainitako diru-baliabideen azterketa* [Doktorego-tesia]. Leioa: UPV/EHU.

MIMENZA, L., 2017, «Euskarazko komunikabideak Facebook sare erraldoian», *Euskal Hedabideen Urtekaria* 2017, 97-120. <http://behategia.eus/wp-content/uploads/2017/12/urtekaria2017-WEB.pdf>

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA, 2017, *Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa. Euskal Herria, 2016* [prentsa-txostena]. http://www.soziolinguistika.eus/files/hekn2016-_eu_1.pdf

ZABALETA, I., eta beste, 2015, «Euskarazko hedabideen errealitatea 2015ean», *Euskal Hedabideen Urtekaria* 2015, 15-39. <http://www.behategia.eus/Deskargak/Urtekariak/urtekaria2015.pdf>

Acerca del nombre del río alavés Jugalez y su deformación en Inglares

Arabako Jugalez ibaiaren izena
eta Inglares formaraino izan duen desitxuratzea

A propos de la rivière Jugalez en Alava
et comment elle est devenue Inglares

The name of a river in Araba, Jugalez,
and its deformation into Inglares

GONZÁLEZ DE VIÑASPRE, Roberto
Hizkuntzalaria. Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeburua

Noiz jaso: 2017-10-24

Noiz onartua: 2018-04-20

Euskera. 2017, 62, 2. 215-247. Bilbo
ISSN 0210-1564

El nombre del río alavés Jugalez ha sufrido diversas vicisitudes desde que se documenta en la mitad del siglo XVII. Durante el siglo XIX, por una sucesión de errores aparecidos en diccionarios geográficos y mapas, la denominación se fue alterando hasta llegar a la forma *Inglares* en las últimas décadas de ese siglo. A finales del siglo XIX y principios del XX el nombre deformado se extendió rápidamente, por vía principalmente administrativa. A pesar de ello, el nombre se ha mantenido vivo, con la variante *Jubalez*, hasta mediados del siglo XX, en el uso popular del curso bajo del río.

Palabras-clave: río Jugalez, documentación histórica, fuentes impresas, denominación administrativa, deformación toponímica.

Arabako Jugalez ibaiaren izenak zenbait gorabehera izan ditu XVII. mendearen erdian dokumentatzen denetik gaur arte. XIX. mendean zehar, hiztegi geografikoetan eta mapetan agertutako akats-segida tarteko, izena itxuraldatzen joan zen, harik eta mende horren azken hamarkadetan *Inglares* forma hartu arte. XIX. mendearen bukaeran eta XX.aren hasieran, itxuragabetutako izena azkar zabaldu zen, batez ere administrazioaren bidez. Guztia erekin ere, izenak bizirik iraun du ibaiaren behe ibilguko herri erabileran, *Jubalez* aldaerarekin, XX. mendearen erdira arte.

Gako-hitzak: Jugalez ibaia, dokumentazio historikoa, iturri inprimatuak, izendapen administratiboa, itxuraldatze toponimikoa.

Le nom du cours d'eau alavais Jugalez a subi de nombreuses vicissitudes selon des documents datant du milieu du XVII^e siècle. Au cours du XIX^e siècle, suite à une succession d'erreurs sur des dictionnaires géographiques et des cartes, ce nom a été déformé pour devenir *Inglares* au cours des dernières décennies de ce siècle. A la fin du XIX^e et au début du XX^e siècle, ce nom déformé s'est étendu rapidement, principalement par la voie administrative. Malgré cela le nom a continué d'exister dans l'usage populaire pour nommer le niveau inférieur de ce cours d'eau jusqu'au milieu du XX^e siècle, avec la variante *Jubalez*.

Mots-clés: Cours d'eau Jugalez, documents historiques, sources imprimées, nom administratif, déformation toponymique.

The name of the Jugalez river has undergone a number of alterations since it was first documented in the 17th century. During the 19th century, due to a succession of mistakes in geographical dictionaries and maps, the name gradually transformed and by the last decade of the century it had become *Inglares*. At the end of the 19th century and at the beginning of the 20th, the distorted name quickly spread, mainly via public administration. Even so, in popular usage along the lower course of the river, the name lived on as the variant *Jubalez* until the middle of the 20th century.

Keywords: river Jugalez, historical documentation, printed sources, administrative references, toponymic transformations.

1. Introducción y localización geográfica del río

El nombre de este río ha sufrido diversas vicisitudes a lo largo de la historia, desde que en 1654-1655 se documenta por primera vez en las fuentes escritas con la forma *Jugalez*, hasta su alteración en *Inglares*, por error cartográfico, a finales del siglo XIX, y su rápida expansión a principios del XX, por vía principalmente administrativa.

Con el fin de obtener los testimonios más antiguos y rastrear cronológicamente su presencia y evolución histórica, así como para conocer los motivos y fases que han llevado de la forma original *Jugalez* a la tardía *Inglares*, no me he limitado a la consulta y estudio de los datos ya publicados, sino que he procurado, en buena medida, cotejarlos directamente con las fuentes originales y, siempre que me ha sido posible, también he recogido nuevas evidencias documentales, principalmente en el Archivo del Territorio Histórico de Álava (ATHA), Archivo Histórico Provincial de Álava (AHPA) y Archivo Histórico del Ayuntamiento de Zambrana. En este punto deseo agradecer expresamente la eficaz ayuda y excelente disposición que he encontrado por parte de Kepa Salsamendi, archivero del ATHA, y de Julia Espina, archivera de la Cuadrilla de Añana.

El objetivo del presente trabajo es proporcionar un estudio acerca del nombre del río Jugalez que pueda serle de utilidad a la Comisión de Onomástica de Euskaltzaindia / Real Academia de la Lengua Vasca para la emisión del dictamen que le ha solicitado la Viceconsejería de Política Lingüística a petición de URA, la Agencia Vasca del Agua. Así mismo, este informe aspira a ser un instrumento de divulgación sobre esta materia, accesible a las instituciones concernientes –comenzando por las de ámbito municipal– y, por supuesto, a la ciudadanía interesada.

El mapa oficial de la Provincia, editado por la Diputación alavesa en 1917, vino a añadir una errata más en la larga lista de ese río. Se puede leer en él «**Río Inolares**», junto al cauce fluvial de Berganzo hacia Paiueta. Ese error tipográfico no tuvo continuidad en posteriores publicaciones cartográficas o de otro tipo.

Así, en la obra de referencia que fue la *Geografía General del País Vasco-Navarro*, coordinada por Francesc Carreras en el periodo 1915-1921, es *Inglares* la única forma presente en el tomo III, referido a Álava:

Zambrana [...] Riegan su término los ríos Ebro, Zadorra e **Inglares** (p. 697).

Ocio [...] Villa que está situada en un valle pequeño rodeado de montañas, y que atraviesa el río **Inglares** (p. 672).

Berganzo [...] Pasa por medio de la villa el río **Inglares**, que la divide en dos barrios (p. 645).

⁴³ www.memoriadigitalvasca.es/handle/10357/6536

⁴⁴ Incluido en la *España Regional* de la Editorial Alberto Martín, ilustrando los textos descriptivos de Ceferino Rocafort y Casimiro Dalmau (Barcelona, 1900). Esos mapas se publicaron también separados por provincias, entelados y encarpados dentro de la *Colección de Cartas Corográficas de las Provincias y Capitales de España*, que fue aprobada por el Ministerio de Instrucción Pública y Bellas Artes como texto de enseñanza en 1904.

Montoria [...] Riega su término un arroyo que es afluente del **Inglares** (p. 681).

Peñacerrada [...] El territorio de este ayuntamiento está regado por el río **Inglares** y algunos arroyos de escasa importancia (p. 678).

En esa obra, Pipaón no está incluido en el curso de dicho río, y reciben otro nombre las aguas que discurren por esa población:

Pipaón [...] Atraviesa el centro de su jurisdicción el río del **Puerto**, bastante abundante en aguas (p. 682).

De hecho, es ésta la descripción del río que figura en la *Geografía General del País Vasco-Navarro*:

Inglares. Afluente del Ebro que tiene su origen cerca del pueblo de Peñacerrada con la reunión de varios arroyos que descienden de la sierra de Toloño, cerca del lugar de Montoria, y las colinas de Loza.

En la década de los años treinta, el Instituto Geográfico y Catastral realizó detallados trabajos topográficos, en escala 1:25.000, que también comprenden el cauce del río Jugalez. La hoja correspondiente al término municipal de Zambrana está firmada el 15 de febrero de 1927 por el topógrafo Vicente de Vidania. En ella aparece escrito «**Río Inglares**» junto a su desembocadura en el Ebro, y tiene cerca el término «**Puente Jubalez**». En la hoja del término municipal de Berantevilla y anejos, firmada el 26 de febrero de 1927 por el mismo topógrafo, está indicado el término «**Jubalez**» en las inmediaciones de Santa Cruz del Fierro y, corriente arriba, el «**Río Inglares**». Así mismo, en la hoja del término de Peñacerrada, concluida por el topógrafo Gonzalo Sánchez el 1 de marzo de 1927, el río recibe el nombre «**Inglares**» entre Paiueta y Urizaharra y, más arriba, hacia el término de Pipaón.

Como parte de los trabajos topográficos, el Instituto Geográfico y Catastral también hizo reconocimientos de mojones. Así, en el acta de la operación practicada para el reconocimiento de los correspondientes a los términos de Zambrana y Berantevilla, de agosto de 1926, se halla una doble referencia toponímica: el río y el puente que cruza éste:

83º mojon. Se reconoció como tal un guijarro irregular, empotrado en el suelo, [...] en el paraje denominado «**Puente Jubalez**», en línea de dos tierras de labor [...] que quedan al Este y Oeste del mojón, respectivamente, a ocho metros al Sur de la margen izquierda del **río Inglares** y veinte metros al Este de la carretera de Logroño a Vitoria, donde la cruza el citado río y está el puente que da nombre al mojón.

Es este un buen ejemplo de cómo la denominación exógena *Inglares*, –producto de un error cartográfico de transcripción luego empleado por las instancias oficiales y administrativas– desplaza al nombre tradicional *Jugalez* (posterior *Jubalez*) como denominación del río, pero no afecta al topónimo *Puente Jubalez*, que, precisamente, contiene el nombre popular del río.

La presencia del nombre *Inglares* en esos trabajos topográficos de 1926-1927 –y en otros testimonios anteriores de carácter administrativo– no significa necesariamente que para entonces hubiera caído en desuso, al menos en Zambrana. Eso queda confirmado por un dato más tardío, de 1940. Se trata de la declaración de una finca rústica de Valentín Suso, vecino de Zambrana, como propietario de una finca en el término «**Rio Jubalez o Inglares**».⁴⁵

En definitiva, a la luz de la documentación disponible, cabe concluir que, desde los últimos años del siglo XIX, hasta, al menos, la mitad del XX, han coexistido en el entorno de Zambrana y Santa Cruz del Fierro dos formas, ambas vigentes en distintos ámbitos. Mientras el vecindario usaba popularmente el nombre *Jubalez*, que lo tenía por tradición, también conocía la forma advenediza *Inglares*, que empleaba para dirigirse a las instancias oficiales.

6. Conclusiones

Desde la documentación de mediados del siglo XVII se comprueba que ya entonces el río recibía el nombre *Jugalez* en su curso más bajo, en la zona

⁴⁵ ATHA DH-2481-1

de Zambrana y Santa Cruz del Fierro. Y esa es también la denominación hegemónica en los documentos municipales y notariales del XVIII, salvo ligeras variaciones ortográficas.

La primera alteración notable del nombre se produce en 1798, pero no por transmisión popular, sino por vía erudita. Es en la obra *Los compendios históricos de la ciudad y villas de la M. N. y M. L. provincia de Alava* del historiador Joaquín José de Landázuri donde recibe el doble nombre de *Yuglarez* o *Yugalez*. A falta de una evolución fonética natural de *Jugalez* a estos, deben interpretarse como transcripciones incorrectas del original, convertida la sílaba inicial de *Ju-* en *Yu-*, y otras evidentes alteraciones que afectan a *Yuglarez*. Esas formas nuevas tuvieron gran proyección a través del Diccionario de la Real Academia de la Historia (1802). También contribuyó a ello el Diccionario geográfico-estadístico-histórico de España (1846-1850), en ese caso en favor de la variante *Yugalez*.

De ese modo, la forma original *Jugalez* quedó arrinconada, sin presencia en las grandes publicaciones y en las producciones cartográficas. A partir de la mitad del siglo XIX, será la variante *Yuglarez* la que prevalecerá en las fuentes impresas, comenzando con el *Mapa de Álava* (1848) realizado por Francisco Coello y otras obras del mismo autor de 1874 y 1875. Sin duda, el prestigio de Coello y la notable difusión de su obra ayudaría a que la denominación *Yuglarez* fuera acogida también por Ricardo Becerro de Bengoa en su libro *Descripciones de Álava*, escrito en 1880.

Sin embargo, el empleo del nombre *Yuglarez* era divergente del uso popular, pues las gentes del curso bajo seguían llamándolo, no ya *Jugalez*, sino mutado a *Jubalez*, durante la segunda mitad del siglo XIX y primera del XX. Es el mismo nombre que recibe hoy en Santa Cruz del Fierro un término ribereño del río. A partir de ese término se fue extendiendo la denominación a todo el curso fluvial. El nombre, deformado ya en *Inglares*, no empezó a utilizarse en Berganzo, Paiueta, Urizaharra y Pipaón hasta la última década del siglo XIX y, principalmente, comienzos del siglo XX.

La deformación de *Yuglarez* a *Inglares* la hemos documentado por primera vez en 1876, año en que el Depósito de la Guerra publicó el *Mapa Itinerario de las Provincias Vascongadas y Navarra*. Se lee ahí con claridad «R.

Inglares». Es una transcripción equivocada de *Yuglarez*, quizá tomada de los trabajos de Coello. La Y- fue entendida como I-, y es fácil la confusión de -u- y -n- en escritura manual. El error se trasladó a otros mapas militares.

En 1897 se puso en funcionamiento la central hidroeléctrica de Berganzo y en la primera década hubo un largo pleito entre los pueblos de Zambana, Santa Cruz del Fierro y Ozio por una concesión de agua solicitada para construir otra central en esa última población. Intervinieron la Diputación de Álava y el Gobierno Civil. En todas las instancias y notificaciones oficiales fue *Inglares* la única forma utilizada, y ese uso contribuyó a expandir rápidamente el nombre también aguas arriba del río. Sin embargo, en el curso bajo del río, donde el uso del nombre *Jubalez* estaba arraigado por tradición, el río se ha seguido llamando popularmente con ese nombre al menos hasta la década de los cuarenta del siglo XX. Y hasta el presente perdura en Santa Cruz del Fierro el nombre *Jubalez* con que se conoce una amplia heredad que bordea dicho río. Por todo ello, se considera necesario recuperar y revitalizar el uso del nombre original y tradicional **Jugalez**, como denominación del río.

Bibliografía

ACADEMIA DE LA HISTORIA, 1802, *Diccionario geográfico-histórico de España*. Madrid.

ADÁN DE YARZA, R., 1885, *Descripción física y geológica de la Provincia de Álava*. Madrid: Memoria de la Comisión del Mapa Geológico de España.

ALONSO, P., 1991, *Real Privilegio de Villazgo concedido al Lugar de Pipaón*. Vitoria-Gasteiz: Diputación Foral de Álava.

BARAIBAR, F., 1895, «Lápidas romanas inéditas de Marañón, Pancorbo, San Martín de Galbarín y Luzcando, en las provincias de Navarra, Burgos y Álava», t. 26. Madrid: Real Academia de la Historia.

BECERRO DE BENGOA, R., 1918, *Descripciones de Álava. Libro inédito de Ricardo Becerro de Bengoa. Escrito el año de 1880. Prólogo e índices por Ángel de Apráiz*. Vitoria-Gasteiz: Real Ateneo.

CARRERAS, F. (coord.), 1915-1921, *Geografía General del País Vasco-Navarro*. Barcelona: Ed. Alberto Martín.

CHASCO, J. Á., 2017, *Sierra de Toloño. Nexo de la Montaña y la Rioja Alavesa*. Bilbao: Euskaltzaindia / Real Academia de la Lengua Vasca.

CHÍAS, B., 1900, *Mapa de la Provincia de Álava*. Barcelona: Ed. Alberto Martín.

COELLO, F., 1848, *Mapa de Álava*. Madrid: Imprenta del Atlas de España.

———, 1874, *Mapa de las Provincias Vascongadas y Navarra*. Madrid.

———, 1875, «Noticias sobre las vías, poblaciones y ruinas antiguas especialmente de la época romana en la provincia de Álava». Madrid: Imprenta de T. Fortanet.

CONFEDERACIÓN HIDROGRÁFICA DEL EBRO, 2010, *Aplicación del Índice Hidrogeomorfológico IHG a la cuenca del Ebro. Subcuenca del río Inglares*. Zaragoza: Mastergeo S. L.

DEPÓSITO DE LA GUERRA, 1883, *Narración militar de la guerra carlista de 1869 a 1876 por el Cuerpo de Estado Mayor del Ejército*. Madrid.

EUSKALTZAINDIA, 2014, (ed. Andres Iñigo y Patxi Galé), 2014, *Euskal Herriko ibaiak - Ríos de Euskal Herria*. Bilbao: Euskaltzaindia / Real Academia de la Lengua Vasca - Comisión de Onomástica.

GONZÁLEZ ROJAS, F., 1892, *Mapa itinerario de las provincias vascongadas y Navarra*. Madrid.

GONZÁLEZ SALAZAR, J. A., 1986, *Cuadernos de toponimia 2. Toponimia de la Montaña Alavesa*. Vitoria-Gasteiz: Diputación Foral de Álava.

———, 1989, *Cuadernos de toponimia 6. Toponimia menor de Añana*. Vitoria-Gasteiz: Diputación Foral de Álava.

———, 2005, *Montaña Alavesa. Comunidades y pastores*. Vitoria-Gasteiz: Diputación Foral de Álava.

LANDAZURI, J. J., 1798, *Los compendios históricos de la ciudad y villas de la M. N. y M. L. provincia de Álava*. Pamplona / Iruñea.

LÓPEZ, T., 1770, *Mapa de la M.N. y M.L. Provincia de Alava. Comprehende las Quadrillas de Vitoria, Salvatierra, Ayala, Guardia, Zuya, Mendoza y sus cinquenta y*

tres Ermandades. Construido por las memorias de los naturales. Madrid: Tomás López e Hijos.

LÓPEZ DE GUREÑU, G., 1989, *Toponimia alavesa*. Bilbao: Euskaltzaindia / Real Academia de la Lengua Vasca.

MADOZ, P., 1846, *Diccionario geográfico-estadístico-histórico de España*. Madrid: Establecimiento tipográfico de P. Madoz y L. Sagasti.

MARTÍN, C., 2002, *Ruedas y molinos en Álava, Ohitura* 10. Vitoria-Gasteiz: Diputación Foral de Álava.

OJEDA, R., 1998, *Aquellas viejas 'fábricas de luz'. La explosión del mundo hidroeléctrico en la cuenca alta del Ebro*. Miranda de Ebro: Instituto Municipal de Historia.

PORRES, R., 1994, «Zambrana durante el reinado del primer Borbón: El Privilegio Real de Villazgo y sus vicisitudes» en *Zambrana. Real Privilegio de villazgo. Conmemoración del 250 aniversario (1744-1994)*, coord. Martínez de Salinas, F. Vitoria-Gasteiz: Diputación Foral de Álava.



Euskal toponimo zenbaiten ingurumarian

Acerca de varios topónimos vascos

Autour de quelques toponymes basques

Basque toponyms in various areas

ERDOZIA MAULEON, Jose Luis

Euskal Filologian doktorea eta Geografia eta Historian lizentziaduna

Noiz jaso: 2017-09-29

Noiz onartua: 2018-04-13

Euskera. 2017, 62, 2. 249-288. Bilbo
ISSN 0210-1564

Artikulu honetan, bere hasieran euskal toponimiari buruzko zenbait burutazio agertzeaz gain, autoreak, egun oraindik ia azalpenik gabe diren toponimo nagusi batzuen eta ikuspegi ezberdina jasotzen duen beste batzuen inguruan bere iritzia eta proposamena ematen du. Azken hauen artean, Nafarroako Burunda eta Burgoseko Atapuerca toponimo nagusiak izan ditu hizpide autoreak; eta, besteen artean, berriz, *ara-* osagaia duten hidronimo eta oronimoak bereziki (*Arakil, Aralar, Araña, Arbizu, Arruazu, Araia, Aragon, Arga, Arazuri, Araotz...*) eta oso zabalduak diren *sare, sarobe/sarabe, saroi* toponimo osagaiak.

Gako-hitzak: Toponimia, transkribapenak, Atapuerka, *Ara-* aurrizkidun toponimoak, Burunda, sare.

En el presente artículo, en su inicio el autor nos ofrece algunas consideraciones sobre la toponimia vasca y, posteriormente, nos da su opinión y propuesta acerca de algunos topónimos que hasta la fecha no han sido objeto prácticamente de comentario alguno por parte de los toponimistas, así como una visión diferente con respecto a otros topónimos mayores. Entre estos últimos, los referidos al navarro Burunda y al burgalés Atapuerca; y entre los anteriores, especialmente los hidrónimos y orónimos que llevan el componente inicial *ara-* (*Arakil, Aralar, Araña, Arbizu, Arruazu, Araia, Aragon, Arga, Arazuri, Araotz...*), así como los tan extendidos *sare, sarobe/sarabe, saroi*.

Palabras clave: Toponimia, transcripciones, Atapuerka, topónimos con el prefijo *Ara-*, Burunda, sel.

Au début de cet article, l'auteur nous présente quelques réflexions sur la toponymie basque, puis nous donne son opinion et ses propositions à propos de certains toponymes qui n'ont jusqu'à ce jour pratiquement pas été étudiés par les toponymistes. Il nous donne également un point de vue différent sur d'autres toponymes majeurs, en particulier les toponymes majeurs de la vallée navarroise de Burunda et de Atapuerca dans la région de Burgos, mais aussi les hydronymes et les oronymes qui débutent par *ara-* (*Arakil, Aralar, Araña, Arbizu, Arruazu, Araia, Aragon, Arga, Arazuri, Araotz...*), ainsi que *sare, sarobe/sarabe, saroi* qui sont très courants.

Mots-clés: Toponymie, transcriptions, Atapuerka, toponymes commençant par *Ara-*, Burunda, sare.

At the beginning of this article the author makes various observations on Basque toponymy and goes on to give his opinion and proposals on several toponyms that to this day are virtually unexplained and offer a different take on some other major toponyms. Amongst the latter, Burunda in Navarre and Atapuerca in Burgos; and amongst the former, in par-

ticular, toponyms that refer to bodies of water or mountains and have the component ara- (*Arakil, Aralar, Araña, Arbizu, Arruazu, Araia, Aragon, Arga, Arazuri, Araotz...*) and the widespread toponymic components *sare, sarobe/sarabe, saroi*.

Keywords: toponymy, transcriptions, Atapuerca, toponyms prefixed with *Ara-*, *Burunda*, *sare*.

1. Sarrera

Artikulu hau idazterakoan izan dudan asmo bakarra izan da zenbait toponimoren gainean eraikitako ikuspegiei batzuetan, eta ia inolako azalpenik gabe direnei beste batzuetan, beste interpretazio bat edo ikuspegi berria ematea. Toponimo horien gainean nire ikuspuntua emateko helburua baino ez du, beraz, hemen jasotakoak, Patxi Galeren ondorengo testuan esaten denaren ildotik jarraituz:

Ikerketen helburua: Askotan esan ohi da toponimia ikerketak ez direla sekula santan amaitzen. Eta egia da. Egitasmo batean ordu asko sartu dituen ikertzaileak, bere lanaren emaitzak albait modurik biribilenean aurkeztu nahi izaten ditu. Bere lana amaitutzat emateko gogoia izaten du. Gainera pentsatuko du ikertu duen eremua, jadanik ez dela berriro ikertu behar, gaia ahiturik dagoela, alegia. Baina gauzak ez dira hain sinpleak. Ikerketa bat amaitzen denean, ondoren etorriko diren beste ikerketa batzuen oinarri huts izatera pasatzen da. Toponimiaren munduan –eta ikerbide zientifiko orokorrean ere halaxe da–, amaituriko ikerketa bat beste ikerketa batzuetarako informazio iturri bat besterik ez da izango aurrerantzean. Badaude iker-tzaileak, ordea, beren herriko toponimia aztertu nahi duten belaunaldi berriei oztopoak jartzen dizkietenak. Zertarako alferrik lan egin? Nik egina dut ikerketa hori! Hobe duzue dirua beste edo-zertan gastatzea! Baina ikergaiak ez dira ikertzaileen jabetza, noski, eta kontuan izan behar dugu aurrerapen zientifikoa beti oinarritzen dela aurrekoek egindako aurkikuntza eta urratsetan. Hortaz, sobran daude deskribatu ditugun jarrera horiek. Kontrara, gure aurrekoek egindako lana ezagutu beharra dago, alde batetik, eta, bestetik, ikerketa berriak bultzatu behar ditugu aldi berean. (Galé, 2007, 165)

Hala ere, toponimoen gaineko nire ikuspuntua ez da izanen, besterik gabe, aipatu toponimo horiek etxeko epelean hartu eta haien balizko jatorria edo etimologiari buruzko interpretazioa ematea. Alacanteko Unibertsitateko Román del Cerro irakasleak markatzen duen ildo jarraitu nahi izan dut, ahal izan dudan guztietan, hemendik aurrerakoak esateko:

De ahí, que forme parte esencial de la metodología toponímica la inspección ocular del topónimo y la encuesta entre las gentes del lu-

gar. Sin este requisito de verificación, cualquier hipótesis o análisis toponímico se convierte en mera especulación y deja de ser científico.

2. Euskal toponimiaz

Toponimoak gure aurrekoek aspaldi jarritako leku-izenak dira eta izen horiek egun erabiltzen ditugun moduan jaso ditugu, belaunaldiz belaunaldiko transmisio katean. Eta transmisio horri oso garrantzitsu deritzot, ezen azken ehun urtean gutxienik egun erabiltzen ditugun moduan burutu direla toponimoak ziurta badezakegu (duela ehun urte baino lehenagoko testigantzak ditugu herri gehienetan), zergatik pentsatu beharko genuke aurretik ere ez dela horrela gertatu? Are gehiago jakinik azken berrogeita hamar urtean gertatu dela hizkuntzen eremuko eragileen (ikus-entzunezkoak, Internet...) hazkundera eta, hala ere, toponimoek berean (azken ehun urtekoan, esan nahi da) iraun dute.

Bestalde, toponimo horietako batzuk aspaldian dokumentaturik ere ageri zaizkigu eta hauxe, batzuetan, lagungarri suertatzen da toponimoaren esanahia ulertzeko. Hala dio Michelena maisuak (1989, 12-13) ere:

Tratándose de una disciplina histórica como la nuestra, parece inútil encarecer la importancia de las formas antiguas consignadas en documentos o inscripciones y, sin embargo, no siempre se han tenido suficientemente en cuenta en nuestros estudios y no sólo por quienes se dedican a trabajos toponímicos. Aunque su testimonio no siempre sea inapelable –hay la posibilidad de errores de transcripción o copia–, tienen frente a cualquier etimología meramente supuesta el valor de un hecho frente a una hipótesis. Es inútil hacer suposiciones ingeniosas para explicar, p.ej., Goizueta cuando un documento de la segunda mitad del siglo XII nos da la forma Goizuuieta; de la misma manera, Echarrri queda perfectamente explicado por la forma atestiguada Echauerri.

Michelenak, bistan da, garrantzi handia ematen dio dokumentazioari, baina hala ere, onartzen du dokumentazioan agertzen den modua ez dela beti segurutako hartu behar, aukera dagoelako testua transkribatu edo kopiatzerakoan

akatsak egiteko. Eta nik gehituko nuke are gehiago egon daitezkeela akatsak euskararen kasuan, transkribatzaileak (notarioa, idazkaria, eskribaua...) ez bazuen euskara ezagutzen. Ohikoak dira horrelako kasuak Euskal Herriko artxiboetako dokumentuetan. Ondorengoak, esate baterako, Fernando Maioraren *Reino de Navarra. Injurias, coplas, frases* (2011) liburutik jasoak dira:

ura yreua çama duny (...) bay, eta Mari Joan here yre uazama duni¹ (AGN. N^o- 281231).

çaute apurcho bat biguel eretatecen onec beyan jonac dio² (AGN. N^o-27598).

alquirit uquinunbaçin du eçinan etorrigo onera³ (AGN. N^o-29604)

bay, bada chucendu elcar bear gudu (...) bay bada elcar xuxendu bear dugu (...) bay bada çuc edo nic oren ayer bacayzquit ercal chuçendu bear dugu (...) bay bada ercal chuçendu bear gudu cuc edonic (...) bay bada elcar jugen dubar dugu⁴ (AGN. N^o-149762)

Bereziki aipagarria azkena, dokumentu berean informazio berbera jaso eta hainbat modu ezberdinetan idatzirik ageri baita: *elcar/ercal, gudu/dugu, chucendu bear/xuxendu bear/jugen dubar*.

Ekaitz Santaziliak (2015) ere, Maioraren liburuiko euskaraz idatzitako esaldiak aztertu ondoren, honek transkripzioetan «huts franko» egin dituela dio:

Arantzarik gabeko arrosarik ez baita, Maioraren liburuak eta bertan jasotako pasarteek ere badute itzalik. Liburuaren egileak ez du euskara menperatzen eta ez du hizkuntzaren historian eskarmenturik, ondorioz, traskribapenetan huts franko daude.

¹ Bere batuko ordaina, seguru asko: «hura hire ugazama dun (...) bai, eta Mari Joan ere hire ugazama dun»

² Honena aldiz: «zaudete apurtxo bat giblele(ta)rat ezen honek behiari jo nahi dio»

³ Beste honek: «ahalkerik ukanen (ukinun) bazenu (bazindu) ez zinen etorrigo hon(er)a»

⁴ Eta azkenik: «bai, bada zuzendu elkar behar dugu (...) bai, bada elkar zuzendu behar dugu (...) bai bada zuk edo nik oren (?) haiek bazaizkit elkar zuzendu behar dugu (...) bai bada elkar zuzendu behar dugu zuk edo nik (...) bai bada elkar zuzendu behar dugu»

Orduan, jakina, XXI. mendeko autoreek huts egin badezakete garai bateko eskuizkribuak transkribatzerakoan, nola ez zuten huts eginen ordukoek haiendako arrotza zatekeen hizkuntza entzun eta, ondoren, idatzi behar zutenean?

Toponimian ere, ugari dira horrelakoak, *Echaerri de Arandas* ageri da transkribaturik *Ordenanzas de la Hermandad de Gipuzkoa* (1375-1463) liburuan, esate baterako.

Era berean, ados egonik egintzak edo egitateak hipotesiak baino balio gehiago duelakoan, ez genuke ahaztu behar toponimoen egungo formak ere garaian garaiko egintza direla eta beste hainbat hipotesiren aurrean balio berbera aitortu beharko geniekeela, batez ere toponimoak nola idatzi behar ditugun erabakitzerakoan. Halaxe dio Michelenak berak ere (1989, 13-14):

Tratándose de formas atestiguadas en la lengua actual o en los textos la cuestión es menos insegura: las principales discrepancias surgen cuando se trata de restablecer la forma primitiva que explique las diversas variantes. Pero a veces hay que admitir, por necesidades teóricas, variantes no documentadas y aquí todo depende de la idea que cada uno se hace de la evolución fonética de la lengua.

Garrantzitsua iruditzen zait, bestalde, erreteriar maisuak, atal honetan jaso dudan bere lehen aipuan, toponimiari aitortzen dion izaera, diziplina historikoa, interpretazioari lotua, beraz, hein handi batean eta, hala izanik, bere gainean interpretazio ezberdinak jaso ditzakeena, toponimoaren osagaiak nabarmenak ez direnean bereziki. Horregatik, ustezko azalpen zenbait, burutsuak edo ez hainbestearainokoak, ematen dira maiz, eta horrek ez du esan nahi etimologia fikzioa egiten denik horrelakoetan, fikzioak (itxurapena edo asmaketa) berarekin baitakar errealitatean ez oinarritzea derri-gorrean, eta nik ez dut uste toponimian ari den inork halako helburua izan dezakeenik.

Hala ere, nire ustean, hizkuntzalari handiak lehentxeago aipatzen nuen bere aipuaren amaieran jartzen duen adibideetako baten kasuan, berak adierazten duen ustezko azalpen burutsua («suposición ingeniosa») egiten du, ez baitut, nik behintzat, inoiz *Etxarri* toponimoa *Etxaberri* bezala dokumentaturik ikusi, ezta *-berri* osagaia duen toponimorik kontsonante ezpain-

karia galduta duela ere. Ez da gaur egun eztabaidarik bere grafiari buruz, baina kasu oso adierazgarria iruditzen zait dokumentazioaren erabateko fidagarritasunaren aurka egiteko eta, horrexegatik, luzatuko naiz zertxobait bere azalpenean.

Toponimoaren dokumentazioaren historian zehar, XII., XIII., XIV. eta XV. mendeetako zenbait dokumentutan modu ezberdinetan agertu da idatzirik: *Echarri*, *Echarrin*, *Echerri*, *Cherri*, *Eschierry* eta bitan baino ez bada ere *Echaerri*.

Etxeberri izen konposatutik eratorri zuen, orduan, Michelenak: *etxe + berri* > *etxaberri* (-e > -a konposizioan) > *etxaerri* (bokal arteko ezpainetako herskari ahostunaren galera) > *etxarri* (erdiko bokalaren erortzea).⁵ Hauxe da egun jarraitzaile gehien dituen azalpena. Hala ere, nik ez dut uste horiek direnik bere osagaiak, ezen herria bai izan zen eraikuntza berria (XIV. mendekoa), baina dorretxea, gaztelua edo dena delakoa, aurretik zegoen bere izena eta guzti⁶, Aranazko «etxarria» (... *en la tierra de Araynaz*...). Eta, gainera, zergatik Aranatz haranekoaren izenak bere osagaien bilakabidea edo degradazioa jasan zuen eta, hamasei-hogei kilometro ekialderago, Arakilen daudenak (*Etxeberri* -*Echaverri* 1268ko Hamarrenaren liburuan-, *Hiriberri*, *Itsasperri*), aldiz, ez?

Bestalde, ez da batere ohikoa (nik ez dut horrelakorik aurkitu) toponimian *berri* osagaiaren kontsonante ezpainkaria erortzea konposizioan: *Aizaberri* (Arizkun), *Biliberri* (Atondo, Otsobi), *Butzuberri* (Gatzaga), *Erroberri* (Beintza-Labaien), *Etxolberriko harria* (Ultzama), *Gazteluberri* (Altsasu), *Iraperri* (Almandoz), *Itsasperri* (Arakil), *Ireber/Iriber* (Beruete), *Oianberri* (Etxalar), *Otsaberri* (Eugi), *Sarobeberri* (Leitza), *Jaberri* (Irati ibaia), *Xabier*, *Erriberri*, *Auritzberri*, *Ilunberri* (Lumbier), *Hiriberri* (Aezkoa), *Hiriberri* (Arakil)...

1268ko «Hamarrenaren liburua» arakatuz ere, ez da horrelakorik ageri: *Longuida* (4-*Lumbierr*, 41-*Xavierr*, 45-*Yriverri*, 53-*Liverri*, 58-*Olaverri*), *Elorz*

⁵ Parentesi artekoak nik erantsi dizkiot. Erreteriar maisuak horrela idatzi zuen: *Echarri* (*echa + berri* > *echaerri*; *Echerry* 1360).

⁶ ... *Berasco de Echarri y su muger Belça Çuria*... («El libro rubro de Iranzu», 1197), *Echarrin* (Hamarrenaren liburua, 1268)

(150-Yriverri), Valdorba (185-Leotz Yriverri), Artozqui (273-Yriverri, Chipua e Sarrassu), Arci (283-Yriverri), La Berroça (541-Mendirivarri), Aylin (559-Echavarri), Yerri (604-Yriverri), Arguinariz (637-Yriverri), Araquil (670-Echaverri, 683-Yriverri, 705-Yssasperry), Athetz (923-Yriverri), Ymotz (929-Yriverri), Larraun (957-Lecumberri), 1154-Yriverri Loyqu.

Toponimian aditua den Patxi Salaberri euskaltzainak (2011) ere, Michelena-ren proposamenarekin bat eginez, *-otz* atzizkiari buruz ari dela, ondorengoa dio:

Debemos recordar, no obstante, que en la zona centro-occidental de Vasconia en los últimos siglos de la Edad Media son abundantes los topónimos que presentan grupos vocálicos que posteriormente se han reducido, si bien la lengua oficial ha mantenido en algún caso⁷ grafías (y con ellas pronunciaciones) antiguas: Echaerri, Ollaoqui, Ozaeta / Etxarri, Olloki, Ozeta, etc.

Salaberrik, orduan, *Echaerri* toponimoak *ae > a* murriztapena Erdi Aroaren amaieran jasan duela iradokitzen du, baina Erdi Aroko azken mendeak XIV.a eta XV.a izanik, nola daiteke XII. mendean, 1197 urtean dagoeneko («El libro rubro de Iranzu»), *Echarri* dokumentaturik agertzea?

Aipatu *Echaerri* burutzapena, *Ordenanzas de la Hermandad de Gipuzkoa* (1375-1463) liburuan ageri da, XXXIII. tituluari dagokionez eta horietako bitan modu ezberdinean dago jasorik aztertzen ari naizen toponimoa: *Echaerri Darana*, 1457koan; *Echaerri de Arandas* (autoreak oharra eginik: «...probable error por «Echarri Aranaz»), 1463koan; eta *Echarri de Aranaz*, hirugarrenean. Hala ere, toponimo nagusi honen lehen osagaia, *Echaerri*, balizko *Echaverri* baten bilakabide moduan kontuan izatekoa iruditzen zaio bati baino gehiagori, ez ordea bigarrena, *Arandas*. Badirudi inork ez duela zalantzan jartzen bigarren haxe akatsa izan dela, baina beste kontu bat gertatzen da lehenarekin. Aipatzekoa iruditzen zait, bestalde, *Echaerri* burutzapena jaso duen dokumentuko indizean hainbat pertsonaren abizena, zeinaren bigarren osagaia *-berri* izanik kontsonante ezpainkaria erori ez den, ageri dela: *Iñigo de Echaberria*,

⁷ *Ozaeta* toponimoari buruz ari dela suposatzen dut.

Fortun Perez de Echavarri, Joan Martinez de Echevarria, Martin d'Echavarria, Iñigo Ruiz d'Echeverria, Ynego Ruiz de Echeberria, Pedro de Echeberria.

Bestela ere, *etxaberri* > *etxaerri* > *etxarri* izan bada toponimo honen bilakabidea, harrigarria da nola ez den bokal murriztapen hauxe, *-ae-* > *-a-*, gertatu bokal talde bera eta *-berri* osagaia duten beste batzuen kasuan: *ai-zaberri* > **aizarri*; *otsaberri* > **otsarri*; *olaberri* > **olarri*; *salaberri* > **salarri*; *plazaberri* > **plazarri*; *araberri* > **ararri*; *solaberrieta* > **solarrieta*...

Alde guztietatik begiraturik ere, bitan⁸ agertu *Echaerri* (dokumentu be-rean gainera) eta burutzapen segurutako ematea, ez zait oso objektiboa iru-ditzen, gutxienik horiekin *etxe* eta *berri* direla bere osagaiak ondorioztatu nahi bada.

Askoz ere ulergarriagoa litzateke *etxe* + (h)*erri*⁹ balira bere osagaiak. Kasu honetan, bigarren osagaiak (herri), eremua edo lurra adierazten du toponimian eta horixe bera eginen luke oraingoan ere, Aranatz haraneko eremua deskribatu, hau da, *etxe* tokia zela adierazi. Ez dugu ahaztu behar, aipatu eremuan hemeretzi herri ageri zaizkigula jasorik Felonesek (1982) argitaraturiko 1268ko dokumentuan, egun sei baino ez direnean zutik eta bizirik dirautenak.

Badirudi Arturo Campionek esan zuela Etxarri izenaren osagaiak «*etxe*» eta «(h)*arri*» direla, eta antzina gaztelua adierazteko erabiltzen zela pentsa-tzen omen zuen. Ez da ahaztu behar badirela toponimo nagusi moduan Etxarri gehiago Euskal Herrian barna, hala nola Larraungoa eta Etxaurikoa Nafarroan, eta Zuberoako iparraldean beste bat. Amaiurko oroitarrian ere, Nafarroako erregeen alde eta Gaztelakoen aurka, bertako gotorlekuan bo-rrokan hil zirenen omenez, horrela idatzia dator, izen arrunt moduan lexi-kalizaturik: «*Napar askatasunaren alde Amayurko echarrian borroka egin zu-ten gizonai betiko argia. 1522*». Gaztelaniako «bastida», «fortaleza» edo «baluarte» adieraziko luke, beraz, Etxarri izenak. (H)Arretxe ez bezala (hau etxea egiteko erabilitako ekaiaz ari zaigu), Etxarri eraikuntzaren izaeraz ari-

⁸ Ez dut nik behintzat besterik aurkitu.

⁹ Lehen osagaiaren amaierako *-e* > *-a* bihurtu konposizioan: *etxaerri* > *etxarri* edo *etxerri*.

ko litzaiguke (etxe-harri, gotorleku, harria bezain gogor edo sendoa), zerez egina dagoen adierazi beharrean, zertarako den azalduz, bigarren osagaia izenondo moduan harturik. Eta honen egiantz toponimikorik aurkitu nahian, esan behar dut badela horrelako osagaia eta kokapena duen beste toponimo bat, *Bidarri*¹⁰, Etxarri Aranatz herriaren sorrerako dokumentuan bertan, 1312an, ageri zaiguna. Eta OEHN begiratzuz gero ere, hortxe agertzen zaizkigu honen definizioak:

bidarri (V-ple, G ap. A; Lar, Añ, H) **1.** Enlosado, calzada. “Calzada” Lar y Añ. “1.º (G), calzada, suelo empedrado. 2.º (V-ple), losa, enlosado” A. * Eleak bear du etzauntza, eta etzautzarentzat bear da ondagiña. Ondagiñik ez dan lekuetan ezartzen da ondar legorra; eta ondar legorrik ez bada egiten da bidarria. “Calzada”. It Dial 46 (Ur arrizko etzalekua, Dv galtzada, Ipharris-tatzen da etzanlekhia). **2.** (V-gip ap. Etxba Eib; BeraLzM). “Hito, mojón” BeraLzM. “Piedra miliaria. Mugarrixa mugetan, bidarrixa kilometro bakotxian” Etxba Eib.

Julio Altadill historialariak ere horrela dio *Castillos medioevales de Nabarra* liburuan:

Entre las denominaciones con que se distinguía á las diferentes fortalezas, encontramos la de Bastilla o Bastida, palabra derivada del francés de aquella época, Bastide, y que según el P. Moret, significaba una casa fuerte ó torreón de campaña. De esta clase era la que existía en el propio paraje donde hoy se asienta el actual Etxarri-Aranaz. Y ya que

¹⁰ (6A) «Otro si queremos et nos place que los de la dha villa podades facer fornos cada uno en su casa para cocer buestro pan, et todo lo que sobre dho es vos otorgamos con tal condicion que los dichos labradores de la dha villa de Echarri que den et paguen al Rey nuestro Señor, et a los subcesores por todos los tiempos del mundo cada un año por la fiesta de San Miguel tres mil e trescientos sueldos por pecha, et cien sueldos por cena, et seiscientos sueldos de sanchetes por la Iglesia de Echarri, et por todos los heredamientos que a la dha Yglesia, sacando Aldava, et **Vidarri** que solian ser de la dha Iglesia de Echarri, et toda esta suma que los pobladores que son labradores de la dha tierra de Arainaz deven dar cada un año monta quatro mil sueldos Sanchetes según paresce por lur privilegio, et ultra del dho Privilegio deven sece sueldos mas los de la dha villa de Echarri por pimieta por si es a saber que los pobladores labradores de la dha villa deven tener en pie todos los heredamientos de la dha Iglesia et tener un Capellan que cante misa todos los dias del mundo por todo tiempo =» (Etxarri Aranazko udal artxiboa, *Libro de la Claveria de los Beneficiados de la Iglesia Parrochial de la Villa de Echarri Arañaz con diferentes Curiosidades*.).

ahora la citamos y en corroboracion de lo que ántes tenemos escrito en otra ocasión, acerca del modo con que se formaron varias otras poblaciones, como Biana, Huarte-Arakil, &, en torno de las fortalezas, vamos á recordar cómo nació la villa que nos ocupa, manifestación curiosa y oportuna, que dá idea de las costumbres de aquella época. Etxarri-Aranaz tomó su nombre compuesto, de Etxarri ó Etxerri, sitio donde se fundó, y Aranaz, lugar antiguo cuyos moradores pasaron á habitar en Etxarri. Don Sancho el Fuerte concedió Fuero á los vecinos de Aranaz, redujo sus pechas y concedióles algunos privilegios, reservándose para sí la iglesia llamada de Santa María de Etxerri con su heredad y pertenencias. Confirmó estos beneficios el Rey D. Teobaldo I y cedió tambien la iglesia y torre nombrada, a condicion de que no la pudieran vender ni enajenar. (1934, 36)

Eta hipotesiak hipotesi, *etxe* + *-(h)arri* izanagatik ere bere osagaiak, posible litzateke asimilazio atzerakariaren medioz zenbaitetan bokal irekia asimilaturik agertzea: *etxe(h)arri* > *etxarri* > *etxerri* > *txerri* (aferesia).

Horrela, *Cherri*, *Echerri*¹¹, *Eschierry*¹² ageri da XIV. mendeko dokumentu batean baino gehiagotan.

Toponimoek bilakabidea izan dute mendeetan zehar eta askotan erabat itxuraldaturik iritsi zaizkigu: *Otso* + *benta* > *Otxenta*, *Txuri* + *soro* > *Txui-xo*, *(H)aitz* + *gorri* + *be(he)* > *Aizkorbe*.... Orduan, jatorrizko burutzapenetik geratzen dena da toponimoa eta, horrexegatik, hortik aurrera horietako bakoitzak zer galdu edo aldatu duen haztatu behar. Eta haztatu aditza azpimarratu nahi dut, atzera berriz, ezen ziurtatzea beste kontu bat baita. Haztatzearekin, ikerketaren ondorio litzatekeen bilakabideren bat proposatzea adierazi nahi da; inola ere ez ziurtatu, ez behintzat kasu guztietan. Hala ere, proposamen guztiak baliagarri izan daitezkeelakoan nago, batzuetan zenbait aukera baztertzeko baino ez bada ere.

¹¹ NAOko 1360ko dokumentua, 14 kutxakoa, 76 zenbakia duena («Libro de las diezmas de la villa de Echerri»). Baita hurrengo oharreko autoreak 714 eta 716 dokumentuetan.

¹² Maria Teresa Ruiz San Pedro (1997). Dokumentu honetan idatzirik ageri den moduan, pentsa liteke *i(s)txi* + *herri* direla bere osagaiak, baina ez da ahaztu behar, herria eraiki eta hesitu (1312-1351) baino askoz lehenagokoa dela *Etxarri* izena, dorretxea baino ez zenekoa (1197koa gutxienik).

Bestalde, toponimo edo leku-izenek balio handia dute hizkuntzalaritzaren ikuspegitik, baina baita gizartearenetik berarenetik ere. Lekuak deskribatzen dizkigute batzuetan (*Iraigorri*), gertaerak kontatu beste batzuetan (*Joxanjelen iriyek bota zien zuluue*), edota beste mota batzuetako informazioak eman ere bai (*Irumugeta*, *Puttarri*). Eta hauek guztiak, kasu askotan, antzeman ezinak gertatzen zaizkigu denboraren poderioz. Horrelaxe gertatu da azken berrogei-berrogeita hamar urteetan Etxarri Aranatzeko ezaguna dugun *Txiñermuno* toponimoaren kasuan. Bi osagai argi ditu: *txiñer* (arima, izpiritu) eta *muno* (muino). Lehen osagaiaren kasuan, ezagunak dira oraindik herriko zenbait etxetan aipatu izenaren inguruko kontakizunak; eta bigarrenarenean, aldiz, ezaugarri edo gertaera geografikoa izanik, bertan ikusteko modukoa beharko litzateke, baina joan zen mendeko hirurogeiko hamarkadaren amaieran egindako partzela bilketaren garaian (concentración parcelaria), bide berrien zorua sendotzeko erabili zen muino horretako lurra, legartsua nonbait, hauxe desagerraraziz.

3. Atapuerca (Burgosko toponimo nagusia)

«Porka» izenak¹³, Sakana erdialdean, gai baten multzoa adierazten du eta gai horren zatiek nolabaiteko harremana edo lotura erakusten dute. Gaztelaniako ‘horca’, ‘sarta’, ‘ristra’ eta ‘racimo’ hitzak ordezkatzeko ditu: *artaporka*, *mahatsporka*, *baratxuriporka*... Etxarri Aranatzeko *izporka* ere erabiltzen da, izen eta izenondo moduan, ‘hitz andana’ eta ‘hitzontzi’ adierazten duelarik kategoria bakoitzean.

OEHN modu ezberdinetan dago jasoa, baina esanahi berarekin: *morka*, *borka* (AN-ulz, Sal, R; Lh), *porka* (G-nav, AN, B).

Eta badirudi hedapen zabalagoa izan duela burutzapen honek, betiere toponimiari erreparatzen badiogu. Ezaguna dugu guztiok, azken hamarkada hauetako arkeologia indusketak medio, Burgosko *Atapuerca* toponimoa. Toponimo honen etimologiari buruzko iritzia duela hamar urte gutxi gorabehera eman zuen Xabier Kintana euskaltzainak (*Diario de Navarra*, 2007-07-30). Jose Mari Satrustegiri entzun omen zion lehen aldiz hitz horrek euskal etimologia ukan

¹³ Euskaltzaindiaren hiztegiaren ‘morka’.

zezakeela. Badirudi lehen osagaian oinarritu zuela aipatu euskal etimologia Kintana jaunak, ezen bigarrena gaztelaniako lehenaren oihartzun gisa azaltzen baitu. Honela jarraitu zuen, orduko hartan: (Bere ustean, hitz horretan),

...biki edo geminatu semantiko deitu ohi denaren kasu bat genuke, hau da, esangura bereko bi hitz, euskaraz bata, gaztelaniaz bestea, elkarrekin lotuak. Hortaz, jatorriz *Atapuerta genuke, hots ate-puerta, hitz bakarrean era bereko bi fonema gerta ez zitezen, hasierakoak eraginda, bigarren /t/-a disimilatu eta /k/ bihurtuz. Horretara, *aTa-puerTa-tik Atapuerca-ra iragan bide zen, ondoren, eskualde hartan euskara galtzean, gaztelaniazko puerco/a hitz arruntarekin herri-etimologia faltsua sortu arte.

Nik ere uste dut Jose Mari Satrustegik intuizio handia erabili zuela, baina seguru asko toponimoaren osagaiak ezagunak egingen zitzaizkiolako. Lehena, *ate*, oso hedatua dago Euskal Herri osoan eta, bigarrena izan daitekeena, *porka* hitza, oso erabilia izan da duela gutxi arte Sakana osoan, gorago esaten nuen esanahiarekin. Hala ere, toponimo honen osagaiak hauek badira, kasu honetan ere gaztelaniak izan du eragin zuzena bere bilakabidean, jatorria latinekoa duten beste kasu batzuetan gertatu den moduan, bokal erdiaren diptongazioa burutuz, hau da, *o* > *ue* bihurtu du. Hala gertatu da, esate baterako, *portam* > *puerta*, *solum* > *suelo*, *forum* > *fuero*... hitzen kasuan.

Diptongazio berbera aipatzen digu Salaberrik (1997, 9) -tz(a) atzizkiaz ari dela: «egokiro azal daitekeen beste bailara izen bat euskaraz -toponimia txikia lekuko- *Berroza* (*Berrotza?*; *Berrueza* erdaraz) deitu izan dena dugu;...»

Eta erdiko bokalaren diptongazioaren teoria berrestera dator nik joan den urteko martxoaren amaieran ezagutu nuen «Historia documentada de ATAPUERCA» artikulua, Burgosko Unibertsitateko Luis Martínez García Erdi Aroko Historiako irakasleak argitaratua. Besteak beste, toponimoaren dokumentazioan arakatu eta gero, ondorengoak esaten ditu:

El primer documento escrito en el que aparece el nombre de Atapuerca es del año 936. Una tal Doña Fronilde, dona al Monasterio de Cardeña, entre otras, la villa de Orbaneja de Río Pico, donde dice; ...*per summa serra de Adtaporka usque ad ecclesie Sancti Vincenti que est super illa cueba*... El segundo en antigüedad, del año 1068,

es un privilegio otorgado por el rey Sancho II de Castilla por el que concede al obispo de Oca Don Simeón como paso previo a su traslado a Burgos en 1075, muchas iglesias y posesiones, entre otras ...*et in Ataporka duas ecclesias cum suis adjacentiis.*

1054 la batalla de Atapuerca transcrita a través de cronistas 100 años después; la Crónica Silense, la Crónica Najerense (1.140-1.160) y los Anales Compostelanos (h. 1.140), las tres crónicas coinciden en; '*Iam autem Garsias in media valle de Athaporca (Silense Athaporka) posuerat castra...*' En 1071, un individuo llamado Morelle dona al Monasterio de Cardeña unas casas '*...in Atapuerka, in villa qui dicitur Quintana, cum tota sua hereditate...*'

(...)

Sin embargo, el documento más importante está fechado en 1.138, firmado por el rey de Castilla Alfonso VII, que es el Fuero de Atapuerca, documento que se conserva en la Biblioteca de la Real Academia de Historia de Madrid. En éste sí se habla de la villa de Atapuerca (Ataporch) y de sus vecinos.

(...)

Tras indicar que los especialistas en Toponimia no se ponen de acuerdo sobre el origen y sentido de los vocablos, *Adtaporka/Adtaporta/Ataporch*. Refiriéndose a la opinión, a su juicio poco convincente, del catedrático de Historia del Derecho G. Martínez Díez: *Adtaporka*, como palabra compuesta de *adta* con sentido de hasta, y *porca* o *puerca*, hembra del jabalí, aunque resulta difícil precisar qué se quiere significar en concreto con esa expresión (Pueblos y Alfoces).

La interpretación más razonable del conferenciante, (con J. M^a Solana, catedrático de Historia Antigua de la Universidad de Valladolid): «Atapuerca de raíz preindoeuropeo: topónimo formado por *alba/alpa/alta* como piedra o fortaleza y *puerca* o *puerta* como umbral o punto de observación. Nombre aplicado en principio a la sierra, de donde lo tomaría al parecer la villa. La aparición en la documentación de los siglos XVII, XVIII y XIX del término 'Tapuerca' lo considera un hecho de menor importancia».

(...)

Los primeros asentamientos tiene (sic) un carácter militar: Burgos, Quintanapalla, Arlanzón. A la sombra de sus castillos irán surgiendo las aldeas. Concretamente en el valle de Vena, las primeras aldeas serían Atapuerca y Agés, que aparece citada en el año 944. Muchos de aquellos colonos provenían de territorios vascos o navarros, dejando nombres como Alarcia, Herramel, Urrez, Urquiza, Froncea, Galarde, Zalduendo, Ochavro, Agés, Cuzcurrita, Ibeas, Juarros, Villabáscos..., quién sabe si Atapuerca... Todos topónimos vascos.

Dokumentu zaharrenean mendiari egiten dio erreferentzia toponimoak eta ondorengo bietan harana eta toponimoa besterik gabe ageri dira. Ere mu zabala adierazten du, orduan, sarrera edo ikuspegi anitz izateko modukoa. Beraz, amaitzeko, *ate* eta *porke* izanen balira toponimoaren osagaiak, ate edo sarrera multzoa adieraziko luke. Ez al du zentzurik?

4. Hasieran *ara-* osagaia duten toponimo batzuen gainean

Ukaezina da eiherak (*ihara, ihera*), hau da, errota, gizatalde edo herri neolitiko eta brontze arokoen ekonomian izan zuen garrantzia, eta, seguru asko, ez zen beste modu batean izan gizatalde euskaldunen kasuan ere. Ekonomiak, geografiak eta inguruak orokorrean garrantzia izan behar zuen ezinbestean herrien baitan eta, hala izanik, hizkuntzan ere arrastoa utzi behar, erromatarak Euskal Herrira iritsi baino lehen. Hala dio Michelenak (1989, 11) ere:

Y el elemento extraño en la onomástica vasca no se limita a la influencia románica o latina. Nuestra relación con el mundo comenzó bastante antes de los comienzos de la influencia romana y es natural pensar que esta relación tuvo su reflejo lingüístico.

Azken mendeotan latineko mailegua, *errota* (< rotam), izan dugu erabat zabaldurik hegoaldean (*bolu*¹⁴ ere bai Bizkaia aldean), baina toponimia zaharrean erabat hedaturik dagoela bestea, *eihera* (*ihara*), iruditzen zait, hegoaldean eta iparraldean eta, nahi eta nahiez, halako garrantzia izan zuen

¹⁴ Mitxelenak (1989, 76) honela dio: «... en composición *bolin-*, *borin-*, *borun-*: *Boluet*a, *Bolunbu*-ru, *Bolibar* (...) De **molina*, **molinum* ...»

asmakizunak utziko zuen arrastoa erromatarren aurreko gizataldeen eremuetan. Horrela uste dut nik eta horrela lortzen dut Sakanan eta inguruan diren hedadura handiko zenbait toponimo ulertzea.

Bestalde, eiharak edo errotak etengabe azaltzen dira Europako gainerako herrialdeetako toponimia nagusian: ‘mill’ ingelesekoan (Millford, Mill Valley, Fort Mill), ‘molino’ gaztelaniakoan (Molinaseca, La Molina), ‘moulin’ frantsesekoan eta Belgikakoan (Petit Moulin, Bretignolles-le-Moulin, Moulin du Puy, Croupet du Moulin), ‘mulino’ italieran (Mulino del Piano), ‘mühle’ alemanarenean (Neue Mühle, Layen Mühle, Glabecker Mühle)... Eta horrela izanik inguruko hizkuntzetan, zer dela eta ez da ‘errotak’ ageri osagai moduan Euskal Herriko toponimo nagusietan? Atal honetako izenburuan aipatu Ara-, aldiz, barra-barra ageri zaigu Euskal Herriko toponimian eta bilakabidea ez litzateke azaltzen batere zaila: *eihera*, *eihara*, *ihara* ageri da jasorik OEHn eta Mitxelenak (1989, 95, 278) ere hala jaso zuen: «...: top. *Erret Ihara Guinuelea* (Nav. 1150), <el costado del molino del rey>, O. de Apraiz, <Hom. A Urquijo>, III, 449;...»

Eta hemendik abiatutik, /h/ kontsonantearen testigantza gorde duten aldagaiak ditugu (*igara/igera*); erromantzearen eraginez hasierako bokal itxiaren kontsonantizazioa erakusten dutenak (*yara/yera*); eta, azkenik, (hidronimo, mendi ...) konposizioan aferesia jasan dutenak ere bai (*ara-*):

- *ihara* > (*i*)*gara*/(*i*)*gera* (/h/ren testigantza, asimilazioa)¹⁵
- *ihara* > *iara* > *iera* (asimilazioa) > *yera* (bokalk itxiaren kontsonantizazioa)
- *ihara* > *iara* > *ara-* (aferesia konposizioan)

Horrela suertatzen da Sakana erdialdeko zenbait herritan (Etxarri, Lizarraga, Lakuntza) hasieran e- erdiko bokala eta jarraian kontsonante erorkorra daramaten hitzetan, erdiko bokala itxi eta ondoren kontsonantizatzen denean: *erakutsi* > *eakusi* > *iakusi* > *yakusi*, *yan* (edan), *yosi* (erosi), *yon* (egon)... Hala egin dute gaztelaniak eta italierak berak ere lehen pertsonako izenordain pertsonalaren kasuan: *ego* > *eo* > *io* (italiera) > *yo*. Bestalde, Nafarroako beste toponimo baten kasuan, *Esa* (1132. urtean dokumenta-

¹⁵ Eta agian, aferesia burututik, *gara* ere bai. Hemendik, orduan, *Gar(a)bizu*.

turik), erromantzeak *Yesa* bihurtu zuen. Baina beste zenbait herritan (Dorrrao, Unanu, Arbizu, Arruazu), aldiz, ondorengo bilakabidea izan dute: *erakutsi* > *eakusi* > *akusi*, *edan* > *ean* > *an*, *erosi* > *eosi* > *osi*... Eta azkenik, Arruazutik ekialdera Irañetaraino: *eakusi*, *ean*, *eosi*, *eon*...

Aipatu hiru moduetara (/h/ren testigantza erakutsiz, bokal itxiaren konsonantizazioa, aferesia konposizioan) ageri zaigu hainbat eta hainbat euskal toponimotan hauen osagaietako bat izan daitekeen (*e*)*ihera*/(*e*)*ihara* hauxe, jarraian ikus dezakegun moduan.

Bereziki aipagarria *Elkorriko* ondorengo toponimoa: *Igaratza*. Mikel Belaskok (2000, 204) horrela jaso eta komentatu du toponimo hau:

Lugar de paso. Del vasco igaro 'pasar' y un sufijo -tz de carácter locativo. El nombre se repite en una cima en Alsasua de 912 m., que es denominada Muñahan en alguna guía.

Baina dokumentaturik horrela jaso ditu: «*Yerazaco-arratearengaineco bizcarra*. Ygueraza, *Sel de* (1781, AGN PS LG.31. n.6)». Autore berak lan berean (2000, 205), Izaban, *Igardakua* toponimoa dakar horrela dokumentaturik: *Yeradacua* (1563, 1568), *Yaradacua* (1614, 1622), *Igaredacua* (1701), *Igardaqua* (1724), *Ygardacua o yzizpeta* (1828). Luis Mari Zalduak¹⁶ ere «Juan Arin Dorronsororen Enirio-Aralarko krokisa (1940)» artikuluan horrela jaso du Etxarri eta Ataun arteko mugan dagoen toponimo hauxe: «*Igaratza* (*Iaratza*, 1940, Arin 1; *Yeraza*, 1452; *Yaraza*, 1302, Aierbe 2005: 13), (*Igaratza*) *Arraldea* (...; *Yeraza Arralde*, 1452), (*Igaratza*) *Elorriandiana* (...; *Yeraza Elorriandiana*, 1452)».

Eta berdin autore berak¹⁷ «Juan Arin Dorronsororen <Material Toponímico> argitaragabearen 25. paper-zorroa» artikuluan: «253. *Ierazaco arratearen bizkarra* (1800); *Igerazaco arrate gaña* (1800); ...» Gaur egun *Igaratza* moduan ezagutzen dugu Goierri eta Sakana aldean aipatu toponimoa, baina *Iaratza*, *Yeraza* eta *Igueraza* jaso zuten duela zenbait mende eta honek ez luke *igaro*-ren bilakabidearen alde eginen.

¹⁶ FLV 115, 2012, 5.

¹⁷ FLV 117, 2014, 10.

Salaberrik (1997, 25) *Igaratz(a)* toponimoa aztertzen ari dela ondorengoa dio:

EAEATB-n igara <erota>-rekin lotua egon zitekeela genioen, baina Oibar aldean beti erota opatzeaz landara, Igaratz mendia eta gaina zen, eihera izateko toki eskasa beraz, eta igaro, igaran-ekin lotu nahiago genuen...

Eta jarraitzen du esanez Aralarren izen bereko «portilu edo atea» dugula (Barandiaranek bildua) eta Altsasun ere ageri dela, toki bera edo besteren bat ote den ez dakielako gaineratuz. Orduan, garbi uzten du, erota mendian izateko zailtasuna izan zela bere kasuan toponimoaren jatorria azaltzeko datu erabakiorretako bat, eta ez toponimoaren osagaiak azaltzeko beste bilakabidearen okerkeria hizkuntzalaritzaren aldetik. Baina gure Igaratzan behintzat, Aralarkoan esan nahi dut, eta bere inguru hurbilean, badira errekek eta iturriak eihera izateko aukera emanen luketenak. Eta zer esan beharko genuke, orduan, Pirinioetako *La Molina* eski eremuari buruz? Oibar aldean beti 'erota' izena agertzen dela dio, Euskal Herriko toki gehienetan bezala erromatarren garaitik, baina Aragoi ibaia bera ere bertatik pasatzen da eta honek erakutsiko liguke, atal honetan esandakoa egiaztatuko balitz, *ara-* (eihera) ere erabili izan dela noizbait.

Rafael Carasatorrek (1993) *Yerabidea* toponimoa jaso zuen Irurtzunen 1595ean eta 1611n eta baita abizen moduan aipatutako lehen urtean, *Martin de Yerabidea* «vecino del lugar de Arriba». Eta jarraian beste toponimo batzuk aipatzen ditu osagai berberarekin: *Yeraondoa* (Iturmendi, 1620), *Yeraburua* (Errotz, 1571), *Yeramendiguibela* (Bakaiku, 1619), *Yyraga* (Ihabar, 1699), *Yarabide* (Altsasu, 1623) eta *Yerabul*¹⁸ (Etxarren, 1750, «...pegante a cequia molinar»).

Bestalde, autore berak, bere web orrian¹⁹, Burundako Urdiain herriko 1627ko dokumentuan, ondasunen zerrenda batean *Igaraguibel* toponimoa dakar, eta *Ieraguibela* eta *Iaraguibela*, aldiz, 1683ko herri bereko beste dokumentuan. NTMn Urdiainen *yeraguibel* (1699), *iraraguibel* (1704), *yaraguibel*

¹⁸ Osagaiak, seguru asko, *iera* + *buru* dira Errozko toponimoaren kasuan bezala.

¹⁹ (www.documentanavarra.blogspot.com)

(1915), *yyarabil* (1915) eta *yyaraguibel* (1915) agertzen dira. NTMn, Altsasun, *Igaratza*²⁰ dago jaso eta *Yeragibel* (1694), *Igaragay* (1893), *Igarzazpi* (1893) dokumentaturik. Carasatorrek, *Barranca Burunda* lanean, esaten du ur korronea adierazi nahi duela ordurako errota oso zabaldurik zegoelako, baina nik uste dut errota beraren aurreko adierazlea dela, bizirik geratu zena XV., XVI., XVII. eta XVIII. mendeetan gure eremuko toponimian. Etxarri Aranatzenean ere, *Eraga* toponimoa dago, *Zurkillo* errekaen bi aldeetan eta, seguru asko, jatorri bera izanen du: (y)era + -ga.

«El libro rubro de Iranzu» dokumentuan (1257), behin baino gehiagotan ageri da jasorik *Yenego* izena (*Yenego Sanchiç*, esate baterako 8. orrialdean; edo *Yeneguez* eta *Yenego* 14.ean) eta ez da ausardia handia esatea izen honen bilakabidearen emaitza *Eneko* izan dela.

Emilio Nietok (1997) *Aragoi* ibaiaren **Aracone* etimologia proposatu zuen eta haxe erromatarren aurreko izena zela esan ere bai; eta bertan, Europa mendebaldean ibaia edo ibai bazterra adierazteko (jatorrian ‘ur korronea’) oso zabaldurik den **ar* lehen osagaia antzeman daitekeela gaineratu zuen. *Aar* (Suitza), *Ahr* (Alemania), *Ar* eta *Arante* (Frantzia) hidronimoak gogoratu zituen eta euskarako *haran* ‘valle’ izenarekin izan dezakeela harremana aipatu zuen. Euskal Herriko toponimian, hala ere, bereizirik ageri zaizkigu (*h*)*aran* eta *ara-* osagaiak daramaten toponimoak (*Arangun*²¹ toponimoa dago Arbizuko eremuan horren lekuko, eta baita *Aranatz*, *A(ra)ngorta* eta *A(ra)nbeltz* ere, besteak beste, Etxarri Aranatzenean), nahiz eta Mitxelena batera biltzen dituen biak, lehena azaldu ondoren:

(...) Es frecuente *ara-*: *Araeta* (*Areta*), *Aragor*, *Aragorri*²², *Araibar*, *Araiz*, *Araluce*, *Aramendi*, *Araondo*, *Araoz*, *Ararte*, *Arauna*, *Arazuri*. Probablemente se trata casi siempre de (*h*)*aran*, bien que su -n- se haya perdido entre vocales, bien se trate de una forma de composición (*h*)*ara-*, pero en algún caso puede tratarse por ejemplo de *are(a)* <*arena*>. (AV, 1989, 51, 69. art.).

²⁰ NTM IX: «Aunque la palabra viva hoy es *errota* ‘molino’, en toda Navarra se encuentran restos en la toponimia del arcáico *igara*, *eihara* ‘idem’, derivado de *igo*, *eiho* ‘moler’.»

²¹ (*H*)*aran* + *gun(e)* dira, seguru asko, bere osagaiak.

²² Gogoratu badela Parisen osagai berberak frantsesez izanen lituzkeen cabaret ezaguna, *Moulin Rouge*.

Harrigarria bada ere, ez ditu *Apellidos Vascos* liburuan *Arakil*, *Aragon*, *Araia*, *Araka*... aipatzen eta *Aralar* bera ere, soilik esateko 1025eko dokumentu batean *aralarre*, bukaeran erdiko bokala duela ageri dela. *FHVn* ere soilik *in Aralarre Bedaiça* (1074) eta *Arelarre* (1141) *Aralar* oronimoak bigarren osagaiaren azken bokala galdu duela azaltzeko.

Hala ere, oso interesgarria iruditzen zait Nietoren etimologia, **Aracone*, aukera ematen baitigu, *Arakil* ibaiaren kasuan bezala, lehen osagaia (*i*)*ara* izan daitekeela pentsatzeko, eta bigarrena, aldiz, *gune*: (*i*)*ara* + *gune* > *aragun*²³ (apokopea) > *aragon* (bokal itxiaren irekiera). Hemendik *Aragoi* era-biltzera, erraza da bilakabidea estandarizazioaren eskutik: *-on* > *-oi*.

Orain arte esandakotik, jatorrizkoa suposatzen dudana *eihera* izenak bilakabide bat baino gehiago izan dituela ondorioztatu beharko genuke, beste zenbait toponimoren osagaiekin gertatu den bezalaxe. Ala ez du horixe bera egin *etxe* eta *berri* osagaiez sortutakoak? *Etxeberri*, *Etxaberri*, *Etxebarri*, *Txabarri*, *Xeberri*, *Xabier*, *Jabierre*... *Etxarri*, *Etxerri* edo *Txerri* ere bai zenbaiten ustean.

4.1. *Arakil*

Arakil < **yaragil* < **iaragil*(*e*) < *ihara*²⁴ + *-gile*.

Ibai ertzean hainbeste errota (*eihera* Iparraldean, *ihara* Luzaiden) izanik, ibai errotagilea litzateke gurea. Rafael Carasatorreren *documentanavarra.blogspot.com* blogean, «Libro de fuegos de la merindad de las montañas del año 1427» (AGN²⁵ Comptos nº 3) dokumentuan jasota dagoen moduan, Burundan, *Etxarri* Aranatzan, Ergoienen eta Uharte Arakilen errota ugari zituzten, eta haez gain, Lakuntzan, Irañetan, Irurtzunen, Hiriberrin, Iharbarren eta *Etxarrenen* bana. Errota pila, beraz, *Arakil* ibaiaren urak, besteak beste, profitatuz.

²³ 4.7. puntua ikusi.

²⁴ Horrela ageri da jasorik OEHn *eihera* sarreran: *ihara* (L-ain, BN; Ht VocGr, Lar DVC 246, Dv, H), *igara* (AN, L; Lar, Añ, Dv, H). Goi-nafarreran ere bai, beraz.

²⁵ Nafarroako Artxibo Nagusia.

«El libro rubro de Iranzu» dokumentuko *Yenego* izena aipatu dut lehen-txeago eta izen honek hasierako kontsonante igurzkaria galdu eta azken silabako kontsonante herskari ahostuna ahoskabe bihurtu baditu *Eneko* bihurturik, bilakabide bera jarraituz, emaitza bera emanen liguke hidronimo honek: **yaragil(e) > arakil*.

Bestalde, toponimoaren bigarren osagaia litzatekeen atzizki honek (-gile), Sakana erdialdean, apokopaturik, maiz galtzen du azken bokala:²⁶ *kisusgil/ki-suskil* (gisugile, igeltsero), *langil* (langile), *zirringil* (*zirringila* Uharte Arakilen). Eta hidronimo honen kasuan bezalaxe, lehen osagai berbera duten beste zenbait toponimoren eta hidronimo baten kasuan ere, hitzaren azken tokian doan bokal erdiaren galera suertatzen da: *Aralar*, *Fandoilar* (Ziordia) eta *Aragun*.

Zenbaitek *Arakil*, *Araceli* toponimo erromatarren bilakabidetako hartzen du, aspaldian, erromatarren garaitik ageri delako dokumentaturik horrela, baina metatesia medio, jatorrizkoa izan daitekeen **(i)aragile*-tik (*> *arakile >*) **arakeli*-ra erabat ulergarria da bilakabidea. Eta ulertzekoa da erromatarrek toponimoa haien grafiara moldatu izana (**arakeli > araceli* -baina *aracaeli*²⁷, *aracoeli*-), askoz geroago ere beste hainbat toponimo euskaldunekin gaztelaniak egin duen moduan: *Aitzita* (Dos Hermanas, Irurtzu-nen), *Larraina* (La Reina, Iruñean), *Aritzibarren* (Truistibarte, Aezkoako Hiriberrin), *Arrubi* (La Rubia, euskara galdua duten zenbait herri nafarretan)... Bestalde, normala da, era berean, *Aracaeli* lehenago dokumentaturik agertzea *Arakil* edo 'Araquile' baino, orain arte behintzat ez baitago euskaldunek erromatarrek etorri baino lehen idazten zuteneko lekukorik. Eta, honekin batera, gauza ziurtako ere eman dezakegu arakildarrek izena jarri-ta izanen ziotela haien ibai nagusiari erromatarrek etortzerako: (*I)arakil(e)* agian eta erromatarrek *Aracaeli* (*< *arakeli < Arakil(e)*) transkribatu?

Bestalde, aipatu behar da Ultzaman *Arkil* (*Arkil Ugeldia* herritarrendako) izeneko erreka dagoela eta bere goiko eremuari *Zazpiburrieta* esaten diotela (errotaren jardunerako egokia). Eta Gipuzkoan ezaguna den *Zizurkil* toponimo nagusia. Jatorrian osagai berekoak ote?

²⁶ Hortxe ditugu, era berean, *Zizurkil* herri izena Gipuzkoan eta *Arkil* ibaia Ultzaman.

²⁷ *Caesar > kaesar-kaiser / cesar*.

4.2. Aralar

Aralar < *yaralar < *yaralarre < ihara (errota) + larre.

Bigarren osagaiak pentze edo belardia adierazten du. («pastizal, dehesa» Mitxelenak) eta apokopaturik izanen genuke, Burundako mendebaldean dagoen Ziordiko *fandoilar* toponimoan (dokumentaturik *juandonizlarre*²⁸ ageri da 1679an eta 1731n), Arbizuko *Zopular* eta *Etxalar*²⁹ toponimoetan eta *Axular*³⁰ baserri-izenean bezala.

Mitxelenak ere (AV, 1989, 152. orr), *torre* osagaiaren azken bokalaren erorketa aipatzen du eta jarraian ondorengo esaten du: «En el mismo documento (1025eko Olazabal monasterioko donazioa) se llama aralarre al actual Aralar».

Eta gauza bera, lan berean, *olatza*, *olatze* izenak aztertzen ari delarik (138. orr.): «Un topónimo Saueriolatze, in Aralarre, en un doc. navarro de hacia 1150.»

Errotak ugari izanen ziren garai batean (*Aitzarrateta*, *Errotatxo*...), mendi-kate guztian sortzen diren errekek eta errekatxoak profitatuz. Nafarroa Behe-rean *Eihalarre* dugu herri ezaguna eta honek osagai berberak izanen lituzke.

4.3. Araña

Araña < *araaña < *yaraaña < *yaragaña < ihara + -gain + -a.

Araña toponimoa ere Lizarrustitik datorren ibaiaren ondoan dago. Roman Felonesek 1982. urtean argitara eman zuen artikuluan *Arthania* ageri

²⁸ BBn, Ziordiko toponimian (1993, 551), Rafael Karasatorrek beste aipamen hau egin du: «Monte de Juan doniz larre... monte y paraxe llamado Arquiano». Eta Arkinano sarreran (85. or.): «... Juandonizlarre (hierbin de San Juan)...».

²⁹ Mitxelenak (1989, 117) *la(ha)r* edo *lar* osagaian sartu du, baina jarraian ondorengo dio: «Es difícil en general distinguir en posición final los representantes de *la(ha)r* de los de *larre*, pues en unas zonas se ha generalizado la final -e en toponimia a todos los temas consonánticos, mientras que en otras parece observarse la tendencia opuesta a suprimir -e en muchos casos».

³⁰ Aurrekoarekin batera aipatzen du Mitxelenak.

da. Rafael Karasatorrek BBn (1993) (hemendik jaso zuen gero NTMk toponimoari buruzko informazioa) ondorengoa dio:

Los habitantes de Araña se supone que pasaron a vivir a Arbizu, por el aumento repentino de su población. (...) Se encuentra el poblado en una colina, Aldasgueñ, a la derecha de la carretera que de Lizarragabengoa va a Lizarrusti; al Este y a unos 300 metros de las ruinas de Arañitxie. En el alto se ven restos de los muros, cimetaciones y amontonamientos de piedras. Queda la base de una cruz en Artitxonekolarrie, que debió desaparecer hace unos 45 años; (...) Desde la colina donde se asentó el pueblo se vigila la entrada al valle de Elkorri; al Norte queda la ladera de Aralar, lugar de refugio ante las incursiones normales; pero cuando estas empiezan a llegar de tierras guipuzcoanas, lo lógico es que abandonaran el terreno, pues serían sorprendidos, sin escape, contra el río. Se hace difícil interpretar Araña, partiendo de 'aran'.

Mikel Belaskok (2000, 61-62) *Arain* Bidankozen eta *Arainburu* Goizue-
ta eta Zubietan jaso ditu eta toponimo hauen esanahia dela eta, ondoren-
goa dio:

Probablemente de *arain* (variante de haran 'valle, vaguada') aunque por tratarse de un alto no debe descartarse que la terminación sea una contracción de *gain* 'alto'.

Bigarrenarekin, berriz, ondorengoa: «*Del vasco arain (variante de haran 'valle, vaguada') y buru 'parte elevada, alto')*». Eta ondoren, herrian nola burutzen duten azaltzerakoan *Araimburu*, *Araña* eta *Araingo Gaina* aipatzen ditu.

Autore berak lan berean (2000, 64) Iraizotzeko *Arañotz* toponimoa dakar (*Araño*z dokumentaturik) eta iruzkinaren amaieran esaten du ez dela baztertu behar *arain* (valle, ciruela) osagai moduan. Eta zergatik ez (i)ara + gain + (h)otz, aurrekoaren bidetik?

4.4. Arbizu

Arbizu (aferesia) < *yarbizu (sinkopa) < *yarabizu < *iarabizu < ihara + bi + -zu.

Ergoieneko Leziza toponimotik Arbizura doan ugaldearen alboan, egungo autobidetik hegoaldera, errota izan zen, XVI. mendean gutxienik³¹, eta baita egun hotela bihurturik den Olatzea eremuan, ugalde edo ibai berberereko urak profitatuz. NTM laneko XII. liburuan (63. orrialdean) hala dio Arbizuko historiari eskainitako ataltxoan: «Industria gisa bi irin errota zeuden (XIX. mendearen erdialdeaz ari da), bi ola, erreka bateko urak ibiliak, soilik irailetik apirilera aritzen zirenak, eta oiha! arruntak egiteko bi ehundegi». Hortik izan daiteke, mende asko lehenago ere, bi errota dauden lekua adieraztea herriaren izenak. *-zu* atzizkiak oparotasuna adierazten du, baina baita gai baten tokia ere.

Mitxelena (AV, 1989) erabat garbi adierazi ez bazuen ere, *arbi* + *-zu* direla toponimo honen osagaiak iradoki zuen, baina niri, ukatu gabe filologo handiak esandakoa, ez zait iruditzen neguko uzta horrek herri bati izena emateko funts nahikoa duenik.

NTMko XIX. mende erdialdeko historia aipamenak ere ez du labore honi buruz txintik ere esaten. Lehentxeago aipatu dut maisu erreteriarrek ez zuela erabat garbi adierazi toponimoaren osagaiak zeintzuk diren, ezen ondorengoa idatzi baitzuen zehatz-mehatz (AV, 1989): «73.- (h)arbi <nabo>: *Arbi*, *Arbiz*, *Arbiza*, *Arbizu*. O acaso se trate de un compuesto de (h)arri (v. -bi).» Ez zuen nonbait oso garbi *arbi* izan zitekeela lehen osagaia. Bestalde, lan berean, Mitxelena, 622. osagaia (*-zu*) aztertzerakoan ez du aipatu ere egiten Arbizu eta bai beste batzuk: *Amezua* (*ametz-zu*), *Artazu* (*Artazo*), *Otazua*, *Sarasua* (*sarats-zu*), *Urquizu*, *Guelbenzu*, *Iranzo*...

4.5. Arruazu

Arruazu < **arvazu* (sinkopa) < **aravazu* (aferesia) < **yarabazu* < *iha-ra* + *bat* + *-zu* (edo *-batzu*).

³¹ 1533-1537ko dokumentuan ageri da. Dokumentua Etxarri Aranazko udaletxeko artxiboan dago, 2. kutxan 4.1.1. zenbakiarekin eta «Amojonamiento con Arbizu» du izenburutako. (...Ytem yendo de hay hacia el molino en el termino llamado Mainzazuirra aquel junto a la pieza de Margarita de Ansa muger de Lope de Ybiricu vecino de Arvizu:...)

Aurreko toponimo nagusiaren analogiaz sorrarazitakoa izanen genuke haxe ere. Azkeneko osagaia, ugaritasuna adierazteko atzizkia, ez letorke bat esanahiarekin, baina bai tokia edo lekua adieraztekotan, errota bakarreko lekua. Oraindik bertan dirau azken errota izandakoa Arakil ibaitik hurbil. Hala ere, *bat* + *-zu* eta *batzu* gauza bera delakoan nago.

Bertako biztanleek eta inguruko herrietakoek *Arbazu* eta *arbazuar* hitzak erabiltzen dituzte herria eta herritarren izenak adierazteko. Posible litzateke jatorrizko *Arbazu* *Arvazu* idaztea hasieran eta hortik *Ar(r)uazu* idazten jarraitzea beti. Zailagoa iruditzen zait jatorrizko *Arruazu* batetik *Arbazura* iristea, bereziki azken burutzapen haxe soilik ahazkoan erabili izan delako.

4.6. Araia

Araia < **iaraia*³² < **yararia*³³ < **iaradia*³⁴ < *ihara* + *-di* + *-a*.

Burunda-Arakil ibaiaren sorburuan, Araia ibaian, errota ugari ziren garai batean. Erróta lekua zen beraz. Jose María Jimeno Juriok argitara eman zuen «El libro rubro de Iranzu» Erdi Aroko dokumentuan, 69 zenbakia duen atalean (Barriako monasterioan egindakoan), ageri zaizkigu Araiako eta Albenizko errotrak:

En Alaua, don Lop Diez de Pharo nos dio por todo siempre el diezmo de las ruedas de Albiniz et el diezmo de las ruedas de Araya. Et d'esto tenemus carta con su seyello pendent, que es assi: Conosçuda cosa sea a todos los ommes qui esta carta uieren, que yo don Lop Diez de Pharo do el diezmo de las ruedas d'Albiniz et el diezmo de las ruedas de Haraya al conuiento de Yranço pora seculorum secula, por mi alma et por la alma de dona Urraca. Et nuyll omme del mundo, ni mi fiyo ni mi fiya, non demande pleyto ninguno sobre esta razón. Et [qui] 68 a la mi alma et / 69 a la de dona Urraca bien quiere, non faga perder al conuiento de Yranço estos diezmos d'estas ruedas, et si non todo el

³² Bokál arteko kontsonante dardarkariaren erorketa

³³ d/r txandaketa

³⁴ Bokál arteko /h/ kontsonantearen erorketa eta hasierako bokál itxiaren kontsonantizazioa

peccado sea sobre eyl, et Dios li de la su yra. Facta carta en monasterio Berria, XIX dias andados del febrero, Era Millesima CC.a LXX.a.

Bertan *Haraya* izena ageri da: **(i)haradia > *haradia > *hararia > (h)araia* ote bere bilakabidea? Beste zenbait dokumentutan Burunda edo Arakil ibaiari Araia ere esaten zaio. Eta ia gauza bera esan daiteke Arabako ipar-mendebaldean den Aiara haraneko izenari buruz: *eihera > *eiera > *aiera* (ei > ai diptongo irekiera) > *aiara* (analogiaz).

4.7. Aragon

Aragon < **yaragon* < **iaragun* (apokopea) < *ihara* + *-gune*.

Hidronimo honi buruz Emilio Nietok (1997) proposatzen duen (h)aran osagaiarekin baino, egokiago iruditzen zait niri *ihara*-rekin lotzea, lehenak ez duelako kontsonante sudurkaria gordetzen, eta, orduan, toponimoak eihera edo errota lekua adieraziko luke eta ez «ur korrontea», egia bada ere errotak erretena («acequia») behar duela gorpila mugituko duen ura ziurtatzeko.

Gainera, lehen esan dugun moduan, Arbizuko eremuan *Arangun* toponimoa dago eta begibistakoa da kontsonante sudurkaria gorde izan duela.

Mikel Belaskok (2000), hidronimo honi buruz egindako iruzkinean esaten du maiz agertzen dela arabiar dokumentazioan: *Aragun* (911), *wadi Arangun* eta *Nahr Arangun* (924). Eta autore berak Iruritako *Araongo harria* toponimoa azaltzerakoan, zer esanahi izan dezakeen aipatzen duenean, amaieran, egun *Aragon* ahoskatzen den Gartzaingo *Araun* toponimoarekin konparatzeko esaten du, eta dokumentaturik *Araun* (1703, 1716) eta *Aragun* (1884) agertzen du. Izen arabiar hauek hidronimoaren bigarren osagaiaren aukera ahalbidetuko lukete, *Gascu(n)e* abizenak *Gascon* eman duen bezala eta *Mitxelenak* (1989, 116) *-kun, -ku(n)e* osagaia aztertzerakoan iradoki moduan.

José María Lacarrak «Textos navarros del Códice de Roda» lanean (1945, 38) *-gune* osagaiaren lekukotza datekeen ondorengo pasarteak dakar:

*Garsea Enneconis accepit uxor (lac.) filia de (lac.) et genuit Fortunio
Garseanis et Sanzio Garseanis et domna Onneca qui fuit uxor de Asnari
Galindones de Aragone.*

Eta pixka bat aurrerago, 40. orrialdean (1945):

*Ista domna Sanzia postea accepit uirum domno Galindo comes de
Aragone, et genuit ex eo domna Andregoto regina et domna Belasquita.*

4.8. Arga

$\text{Arga} < *ar(a)ga \text{ (sinkopa)} < *(y)araga < ihara + -aga.$

Konposizioa burutzerakoan, sinkopa gertatuko zen eta atzizkiak tokia adierazten du. Beraz, errota lekua izanen genuke ibaiaren eremua. Belaskok (2000, 420-421) hidronimo honen iruzkin linguistikoa egiterakoan, amaieran, Pascual Madozek (1846-1850) bere hiztegian hidronimo honi buruz esaten duena azaltzen du:

A modo de anécdota indicar que este autor señala que <antiguamente se llamó *Arago*, y en vascuence con el artículo *-a* pospuesto *Aragoa*, de donde por corrupción quedó el nombre de *Arga*>.

Lehen osagaia horrela balitz, *ara-*, beste hidronimo askok izanen luke interpretazio errazagorik: *Arlas* (*ara* + *lats*; Peralta, Falces), *Arlekoa* (*ara* + *lekua*; Izu), *Arluxea* (*ara* + *luzea*; Untzue), *Arbozta* (*ara* + *butzu* + *ta*; Etxalar); *Arbutz* (*ara* + *butzu*; Irurita), *Arburu* (*ara* + *buru*; Baztan).

4.9. Arazuri

$\text{Arazuri} < (y)ara + zuri < ihara + zuri.$

Errota zuria izanen litzateke, beraz, bere esanahia. Mikel Belaskok (1999, 81) dio, seguru asko (*h*)*aran* «valle» eta *zuri* «blanco» direla bere osagaiak, baina jarraian eskaintzen duen dokumentazioan (1278, *Araçolli*, *Araçorri* 1274-1276, *Araçur*, *Araçuri*, *Arazur*, *Arazuri* 1097) behin ere ez da ageri kontsonante sudurkaria. Hala ere hiztun bakar baten ahoskerak, (*h*)*aran* aldera lerratuko lukeela gaineratzen du. Mitxelenak (ikusi hurrengo toponimoa), bestalde, zioen (*h*)*area* (arena) ere osagai moduan kontuan izan beharko litzatekeela. Harea zuria ote, garairen batean, eremu horretan?

4.10. **Araotz**

Araotz < (y)ara + (h)otz.

Oñatiko auzo honetan ikus daiteke eiheraren erretena edo ubidea. Mitxelenak (1989, 51) (h)aran osagaiaren barnean aztertutako, nahiz eta bertan zalantza ere ageri:

Es frecuente *ara-*: *Araeta* (*Areta*), *Aragor*, *Aragorri*³⁵, *Araibar*, *Araiz*, *Araluce*, *Aramendi*, *Araondo*, *Araoz*, *Ararte*, *Arauna*, *Arazuri*. Probablemente se trata casi siempre de (h)aran, bien que su -n- se haya perdido entre vocales, bien se trate de una forma de composición (h)ara-, pero en algún caso puede tratarse por ejemplo de *are(a)* <arena>. *Araeta* (*Areta*) parece proceder claramente de (h)area <arena>.

Edo (h)ara konposizio modua ere izan daiteke Mitxelenak berak iradokitzen duenari jarraituz.

4.11. **Beste batzuk**

Eta, beharbada, gauza bera esan genezake Gasteiz inguruko ondorengo toponimoei buruz: **Araka**³⁶ (< (y)ara + -ga), **Arka** (aurrekoa sinkopaturik), **Arkatxa** (< (y)ara + gaitza)...

Eta azken honi dagokionez, Gasteizko eremuan ugari dira «molino» izena daramaten toponimoak eta, horietako baten iruzkinean, honela dio Martínez de Madinak (2010):

Emplazando junto a la Ermita de San Cristobal, este molino o rueda utilizaba el Cauce de los Molinos, aguas arriba del Molino de las Trianas, recogiendo las aguas del Río de Arkatxa. Erreka-lehor.

³⁵ Ezaguna da, era berean, Parisen, *Moulin Rouge*.

³⁶ Herskari ahostuna ahoskabe bihurtua, *Erkuden* Altsasuko toponimoaren kasuan bezala: *el(e)* + *guren*.

Eta gauza bera Gasteiz ondoko Mendiola «El Molino» toponimoaren azalpena ematerakoan: Una pieza en término de Arcachabea al río caudal que ba de Monasterioguren al Molino de Mendiola (1580).

Adierazgarria, atzera berriz, *Ar(a)*- osagaia duen hidronimo batekin eta honi erreferentzia egiten dion beste batekin topo egin izana. Elena Martínez de Madinak «... *de harri*, '*piedra*', y *gatz* '*malo*'...» heldu dela badio ere, ez ote dira *i(h)ara* eta *gaitza* izanen bere osagaiak? Eta *i(h)ara* + *gaitza* + *be(he)a* bigarrenarenak? Sinkopa baino ez gertatu izana beharko genuke. Gainera, azalpen moduan, aipatu errekarari 'Errekalehor' ere esaten zaiola ageri zaigu. Deskribapen egokia ehotzeko lanak egiteko zailtasunak (*gaitza*, ur gutxi zenbait sasoitan?) dituen errotarendako.

5. Burunda

Nafarroako mendebaldean kokatuta dago Burunda harana eta sei herrik osatzen dute, mendebaldetik ekialdera: Ziordia, Olatzagutia, Altsasu, Urdiain, Iturmendi eta Bakaiku.

Harana zeharkatzen duen ibaiak ere Burunda izena du, baina jatorria Arabako Ekialdeko Lautadan du, Araian, eta izen hauxe dauka Ziordiraino bertaraino eta Bakaikurekin muga ekialdetik egiten duen Etxarri Aranatz herritik ekialdera, aldiz, Arakil izena hartzen du.

Dokumentazio gehienez horrela, Burunda, ageri zaigu, baina zenbait kasutan **Borunda** ere ageri izan da, lehen silaban erdiko bokala daramala. Horrela dator Julio Altadillen *Geografía Histórica de Navarra* liburuan:

GARIZANO, GATIZANO, GOTIZANO

La situación de este pueblo fué en el valle de Araquil, entre las sierras de Aralar y Andía, partido judicial de Pamplona. Las mismas circunstancias que consignadas dejamos al citar á Arguindicain, motivaron la despoblación de este lugar. Sus pobladores en 1359 pasaron á la villa de Huarte araquil, agregados á ésta para la más eficaz defensa en las guerras contra banidos y guipuzcoanos. Hay término de este nombre, menor de un kilómetro de N. á S. al pie de la sierra

de Aralar, arca de venerandas tradiciones; se halla cruzado por la carretera á la **Borunda**.

(...)

GUZTEGUI

Lugar desaparecido en el siglo XIV, á consecuencia de las enconadas é interminables luchas que los valles de la **Borunda**, Araquil y Larraun sostuvieron contra guipuzcoanos en dicho siglo y el anterior. Se halla en igual caso que los despoblados de Anguztina, Eitzaga, Iturrin, Xarasua, Ilardia y Uragar. Consta también como villa desaparecida, en *Gacetilla de la Historia de Navarra*, por D. Arturo Campión (Euskarianas, V serie, pág. 303).

Modu berean ageri da Pascual Madoz-en *Diccionario Geográfico-Estadístico-Histórico de España y sus posesiones de ultramar* behin baino gehiagotan (hiru aldiz Gregorio <San> sarreran 592 orrialdean). Gauza bera *Panorama español. Crónica contemporánea* 1845eko liburuan: **Borunda** (bi aldiz 26. orrialdean). 1819ko Nafarroako Erresumako *Cuaderno de las leyes y agravios* (73. orrialdean) liburuan ere bai.

Etxarri Aranazko udaletxeko artxiboan Aranatz lurraldean 1533 eta 1537 artean gertatutako auzia dago jaso eskuz idatzitako dokumentuan eta bertan, behin baino gehiagotan ageri da **Borunda** idatzirik. Ondorengo, aipatu dokumentuko 96binper orrialdeko adibidea daukagu:

... y esta probado que los dichos de Echarri y Ergoyena han estado y están en posesión velquasi de vender las yervas y agoas y pazos dela dicha tierra de Araynaz de toda la parte y endrezera que cahe del Rio maior que por la dicha tierra cahe hacia Estella, Goñi y Lacunza Huarte **Borunda**, y otros lugares circunbecinos tanto quanto dura Araynaz y la dicha endrezera ...

Dokumentu berean 1533ko Etxarri Aranazko batzarrean parte hartu zuenen artean *Pedro Borunda* ageri da. Eta 1537ko batzarreko zerrendan, aldiz, aurreko batzarkide berbera eta baita *Joan de Borunda* ere.

Michelenak (1989, 76) honela jaso zuen lehen osagaia: «*Bolua, bolu* <molino> (Refr, y Sent., 147: *boluara* <al molino>, en composición *bo-*

lin-, *borin-*, *bolun-*: *Bolueta*, *Bolumburu*; *Bolibar* (Bolívar), *Bolinaga*, *Borinaga*; ...).» Eta autore berak, aurreraxeago (78. or.), *-da* atzizkia du hizpide:

-da suf. de significación imprecisa: Cirarda, Larrinda, Legarda, Leunda (...) Para Legarda/Legarreta, cf. FLV 1 (1969), 23, n.87. Alguna vez he pensado si Legarda no será simplemente Legarreta, acentuado en la segunda sílaba, con síncope y sonorización románica.

Ildo beretik joaz, Legarda Legarretatik eratorria bada, zergatik ez genuke pentsatu behar Borunda Boruneta-tik etorri dela?

Bolun- + *-eta* → *Borun* (l/r txandaketa, *bolin-/borin-* bezala) + *-eta* → **Boruneta*.

**Boruneta* → *Borunta* (sinkopa).

Borunta* → *Borunda*** (kontsonante herskari hortzetakoaren ozentzea).

Hortik egungo Burundara ez litzateke batere harrigarria izanen bilakabidea. Errota eremua adieraziko luke, orduan, toponimoak.

Eta Burundako toponimia arakatus, behin baino ez bada ere, Iturmendin agertzen da hasierako osagaia duen toponimoa, *Bolinsoro* (NTM X, 62) 1893 eta 1990 urteetan dokumentatua: «*Bolin* ‘molino’ es término que debió ser corriente en lengua vasca, a juzgar por su presencia en toponimia (cf. en Vizcaya *Bolibar*, documentado *Molinibar*, *Bolinaga*). Hoy en día ha desaparecido de la lengua viva sustituido por el también latinismo *errota*. En Navarra no conocemos otra aparición del término que ésta».

Ugari da, bestela ere, mendebaldean baliatzen den lexikoa Burunda haranean eta ezaguna dugu, era berean, Burundako hizkeraren eta Mendebaldekoaren arteko hizkuntza ezaugarri kidetasuna. Toponimo hau eta *Burunda* bera ere, orduan, horietako beste bi izanen genituzke.

6. *Sare*, *Saroi*, *Sarobe/Sarabe* toponimo eta toponimo osagaiak

Hasteko, argitu beharko genuke euskal toponimian erabili diren hiru izen hauek gauza bera adierazten ote duten funtsean.

Lehena, **sare**, hiztegiak ematen dion esanahitik kanpo oso erabilia da Sakanako toponimian, esate baterako. Urbasa mendigainean eta Etxarri Aranazko eta Ergoienako eremuetan ezagunak ditugu *Arbizuko sareak*, *Erbisare*, *Biondasare*, *Ansareta*, *Itxere* (idi + sare)³⁷... Horietan guztietan, aipatu izenak duen esanahia ganadua biltzeko eta gaua pasatzeko tokiarena da. Gaztelaniako 'redil' adieraziko luke, beraz.

Gainerako izenak, izen konposatuak ditugu eta ia Nafarroa osoan eta Gipuzkoan erabiltzen dira. OEHN era ezberdinetan agertzen zaizkigu: *saroi*, *saroe*, *saro*, *sario*, *sare*, *sari*, *sagoi*, *saboi*, *saure*, *sauri*, *sao*, *zaro*, *xauri*, *isario*. Etimologia ere ematen digu: «De *sare* 'red' + *o(h)e* 'cama'». Eta esanahiari dagokionez, gaztelaniaz honelaxe definitzen du: «Sel, prado o terreno cercado, majada; prado, pastizal. Corral, con su choza para el ganado.»

Luis Mari Zalduak (2015) ere ez du inolako zalantzarik atal honen izenburuko bigarren izenaren osagaiei dagokienez:

Elkartua (mugatzailea [*sare*] + mugakizuna [*ohe*]), bi izenez osatua, den aldetik zehaztasun handiko terminoa dugu *saroi*. Zati garrantzitsuena, izen sintagamaren elementu nagusia (mugakizuna) *ohe* da eta mugakizuna bereizten duen osagaia, izen sintagamaren elementu nagusia mugatzen duena (mugatzailea), berriz, *sare*. Biak ala biak euskalki guztietan aspaldidanik azaltzen dira.

Eta hau guztia azpimarratuz, aurrerago, ondorengo dio: «Sare eta ohe euskalki eta garai guztietan azaltzen dira (cfr. Ol[h]a) eta, alde horretatik ez dago arazorik euskalkiak sortu aurrekoak izateko...» Baina, zer gertatzen da *sare*, beste osagairik gabe, eta beste aldetik *ohe* beharrean *ohatze/goatze/guatze* erabiltzen duten hizkeretako eremuetan?

Azkena, *sarobe/sarabe*, OEHN ere modu ezberdinetan ageri zaigu: *sarobe*, *sarobi*, *sarabe*. Eta esanahiari dagokionez, berriz, bat baino gehiago ematen du:

«...sel, terreno o prado cercado en el monte»; «sel, es un monte de árboles en círculo perfecto, con su mojón en el centro»; «*Sarabe*,

³⁷ Idi + sare > *itsare* (idi > it- konposizioan) > *itxare* (palatalizazioa) > *itxere* (asimilazio aurrerakaria).

redil, lugar en que se recoge por la noche el ganado lanar»; «1.º corral con su choza para el ganado; [...] 5.º *sel*, terreno particular rodeado de monte comunal»; «el contorno de la choza del pastor».

Mitxelena ere ondorengo moduan jaso zituen *Apellidos Vascos* liburuan:

539.- *sarobe*, *saroi* <*majada*> <*sel*> <*granja*>: *Sarobe* (Aguirre-sarobe, Amatasorobe), *Saroe*, *Saroihandy*. Parece un derivado de *sare* <*red*>, cf. cast. *redil* y *majada* (de *macula* <*mall*>). En Roncesvalles, 1284, *Larrandorenen bi saroh*e, *Arun Urriztoyen bi saroh*e <dos seles en L., en A.U.>. La variante *sario* está muy extendida en la Navarra alta.

Luis Mari Zalduak (2015) esaten digu ez dela *saroi* Euskal Herriko sartaldean agertzen: «Saroi-ren sartaldeko hutsunearen aurrean bi hipotesi jar daitezke mahai ganean».

Eta aurreraxeago: «Mendebaldean saroi zergatik ez den kausitzen azaltzeko beste bideabiak garaikideak direla iriztea da, ...»

J. Ortega Valcàrcelek (1987, 85) Cantabriakoak horrela definitu zituen:

...espacios dentro de las brañas, acomodados al descanso y refugio del ganado. Espacios privilegiados por sus condiciones: resguardados, con agua disponible, con arbolado para la protección, refugio y atemperamiento de los animales y con arbolado de apoyo para la alimentación de emergencia en los períodos de rigor invernal.

Eta Gipuzkoakoendako ere baliagarri dela definizioa esaten du Jose Ramón Díaz de Duranak (1995) eta euskaraz ondorengo izenak dituela garaiko Gipuzkoako dokumentazioan dio: *sarobe*, *saroe*, *saroi* edo *korta*.

Hau guztia ikusirik, badirudi esan daitekeela hiru izenek gauza bera ez bada ere, antzekoa bai bederen adierazten dutela, hau da, ganaduak gaua pasatzeko tokiari egiten diotela erreferentzia.

Hala ere, zehaztasunetan sartuz gero, izen horien osagaiak kontuan harturik, aipatu hiru izenei ezberdintasunen bat badariela esan dezakegu. Lehen-lehenik, *sare* izenak osagai bakarra du eta beste biek bina osagai. Orain, azken hauen kasuan zein izan daitekeen bigarren osagaia haztatu behar.

Lehentxeago aipatu dudan Díaz de Duranak esaten du 1483ko oñatiar baten arabera saroiak edo sarobeak asko zirela Oñatiko konderrian eta Gipuzkoan, eta bi motatakoak gainera: «...seles de ynbierno e seles de verano, ...» Eta autore berak diosku 1514ko Oiartzungo testu batean soilik lau zirela handienak, negukoak, eskualde osoan, eta *vehierdisarobeac* (que quiere decir seles de vacas paridas) esaten zitzaizela euskaraz. Handiagoak ziren negukoak udakoak baino. Udakoen tamaina bikoitza zeukaten negukoek Segurako hiriaren eta Oñatiko jaunaren arteko auzia jasotzen duen 1433ko dokumentuaren arabera: «... quatorze seles de berano de cada seys gorabiles ... e los tres seles para en cumplimiento de los dies e siete son de ynbierno de cada dose gorabiles...» Eta erabat logikoa ematen du horrela izatea, negukoak haranean izanik aukera gehiago (eremu zelaitsuagoa, ura, babes, iraunkortasuna...) izanzen zuelako zabalera gehiago hartzen, eta baita bertan denbora gehiago egoteko urtearen bueltan.

OEHN, eta Zalduak ere bai, argi izan dute *saroi* izenaren etimologia eta, beraz, osagaiak horrela azaldu dituzte: *sare* + *o(h)e*. Mitxelenak *Apellidos Vascos* laneko aipamenean ematen dizkigun azken bi toponimoetan oinarriturik, seguru asko. Bilgunea eta lo egiteko eremua. Eta kasu honetan ez litzateke, ez esanahiaren aldetik, ez osagaienetik ezberdintasunik izanzen *sarobe* izenarekin, ezaguna baita zenbait eremutan³⁸ *ohe* > *obe* bilakabidea gertatzen dela. Baina, hizkuntza-eremu berberak dira *obe* eta *sarabe/sarobe* izenak erabiltzen dituztenak? Ez dirudi hala denik. Hala ere, beste zenbait toponimoren kasuan gertatzen da honen osagaia baten eta erabilera arruntako hitzaren halako kidetasun eza: *atze* (hizkera arrunta), *Ezkibel* (haitz + gibel); *lazka* (nazka, hizkera arrunta), *iguindduik* (iguin eginik, esamolde berezia).

Niri, hala ere, ikusirik *sare* edo korta mota ezberdinak (kokapena eta tamaina, bereziki) direla Euskal Herrian, izenak ere ezberdintasun horien arabera izan daitezkeela iruditzen zait. Eta horrela, udako sareak goietan kokatuak izanzen lirateke; eta, negukoak, behean: *sare* + *goi* > *saroi*; *sare* + *be(he)* > *sarabe/sarobe*. Behe osagaiarekin bereziki, asko dira euskal toponimoak: *Olabe*, *Aldabe*, *Etxabe*, *Larrabe*...

³⁸ Horrela datorkigu OEHN: *obe* (V-gip, AN; Aq 758 (R))

Udakoak, *saroiak*, goietan beraz, asko dira Euskal Herri osoan (*Saroitxo*, *Perusaroi* eta *Sagarminsaroi* Olatzagutiako toponimian, *Saroi* Ziordikoan) eta negukoak, behealdean orduan, ere bai. Azken hauen lekuko Urdiaingo *Sarabe* (beste zazpi mikrotoponimo, honengandik eratorriak inguruan dituela Urdiainen bertan eta *Sarabeko hesiondo* Iturmendin), Dorraoko *Lexiza* eremuaren barnean, ibaitik gertu, *Veiemarisarobea* ere ageri zaigu Etxarri Aranzko udal artxiboko 1699ko mugarritzeetan) eta Oiartzungo *Olaiçko ogisarobea*.

Bestalde, *goi* izenondo moduan, hau da, bigarren osagai bezala, agertzen direneko adibide ugari ematen dizkigu OEhk, hauetan bereizirik ageri bada ere kasu guztietan:

... Mendi goi batzuek. Camp EE 1882a, 34. Zeru goi urdiñaren anditasun ta apainduriak. Ag G 11. Ots goi meagodun [ezkilak] dirala. A Ardi45. Donoki goian. Enb 142. Gaztain goiaren adar goietan. Or Eus 79. Zugatzik batere ez, toki goiegiaik baitira. Or QA 50. Alertzeak toki goiak ditu nai. Munita 72. ...

Eta Etxarri Aranatzeko *ganboiko* (ganbara + goiko, aipatu osagaia eskuin aldean) izena erabiltzen da «ganbara» adierazteko, hau da, etxeko teilatu azpian dagoen solairua.³⁹ Urdiainen eta Bakaikun, aldiz, *goikoganbara* erabiltzen dute.

Eta amaitzeko, ez nuke aipatu gabe utzi nahi Ingalaterrako hegoaldeko Salisbury hiriaren iparraldean, bi kilometro eskasera dagoen *Old Sarum* aztarnategi arkeologikoa, non duela 5000 urteko aztarnak baitira. Ingalaterran argitaraturiko «*Salisbury. A History & Celebration*» liburuan, Don Crosek hala dio:

When the Romans invaded southern England they captured the hilltop settlement quickly, and soon discovered the advantages of the site for a garrison signal station and communications center, which they called Sorbiodunum.

³⁹ Duela berrogeita hamar urte, etxe gehienek egitura bera zuten Etxarrin: beheko solairua (ezkarratza, sukaldea eta estrabia), ganbara edo erdiko solairua (ganbara-zelaia, gelak), ganbaragoikoa edo goiko solairua (bertan belarra bereziki gordetzen zen eta *pastardatik* estrabira botatzen zen belarra).

Mary Paiseyk, ni bertara bisitan joan eta ostatu emateaz gain gida lanak eskaini zizkidan sarumite prestuak, aipatu «sarea» bisitatzen ari ginela esan zidan zenbaitek erromatarrek jarritako izenetik eratortzen duela *Sarum* izena. *Sorbiodunum* > *Sor(biodun)um*, hipersinkopa buruturik, eta ondoren *sorum* > *sarum* transkribaketa okerra noizbait egin izanaren emaitza dela. Niri neuri, ez dit azalpen horrek asebetetzen, pentsatu nahi dudalako erromatarren aurretik ere, izanen zuela izena jarriarik halako toki estrategikoan zegoen bizilekuak, eta bereziki aipagarria iruditzen zait bere izena, *Sarum*, gure «sare» izenaren antza handikoa. Aztarnategi zirkularra dugu hauxe (*henge* Ingalaterran), gure sareen (saroi, sarobe, sarabe) modukoa eta egungo Salisbury (*Sarisberie* normandoen garaian)⁴⁰ hiriari New Sarum ere esaten omen zaio eta hiritarrei *sarumite*. Kasualitatea ote izenaren antzekotasuna?

I. irudia: *Old Sarum* (Salisbury, England) Ineternetetik hartutako irudia



⁴⁰ Rutherford (2015, 7).

Bibliografia

ALTADILL, J., 1934, *Castillos medioevales de Navarra*, Tomo I, Eukaltzaleak, Donostia.

———, 1917, *Geografía Histórica de Navarra*, Pamplona.

(ANONIMO), 1829, *Cuaderno de las leyes y agravios reparados*, Pamplona.

———, 1845, *Panorama español. Crónica contemporánea*, Tomo III. Madrid.

BARRENA OSORO, E., 1982, *Ordenanzas de la Hermandad de Guipúzcoa (1375-1463)*, Eusko Ikaskuntza.

BELASKO, M., 2000, *Diccionario etimológico de los nombres de los montes y ríos de Navarra*.

CARASATORRE VIDAURRE, R., 1990, *Barranca-Burunda*. (BB)

———, 1427, «Libro de fuegos de la merindad de las montañas», *documentanavarra.blogspot.com*

CROS, Don, 2012, *Salisbury. A History & Celebration*. The Francis Frith Collection.

DÍAZ DE DURANA ORTIZ DE URBINA, J.R., *De los Bandos a la Provincia: Transformaciones económicas, sociales y políticas en la Guipúzcoa de los siglos XIV a XVI*, 1995, EHU-Eusko Jaurlaritz.

ERDOZIA MAULEON, J.L., 2001, «Etxarri Aranazko leku-izenak», *FLV* 88.

———, 2002, «Bakaikuko leku-izenak», *FLV* 91.

ETXARRI ARANAZKO UDAL ARTXIBOA, 1537, «*Confirmacion de la sentencia dictada por el Doctor Goñi en autos sobre amojonamiento en la villa de Arbizu*».

———, 1699, «*Autos de amojonamiento de los Montes de Arizalco, Bargas, Berain, y Sel de Uzuar*».

———, (urte askotakoa), *Libro de la Claveria de los Beneficiados de la Iglesia Parrochial de la Villa de Echarri Arañaz con diferentes Curiosidades*, 419-1.

EUSKALTZAINDIA, 2016. *Euskaltzaindiaren hiztegia I-Z*, Euskaltzaindia, Andoain.

FELOSEN MORRAS, R., 1982, «Contribución al estudio de la iglesia navarra del siglo XIII: el libro del rediezmo de 1268», *Príncipe de Viana* 166-167, Pamplona, Príncipe de Viana.

- GALE, P., 2007, «Toponimia ikerketak», *FLV* 104
- JIMENO JURÍO, J. M., 1970, «El libro rubro de Iranzu», *Príncipe de Viana* 120-121.
- JIMENO JURÍO, J. M. et alii, 1993, *NTM XII*, Nafarroako Gobernua.
- , 1993, *NTM X*, Nafarroako Gobernua.
- KNÖR BORRÁS, H. eta MARTINEZ DE MADINA, E., 2008, *Gasteizko Toponimia I*, Euskaltzaindia.
- , 2009, *Gasteizko Toponimia II*, Euskaltzaindia.
- LACARRA DE MIGUEL, J. M., 1945, «Textos navarros del Códice de Roda», *Estudios de Edad Media de la Corona de Aragón*, 1», 193-284.
- MADOZ, P., 1846-1850, *Diccionario Geográfico-Estadístico-Histórico de España y sus posesiones de ultramar*.
- MAIORA, F., 2011, *Reino de Navarra. Injurias, coplas, frases*.
- MARTÍNEZ GARCÍA, L., «Historia documentada de ATAPUERCA», <http://www.cyl.com/atapuerca/indhistro.htm>.
- MARTÍNEZ DE MADINA SALAZAR, E., 2010, *Gasteizko Toponimia III*, Euskaltzaindia.
- , 2013, *Gasteizko Toponimia IV*, Euskaltzaindia.
- MICHELENA, L., 1989, *Apellidos Vascos*, Donostia. (AV)
- , 1990, «Fonética histórica vasca», *ASJU* IV.
- , *Orotariko Euskal Hiztegia*, Euskaltzaindia. (OEH)
- NAO (NAFARROAKO ARTXIBO OROKORRA), 1360, XIV. kutxa, 76.
- NIETO BALLESTER, E. & STRIANO CORROCHANO, A., 1997, *Breve diccionario de topónimos españoles*, Madrid, Alianza Editorial.
- ORTEGA VALCARCEL, J., *La Cantabria rural: sobre la montaña*, 1987, Santander.
- ROMÁN DEL CERRO, J. L., 1998, «La toponimia prehistórica de los alpes. Una aproximación a la reconstrucción de la lengua prehistórica de Europa», *ELUA*, Universidad de Alicante.
- RUIZ SAN PEDRO, M. T., 1997, *Fuentes documentales medievales del país vasco*, Archivo General de Navarra, II., Docs. 712-713.

RUTHERFURD, E., 2015, *Sarum (La novela de Inglaterra)*, Barcelona.

SALABERRI ZARATIEGI, P., 1997, «Euskal toponimiaz mintzo (Nafarroakoaz bereziki)», *FLV* 74.

———, 1998, «Arabako mugako nafar hizkeren inguruan», *Nafarroako hizkerak. Nafarroako Euskal Dialektologiako Jardunaldietako Agiriak*, UEU, Bilbo.

———, 1989, «Nafarroan erabiltzen diren zenbait toki-izenez», *FLV* 53.

———, 1996, «Iruñea: toponimia eta hizkuntza», in *Iruña eta euskara*, Iruñea.

———, 2002, «Acerca del euskera de Pamplona y sus alrededores», in A. García-Sanz (arg.) *La comarca de Pamplona. Territorio, economía, sociedad e historia*. Iruñea.

———, 2011, «De toponimia vasco-pirenaica: sobre el sufijo -otz, -oz(e)», *Nouvelle revue d'onomastique* 53.

SANTAZILIA, E., 2015, «Garai arkaikoko euskara nafarraren lekukotasun berriak: gehiketak eta zuzenketak F. Maioraren liburuari», *FLV* 119.

ZALDUA ETXABE, L. M., 2012, «Juan Arin Dorronsororen Enirio-Aralarko krokisa (1940)» *FLV* 115.

———, 2014, «Juan Arin Dorronsororen <Material Toponímico> argitaragabearen 25. paper-zorroa», *FLV* 117.

———, 2015, «*Saroi* entitate geografikoaren banaketa, esanahia eta etorkia toponimiaren argitan», *FLV* 119.

Hainbat ohar euskararen izen-flexioari buruz¹

Algunas notas sobre la flexión nominal
en la lengua vasca

Quelques notes sur la flexion nominale
dans la langue basque

Some observations on noun inflection in Basque

ODRIOZOLA, Juan Carlos
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

ETXEBARRIA, Edurne
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Noiz jaso: 2017-09-29
Noiz onartua: 2018-05-12

¹ Eskerrik asko Gorozikako herritarrei, batez ere bere etxean gogo onez hartu gaituzten hauei: Ana Aldana Barrena, Gregoria Esturo Orue, Maitene Etxeandia Etxeandia, Txomin Etxeandia Legina, Pilar Etxeandia Legina, Dorotea Etxeandia Legina, Anastasio Etxebarria Etxeandia, Rosi Etxeandia Etxebarria, Javier Etxebarria Idoeta, Rufino Etxebarria Petralanda, Jon Euba Olaeta, Kruzita Euba Olaeta, Ibon Gojenola Martitegi, Leire Gojenola Martitegi, Elker Gonzalez Larruzea, Marije Ipiña Salzedo, Teresa Irazabal Elorza, Jesusa Irazabal Elorza, Maria Irazabal Elorza, Maria Irazabal Izundegi, Amaia Isasi Amuriza, Gregorio Larruzea Furundarena, Marisol Larruzea Isasi, Alaitz Legarra Ipiña, Alberto Legarra Lasuen, Elisabet Legina Goikoetxea, Sabin Legina Goikoetxea, Itsaso Mallea Etxeandia, Jose Mallea Larrea, Karmele Martitegi Esturo, Felipe Martitegi Iturriotz, Eusebio Martitegi Zubiaga, Juan Oarbeaskoa Bikandi, Alazne Oarbeaskoa Etxeandia, Jesus Urkiza Etxebarria, Mariasun Urkiza Irazabal. Lan honen egileetako baten hizkuntz konpetentziaz gain, hiztun hauek guztiak dira Gorozikako euskara jatorraz zehaztapenak eman dizkigutenak.

Euskal gramatiketako «mugagabea», «mugatu singularra» eta «mugatu plurala», morfologia hutsezko paradigmaz joko dira, [+zehaztua] eta [+plurala] semantika-kontzeptuetatik ondo bereiziz. [+Hurbila] ere findu egingo dugu ildo berean. Zorrotz saiatuko gara kategoria funtzionaltzat jo litezkeen determinatzailea, zenbakia eta kasua segmentu foniko multzo jakin batzuei egotzen. Bazter hizkerek zehaztapen osagarriak baina argigarria(go)ak eskainiko dizkigute, datu diakroniko eta diasistematikoetan zehar.

Gako-hitzak: Izenen flexio-morfologia, diakronia, euskalkiak.

En este trabajo se mostrarán como paradigmas puramente morfológicos los que en las gramáticas vascas se han dado en llamar «indeterminado», «determinado singular» y «determinado plural». Para ello se distinguirán de esos conceptos morfológicos, los rasgos semánticos de [+específico] y [+plural]. Igualmente se afinará en torno al rasgo de [+cercano] que tiene una manifestación morfológica en el nombre vasco. Se intentará también adjudicar determinados segmentos morfofonéticos de esta complicada morfología a los determinantes, morfemas de número y de caso, que son categorías funcionales actualmente reconocidas a lo largo de todos los idiomas. En esa línea, los dialectos más apartados de la evolución general del idioma nos ofrecerán a través de sus datos una nueva visión diacrónica y diasistemática.

Palabras clave: Flexión morfológica nominal, diacronía, dialectos.

Dans cet article, nous montrerons comme des paradigmes purement morphologiques ceux que les grammaires basques ont appelé «indéterminé», «déterminé singulier» et «déterminé pluriel». À cette fin, les caractéristiques sémantiques de [+ spécifique] et [+ plural] seront distinguées de ces autres concepts morphologiques. Il sera également affiné autour du concept de [+ proche] qui a une manifestation morphologique au nom basque. Une tentative sera également faite pour assigner certains segments morfofonétiques de cette morphologie compliquée aux déterminants, aux morphèmes de nombres et de cas, qui sont des catégories fonctionnelles actuellement reconnues dans toutes les langues. Dans cette ligne, les dialectes les plus éloignés de l'évolution générale de la langue nous offriront, à travers leurs données, une nouvelle vision diachronique et diasystématique.

Mots-clés: morphologie flexionnelle des noms, diachronie, dialectes basques.

The “mugagabea” or indefinite case, “mugatu singularra”, definite singular and “mugatu plurala”, definite plural, of Basque grammars are treated as purely morphological paradigms and kept clearly distinct from the semantic concepts of [+zehaztua], [+definite], and [+plurala], [+plural]. We will also refine our understanding of [+Hurbila], [+Proximal], in the same light. We shall be rigorous in assigning determiners, number and case, all of which may be considered functional categories, to specific groups of phonic segments. Marginal forms of speech offer us complementary but enlightening details through diachronic and diasystemic data.

Keywords: noun inflection morphology, diachronic, Basque dialects.

Ezaguna da egungo hizkuntzalariak saiatzen ari direla giza hizkuntza oro-ren ezaugarriak formalizazio abstraktu bakar baten pean bildu ahal izateko. Horrela, ahaleginetan dabiltza giza lengoaia espeziearen burmuinaren ezaugarriekin uztartzeko, eta sakonean, hizkuntzalaritzari ere biologiaren ikuspegia emateko.

Eguno lanek, bada, hainbat formalizazio erabiltzen dituzte hizkuntza guztien funtsa deskribatzeko eta hizkuntzaz hizkuntza aurki litezkeen datu enpiriko berriak aurrean ahal izateko. Horretarako, baina, sendo erabaki dute hizkuntza guztietarako eredu berbera erabiltzea.

Euskararen gramatika-tradizioa hainbat kontutan ez da oso hurbil ibili beste hizkuntzekiko parekatze horretatik. Hala ere, flexio morfologiari begira jartzen garela, esan dezakegu euskal aditz jokatua ederki parekatua dagoela munduko beste hizkuntzekin: ederki antzeman eta deskribatuta daude izenetan, hau da, gehienetan argumentu funtzioa betetzen duten gramatika-kategoria horretako kideetan azaltzen diren funtzio-kategoriek edota kategoria funtzionalek, hau da, kasu markek eta zenbaki-markek aditzean bertan duten isla edota komuntadura-klitikoak. Horrekin esan nahi dugu agerian gelditu dela, dauden funtzio-kategoriak daudela ere, euskal aditzak bat egiten duela munduko hizkuntzek aditzetan erakusten dituzten funtzio-kategoriekin.

Izen-morfologiaz ari garela, ordea, euskararen datuz datuko deskripzio xehea ez da beti ondo moldatu egun eskaintzen diren eta zabalki onartuak diren formalizazio moduekin. Bestela esanda, ez zaizkio behar bezain argi azaldu munduan zeharreko hizkuntzalaritza-komunitateari ustez banan-banan bereizi beharko lirakeen euskal funtzio-kategoriak. Lan honek, aurre-rapauso bat eman nahi du euskal izenaren «homologazio» kontu honetan, edo bestela esanda, euskal izenaren funtzio-kategoriak ondo zedarritzatzeko ahalegin bat egin nahi du, munduko beste hizkuntzekin bat eginez.

Labur esanda, euskarak badu kasu-sistema oso ageria, zenbaki-marka nahiko ageria eta, zer esanik ez, determinatzaile atxikiak eta atxikigabeak. Hizkuntza honen ezaugarri parametrikoei, ordea, nekez uzten dute flexioari dagozkion funtzio-kategoria funtzional horiek elkarrengandik eroso bereizten, eta ondorioz nekez zatika daitezke egun gramatika unibertsala de-

ritzon horren itzalpean zabalki onartuak dauden kategorietan. Euskara hizkuntza erabiltzen dugunok barneratua daukagu, jakina, morfofonetika korapilatsu hori, baina deskripzioek, bere horretan, ezer gutxi balio dute, maila abstraktuan euskal hiztuna ez den aditu bati parametroak azaltzeko unean.

Gauzak horrela, ulergarria da «deklinabide singularra», «deklinabide plurala» eta «deklinabide mugagabea» direlako deizioak eta kontzeptu ez oso argiak erabili izana, hau da, ulergarria da argiro bereizi ez izana determinatzailearen agerpena edo determinatzailearik eza, zenbaki-markaren presentzia edo zenbaki-markarik eza, eta ageriko kasu markak eta postposizio atxikiak beraiek. Bestela esanda, hiru deizio hauek, *de factoko* paradigma edota errealitate morfologiko bati egiten diote erreferentzia lehenengo hurbilketa batean. Egia da deizioak beraiek estuki lotuta daudela sintaxi-testuinguru banari, hots, hiru horietako bakoitza estuki lotuta dago «singular», «plural» edo «mugagabe»tzat hartzen dugun perpaus-testuinguru batekin. Hala ere, deitura hauek bi oztupo nagusi jartzen dizkiote edozein ikerketa-metodologiari: batetik paradigmatako forma batzuek ez dute beti hartzen beraiangandik espero daitekeen semantika-irakurketa. Izatez, morfologiari eta sintaxiari begira «mugatua» deitu izan denak ez du beti nolabaiteko semantika mailan irakurketa «mugatua».

Horrela, bada, argi bereizi beharko ditugu elkarrengandik morfologia mailan «mugatua» deitu izan dena eta semantika mailan irakurketa mugatua edo zehaztua hartzen duena: morfologia mailako paradigma mugatuaz mintzatuko gara lehenengoan, eta tartean irakurketa zehaztua dugula esango dugu bigarreanean, betiere bata bestearrengandik argiro bananduz.

Beste oztupo bat ikusten dugu, «mugagabea» bereizi delako batetik, eta «mugatu singularra» eta «mugatu plurala» bestetik. Ikuspegi hone-tatik ere, morfologia mailako singular/plural markez mintzatuko gara batetik, eta irakurketa singularra/irakurketa pluralaz mintzatuko gara bestetik.

Aurreko guztiarekin batera, ez dute beti aukera ematen determinatzaileek, zenbaki-markek, kasuek eta postposizioek elkarrengandik ondo berei-ziak izateko, eta behar bezalako formalizazio argia gauzatzeko.

Hala ere, tankera honetako morfologia-deskripzio hirukoitzek bere horretan iraun dute hizkuntza honen gramatika-tradizio luzean, eta «egon badauden» hiru morfologia-paradigma horiei etiketa bana jarri zaie, morfologian eta sintaxi-testuinguruetan oinarrituta. Garbi dago, bada, honelako hiru paradigma deskribatu direla morfosintaxian oinarrituta: [+mugatua, +singularra], [-mugatua] eta [+mugatua, +plurala]. Lan honetan, [+zehaztua] eta [+plurala] tasun semantikoak erabiliko ditugu hiru errealitate morfosintaktiko horiek areago zehazteko, eta agian espero ez bezalako tasun-konbinazioak agerian uzteko. Era berean, kontuan izango dugu gramatika-tradizioak zeharka baizik aipatzen ez duen [+hurbila] tasuna.

Beste ikuspegi batetik, berriki plazaratu diren lanetan, argiro adierazi da ezinbestekoa gertatuko dela aurrerantzean euskal morfologiak jasan dituen bilakaera bideak kontuan izatea, egungo euskal sistemaren datu sinkronikoak ondo antzemango badira. Ildo horretan aurrera eginez, lan honek aurrerapauso txiki bat egingo du euskararen historia ezagutzeko ahaleginetan, baina gainera egungo euskararen hainbat aldaera hartuko ditu aztergai, puzzle honetako pieza guztiak bere tokian doi-doi kokatzeko. Bereziki, Gorozika herrian egiten den bizkaierazko hizkeraren zehaztapenei erreparatu ko diegu, apur bat hobeto ulertu nahi baitugu batuak oinarri dituen euskalkietan ondo zedarritzatzen ez dena eta oro har euskal hizkera guztiak.

Lana beraz, honelako ardatzetan egituratuko da:

- 1) Hasiera-hasierakoa izango da euskarak deklinabidea baduelako ideia-
ren aurkako datu edo argudio berriak aurkitzea, hain zuzen ere deklinabidea duten hizkuntzetako flexiodun formetan nekez bereizten baitira zati lexikoak eta flexio zatiak, eta nekezagor flexio zatiak beraien elkarrengandik.
- 2) Ondo finkatu beharko dugu benetan semantikako kontzeptu banari ote dagozkion sintaxi-testuinguru jakin horiei lotuta ondo zedarritzatzen diren «mugatu singularra», «mugatu plurala» eta «mugagabea» morfologia-paradigmak. Horretaz gain, lan honek gogora ekarriko du, izatez, kontuan hartu beharko liratekeela «mugatu singular hurbila» eta «mugatu plural hurbila» morfologia eta semantika-kontzeptuak ere.

- 3) Paradigma hirukoitz horretan zorrotz begiratu beharko dugu funtsez-kotzat hartu izan diren [+plurala] tasunak benetan islatzen ote diren sintaxian eta semantikan.
- 4) [+Mugatua] tasunak ere ustez ondo kokatu dituzte egileek hiru paradigma horietan zehar, baina azertu beharrekoa da sailkapen hori zertan datzan semantikan, bai eta morfologian bertan zein zatiri dagoen tasun bakoitza. Alegia, «mugatua» etiketa morfologikoa, gure deskripzio lanetan errotua dagoelarik ere, ondo zedarritzatu beharko da «zehaztutzat» jo izaten den semantika-irakurketa mota batetik. Horrela, bada, mugatu/mugagabe horiek *de facto* morfologiako zehaztapentzat joko ditugu, eta ondo bereiziko ditugu ezkutuago dauden sintaxi- eta semantika-errealitateetatik. Azken hauek, [+zehaztua] semantika-tasunetan islatuta ikusiko ditugu.
- 5) Berdin begiratu beharko dugu «hurbila» deitu izan den tasun horrek nola estutzenago duen sintaxi/morfologia/semantika korapiloa, diakronian zein sinkronian.
- 6) Egungo euskal postposizioak ere ondo deskribatuta daude sintaxi-tesuinguruko eta morfologiako hainbat ezaugarritan oinarrituta, baina azaldu egin beharko dugu zertan urruntzen diren postposizioa buru duten sintagmak, determinatzaile buru duten sintagmetatik. Izan ere, gogora ekartzekoa da ustez determinatzaile-sintagma bat dutela postposizio-sintagmek osagarriaren tokian. Lan honetan, saiaturako gara sinkroniako datuetan bi sintagma motetan azaltzen den izugarritzko irregulartasunaren deskripzioan aurrera egiten.

Bukatzeko, aurretik iradokia dugu ezin azter daitezkeela morfosintaxia-
ren ikuspegi soiletik determinatzaile-sintagmak edota izen-sintagma soilak.
Aurrean aipaturiko tasunek oso ondorio desberdinak eta korapilatsuak
ematen dituzte paradigma morfofonetiko hauetan zehar, alegia, [+muga-
tua], [+plurala] eta [+hurbila] tasunetan zehar. Hori dela eta, sintaxiak
eta morfologiak bat egiten dute lan honetan, bi atal nagusi osatu beharra
agerian uzteko: determinatzaileen sintagma funtzionalerainoko morfofo-
nologia aztertuko dugu lehenengo atal nagusian (→§1), eta postposizioen
sintagmetarainokoa bigarren batean (→§2).

1. Determinatzaile-sintagmak

Sarreran esana dugu determinatzaile, zenbaki-marka, kasu marka eta postposizioen morfologiako euskal korapiloaz arituko garela. Bestetik, gure egingo ditugu bai gutxienezko termino batzuk eta bai egitura-harremanak irudikatzeko esparru gutxieneko bat, nola edo hala X-barraren gramatikari dagokiona, eta egituren barruan kategoria lexikoak eta funtzionalak elkarrengandik bereizten dituen.

Badakigu egun hiztegi-kategoriak edo kategoria lexikoak ez ezik, funtzio-kategoriak edo kategoria funtzionalak ere irudikatzen direla dibulgazio mailako idatzietan zein ikerkuntza goreneko mailakoetan. Alegia, eduki lexikorik gabe «hitzen arteko harremanak» azaltzen dituzten osagai funtzional horiek ere bere sintagma propioaren buru bide dira teoria-lanen arabera, eta oro har, buru funtzional horiek sintagma lexiko bat dute bere osagarrian. Hala onartzen ari da hizkuntza guztietan zehar, bai giza burmuinak duen hizkuntza ahalmen abstraktu hori formalatzeko, bai eta besterik gabe hizkuntza guztien datuak era bakar batez bildu eta irudikatzeko.

Ikuspegi horretatik, esan daiteke euskal aditz jokatuaren esparruan agerian utzi dela giza hizkuntza guztiekiko parekatze edo unibertsaltasun hori: aditz jokatuan zehatz-mehatz identifikatuta daude absolutibo, ergatibo eta datibo kasu markadun izenekiko komunztadura-klitikoak. Areago, hainbat kategoria funtzionalen existentzia onartu da, euskal atzizki horien guztien gorabeheren berri emateko (Laka 1993), eta X-barra gramatika deritzon horren arabera eredutzeko. Adibide erraza eta ezaguna jartze aldera, *-k* kasu marka izen-esparru batean, zehatz-mehatz uztartzen da adibidez *-t* batekin aditz laguntzailean. Lan batzuetan (Laka 1993), onartu da *-t* hori dena delako sintagma-kategoria baten buru dela, aditz jokatuaren beste zati guztiak bezala. Gainera, formalizazio horretako kategoria funtzional horiek guztiak buruz buruko mugimenduak egiten dituzte azkenean adizki jokatu osoa emateko.

Izenaren esparrura goazela, egun nahiko onartua dago (Abney 1987, Artiagoitia 1998, Artiagoitia 2012) euskararako zein beste hizkuntza batzuetarako determinatzaile-sintagma bat eduki badaukagula eta hori onar-

tuta mintzatuko gara aurrerantzean atal honetan. Esana dugu hala ere lan honek ez duela teoria-ekarpenik egingo, eta determinatzaile-sintagmaren existentzia onartuta, determinatzailearen ageriko agerpenaz baizik ez gara mintzatuko.

Bistan da abiapuntuan euskal tradizioan «mugatzaile» deitu izan den *-a* atzizkia koka dezakegula izenaren flexio-korapiloaren buruan. Horretaz gain, baina, ikusteko dago bestelako «errealitate» funtzional batzuk ere bertan ote dauden ala, bestela esanda, horrelakoek sintagma propioa eratzen duten: zenbaki-markak eta zenbatzaileak, eta kasu markak. Edonola, zorrotz jokatu dugu terminologian, eta *-a* delako horri (determinatzaile) mugatzailea deituko diogu, eta izenei eranstean (ez) zaizkien *hau* bezalakoak, (determinatzaile) erakusleak izango dira gure terminologian. Horretaz guztiaz gain, «hurbila» deitu izan den paradigmaren baitan, ondo zedarritzatu beharko dugu zertan den mugatzaile baten eta erakusle atxiki baten arteko aldea.

Izenean zehar ezkerretik eskuinera mugituko gara, bada, ustez osagarri direnetatik buru direnetara, eta jakina, lexikoa den izenetik eskuinera egon daitezkeen kategoria funtzionaletara.

Zati bakoitza ondo zedarritzatzea dugu helburu, hau da, ohiko islapeneta «zuhaitzen» buruetan kokatzea. Horretarako bibliografian oinarrituta, gure ustez berri diren hainbat ideia emango ditugu, terminologia-zorroztasun handiegirik gabe onartzen diren «mugatu singularra», «mugatu plurala» eta «mugagabea» paradigmenguruan.

Edonola, hiru ikuspegitik jorratu nahi dugu izen-morfologia honen korapiloa: lehenengo eta behin, determinatzaile mugatzaile atxikien eta determinatzaile erakusleen arteko harremana hartuko dugu hizpide (→§1.1). Bigarrenik, pluralean eta zehar kasu markekin batera euskalkiek elkarrekin erakusten dituzten aldeak aztertuko ditugu (→§1.2). Hirugarrenik, *-a* itsatsiekin batera euskalkiek elkarrekin erakusten dituzten aldeak aztertuko ditugu (→§1.3). Laugarrenik, saiaturako gara [+plurala] eta [+zehaztua] edo [+mugatua] morfologian eta semantikan ondo bereizten. Bosgarrenik, *-ø* markaren eta markaren arteko harremanaz arituko gara, atalari bukaera emateko.

1.1. Determinatzaile erakusleetatik determinatzaile mugatzaileetarako bilakaera

Ezaguna da euskararen historiako une jakin batean sortu zela *-a* hori, hau da, determinatzaile mugatzailea. Traskek (1997) aditzera eman zigun Akitaniako inskripzioetan ez zela agertzen mugatzailearen aztarnarik ere. Hori dela eta, uste dute determinatzaile hori VIII. eta X. mendeen artean sortu zela. Izan ere, Irigoienek (1978a, 1981) erakutsi zigun erakusleetatik sortu zirela *-a* zein hurbileko *-o* horiek. Ez dugu, beraz, terminologia-eragozpenik ikusten hurrenez hurren «determinatzaile mugatzailea» eta «determinatzaile mugatzaile hurbila» izendatzeko bi atzizki horiek.

Idea horren alde eginez, Azkaratek eta Altunak (2001: 70-77 orr., 38-40) agerian jarri dute euskararen historian zehar mugatzailerik gabe erabili izan direla bai ergatibo edo datibo kasu marka daramatenak, bai instrumentala izeneko postposizioa daramatenak ere. Edonola, egile hauek aditzera eman digute gradu bakoitzeko erakusletik atzizki bana sortu zela, egun mugatzaile hurbila euskalki guztietan azaltzen ez bada ere:

- (1) hau(r) > -au, -or
 hori > -ori
 *(h)a(r) > -a

Azpimarratu beharrekoa da, ordea, egile hauek bi «artikulu» baizik ez dituztela ikusten pluralean: *-ok* eta *-ak*. Aurrerantzean, pluraleko mugatzaile atxikiez mintzatuko gara kasu hauetan ere.

Bestetik, (1) bilakaera-eredu bakun horretan, fonetika-bilakaeraren berri zehatza ematen da, baina ez, ordea, semantikaren bilakaeraren berri. Mante-rolak (2012) aurrerapauso bat eman du orain dela ez asko plazaratu duen lanean. Izan ere, gure ustez egokia den metodologia bati eusten dio Mante-rolak, diakronia erabiltzen baitu bestela ulertezinak izango liratekeen datu sinkronikoak eta diasistematikoak ondo ulertzeko.

Egile hauen arabera, *ⁱhar* > *-a* aldaketa gertatu ostean sortuko zen *hura*, mendebaldetik kanpo erabiltzen den determinatzaile erakusle atxikigabea.

Bibliografiak ez du gure ustez behar bezainbeste azpimarratu mendebaldean baizik bizirik ez dagoen (h)a(r) horretatik sortuko zela antza -a mugatzailea, egun euskara guztietan bizirik dagoena. Hau ez da paradigma hirukoitzeko zehaztapen txiki bat, zeren eta esan baitezakegu hizkuntzaren maila guztietan determinatzailearen bi aldaera desberdin direla «erakuslea» (determinatzaile atxikigabea) eta «artikulua» (determinatzaile atxikia, euskaraz); hala da batez ere erakusleek (galdu) dituzten balio deiktiko eta anaforikoen ikuspegitik.

Izan ere, Gorozikako datuetan bertan, hiru aldaera-lerro horiek elkarrekin lotuta azaltzen dira, baina oso ondo bereizita beste hizkeretatik:

- (2) a mutil hau / mutil hori / mutil hura (Gorozikako hizkeratik kanpo)
- b hau mutille / hori mutille/ha mutille (Gorozikan behintzat)
- (3) a hau mutilleu / hori mutillori (Gorozikan behintzat)
- b mutilleu / mutillori (Gorozikan behintzat)
- (4) a mutil(l)a (Gorozikako hizkeretatik kanpo)
- b mutille (Gorozikan behintzat)

Horrela, bada, lehenengo eta behin (2a/b) banaketa dialektalaren berri eman behar dugu: Gorozikako hizkerak ez dauka determinatzaile erakusle atxikigabea sintagma-buruaren toki estandarrean kokatzerik. Horren ordez, izenaren aurreko determinatzaile atxikigabea erabiltzen du (3a), atzean determinatzaile mugatzaile atxikia daramalarik (-eu, -ori). Egun *de facto* euskalkien artean gertatzen den banaketa delarik, onartu beharrekoa da (2a) eta (2b)koak balio deiktiko-anaforiko berberak dituztela. Hori hala izango da, nahiz eta (2a)koan eta (2b)koan determinatzaile-buru desberdinak azaldu, hau da, nahiz eta (2a)koan determinatzaile erakusle atxikigabea azaldu, eta (2b)koan determinatzaile mugatzailea azaldu: *mutil hau* eta *hau mutile* aldaerek osatzen dute banaketa dialektala, eta beraz, balio berberak dituztela ondorioztatuko dugu teoria mailan behintzat (2a=2b).

Horretaz gain, Gorozikako hizkeran behintzat, izen aurreko erakuslea eta izen atzeko erakuslea batera azaldu daitezke (3a), baina atzean agertzeko-

tan, atxikita baizik ez da azaltzen. Gauzak horrela, balio deiktiko-anaforikoetan (2a=2b) berdinketa onartu badugu, badirudi orain (2=3) erabateko berdinketa onartu behar dugula. Horrek zeresan handia eman dezake, zeren eta behin eta berriz onartzen ari baikara balio berberak lortzen ari garela, determinatzaile-buru desberdinak egonda ere.

Manterolak (2012) aldiz, «gramatika-aldaketa» bat ikusten du erakusleetatik mugatzaileetarako jauzi horretan, eta esan beharrekoa da antzerako gramatika-aldaketa gertatu zela latinetik hizkuntza erromanikoetara ere: determinatzaile erakusleetatik artikulua «mugatua» deitu izan den horretara (mugatzaile mugatu atxikigabera gaztelaniaren kasuan). Manterolak ezer gutxi dio (*h*)*au* > *-au* aldaketaren funtsaz. Edonola, iradokitzen du gure (*h*)*ar* > *-a* horretan artikulua sortu zela, baina agian artikulua hori ez dela gaztelaniaz sortu zen artikulua bezain zehaztua (lan honetan erabiliko dugun semantika-terminologiari jarraituta). [-Zehaztua] tasuna izan lezakeen artikulua horren hipotesitik abiatuko gara hemen.

Guk geuk uste dugu gramatika-etiketa hutsa gabe, mamitsuagoa den beste zerbait behar dugula erakuslea > artikulua aldaketa zedarritzatzeko. Alegia, determinatzaile izeneko gramatika-kategoriaren barruan gertaturiko aldaketa ondo egiaztatu behar da perpausaren edota testuaren gramatikan. Lehenengo bi mailetakoa determinatzaileen balio deiktiko eta anaforikoez ari garelarik, ez dago inongo eragozpenik, ez datu enpirikoetan, ez teoria mailan determinatzaile erakusle atxikigabeetatik determinatzaile atxikiatarako (1) semantika-aldaketarik gertatu ez dela onartzeko: lehen zituzten balio deiktiko-anaforikoei eutsiko diete atxikita daudenean ere. Horrek esan nahi du lan honetan behintzat erabat baztertuko dugula «artikulua» delako kontzeptua eta terminoa, bai behintzat euskal gramatikaz ari garenean. Horren orde, determinatzaile atxikiez eta atxikigabeez mintzatuko gara, eta ahal delarik, bien arteko semantika-desberdintasunez aritu gara.

Gainera, esana dugu egungo euskararen egoera diasistematikoa elkarrekiko banaketa dialektala dutela erakusle atxikibagea buru duten sintagmek (2a) eta aurretik determinatzaile erakuslea izanda atzean kokatzen den determinatzaile mugatzaile atxikiak (2b). Horrela, bada, euskalkietan zehar behintzat, determinatzaile mugatzaile atxikiak (izenak aurrean erakusle

atxikigabea duelarik), eta determinatzaile erakusle atxikiak edo atxikigabeak balio anaforiko berberak dituzte.

Hirugarren mailako erakusleari azalezko begirada bat eginda, behean dagoen (5a-b) horietan balio deiktikoa zein anaforikoa gerta daiteke:

- (5) a Gizon hura (anaforikoa edo deiktikoa)
- b (Ha) gizon(a) (anaforikoa edo deiktikoa)
- c gizona (-deiktikoa)

Garaia da beraz balio deiktiko-anaforikoei apur bat astiroago erreparatzeko. Ñabardurak ñabardura, lehen eta bigarren mailako erakusleek bi balio har ditzakete. Deixian, hiztunarekiko hurbiltasun maila desberdinak adierazten dituzte *hau* eta *hori* erakusleek (5a). Zenbaitetan, ordea, bi erakusle horiek testu mailako balioa hartzen dute, eta perpaus mailatik gora erreferentzia egiten diote aurrean aipatutako zerbaiti edo beranduago aipatutako zerbaiti:

- (6) a Gizon hau/hori/hura
- anaforikoa: aipatua dugun hau/hori/hura
- deiktikoa: hemen/hor/han ikusten duguna

Ikus bitez, ordea, hirugarren mailakoak ematen dituen aukerak:

- (7) a Ha gizona (anaforikoa edo deiktikoa)
- anaforikoa: aipatua dugun hura
- deiktikoa: han urrunean ikusten duguna
- b gizona (-deiktikoa)
- anaforikoa: aipatua dugun hori

Beraz, azpimarratu beharrekoa da euskararen historian «artikulu», «mugatzaile» edo «determinatzaile mugatzaile atxikia» delako horren sorreran galdu egin direla hirugarren mailako erakuslean bide zeuden balio deiktikoak. Alegia, ez ditugu lan honetan sakon aztertuko mugatzailearen anafora/katafora kontuak, baina garbi dago mugatzaile honek «galdua» duela hiztunarekiko distantzia adierazteko ahalmena: *gizonak* ez da distantzia adierazteko erabiltzen, eta *gizoneu* / *gizon hau*, *gizonori* / *gizon hori*, bai.

Gauzak horrela izanik ere, onartu beharrekoa da Gorozikako (7a) formek eutsi diezaioketela deixi lanari, *-a* burua izanda ere aurrean erakuslea daramatelarik:

(8) a deiktiko-anaforikoak

Hau gizona, hau gizona, gizona

hori gizonori, gizonori

ha gizona

b anaforikoa edo erreferentzial hutsa

gizona

Behin mugatzailea deitura edota kontzeptua gure gramatikan errotuta, gramatika-tradizioan ere izugarri errotua egon da hainbat «deklinabide» ikusteko ohitura, mugatzaileak egiten omen dituen agerpenei begira jarrita. Geroago, ustezko deklinabidea delako kontzeptuaz gain, postposizio atxikiak eta kasu markak deskribatuko ditugu baina edonola, «mugatu singularra», «mugatu plurala» eta «mugagabea» direlako kontzeptuak eta terminoak dira nagusi gurean (Azkarate & Altuna 2001, Azkue 1923-25[1969a: §453], Euskaltzaindia 1985, Goenaga 1980, Labayru 2002: §6, Lafitte 1944: §364, Villasante, 1972: 8).

Aukera hauek guztiak [+mugatua] eta [+plurala] morfologia-tasunen arteko konbinazioei dagozkie (Azkaratek eta Altunak 2001: 48), eta esana dugu horietaz gain [+hurbila] ekarri nahi izan dugula lan honetara. Gainera, aditzean ere biltzen den plural aukeraren berri emango dugu, aurrerantzean mugagabea deitu izan denaren semantika argitu nahirik.

Horrela, bada, *-a*, *-eu* eta *-ori* determinatzaile atxikiak ditugu euskal ize-nean, betiere aditzean irudikatuko den singularraren barruan. Gure ustez, eroso erabil litezke «mugatzailea», «lehen mailako mugatzaile hurbila» eta «bigarren mailako mugatzaile hurbila», determinatzaile sorta hauen hiru aukerak izendatzeko. Hala ere, bide zailago baina argigarriago bati ekingo diogu.

Beti kontu horretaz ari garela, euskararen bilakaerako une batean, erreferentziadun sintagmetatik erreferentziarik gabeko sintagmetara hedatu zen

-a mugatzailea. Alegia, argumentu funtzioa betetzen duten izen-sintagmetara sartu zen lehenago, eta predikatu funtzioa betetzen duten sintagmetara hedatu zen beranduago. Izan ere, nahiko ikuspegi estandarra da determinatzailea erreferentziarekin uztartzea eta ondorioz argumentu funtzioa bete ahal izatearekin lotzea (Artiagoitia 2012: §3).

Ez da hutsala hemen gramatika-funtzioen aipua: gehienetan betetzen duten argumentu funtzioaren bidez zedarriztatzen ditugu guk izenak, izakiei erreferentzia egiten dietenak. Bestetik, ezaguna da predikatu funtzioa betetzen duten osagai gehienak ez direla izenak, baina hainbat izenek ere bete dezaketela funtzio hori. Berez kontzeptu sinkroniko bati uztartuta dagoen funtzio sorta hori uste baino estuago lotuta dago mugatzailearen bilakaerari. Izan ere, bibliografiak hurbila ez den mugatzailearen bilakaeraren berri baizik ez du eman.

Eztabaida garrantzitsua da euskal lanetan predikatuetakoa *-a* horren izaera zehazteko ahaleginetan sartuta (Artiagoitia 1998, 2012: §3.3, Egueren 2012, Manterola 2012, Zabala 2003, Odriozola & Altzibar 2013): zenbaki-komuntadura (*-a* / *-ak*) ala artikulua ote da predikatuetakoa *-a* hori? Izatez, predikatu funtzioa betetzen duten izenak ez dira hain ugariak, baina funtzio hori eskuragarria dutelarik, horrelakoetan ere *-a* mugatzailea hartzen dute, aurretik espero litekeen sintaxi eta semantika bati uko eginez.

Esana dago, ordea, *-a* ez dela euskal izenetan ageri den determinatzaile bakarra. Izan ere, *-a* markatugabea eta *-eu*, *-ori* / *-o* hurbilak elkarren ondoan aztertuko ditugularik, lan honetan argiro esan behar dugu aldaera hurbilak ez direla predikatuetakara iritsi euskararen bilakaeran:

- (9) a Hizkuntzalariak/hizkuntzalariok arituko gara horretan
- b Gu hizkuntzalari(ak) gara, ez teknikariak
- c Gu hizkuntzalari(*ok) gara, ez teknikariak

Horrela, bada, dena delako *-a* determinatzaile mugatzaile atxikia da lehenago argumentu funtziodunetara eta gero predikatu funtziodunetara iritsi zena. Mugatzaile hurbila, esan bezala, paradigma baten bidez estuki lotuta dago bai *-a* mugatzailearekin, bai eta (beste) erakusleekin, baina izen-sin-

tagmetara baizik ez zen sartu. Hau dela eta, gogoratu beharrekoa da *-a* beti deixigabetzat joko badugu ere, erakusle atxikiak zein atxikigabeak deixidunak zein deixigabeak izan daitezkeela. Diakroniako hausnarketa honek bat egiten du [-hurbila] tasuneko mugatzaileak eta [+hurbila] tasuneko mugatzaileek hartzen dituzten balio deiktiko-anaforikoen arteko sinkronia-desberdintasunekin.

Beraz, gogoan izan beharko dugu batetik *-a* mugatzailea (baina ez *-eu*, *-ori* / *-o* direlakoak) syntaxian determinatzaileek ohikoa ez duten funtzio-esparru batera iritsi zela euskaraz:

- 1) *-a* mugatzailea argumentu funtzioko sintagmetan sortu zen, nonbait erakusle atxikigabea izenari erantsita. Atxikitze horretan, galdu egin zuen bere deixi funtzioa.
- 2) *-a* mugatzailea predikatu funtzioko sintagmetara hedatu zen.
- 3) Pentsa dezakegu [+hurbila] diren *-eu* / *-ori* direlakoak ere erakusleak izenari erantsita sortu zirela.
- 4) *-eu* / *-ori* ez ziren predikatueta hedatu. Hauek deixi funtzioari eusten diote, betiere anafora/katafora balioak ere har ditzaketelarik.

Jo dezagun, baina, mugatzaile bat agertzearen funtsera: determinatzaile batek ematen duen irakurketa espezifiko, edota zehaztua (☞ mugatua, morfologian). Hala onartu izan da abiapuntuan inguruko hizkuntzetan (Mantecón 2012: §2).

Gure gramatika-tradizioko paradigma hauek, hartu duten izena hartu dutela, bere horretan onartzeak eragozpen handiak sortzen ditu euskararen joskera beste hizkuntzen joskerarekin erkatzeko unean. Izatez, ulergarria da, gure gramatika-tradizioan kategoria funtzionala bereizi beharrean, «mugatu singularra» bezalako multzo-errealitate morfofonologikoak, eta, areago, «mugatu singularra-ergatiboa» bezalako multzo-errealitate morfofonologikoak onartzea eta dauden daudenean deskribatzea: *-a*, bere horretan, oso gutxitan azaltzen da ustez agertu beharko lukeen bi paradigma mugatueta (10), eta Traskek (2003) esan bezala *-a* mugatzaile agerikoek ez dute beti ereduazko irakurketa zehaztua ematen (11):

- (10) a Gure gizonen egin dute (mugatu plurala, baina ageriko *-a* mugatzailerik gabea)
- b Etxetik nator (mugatu singularra, baina ageriko *-a* mugatzailerik gabea)
- (11) Gizonen egiten dute hori (mugatu plurala, irakurketa generikoa)

Horrela, badirudi Manterola (2012) zuzen dabilela eta *-a* hori artikulatu bat dela, baina agian ez da erreferentzia zehaztua emateko artikulatu mugatu bat, edo artikulatu mugatu hutsa. Gure terminologia zorrotzari eutsita, bada, morfologian «mugaturik» deritzona ez da halaberrez zehaztua. Gogoratu beharrekia da determinatzaileak balio anitzak har ditzakeela hizkuntza jakin batean, eta areago hizkuntzetan zehar. Mugatzaile hurbilak, jakina, beste semantika-balio bat du eta areago, beste sintaxi bat.

Lehenik, «mugatu» eta «mugagabe» direlako termino horiek «irakurketa espezifikoa» edo eta «irakurketa zehaztua» eta «irakurketa ez-espezifikoa» edo eta «irakurketa zehaztugabea» iradokiko lizkiokete euskara ezagutzen ez duen edonolako hizkuntzalariri. Saiatuko gara, bada, «mugaturik» eta «mugagabea» terminoak errealitate morfologikoei atxikitzen, eta «zehaztua» eta «zehaztugabea» terminoek semantikako irakurketen berri emango dute gurean.

Hala ere, ezaguna da munduko hizkuntzetan zehar artikulurik ezak ez dakarrela halaberrez irakurketa zehaztugabea, eta euskararen kasuan, gainera, *-a* mugatzaile horrek ez dakarrela ezinbestez irakurketa zehaztua. Horrela, bada, euskararen izen-morfologiaren deskripzioan [+mugaturik] tasun bikoteari eutsiko badiogu, azpimarratu beharrekia da sintaxi-testuinguru jakin bateko tasun bikote morfologiko bati eutsiko diogula funtsean, «mugatu» delako deizioak bestelako zehaztapen semantikorik iradoki balezake ere.

Ezin utz daiteke esan gabe hizkuntzen deskripzioan ohikoa dela determinatzaileak gabeko izen-sintagmak aurkitu ahal izatea. Azalezko adibide sorta txiki bat emate aldera, ez dugu inola ere ingelesa eta gaztelaniaren sintaxian eta semantikan sakonduko, baina (12-13)koetan ikus bedi inge-

lesak ondo onartzen duela *international rules of Chemistry* artikulurik gabe (12). Onar dezagun sintagma honek irakurketa zehaztua duela, edo, behintzat, gaztelaniak kasu horretan artikulua zehaztua behar duela (13):

- (12) The linguistic phenomenon of international rules of Chemistry, Mathematics and Physics

DET. linguistiko fenomeno PREP nazioarteko arau PREP Kimika Matematika eta Fisika

‘Kimika, Matematika eta Fisikako arau nazioartekoen fenomeno linguistikoa’

- (13) El fenómeno lingüístico de *(las) reglas internacionales de Química, Matemática y Física

DET fenomeno linguistiko PREP DET arau nazioarteko PREP kimika matematika eta fisika

‘Kimika, Matematika eta Fisikako arau nazioartekoen fenomeno linguistikoa’

Horren ondoan, gogoratu dezagun gaztelaniak ere badituela irakurketa zehaztuko sintagma artikulugabeak:

- (14) Reglas internacionales que no han sido traducidas

arau nazioarteko CONJ EZ AUX itzuliak

‘Itzuli ez diren nazioarteko arauak’

Euskaraz, aldiz, ez dago determinatzailearik edo zenbatzailearik gabeko izen-sintagmarik:

- (15) a *Kimika, Matematika eta Fisikako arau nazioartekoen fenomeno linguistiko

b *Itzuli ez diren nazioarteko arau

Bestetik, paradigma horietan zehar, oso maiz gertatzen da ereduazko irakurketa zehazturik ez egotea mugatzailea izan behar duen gauzatze morfologiko batean, hau da, ustez [+mugatua] tasuneko morfologia-gauzatze batean:

- | | | | |
|--------|---------------------------------------|---|---------------------------------------|
| (16) a | Gizona ez da horrelakoa | b | Gure gizona etorri da |
| | +mugatua (morfolo g ian) | | +mugatua (morfolo g ian) |
| | <u>±</u> generikoa (semantikan) | | +zehaztua (semantikan) |
| | -plurala (morfolo g ian) | | -plurala (morfolo g ian) |
| | <u>±</u> plurala (semantikan) | | -plurala (semantikan) |

Oraingoz ez gara plurala jorratzen ari, baina aurreratu dezagun (16a/b) bereizketa bera gertatzen dela bertan, tartean plural-marka azalduta:

- | | | | |
|--------|---------------------------------------|---|---------------------------------------|
| (17) a | Gizonak ez dira horrelakoak | b | Gure gizonak ez dira horrelakoak |
| | +mugatua (morfolo g ian) | | +mugatua (morfolo g ian) |
| | <u>±</u> generikoa (semantikan) | | +zehaztua (semantikan) |
| | +plurala (morfolo g ian) | | +plurala (morfolo g ian) |
| | +plurala (semantikan) | | +plurala (semantikan) |

Ikus bedi, bada, singularrak zein pluralak har dezaketela irakurketa generikoa edota orokorra dei litekeen zerbait. Gogoan izan beharko dugu horrelakoak ezin har daitezkeela (ereduzko) irakurketa zehaztukotzat behintzat, gramatika-tradizioan «mugatuak» izanda ere.

Horretaz gain, bibliografiako lan ugarian aurki daiteke *-a* mugatzailadun sintagmek egitura existentzial zehaztugabea eman dezaketela barne argumentua direnean (Manterola 2012: §3.2). Alegia, goiko (16a) horrek, [+existentziala, -zehaztua] irakurketa har dezake. Gu bat gatoz egile honekin, eta beraz, gehitu beharrekoa da (16a)koak [±generikoa] tasunaz gain, [±existentziala] tasunak har ditzakeela.

Hala ere, [+mugatua] tasun morfologikoa bederen erraz zehaztu dute euskal gramatikalariek:

- | | | | |
|--------|---------------------------------------|---|---------------------------------------|
| (18) a | Hiru gizon etorri dira | b | Hiru gizonak etorri dira |
| | -mugatua (morfolo g ian) | | +mugatua (morfolo g ian) |
| | -zehaztua (semantikan) | | +zehaztua (semantikan) |

-plurala (morfologian)

+plurala (morfologian)

+plurala (semantikan
eta sintaxian)+plurala (semantikan
eta sintaxian)

Zer esanik ez, morfologiako [+mugatua] morfologia-tasunak ondo paretzen dira [+zehaztua] semantika-tasunekin, tartean (aditzean ageri den) pluralaren esparruan gaudelarik: betiere semantikako plural irakurketa dugularik, irakurketa zehaztugabea edo zehaztua izango dugu morfologian mugatu plurala deitu izan den horretan, baina betiere zehaztugabea mugagabea deitu izan den bestean.

Horrela, bada, gure gramatiketan ondo deskribatuta daude bai morfologikotzat (ez semantikotzat) joko ditugun paradigma mugatu biak eta bai paradigma mugagabea. Gehitu beharrekoa da, edonola, paradigma mugagabeak beti ematen dituela irakurketa zehaztugabeak (Odrizola 2007, 2008, Etxeberria & Etxepare 2012).

Paradigma hurbiletara jotzen dugularik, harreman argiagoak ditugu sintaxi, morfologia eta semantikaren artean: *-eu* / *-ori* irakurketa zehaztuekin batera azaltzen da beti:

- (19) Gorozikan behintzat
(Hau) gizoneu
(Hori) gizonori
+mugatua (morfologian)
+zehaztua (semantikan)

Izan ere, *-eu* atzizkiak bat egiten du ereduzko erakusle atxikigabearekin semantikan. Areago, esana dago Gorozikako euskararen ez dela *gizon hau* segida egiten, beste hauek egiten baitira:

- (20) a hau gizona
b hau gizoneu
c gizoneu
+mugatua (morfologian)
+zehaztua (semantikan)

Horrela, bada, morfologia-mugatutasunaren ikuspegitik eta semantika-zehaztasunaren ikuspegitik ere *-a* eta *-eu* horiek determinatzailearen aukera desberdinak bide dira egungo euskararen, baina oso harreman estuetan daude, euskararen baitan, beste zenbait hizkuntzatan bezala, determinatzaile erakusletik determinatzaile mugatura gertatu den bilakaera historikoarekin.

Laburbilduz, *-ø* absolutibo kasu marka dagoenean, *-a* mugatzailea ageri dugu paradigma mugatu bietan, euskararen tokian tokiko hizkera guztietan (euskalkietan, alegia). Azpimarratu beharrekoa da, ordea, mugatutzat jo izan diren gauzatze morfologiko horiek ez dutela beti irakurketa zehaztua ematen, eta beraz, elkarrengandik bereiziko ditugu [+mugatua] tasun morfologikoak eta [+zehaztua] tasun semantikoak.

Garaia da, ordea, beste kategoria funtzionalen aldaeretara bete-betean jotzeko: plurala, batetik, eta agerikoak diren ergatibo eta datibo kasu markak, bestetik.

1.2. Plurala eta ageriko kasu markak

Absolutiboa-plurala sorta azalean baizik ez dugu aipatu orain arte, ezer gutxi ekarri digulako *-ø* kasu marka tartean dagoelarik singularra/plurala bereizketak.

Ikus ditzagun, ordea, absolutiboaren sorta argiaren ondoan, ergatibo (1) eta datibo (2) kasu markek edota zehar kasuek eragiten dutena:

- (1) a Gizonak egin du
- b Gizonek egin dute
- c Hainbat gizonek egin dute
- c' Hainbat emakumek egin dute
- (2) a Gizonari gertatu zaio
- b Gizonei gertatu zaie
- c Hainbat gizoni gertatu zaie
- c' Hainbat emakumeri gertatu zaie

Ageriko kasu marka daramaten argumentuen pluralari begira jartzen gara, bada, ezin esan daiteke *-k* marka denik inongo pluralaren adierazle, ez ergatiboa dagoenean, ez eta datiboa dagoenean ere. Horrela, bada, azpimarraztekoa da tartean plurala dagoenean oso desberdin jokatzen dutela absolutibo $\emptyset$ kasuak, batetik, eta ergatibo/datibo kasuek, bestetik. Absolutiboa/plurala konbinazioan ikusten genuen *-k* plural hori, behintzat, ezin har daiteke hemen hain erraz zenbaki-markatzat.

Aurretik aipaturiko bibliografian zeharka iradoki da *-e* izan daitekeela plural-marka, ageriko kasu marketako bat atzean doanean. Izan ere, paradigma mugagabeak ez du *-e* hori erakusten (2c), edota *-r-* epentetiko argia hartzen du (2c').

Ikus bitez, edonola, Gorozikako hizkerakoak:

- (3) a Gizona etorri da
- a' Gizonak etorri direz
- b Gizonak egin dau
- b' Gizonak egin dabe
- c Gizonari gertatu jako
- c' Gizonari gertatu jakie

Ez dago esan beharrik hizkera honek (eta bizkaiera osoak), aurrean aipaturikoek ez bezala, ohiko mugatzaile ageria duela atzean ergatiboa edo datiboa daramalarik ere.

Horrela, bada, Gorozikako hizkerak *-a* determinatzailea du betiere, baina batuak oinarri dituen euskalkietan, *-a* / *-e* txandaketa dugu, mugatu singularrean/pluralean konparazioan.

Bukatzeko, ez dago soberan «mugagabea» deitu izan den paradigma bu-ruan izatea:

- (4) a Hainbet gizon etorri direz
- b Hainbet gizonak egin dabe
- c Hainbet gizonari gertatu jakie

Manterolak (2012) argiro esaten du *-a* eta *-e* determinatzaile atxikiak ditugula. Horrela, gogoratu behar dugu Gorozikako euskararen *-a* egiten dela betiere absolutibo kasuko singularrean eta pluralean, baina, horrekin batera, irakurketak zehaztuak zein zehaztugabeak izan daitezkeela. Manterolak, ordea, azpimarratzen du pluralarekin batera *-e* azaltzen dela bizkaierazko hizkeretatik kanpoko ergatiboa eta datibo marken aurrean. Hona Manterolaren adibidea eta egileak ematen dituen irakurketak:

(5) Trenak aurreratu gaituzte

+zehaztua

Une honetan, esan behar dugu lan honen egileok sen desberdina dugula (5) horretan eta Gorozikakoa izango litzatekeen (6)koan:

(6) Trenak aurreratu gaitue

+zehaztua

(5)en inguruko euskara aldaerekin ohitua dagoen egilearentzat, (5)ekoa nekez har daiteke irakurketa zehaztugabekotzat. (6)ko euskararen aldaera ondo ezagutzen duen egilearentzat, (6)koan berdin-berdin har daiteke irakurketa zehaztua zein zehaztugabea.

Semantika-epaiketa argiagoak ematen ditu Manterolak (2012), Artiagotiarekin (1997: 162) bat eginez: (5)ekoan, irakurketa zehaztua baizik ez dago.

Diasistemako datu guztiak bilduta, *-a* determinatzaile atxikiak irakurketa zehaztua edo zehaztugabea eman dezake; *-e* mugatzaile atxikia, aldiz, zehar kasuen aurretik azaltzen da pluralean eta irakurketa zehaztua baizik ez du hartzen, bibliografiaren arabera. Aitortu beharrekoa da azken epaiketa hau ez dela guztiz argia, tartean diasistema hau dugularik.

Horrela, bada, *-a* eta *-e* mugatzaileak daudela onartuko bagenu ere, bizkaierazko hizkeretan mugatzaile bakarra dagoela onartu beharko genuke, bai egungo *de factoko* datuei begira, bai eta semantikako irakurketei begira ere.

[+Plurala +hurbila] tasunetara jotzen dugularik, nahiko sintaxi-esparru interesgarria aurkituko dugu. Gramatika-aldaketaz edo, nolabait esateagatik, gramatika-sorreraz aritu gara orain arte, eta lehenbailehen esan behar

dugu hemen ez garela arituko zehazki determinatzaileen sorrera fisikoaz edota fonikoaz. Hau da, ez ditugu aztertuko ez idatzi aurreko euskararen determinatzaile-sistema, ez eta *-eu* eta *-o* izatera nola iritsi ziren. Berez, zuzenean joko dugu egun eskura ditugun aldaerek eskaintzen dizkiguten irakurketetara.

Gauzak argiago emate aldera, onar dezagun plural hurbila ondo errotua dagoela kultur mailako hizkera estandarrean. Hala egingo dugu euskara batuko aldaera morfologikoak erabili ahal izateko, eta zinez bizkaierazko hizkeretatik haratago doan fenomeno baten berri emateko. Edonola, go-goan izango dugu betiere Bizkaiko egungo hizkerek eskaini diotela batuari esparru hau guztia. Ikus bitez hurrengo aukera hauek:

- (7) a Hauek / horiek hizkuntzalariok trebeak dira
- b Hauei / horiei hizkuntzalarioi ez zaie bururatu
- c Hauek / horiek hizkuntzalariok arrazoi dute

Lehenengo eta behin, ez Bizkaiko hizkeretan ez bestelako euskalkietan, [+plurala +hurbila] tasunekin batera ez da absolutibo/ergatibo mugatzaile-bereizketarik egiten: *-o* azaltzen da betiere.

Hizkera estandarrean askoz ere hedatuagoa den beste egitura bat dugu pluralean:

- (8) a Gu hizkuntzalariok
- b Zuek hizkuntzalariok
- c *Haiek hizkuntzalariok

Horrela, bada, [+plurala +hurbila] tasunak ditugarik, esan daiteke euskaraz *-o* mugatzaile bat dugula bakar-bakarrik balio deiktikoak adierazteko. Berez, testuinguru batean hiztunari berari edo hitzunei egiten die erreferentzia, tartean pertsona-izenordeak daudenean.

Alegia, ekarpen txiki bat egin geniezaioke Manterolaren (2012) ikerketaz-ildoari, eta esan genezake diasistematikoki zinez hiru mugatzaile ditugula egungo euskararen baitan: *-o*, *-e* eta *-a*. Hauekin batera, ez ditugu ahaztuko, jakina, *-eu* eta *-ori* atxikiak.

-o- determinatzaile atxikia mendebaldeko hizkerari dagokie eta balio deiktiko-anaforikoak ditu. Euskara estandarrera hedatu bide da izenordainekin batera, bakar-bakarrik balio deiktikoari eutsita. Azpimarratu beharrekoa da -o- eta -au, -eu / -ori esparru berean kokatu beharko liratekeela, dela determinatzaile mugatzaile atxikien artean, dela determinatzaile erakusle atxikien artean.

-e- determinatzaile atxikiak irakurketa deiktiko-anaforikoa ematen du, eta beti edo askotan, zehaztua da, zehar kasuen aurretik doa, eta mendebaldeko hizkeretatik eta beste hainbat hizkeretatik kanpo dago.

-a determinatzaileak irakurketa zehaztua zein zehaztugabea har dezake, eta zenbait hizkeratan, bera baizik ez dago eskura, singularrean zein pluralen, atzetik absolutiboa zein zehar kasuak daramatzalarik.

1.3. -a itsatsia

Oso ezaguna da $-a + -a \rightarrow -a$ «notazioa» erabili dela batuak oinarri dituen euskalkietan *-a* bukaera duten izenatarako. Beraz, horrelako bukaera ez dutenen aldean (1a, b, c), hizkera hauetan ez da bereizketa fonikorik egiten mugatzailearen eta mugatzailerik gabeko izenen artean, baldin eta izenaren bukaera berezko *-a* baldin bada (1a', b', c'):

- (1) a Gizona etorri da / Gizon bat etorri da
- a' Neska etorri da / Neska bat etorri da
- b Gizonak egin du / Gizon batek egin du
- b' Neskak egin du / Neska batek egin du
- c Gizonari gertatu zaio / Gizon bati gertatu zaio
- c' Neskari gertatu zaio / Neska bati gertatu zaio

Edonola, erdialdeko hizkeretako batzuetan, ahozko eran behintzat, ez dira ezohikoak hainbat izenetan *gauz bat* / *gauza* bezalako txandaketak, azken batean *gizon bat* / *gizona* paradigmari men eginez. Hala ere, nekez egiten da **nesk bat* bezalakorik eta beraz, pentsatzekoa da *gauz bat* egiten

duenak nolabaiteko kontzientzia duela morfofonetikoa den kontu honen murriztapenez.

Bizkaierazko hizkeretan behintzat oso bestelako esparrua dugu, eta *-a* + *-a* → *-ea*, *-ia*, *-ie*, *-e* eta *-i* ditugu. Hona hemen Gorozikakoak:

- (2) a Neskie etorri da / Neska bat etorri da
- b Neskiek egin dau / Neska batek egin dau
- c Neskieri apurtu jako / Neska bateri apurtu jako

Horrela, bada, *-a* bukaeraren eta mugatzailearen arteko elkartzearen ondorio dugu *-ie* hori.

Ikusia dugu, bestetik, *gizon* bezalako izenetan gertatzen dena:

- (3) a (hau) gizona / (hori) gizona / (ha) gizona
- b (hau) gizonu / hori gizonori / (ha) gizona

Ikus bedi orain *neska* bezalakoek erakusten dutena:

- (4) a (hau) neskie / (hori) neskie
- b (hau) neskieu / hori neskiori

Badugu (3a/4a) bereizketa horren berri, baina polikiago ikusi behar dugu (3b/4b) bereizketa. Izan ere, Gorozikan *eu* erakusle atxikia dugu betiere. Horrekin batera, $-\emptyset + -a > -a$ (3a) eta $-a + -a > -ie$ (4a) gertatzen direla onartzen badugu, nolatan azaldu ote daiteke *neskieu* horrek (4b) duen *-i* bokala? Lan honen egileetako baten senak dio *neskieu* horretan *neski* + *eu* dagoela, hau da, *neskie* forman *-e* jatorrizko mugatzaileztat hartuta, kendu egiten dela paradigmako beste osagai bat eransteke, hau da, erakusle atxikia eransteke. Are argiagoa bide da kontua bigarren mailako erakuslearen kasuan: *neski* + *ori* > *neskiori*, erakusle atxikiak inongo *-e*-rik ez duelarik.

Horrela, bada, Gorozikako hizkera honetan *neskie* eta *neskieu* dugularik, onartu beharrekoa da *-a* itsatsidunen kasuan, *-e* hori mugatzaileztat hartzen dela, eta kendu egiten dela *-eu* erakuslea atxiki ahal izateko. Ez da lan hau gramatika-alaketak zeinen sakonak izan daitezkeen aztertzen hasteko to-

kia, baina ikus bedi *neskieu* / *neskiori* aldaerek zinez daramatela barruan euskararen une jakin bateko gramatikaren aldaketa bortitza.

«Ustekabeko» morfologia-interpretazio hauek direla eta, bada beste bat ziur aski are garrantzitsuagoa dena:

- (5) a Neskie erori da
- a' Neskak erori direz
- b Neskiek egin deu
- b' Neskak egin dabe
- c Neskieri gertatu jako
- c' Neskari gertatu jakie

(5) hau dela eta, Labayruk (2002: §6.2.4) dio datiboan *-ei* ere badagoela bizkaierazko hizkera batzuetan, baina beranduagoko aldaera dela hori. Gaminde (2007: §2.5.1.2) Gorozikatik hurbil dabil eta azaltzen digu Muxikan *lagumeri* egiten dela singularrean zein pluralean, intonazioa aldatuta. Edonola, (5a'-b'-c')koek argi erakusten dute bertan ez dela *-a* + *-a* gertatu.

Gainera, atzizkiak *-a* + *-o* > *-o* aldaketa (eta kontsonantea + *-o* > *-o* aldaketa) erakusten duela azpimarratu behar da:

- (6) (honek) gizonok, (honek) neskok

Beste amaiera-bokal batek ere laguntza eman diezaguke. Izan ere, ezaguna da *-e* + *-a* elkarketak bilakaera bide berberari eutsi diola eta hor ditugula aipatutako *-ia*, *-ie*, *-e* eta *-i* aldaerak, baina *-ea* alde batera utzita:

- (7) a Umie etorri da
- b Umiek etorri direz

Horrekin batera, ezaguna da jatorrizko *-i* bokal sabaikariak, *-idze* eragiten duela besteak beste Gorozikan:

- (8) a Mendidxe erori da
- b Mendidxe erori direz

Alegia, Gorozikako hizkeretan *gizon*, *ume* eta *mendi* bezalakoek ez dute singular/plural bereizketa egiten, ez absolutiboa tartean dagoenean, ez eta ergatibo edo datiboaren kasuan ere. Bestela esanda, *-e* azaltzen da kasu guztietan ere. *Neska* bezalakoetan aldiz, hizkera honek singularrean baizik ez du erakusten *-a + -a > -ie* aldaketa (*neskiek egin dau*), eta pluralean *-a* itsatsia ez balego bezala jokatzeko du (*neskak egin dabe*). Aldaera hurbilei dagokienez, azpimarratzekoa da bi mailatakoak daudela singularrean, baina bakarra azaltzen dela pluralean.

Balio bezate datu hauek *-a + -a > -ie* bezalako notazioak bere tokian jartzeko: izatez, ez dute behar bezala adierazten euskararen errealitatea, ez sinkronia mailan, ez diakronia mailan. Gehiago izango lirateke euskara estandar batetik abiatuta egindako abstrakzio bat, nagusien hizkuntz jabekuntzarako balio dezakeena, eta hizkuntzaren berri abstraktua emateko balio dezakeena. Hiztunaren hizkuntz kompetentzian gertatzen dena ez bide da tankera honetako aldaketa, eta zer esanik ez, are gutxiagoa arau estandarrekiko urradurak aipagai hartzen ditugun kasuetan.

1.4. [+Plurala], [+ mugatua] morfologian eta [+plurala], [+zehaztua] semantikan

Azpimarratu beharrekoa da ohiko terminologiak [+mugatua] tasunari eransten diola [+plurala] izateko aukera, eta [-mugatua] tasunak, itxuraz, ez duela pluralarekiko sentikortasunik: «mugatu singularra», «mugatu plurala» eta «mugagabea» (ez plurala, ez singularra). Hala ere, terminologia hau ez da oso zuzena eta bati baino gehiagori egokitu dakioken kontzeptu semantikoa da mugagabe morfologiko hori. Azkarateren eta Altunaren (2001: 47) esanetan. Euskaltzaindiak (1985, 1993: §4.1.1) zeharka iradoki du izen-sintagma mugagabeak ere [+plurala] tasunekoak izan daitezkeela. Alegia, berriz azpimarratu behar dugu [-mugatua] morfologia-tasunak bat egin dezakeela bai [-plurala] semantika-tasunarekin (1a), bai [+plurala] semantika-tasunekin ere (1b):

- (1) a Botila bat ardo edan dugu
 [-mugatua] [-zehaztua] [-plurala]

b Ardo gutxi edan ditugu

[-mugatua][-zehaztua] [+plurala]

(1b) horren harira, zehaztaperen diasistematikoko bat gehitu behar dugu:

(2) a Hainbat gizon erori dira

b Hainbat gizon erori da

Alegia, (2b) posible da euskara batetik kanpoko hainbat hizkeratan. Edonola, *gizon* izen zenbakarria da, eta *ardo* zenbakarri modura erabiltzen da (1b) adibidean. Azter dezagun polikiago *ardo* edo *ur* bezalako izenen kontua. Aditzarekiko zenbaki-komunztadura ondo deskribatuta dago euskaraz, baina edonola bibliografiak agerian utzi digu (Etxeberria & Etxepare 2012, Odrizola 2007, 2008) honelakoek oro har singularra eskatzen dutela aditzean (3a). Pluralak, erabat aldatzen du irakurketa, zenbakaitz horiek abstraitu eta nolabait zenbakarri bihurtzen baitira (3b-b'):

(3) a Ur asko edan dut / *ditut 'ur kantitate handia'

b Ur asko edan ditut 'ur mota asko'

b' Ardo gutxi edan ditugu 'ardoz betetako edalontzi gutxi'

Horrela, bada, berriz baieztatu behar dugu mugagabea delako deizioa hartu duen paradigmak [+plurala] tasun semantikoak har ditzakeela. Zer esanik ez, plurala deizioa hartzen duenak [+plurala] tasun semantiko du (eta aditzean ere plurala behar du), baina agerian uzten ari gara paradigma horretako marka *-k* ez ezik, *-e* ere izan daitekeela, kasuan kasuko azterketa sinkroniko batean.

Aurreko azpiataletan esandako guztia laburbilduta, mugagabe deitu izan den aldaera morfologikoak [+plurala] semantika-tasunak hartzen ditu, eta azken batean aditzarekiko singular edo pural-komunztadura erakusten du. Mugatu plurala deitu izan denak, bestetik, [+plurala] eta [+zehaztua] tasunak izan ditzake. Singular mugatua deitu izan denak, bukatzeko, [+zehaztua] eta [-plurala] tasunak izan ditzake.

Gauzak horrela irudika daitezke:

(4)

	Determi- natzailea	Zenbakia	Kasu marka	Morfologia-tasunak
Neska/ gizon	-ø	-ø	-ø/- (e)k/- (e)ri	-mugatua, -plurala, abs/erg/dat
gizon	-a	-ø	-ø/-k/-ari	+mugatua, -plurala, abs/erg/dat
neska	-ie	-ø	-ø/-k/-ri	+mugatua, -plurala, abs/erg/dat (Gorozikan)
gizon/ neska	-a	-k	-ø	+mugatua, +plurala, abs (Gorozikan)
gizon/ neska	-a	-ø	-k/-ari	+mugatua, +plurala, erg/dat (Gorozikan)
gizon/ neska	-e		-k/-i	+mugatua, +plurala, abs/erg/dat (batuak oinarri dituen euskalkietan)

Horrela, bada, hauxe da gure euskararen izen-morfologia ikusteko auke-retako bat:

- 1) «Mugatu singularra», «mugatu plurala» eta «mugabea» morfologiako deizioak dira, hau da, morfologia erreal baten berri ematen dute, baina ez zehazki terminoetan beraietan susma daitezkeen semantika edo sintaxi erreal bat.
- 2) «Mugatu» deitu izan diren morfologia-aldaera bi horietan, semantikako irakurketa zehaztuak zein zehaztugabeak gertatzen dira euskaraz. Horrela, bada, «mugatu» delakoa morfologia-tasuna dugu, eta «zehaztua» semantika-tasuna.
- 3) «Mugagabea» deitu izan den hirugarren aldaera horretan, pluralezko zein pluralik gabeko semantika-irakurketak sortzen dira.

- 4) *-K* zenbaki-marka ezagunaz gain, defektuzko *-ø* zenbaki-marka dagoela onartu beharko genuke, eta areago, hala egin beharko genuke [+mugatua] morfologia-tasuna dutenetan ez ezik, [-mugatua] morfologia-tasuna duten batzuetan ere.
- 5) Determinatzaile mugatzailea *-a* dugu euskaraz, baina izenaren morfologia-aldaera jakin hori oso gutxitan gertatzen da egungo fonologia-sisteman.
- 6) Bizkaierazko hizkerak eta, bereziki, Gorozikako hizkerak, *-a* mugatzailea azaltzen du «mugatu singularra» zein «mugatu plurala» izeneko morfologia-aldaeretan.
- 7) Bizkaieratik eta beste hainbat euskalkitatik kanpo, batuak oinarri dituen hizkeretan, zenbaki-marka + mugatzailea batuketak ondorio desberdinak ematen ditu atzean absolutibo kasu marka dagoenean edo ergatibo eta datibo kasu marka dagoenean.
- 8) Absolutiboa ez bezalakoetan, *-e* bat hartu behar da kontuan, mugatzaileztat hartzeko, edota plural-marka + mugatzailea batuketaren ondorioztat hartzeko. *-a* / *-e* txandaketa ez da gertatzen ez bizkaierazko hizkeretan, ez beste hainbat hizkeretan, baina oso azpimarratzekoa da *-a* eta *-e* aldaerak dituzten euskalkietan, direlako mugatzaile bi horiek desberdin jokatzen dutela [+zehaztua] semantika-tasunari dagokionez. Izan ere, absolutibo kasu markadunek, irakurketa zehaztua zein zehaztugabea har dezakete pluralean, euskalki guztietan ere *-a* azaltzen delarik. Beste kasu markadunetan, eta hainbat hizkeretan behintzat, irakurketa zehaztua nagusitzen da pluralean, tartean *-e* azaltzen delarik. Horrela, bada, lan honen datuetan oinarrituta, bibliografiak esandakoaren alde egin dezakegu eta esan liteke lehenengo hurbilketa batean *-a* [+zehaztua] // *-a* [-zehaztua], *-e* [+zehaztua] diasistema dugula.

1.5. *-ø* marka eta markarik eza

-ø marken auzira itzulita, Artiagoitiak (2012) agerian jarri du euskarak dituen hainbat ezaugarri garrantzitsu. Lehenik, ez dira zilegi zenbatzailerik edo determinatzailearik gabeko izen-sintagmak:

- (1) a Hainbat gizon etorri dira
 b Gizonak etorri dira
 c *Gizon etorri dira

(1)ekoek agerian uzten dute izen-sintagmatik gorako islapen funtzional bat «behar» dugula euskaraz ere, ezinbesteko *gizona(k)* edota *hainbat gizon* horiek azaltzeko.

Bigarrenik, zenbatzaileak determinatzailearekin batera azaldu daitezke, eta gainera, izenaren ezkerrera (2a) zein eskuinera (2b):

- (2) a Hiru gizonak etorri dira
 b Gizon guztiak etorri dira

Hirugarrenik, ezkerrera azaltzen diren zenbatzaile zehaztugabe batzuek (3a) sintagma itxura daukate bere aldetik (ikusi era berean Goenaga 2012, Odrizola 2007, 2008) eta esan beharrekoa da teoria-esparru honetan badagoela ezkerrera sintagmak non kokatu: ustezko islapen funtzional baten espezifikatzailea. Bestetik, badakigu eskuin aldeko zenbatzaileak (3b) hitz soiltzat har daitezkeela:

- (3) a Hainbat / nahiko / makina bat... gizon etorri dira
 b Gizon asko etorri dira

Badakigu esparru formal horretan sintagmak honela deskribatu izan direla X-barraren gramatikaren barruan:

- (4) [espezifikatzailea [[osagarria] X burua]_X]_{XS}

Gogoratu beharrekoa da gramatika honetan, sintagma mailakoak direla ezkerrera azaltzen diren espezifikatzaile horiek. Gauzak honela bilduko genituzke, bada, teoria esparru hauetan gehiago sakondu gabe:

- (5) a $[[IS Zenb]_{ZenbS} D]_{DS}$
 b $[[[gizon]_{IS} guzti_{Zenb}]_{ZenbS} -ak_D]_{DS}$
 c $[hainbat_{espezifikatzailea} [gizon \emptyset_{Zenb}]_{Zenb} \emptyset_D]_{DS}$

Bide batez, honela azaltzen ditu egileak paradigma hurbilak eta bizkaierazko hizkeretan beraiekin batera gertatzen diren determinatzaile bikoitzak:

$$(6) \quad [\text{hau/hori}_{\text{espezifikatzailea}} [\text{gizon}]_{\text{IS}} \text{-eu/-ori}_{\text{D}}]_{\text{DS}}$$

(6)koa bat dator estandarragoak diren (7-8)koekin:

$$(7) \quad [[\text{gizon}]_{\text{IS}} \text{hau/hori}_{\text{D}}]_{\text{DS}}$$

$$(8) \quad [[\text{gizon}]_{\text{IS}} \text{-eu/-ori}_{\text{D}}]_{\text{DS}}$$

(7) eta (8) aukerek, euskalkien arabera izanda, banaketa osagarria dute, baina erraz onar daiteke semantika-balio berekoak direla, azken batean biek ala biek erakuslea dutelako buru. Ikus bedi, ordea, Artiagoitiak aipatu ez duen beste hau, bere erara aztertuta:

$$(9) \quad [\text{hau/hori}_{\text{espezifikatzailea}} [\text{gizon}]_{\text{IS}} \text{-a}_{\text{D}}]_{\text{DS}}$$

(7)koak (9)koarekiko banaketa osagarria dauka euskalkien arabera, eta beraz onartu beharrekia da balio berberak dituztela diasistematikoki desberdinak diren bi determinatzaileek. Alegia, bi buru desberdinen arteko berdintasuna onartu beharko genuke, betiere balio deiktiko-anaforikoak mantenduta.

Bukatzeko, (6) eta (8) horiek espezifikatzailean dute desberdintasuna euskalki berberaren barruan.

Horrela, bada, euskararen ikuspegi diakronikoak eta diasistematikokoak uztartuta, esan daiteke bost determinatzaile atxiki daudela (-eu, -ori, -o, -a eta -e), eta era berean, hiru determinatzaile erakusle beregain (hau, hori, h(ur)a). Bistan da, atxikiak direnen artean, ezin ahaztuzkoak direla erakusle askearen itxura daukatenak. «Mugatzaile» deizioa, bada, ilun suertatzen zaigu orain, ez baitago argi atxiki diren guztiak mugatzaile deitu behar ditugun, ala -o, -a eta -e baizik ez diren deizio hori hartu behar dutenak.

Diasistemaren ikuspegiari eutsita, Gorozikako euskarak eta, oro har, bizkaierazko hizkerak hiru determinatzaile atxiki dauzkate, eta gainera, sintagma berean azal daitezke izenen aurreko erakusle beregainekin batera. Hirugarren mailako erakusleak eta mugatzaileak azalpen berezia behar dute. Izan ere, 1) maila bereko konbinazioak azaltzen dira bizkaieraz -hau gizoneu, hori gizonori, h(a) gizona- balio deitiko-anaforikoei eutsita, eta 2) hirugarren

mailakoa (-a) orokorra da euskaraz eta hiru mailako erakusle-sistematik at ere azaltzen da, gutxienez balio deiktikoa galduta.

Beste ikuspegi batetik, Artiagoitiak Egurenekin (2012) batera estuki lotzen du determinatzailearen «presentzia» euskal izenen irakurketa zehaztutarakin, eta gainera, -a agertzen duten kasu batzuk ere determinatzaileak gabekotzat jotzen dituzte. Horrela, nekez etor daiteke bat maila horretako teoria-hausnarketekin *de facto* euskaran dugun morfologia korapilatsu honen deskripzioa edota lan honetan aurkeztu dugun deskripzioa. Izan ere, gramatika sortzaileak bere flexio-kategorietan eskaintzen duen esparru formalak ez zaigu oso baliagarri gertatzen, euskararen gauzatze morfologiko guztiekin uztartu nahi dugunean behintzat. Ikuspegi guztiak uztartze aldera, onar dezakegu betiere determinatzaile bat dagoela, eta mugabea deitu izan den paradigman - $\emptyset$ determinatzailea dagoela. Deskripzioari zorrotz eusten diogularik, ezin onar dezakegu oraingoz inongo determinatzaile hutsik, tartean ageriko -a dagoenean. Horretaz gain, gure deskripzioan esan liteke ageriko plural-markak zenbatzaile-sintagma horien buruan kokatzen direla. Bukatzeko, gramatika sortzailearen aparatua barruan kategoriatu funtzional horien buruz buruko mugimenduaren ondorioztat har litezke egun pluralean estandarra den -e hori edota estandarra ez den -ie bezalakoak.

Atal honi bukaera eman baino lehen, partitiboaren inguruko ohar bat egin behar dugu. Marka hau ondo moldatzen da aipatutako eredura, tartean -r- epentesia badugu:

- (10) a Ez da gizonik erori
b Ez da emakumerik erori

Determinatzaileak eragiten dituzten irakurketei soil-soilik begiratuta, esan beharrekoa da partitiboak mugatzaileak ez bezalako irakurketa bat eragiten duela (zehaztugabea beti) eta guk geuk ez dugu inongo eragozpenik ikusten atzizki honetan mugatzailea ez bezalako determinatzaile bat ikusteko. Izan ere, determinatzaile mugatzaileak banaketa argia erakusten du «determinatzaile partitiboa» dei litekeen honekin:

- (11) Ez da gizona erori 'ezaguna dugun gizon hori ez da erori baina beste batzuk erori dira'

- (12) Ez da gizonik erori 'gizontzat hartzen diren guztien artean bat bera ere ez da erori'

Izatez, partitiboak eta beste hainbat euskal osagaik «beheranzko irakurketa» bat hartzen dute ezezko zein bestelako testuinguru polarretan (Odrizola & Ondarra 2015): 'ez da gizonik erori' → 'ez da erori ez gizon ezagunik, ez eta ezezagunik ere'.

Partitiboaren auziari bukaera emateko, esan beharrekoa da absolutiboa -ø kasu markadunei lotzen zaiela *de facto* (Trask 2003), eta horretaz gain, aspaldi esanda dagoela (Laffitte 1944: §150) marka honek ez duela adierazten ez plurala, ez eta singularra ere.

2. Postposizioak

Aurreko atalean ikusia dugu euskararen izen-morfologian korapilo handi samarra dagoela, determinatzaile atxikiak, zenbaki-markak eta kasu markak eraginda. Edonola ere, azpimarratu beharra dago horko ikuspegi horretan erabat funtzionaltzat hartzen diren hainbat kategoria jorratu ditugula (determinatzailea eta zenbakia), eta gure ohiko gramatiketan hain argi sailkatu ez diren beste atzizki batzuk ere ikusi ditugula (kasu markak).

Izan ere, esana dugu «mugatu singularra», «mugatu plurala» eta «muga-bea» izena hartu izan duten hiru morfologia-lerro ditugula euskaraz, eta zentzuzkoa da lerro horietan kasu markak kontuan izatea; hala ere, gure tradizioko kasu markez gain, lan honetan hainbat egilerekin bat eginez postposizioak ere gehitu zaizkio kasu markek osatzen duten zerrendari, eta kasuak zein postposizioak batera erakutsi izan dira deskripzio-lanetan.

Atal honen hasieran, esan beharrekoa da hizkuntzaren maila guztietan erabat desberdinak diren bi kategoriatan banatuta dagoela hiru testuinguru horietako atzizki sorta hori: batetik kasu markak, flexioari erabat lotuta doazenak, eta bestetik postposizioak (nahiko) kategoria lexikotzat jo daitezkeenak. Horrekin batera, hasiera-hasieratik esan behar da kasu markek ez dutela «izena» kategoria beste kategoria batera aldatzen, eta aldiz, izenak ez bezalako kategoriek betetzen dituzten gramatika-funtzioak betetzen dituztela postposizioetako bat daramaten morfologia-komplexu hauek.

Iripizde asko plazaratu dira hiru deklinabideko ikuspegi horren alde, hau da, euskara deklinatu egiten delako ideiaren alde, eta deklinabide-atzizki talde bakarra onartzearen alde. Era berean, irizpide asko daude zentzuzkoa goa dirudien ikuspegi berriagoaren alde. Bataren zein bestearen berri izateko ikus bitez Euskaltzaindia 1993: §8, Larramendi 1729, Schuchardt 1947: §1.2, Zabala eta Odriozola 2004: §3.3.2.1. Hemen, hainbat kontu baizik ez ditugu bilduko bibliografia horretatik.

Lehenik eta behin, oso azpimarratzekoa da deklinabidea delako terminoaren barruan, bi kontzeptu daudela elkarrekin lotuta: hitz deklinatua delako horretan, munduko gramatika-tradizioetan, elkarrengandik bereizi ezinik azaltzen dira hiztegi-sarrera lexiko bat eta flexio-atzizkiak, eta beraz «hitza» eta «flexioa» ditugu multzo bakar batean. Alegia, latina bezalako hizkuntza batean, izenaren flexio-aldaera askotan, ezin bereiz daitezke izen soila eta flexio-atzizkia elkarrengandik, eta izatez, paradigma abstraktu baten argitzen digu hizkuntzalarioi bereizketa. Alegia, *amicus* 'lagun' izenean, *amicum* edo *amico* bezalako flexio-aldaerek ez dituzte argi bereizten zein den izen lexikoaren zatia eta zein flexio funtzionalaren zatia. Errazago esanda, izenaren forma jakin batetik abiatuta, ez dago ikerketa-metodologia enpiriko batean atzizkia kendu eta hitz soila lortzerik.

Gainera, *amicus prudens* 'lagun zuhurak' bezalako sintagmekin batera, *cum amici prudentibus* 'lagun zuhurrekin' bezalakoak hartu beharko lirateke kontuan. Alegia, batetik izenak zein izenondoak hartzen dituzte atzizkiak, betiere zinez deklinatzen bide den sintagma bakarraren barruan. Bestetik, latinaren bigarren kasu horretan, *cum* preposizioa erabiltzen da *amici prudentibus* horren aurrean.

Euskarak aldiz, hemen aztergai hartuko ditugun salbuespenak salbuespen, ondo bereizten ditu *lagun* izena eta izen honek atzean eraman ditzakeen atzizki guztiak. Horrekin batera, badakigu atzizki horiek sintagmaren bukaerako osagaiari baizik ez zaizkiola erantsiko.

Horren harira, egun garden deskribatuta dago absolutibo, ergatibo eta datibo kasu markek aditzarekiko komunztadura dutela eta, esan bezala, izen-flexioarekiko erabateko paralelismoa edota komunztadura deskribatu du Lakak (1993).

Postposizio atxikiek bere aldetik, *zehar* bezalako postposizio beregainek sortutako sintagmen gramatika-funtzio berberak betetzen dituzte (Artiagoitia 2000: 69-72, Odriozola 1999, Odriozola 2004, Zabala & Odriozola 2004). Labur esanda, *mendia(k)* eta *mendiari* «izenen funtzioak» betetzeko erabiltzen dira (argumentu funtzioa betetzen dute oro har), eta *mendian* edo *mendian zehar* gauzatuta, aldiz, oso bestelako funtzioetara jotzen dugu: *mendian* soila, modifikatzaile edo predikatu funtzioa betetzeko erabiltzen da, eta *mendian zehar* egiturak ere modifikatzaile edo predikatu funtzioa betetzen du; azken honetan, *mendian* hori *zehar* postposizio buruaren osagarria da. Beste hitz batzuetan esanda, lehenengo hiru atzizkiek (kasu markak) ez diete izenari bere kategorian eragiten, syntaxian izena itxuratzerakoan. Gainerako atzizki guztiek (postposizioek) larri eragiten diote izenari eta ondorioz lortzen dena ez bide da gramatika eta sintaxi bereko osagai bat.

Edonola, aitortu beharrekoa da izen-izenondoek sintagma bakar batean kasu marka bakarra hartzeak ez duela laguntzen kasuak eta lexikoagoak diren postposizioak elkarrengandik bereizten. Alegia, «errazago» bereiziko genituzke euskararen kasu markak eta postposizioak elkarrengandik, lehenengokoak sintagmaren osagai guztietan errepikatuko balira (latinaren antzera), eta bigarrenekoak bukaeran baizik joango ez balira (latinaren preposizioen kasuan bezala). Hala ere, Traskek (2003), Artiagoitiaren (1997, 1998, 2000, 2002) determinatzaile-sintagmaren hipotesira oraindik iritsi gabe jorratzen ditu kasu markak eta azpimarratzen du kasu marka behin azaltzen dela hizkuntzetan zehar, eta oso harrigarria dela hain zuzen ere bizkaierazko hizkeretarako deskribatua dugun *honek mutilonek* horretan, kasu marka errepikatuak ikusten dituelako bertan. Gogora dezagun Artiagoitiak goragoko determinatzaile-sintagma baten espezifikatzailean kokatzen duela ezkerraldeko determinatzailea.

Edonola, badirudi hizkuntzen fenomeno orokor bat dela izatez gramatika-kategoria desberdinetakoak diren kasu marken eta postposizioen arteko muga hori mehea izatea (Eguzkitza & Etxebarria 2004: §2.2.1.2.4).

Atzizki bakar modura azaltze horrekin batera, eta, areago, euskararen preposizio falta horrekin batera, berriz esan beharrekoa da latina bezalako hizkuntza batean osagai guztiak deklinatzen direla, eta, areago, deklinatuta dagoen sintagma hori preposizioekin batera ere azaldu daitekeela (*cum ami-*

ci prudentibus). Azken hauetan, jakina, preposizio-sintagmei dagozkien gramatika-funtzioak beteko dira. Bide batez, garbi utzi behar da latinaren deklinabide berezko honek oso bestelako sintaxi-esparruak erakusten dituela. Izan ere, euskal postposizioei dagozkien funtzioak betetzen dituzte *patria* ‘aberritik’ bezalako sintagma postposiziogabeek: kasu honetan, *patria* horrek aditza modifikatuko luke, eta ez luke beteko argumentu funtzioa. Gure ustez, azken datu hau ere oso argigarria da latinaren deklinabidea gure euskararen atzizki sortatik bereizteko:

- (1) Aristides expulsus est patria

Aristides atzerriratu zen aberri-ABS

‘Aristides bere aberritik atzerriratu zuten’

Egungo X-gramatikaren ikuspegitik, Artiagotiak (2000: 70) gogora ekarri digu hainbat egituratan oso nabaria dela postposizio-sintagma izango litza-tekeenaren espezifikatzailearen aukera (*oso*):

- (2) a (*oso) azala

b (oso) azalean

Alegia, (2a)koa determinatzaile-sintagma bat da, eta (2b) postposizio-sintagma bat. Lehenengoak ez du zenbatzailerik onartzen, eta nabari da postposizio bat behar dela *oso* zenbatzaile orokorra erabili ahal izateko (eta formalizazio horretan, postposizio-sintagmako espezifikatzailean kokatu ahal izateko).

Bukatzeko, esan beharrekoa da euskarak baduela beste ezaugarri bat, kasua/deklinabide-atzizkia/postposizioa bereizketa egitea zaildu egiten duena: postposizio atxikitzat jotzen dugun horien aurrean, ez da ageri inongo kasu arrastorik ere. Ildo horretan, azpimarratu beharrekoa da, ordea, georgiera bezalako hizkuntzek ere postposizio atxiki asko dituztela, baina postposizioen aurrean -ø ez den kasu marka bat azaltzen dela (Odrizola 2008: 12). Euskarak eta georgierak erakusten dituzten parametroei ikuspegi bakar bat emanda, honakoak esan genitzake:

- 1) Hizkuntza hauek -ø kasu marka edo ageriko kasu marka hartzen dute.

- 2) Euskarak ez du ageriko kasu markarik inoiz hartzen postposizioekin batera, baina georgierak bai.

Laburbilduta, egungo deskripzio estandarrean, hainbat euskal postposizio atxikitzen zaizkio izen edo determinatzaile-sintagmaren bukaerako osagaia-ri. Postposizio hauek erdilexikoak direlarik, beste eragile bat dakarkiotte determinatzailea-zenbakia-kasua bereizketari.

Izan ere, gramatika-tradizioak hiruko deskripzioari eusten dio betiere, eta berriaz aitortu behar zaio gramatika-tradizioari paradigmak ondo bereizten direla, bai semantikan, bai morfologian, bai eta aldaerek kokagune hartzen duten sintaxi-testuinguruetan ere.

Postposizioen esparruan, are latzago bilakatuko zaigu lan honetan kategoria hauen guztien morfofonologia zedarritzatzeko egiten ari garen ahalegina: aurreko atalean ikusi ditugun gorabeherak ez ezik, postposizio guztiek ez dute berdin jokatzeko [+mugatua] eta [+plurala] tasunak irudikatzeko unean. Hori hala da gainera morfologia esparru soilean bertan ere, semantika-irakurketak kontuan hartu gabe.

Izan ere, ezinbestez egin behar dugu lan honetan gramatika-tradizioak euskal postposizioen artean argiro egin ez duen bereizketa bat, eta hainbat azpiataletan bereiziko ditugu euskal postposizio atxikiak, hizkuntzaren morfologiaren deskripzioari ekarpen txiki bat egiteko: ezkerrera *-a* mugatzailea argi erakusten duten postposizioak (→§2.1), ustezko *-a* mugatzailea erakusten duten postposizioak (→§2.2), eta ageriko mugatzailea inoiz izan ez arren betiere paradigma guztiak ondo bereizten dituzten postposizioak (→§2.3). Prolatiboa alde batera utziko dugu gure lan honetan, betiere mugagabea deitu izan den horren barruan azaltzen delarik.

2.1. Ezkerrera mugatzailea argi erakusten duten postposizioak

Azter ditzagun lehenago *-a* mugatzailea kasu batzuetan bere horretan agerian dutenak. Haien artean ere, azpiatal batzuk bereizi behar ditugu: soilak (→§2.1.1) eta genitiboaren atzean eransten direnak (→§2.1.2).

2.1.1. *-a mugatzailea + -z instrumentala / Bizkaiko -gaz sozietiboa*

Azkaratek eta Altunak agerian jarri dute XII-XIII. mendeetan *-kin* sozietiboa mugatzailerik gabe egiten zela, eta zer esanik ez hori oso esangarria da egungo izen-flexioa ulertzeko unean: pentsatzekoa da garai hartan ez zeudela egun ereduizkotzat jotzen diren morfologia-paradigmak, baina egungo eredu hauek (1) bizi-bizi dabilta egungo euskara estandarrean behintzat:

- (1) a umeaz
- b umeez
- b hainbat umez

Ikus bedi instrumentala alde batera utzita, izen-sintagma erabat estandarra dela. Gorozikako hizkerak ere agerian ditu hiru aukerak *-gaz* postposizio sozietiboaren kasuan:

- (2) a mozoloagaz
- b mozoloakaz
- c hainbet mozologaz

Gogoratu beharrekoa da Gorozikako hizkeran singular/plural bereizketak ez diola inongo eraldaketarik eragiten determinatzaile-sintagmari. Hemen, ordea, *-g / -k* txandaketa dugu, nonbait postposizioari (ez flexio-zatiari) lotuta. Geroago aztertuko dugun kontu bati begira, azpimarratzekoa da izenaren eta *-ga* atzizkiaren artean ez dagoela genitiborik.

Determinatzaile-sintagmetan bezala, postposizio-sintagmetan ere mugatua eta mugagabea ederki bereizten dira morfologiaren ikuspegitik, Gorozikako hizketan, *-a + -a → -ie* azaltzen delako mugatu singularrean. Esan beharrekoa da *-a* itsatsidunetan bere joskera bitxi horri jarraitzen diotela berriz ere. Alegia, pluralak ez du *-ie*, baina bai singularrak:

- (3) a neskiegaz
- b neskakaz/neskakin
- c hainbet neskagaz

Betiere *-kaz* da pluralean azaltzen den itxura.

Laburbilduz, bada, ereduzko determinatzaile-sintagma azaltzen da, bai *-z* instrumentalaren aurretik, bai eta Bizkaiko *-gaz* soziatiboaren aurretik ere. Horrela, bada, egungo euskararen bi postposizioek behintzat ez diote morfofonetika korapilatsu honi eragiten, eta ereduzko determinatzaile-sintagma gardenak hartzen dituzte bere ezkerrera.

2.1.2. *-a mugatzailea + genitiboa + soziatiboa / kausatiboa*

Aurrera egin baino lehen, esan beharrekoa da Manterolaren (2012: §2.2) bilakaera-proposamenaren alde egiten dutela atal honetako postposizioek egun erakusten dituzten paradigmek: *gizon* izena + *-aren* erakuslea-postposizioa → *gizonaren* izena-mugatzailea-postposizioa. Bestetik, ezin saihesteko da *-e* hori ikustea pluralean, *-ek*, *-ei* horiekin batera.

Diakroniak diakronia, egungo mugatzaileak bere ageriko itxurari eusten dio betiere, erakusle (beregain) batetik eratorri zelarik. Edonola, badakigu oso ohikoa dela euskaraz izenari bi postposizio eranstea. Izan ere, soziatiboak genitiboa darama aurretik singularrean behintzat:

- (1) a emakumearekin
- b emakumeekin
- c hainbat emakumerekin

Kausatiboak, bestetik, honela jotzen du:

- (2) a emakumea(ren)gatik
- b emakumeengatik
- c hainbat emakume(ren)gatik

Alegia, absolutiboa ez den kasua daramaten izen-sintagma guztietan bezala jotzen du *-a* mugatzaileak: ageri-ageriko *-a* dugu singularrean, aurreko atalean mugatzailetzat jo izan dugun *-e* azaltzen da pluralean, eta, epen-tesia tarteko, inongo markarik ez da azaltzen mugagabeen. Antzerako zerbait esan daiteke genitiboa/kausatiboa bikoteaz.

Horrela, bada, esan liteke postposizio honek bereizketa egiten duela ageriko kasurik gabeko determinatzaileen eta ageriko kasudun determinatzaileen artean. Alegia, mugatzailea/ergatiboa eta mugatzailea/datiboa bikoteen antzera jokatzeko du mugatzailea/genitiboa bikotea honek.

[+Bizidun] tasuna duten izenei, bestetik, *-ga-* artizkia eransteko zaio egungo euskarari. Horrelako postposizio hauek guztiek ere genitiboa darabate aurretik:

- (3) a adiskidea(ren)gana
- b adiskideengana
- c hainbat adiskide(ren)gana

Horrela, bada, hemen berriz dugu ereduazko determinatzaile-sintagma + genitiboa + postposizioa.

Hainbaten ustez (Azkue 1923-25[1969a: §480-483], Irigoien 1978b, Mitxelena 1972a [1985: 305]), *-gan* postposizioa gaztelara zaharreko *cas* delakoaren kidea da. Zehatzago *in casa* delakoaren kidea izango litzateke, eta jatorriz *-n*, *-ra*, *-raino* edo *-rantz* gehituko zitzaizkion ustezko *-ga* izen horri, *-en etxean* (= *-en gan*) edo *in casa* gertatzen denaren antzera.

Honi buruzko bibliografiarik aurkitu ez badugu ere, saihetsezina da aurrekoaren harira *-rengatik* eta *-rentzat* etorkizuneko lanetan berrikustea. Izan ere, kausatiboak *-ren gai* izena + *-tik* osaketaren itxura dauka, eta destinatiboa aldiz genitiboa + prolatiboa batuketaren ondorio izan liteke.

Edonola, laburbil dezagun esanez instrumental izeneko postposizioak erabat estandarrek diren sintagmak eratzen dituela, edo zehatzago, erabat estandarrek diren determinatzaile-sintagmak hartzen dituela osagarri. Genitiboaren atzean azaltzen diren beste postposizio hauek ere nahiko estandar jokatzeko dute, betiere postposizioz gabeko determinatzaile-sintagmen aldean.

2.2. Ereduzkoa ez den determinatzaile-sintagma soila + postposizioa

Talde honetan daude gure gramatika-tradizioan leku-denborazkotzat jo izan diren postposizioak, alegia, bizigabe diren izenei lotzen zaizkien le-

ku-denborazko postposizioak. Haien artean, gainera, *-a* mugatzaile zalan-
tzagarria dutenak aztertu behar ditugu lehenago (→§2.2.1), eta mugatzailea
delakoaren arrastorik ere ez duten postposizioak bereizi behar ditugu beste-
tik (→§2.2.2).

2.2.1. *-a* zalantzagarria

Mitxelenaren (1972 [1985: 303]) ustez, argi ikusten da lekua adierazten
dutenak besteak baino beranduagokoak direla, baina ezin froga daiteke ho-
rrelakorik, ez baitago 1000. urtea baino arinagoko dokumentaziorik. Esan
dezagun, edonola, postposizio hauen osagarriaren kokalekuan dauden sin-
tagmek are flexio-morfologia korapilatsuagoa dutela determinatzaile-sintag-
ma soilek baino. Izan ere, hemen mugatzailearen bi jatorri ikusiko ditugu:
pluralakoa, hiru postposizio hauek erakusten dutena (→§2.2.1.1), eta sin-
gularrekoa ustez bakar-bakarrik inesiboak erakusten duena (→§2.2.1.2).

2.2.1.1. Plurala + inesiboa/elatiboa/adlatiboa

Izan ere, badute postposizio hauek azalezko semantika hori baino sako-
nagoa den zerbait bere ezkerrean doan determinatzaile-sintagman: *-ta-*
artzkia azaltzen da postposizioaren aurretik mugagabeetan eta pluraletan
(1b):

- (1) a zuhaitzean, pagoan / zuhaitzetik, pagotik / zuhaitzera, pagora
 b zuhaitzetan, pago(e)tan / zuhaitzetatik, pago(e)tatik /
 zuhaitzetara, pago(e)tara

Bibliografiaren arabera (Azkarate eta Altuna 2001: 116-117, Schuchardt
1947: §14), oso aldaketa bortitza gertatuko zen euskal postposizioen mor-
fosintaxian.

Lehenengo eta behin, ezaguna da leku-izen propio askok berezko atzizki
dutela *-eta* hori, multzoa adierazten zuen latineko *-etum* delakotik bide da-
torrena:

- (2) a (neutroa) *-etum* (sing.) > *-edo* (maskulinoa): pinedo, salcedo.....
 b (neutroa) *-eta* (plural) > *-eda* (femeninoa): avellaneda, alameda....

Leku-izen horiek Euskal Herriaren mugako erdal herrietan agertzen dira batez ere. Badakigu euskaraz ere badirela honelakoak:

- (3) *pagoeta* / *pagadi* ‘pagoak dituen tokia’

Bibliografian argi esaten ez bada ere, pentsatzekoa da *-eta* nolabaiteko eratorpen-atzizkia izango zela. Bestela esanda, garai hartan *-eta* atzizkia emankorra izango zen toki-izen eratorriak emateko. Edonola, badakigu egun *-eta* ez dela eratorpen-atzizki emankorra eta *-di*, *-tza* eta *-teria* daudela bere orde.

Gauzak horrela, euskal toponimiara iritsiko ziren *-eta* zatidun horiek (4a), eta hortik gizaki-deituretara (4b) aldatuko ziren:

- (4) a *Pagoeta*: pagoak dituen toki jakin baten izena
 b *Pagoeta*: gizaki edo toki jakin baten deitura

Hala ere, *Pagoeta* edo *pagoeta* bezalako izenen sintaxiaren aldaketa prozesua ez zen hor geldituko. Izan ere, erraz uler daiteke honelako toki-izenak oso maiz erabiltzen direla toki-postposizioekin batera:

- (5) a ...*pagoeta-n* (=pagadian) izan naiz
 b ...*pagoeta-tik* nator
 c ...*pagoeta-ra* joan naiz

Bibliografiaren arabera, *-eta* hori pluraltasun balioa galduz joango zen, eta *-e* soila hartuko zen plural markatzat edo, zehazkiago, mugatzailea + plurala multzotzat. Horrela, determinatzaile, zenbaki eta kasu marken flexio-esparrura iritsiko zen *-e* hori, izen-morfologiaren barruan. Bestetik, *-ta* hondarra, *-n*, *-tik* eta *-ra* postposizioei lotu bide zitzaien plural eta mugagabe deitu izan diren aldaeren barruan. Izan ere, ikusia dugu absolutibotik kanpoko kasu markek plural-markekin batera *pagoek* edo *pagoei* bezalakoak egiten

dituztela. Hau da, *pagoek* eta *pagoei* horien ondora iritsiko ziren *pagoetan*, *pagoetatik* edo *pagoetara* bezalakoak.

Gogoan izan behar dugu bilakaera proposamen honek ez duela inola ere bat egiten Manterolak (2012: §2.2) proposatutako *pago hetan* > *pagoetan* bilakaera bidearekin. Bistan da, edonola, Manterolak ez digula eman muga-gabeazaltzen den *-t* horren azalpenik.

Hain zuzen ere, postposizioen gune honetan azaltzen da ageri-agerian *-e* hori (mugatu) pluralaren adierazle dela, bai determinatzaile-sintagma soiletan (*pagoek*, *pagoei*), bai eta postposizio-sintagmen osagarriaren kokaguneko determinatzaile-sintagmetan ere (*pagoetan*, *pagoetatik*, *pagoetara*). Zer esanik ez, alde bat dago bien artean, berezko *-k* edo *-i* kasu markak ez direlako inola ere azaltzen postposizio-sintagmetan:

(6)

	det	zenbakia	kasu marka	postposizioa
	pago	<i>-a</i>	$\emptyset$	<i>-</i>
pago	<i>-a</i>	<i>-k</i>	$\emptyset$	<i>-</i>
	pago	<i>-a</i>	<i>-k/-i</i>	<i>-</i>
	pago	<i>-e</i>	<i>-k/-i</i>	<i>-</i>
	pago	<i>-e</i>	$\emptyset$	<i>-tan, -tatik, -tara</i>

Onartu beharrekoa da hala gertatuko zela *de facto* bai pluralean bai mugagabeazaltzen ere:

(7)

pago	<i>-tan, -tatik, -tara</i>
------	----------------------------

Alegia, bibliografiak esandakoa eta egun ditugun datuak elkartuta, badirudi *-e* hori «sentitu» egiten dela plural modura, bai determinatzaile-sintagma soiletan, bai eta postposizioen osagarri diren determinatzaile-sintagmetan ere.

Edonola, hipotesi honen barruan pentsatu beharko genuke *-tik* elatiboa eta *-ra* adlatiboa ere sartuta egongo zirela pluralean gertatu zen aldaketa honetan.

2.2.1.2. -plurala + inesiboa

Esana dugu pluralean *-e* hori pluraltzat hartuko zela, edo agian mugatzai-lea + plurala multzotzat, baina beste alde batetik, baliteke garai horretan oraindik finkatu gabe egon izana mugatzailea, eta, betiere bibliografiari jarraiki, honelakoak egongo ziren singularrean behintzat:

- (1) a ^opagon
- b pagora, pagoraino, pagorantz, pagotik

Behartuta gaude nonbait kontsonante bukaerakoak ere itxuratzen:

- (2) ^ozuhaitz(e)n

Bibliografiak ez du zehazten nola gertatu zen (1-2)ko egoeratik ustezko mugatzailedun singularretarako prozesua, baina ikus bedi egungo sorta hau:

- (3) a zuhaitzean
- b *zuhaitzea
- c zuhaitza
- (4) a pagoan
- b pagoa

Azkaratek eta Altunak azpimarratua dute (3a-b) kontraste horren ulertezina. Alegia, determinatzaile-sintagmadun postposizio-sintagmek (3a, 4a) determinatzaile-sintagma soilak (10b, 11b) hartu beharko lituzkete osagarri, baina kontsonante bukaerakoen kasuan, (3a/b/c) kontrastea azaldu ezina da, baldin eta onartu nahi badugu (3a)koan ere *-a* mugatzailea dagoela; bestela esanda, (3a) lortzeko, (3b) izan beharko genuke, baina dakigun bezala, (3c) da benetako forma.

Une horretara iritsita, lan honek Gorozikako hizkeraren ekarpena egin nahi du:

- (5) a soloa
- b solloan

- (6) a hormie
b horman

Alegia, badakigu *-ie* dela *-a* itsatsia + *-a* mugatzailea baturaren ondorioz sortzen den determinatzaile-sintagma hizkera horretan, baina postposizioetara jotzen dugularik, esan genezake *horma* izenak ez duela mugatzailerik hartzen, *horman* egiten delako, ez *hormien*.

Laburbilduz, bada, *de facto* onartu behar dugu mugatzailea sortu sortu zela baina ezin ziurta dezakegu postposizio-sintagma batzuen osagarri diren determinatzaile-sintagmetan bertan azaltzen den *-a* hori determinatzailea denik: ez da azaltzen dagokion atzizki-hurrenkeraren araberako tokian. Edonola, azaldu beharrekoa da *horma* zein *solo* izenek bere hiru paradigma morfologiko dituztela egun, izen guztiek har dezaketen irakurketa sorta ohi-koarekin batera. Bukatzeko, gogora dezagun, *horman* horren ondoan, *hormetan* eta *hormatan* ditugula hurrenez hurren pluralean eta mugagabeen.

2.2.2. *Elatiboak, eta adlatiboak ba ote daukate mugatzailerik?*

Ikusia dugu nahiko bilakaera-ibilbide argia dutela *-tik*, *-ra*, *-raino* eta *-rantz* postposizioek, [+plural] tasunari dagokionez; *-e* hori izan liteke mugatzailea pluralean:

- (1) a soloetatik [+plurala], [+mugatua]
b solotatik [+plurala], [-mugatua]

Singularrean, ordea, inongo mugatzaile-arrastorik ere ez da (sortu) hone-lako postposizioekin batera. Eta hala baieztatu behar dugu tartean Gorozikako hizkeran *-a* itsatsidun izenetan oinarrituta:

- (2) a horma (batuak oinarri dituen euskalkietan)
b hormie (Gorozika)
- (3) a hormatik (euskalki guztietan)
b *hormietik

Horrela, bada, esan dezakegu elatiboari ez ziola eragin singularrean *-a* garatu zuen gramatika-prozesuak. Gogora dezagun inesibo, elatibo eta adlatiboan analogia antzeko zerbait gertatu zela, ergatibo eta datibo aldaere-tako *-e* horretarantz hurbiltze aldera: inesibo, elatibo eta adlatiboan, plurallek bereganatu egiten zuten jatorriz eratorpen-atzizki lexikoa zen *-eta* hori. Horrela, eratorpen-atzizkia lexikoa zen jatorriz, eta [+plurala] tasuna adierazteko flexio-atzizki izatera iritsi zen. [+plurala] bide den mugagabearen paradigmari eusteko ere erabiltzen da *-ta* hori egun.

Ondorioak

Euskal izenak oso flexio-morfologia korapilatsua dauka, izenari atxikita azaltzen baitira zenbaki-marka, determinatzailea, kasua eta are postposizio gehienak ere. Euskal gramatikaren tradizioak ondo deskribatuak ditu izen bakoitzak eskura dituen hiru paradigma morfologikoak: «mugatu singularra», «mugatu plurala» eta «mugagabea». Deskripzio hauek *de facto* eginda daude, hau da, egon badaude izenaren hiru flexio-era, eta gainera flexio era horiek ondo uztartuta daude perpausean gertatzen diren beste hainbat morfosintaxi-zehaztapenekin.

Lehenengo eta behin, lan honek gogora ekarri nahi izan du etiketa horiek morfologiakoak edo sintaxizkoak direla, baina ez, ordea, semantikakoak; egia da hiru flexio era horiek ondo errotuak daudela sintaxi-testuinguru banatan, baina «mugatuak» direlako bi horiek (*gizona*, *gizonak*) ez dute beti irakurketa espezifiko hartzen, eta «mugagabea» delako horrek hainbatetan plural-irakurketa hartzen du. Horrela, bada, semantikan aritu garelarik, [+zehaztua] eta [+plurala] semantika-tasunez mintzatu gara, [+mugatua] tasunak morfologian utziz.

Bigarrenik, lan honetan, saiatu gara izenak daramatzan funtzio-kategoria horiek guztiak elkarrengandik zedarritzatzen. Izan ere, lanak xede hartu du zenbakia, determinatzaile atxikia, kasua eta are postposizioak ere ondo identifikatzea morfologiaren korapilo horretan. Izan ere, guk geuk, ahaleginak egin ditugu «mugatua + singularra», «mugatua + plurala» eta «mugagabea» direlako multzootako segmentu bakoitzari funtzio-kategoria bana esleitzeko.

Horretarako, euskararen bilakaerako hainbat datu berrikustatu ditugu, eta horrekin batera, gainbegirada bat bota diogu egungo euskalki-diasistema-ri. Bereziki erreparatu diogu mendebaldeko hizkeren artean Gorozikako hizkera zaharrari. Izan ere, erdialdeko euskalkietatik eta euskara estandarretik alde batera gelditu diren hizkerek datu osagarriak baina argigarriak ematen dituzte, konparazio-metodologia bat behar bezain zorrotz erabiliz gero.

Hori dela eta, *-a* dugu, jakina, determinatzaile mugatzaile atxiki nagusia, baina azpimarratzekoa da *-a* horrek bere horretan jarraitzen duela hainbat euskalkitan atzean daraman zenbaki eta kasu markak daramatzala ere (*Gizonak egin dau* / *Gizonak egin dabe*). Horixe gertatzen da Gorozikan, bertan kontsonante-bukaera duten izenetan garden-garden azaltzen delako mugatzailea.

Gorozikako hizkerak gainera, nonbait ageriago uzten ditu mugatzailearen eta bukaerako bokalen arteko tirabira morfofonologikoak (*Neskiek egin dau* / *Neska batek egin dau*), betiere bestelako euskalkiekiko erkaketaren argitan (*Neskak egin du* / *Neska batek egin du*). Oso azpimarratzekoa da *-a* itsatsiaren eta mugatzailearen arteko gorabeherak ez bide direla pluralean gertatzen eta Gorozikako hizkerak ez duela eraldaketarik erakusten pluralean (*Neskiek egin dau* / *Neska batek egin dau* / *Neskak egin dabe*).

Bestetik, batuak oinarri dituen euskalkietan, badirudi *-e* dugula determinatzaile-sintagma soiletan zein postposizio-sintagmaren osagarri diren zenbait determinatzaile-sintagmatan [+mugatua] [+plurala] tasunak biltzen dituen paradigmaren oinarri (*gizonek*, *gizonei*, *gizonengan*). Oso azpimarratzekoa da determinatzaile-sintagma soil horiek defektuzko absolutiboa ez den kasu marka bat daramatela. Postposizio-sintagmen singularreko aldaerari, ez da kasu markaren arrastorik azaltzen osagarriaren tokian kokatuta dauden determinatzaile-sintagmetan. Edonola, gogora dezagun egungo diasisteman badirudiela *-a* [+mugatua] eta *-e* [+mugatua] ditugula morfologiaz ari garela (*Gizonak etorri dira* / *Gizonak egin dabe* eta *Gizonak etorri dira* / *Gizonek egin dute* hurrenez hurren). Semantikaz ari garela, ordea, *-a* mugatzaileak [+zehaztua] irakurketak ematen ditu Gorozikako kasu marka guztien aurretik. *-e*- delakoak, ordea, [+zehaztua] adierazteko joera dauka, atzean ergatibo, datibo edo postposizio bat dagoelarik. Erraz esanda,

[+zehaztua] da Gorozikan *-a* hori, eta batez ere [+zehaztua] da *-e-* beste euskalki horietan. Horrela, bada, *-a* mugatzaile bakarra dugu [+mugatua] eta [+zehaztua], Gorozikan. Batuak oinarri dituen euskalkietan, ordea, *-a* [+mugatua] eta [+zehaztua], eta *-e* [+mugatua] eta [+zehaztua].

Bizkaiko hizkeretako [+hurbila] tasuna dela eta, Gorozikak eutsi egin die bere hiru mailako erakusle atxikiei, eta aukera du erakuslea izen aurrean eta izen atzean errepikatzeko. Tresna-baliabide egokiak eman ditu teoria-hizkuntzalaritzak aurreko determinatzaile erakusle atxikigabea eta atzeko determinatzaile erakusle atxikia daramatzatenak formalki aztertze: aurreko erakuslea espezifikatzaile deitu izan den egitura-kokapen batean egongo litzateke, eta atzeko erakuslea, jakina, egitura guztiaren buruan. Pentsatzen dugu galdu aurretik ondo aztertu beharko liratekeela bi erakusle izateak eta erakusle bakarra izateak zein inplikazio dakartzkion pragmatikari, betiere burua erakuslea denean behintzat.

Azpirarratzekoa da bestetik euskara estandarrean egiten den izena-erakusle atxikigabea segida (*gizon hau*) ez dagoela Gorozikako hizkera zaharrean, eta horren orde, erakusle atxikigabea-izena-determinatzaile mugatzaile atxikia segida dagoela (*hau gizoneu*), edo bestela izena-determinatzaile atxikia (*gizoneu*). Bi aukera hauek, egungo euskararen diasistema orokorrean bizi dira, bakoitza bere euskalki-aldaeran.

Bai kasu honetan eta bai gainerakoetan ere, sakon aztertzeke daude oraindik euskal erakusle atxikigabeek edo atxikiek hartzen dituzten balio deiktiko-anaforikoak, eta mugatzaile atxikiak hartzen bide duen irakurketa ez-deiktikoa. Izan ere, euskararen historian zein beste hizkuntza batzuen historian gertatu den erakusle/mugatzaile gramatika-aldaketek, fonologiaren gain, balio deiktiko-anaforikoen gorabeheretan ere oinarritu behar izan dute halaberrez: irizpide hori besterik ez dugu «erakuslea artikulatu bilakatu dela» esateko. Etorkizuneko lan horietan aztertu beharko da nolatan diren parekagarriak, diasistematikoki behintzat, erakuslea-izena-mugatzaile eta izena-erakuslea, baldin eta onartzen badugu egitura bakoitzak funtzio-kategoria desberdina duela buru.

Bukatzeko, [+hurbila] tasuna dela eta, bukaera horretan kokatu behar dugu, eta beraz, singularrean nekez bereiz daiteke izena-erakusle atxikiga-

bea (*gizon hau*) eta izena-erakusle atxikia (*gizoneu*). Horretatik at, erakusle-izena-*a* egiturak (*hau gizona*) ez bide du [+hurbila] tasuna, ez morfologiaren ikuspegitik, ez eta semantikaren ikuspegitik ere.

Oso azpimarratzekoa da «mugatzaileaz» ari garela, *hau gizona* eta *hau gizoneu* horietan pare-parean ditugula *-a* eta *-eu* eta ondo argitu beharko litzatekeela etorkizuneko lanetan *-eu* horri ere (eta pluraleko *-o* horri) «mugatzailea» ala «determinatzailea» deituko diogun.

Beren semantika-tasunak direla eta, jo dezagun *-eu* eta *-o* determinatzaile erakusle atxikiak direla. *-a* edota *-a* / *-e*, ordea, determinatzaile mugatzaileak direla onartuko dugu, tartean semantika-ezaugarriak [+zehaztua] zein [-zehaztua] izan badaitezke ere.

Bibliografia

ABNEY, S., 1987, «The English Noun Phrase in its sentential Aspect», PhD dissertation, MIT.

ARTIAGOITIA, X., 1997, «DP predicates in Basque», *University of Whashington Working Papers in Linguistics*, Vol. 15, A. Taff (ed.), 161-198. Seattle WA: University of Washington.

———, 1998, «Determinatzailearen sintagmaren hipotesia Euskal Gramatikan», *Uztaro* 27: 33-61.

———, 2000. *Hatsarreak eta parametroak lantzen*, Euskal Herriko Unibertsitatea & Arabako Foru Aldundia.

———, 2002, «The functional structure of the Basque noun phrase», *Erramu Boneta: Festschrift for Rudolf P.G. de Rijk*, X. Artiagoitia, P. Goenaga & J. Lakarra (arg.), 73-90. Bilbo: Supplements of ASJU (XLIV).

———, 2012, «DP Hypothesis in the grammar of Basque», *Noun Phrases and Nominalization in Basque*. Urtzi Etxeberria, Ricardo Etxepare & Myriam Uribe-Etxebarria (arg.): 21-78. John Benjamins Publishing Company.

AZKARATE, M. & ALTUNA, P., 2001, *Euskal morfologiaren historia*. Donostia: Elkarlanean.

AZKUE, R.M., 1923-25, *Morfología Vasca* (I, II, III). (1969). Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca.

EGUREN, L., 2012, «Predication markers in Basque», *Noun Phrases and Nominalization in Basque. Noun Phrases and Nominalization in Basque*. Urtzi Etxeberria, Ricardo Etxepare & Myriam Uribe-Etxebarria (arg.): 243-266. John Benjamins Publishing Company.

EGUZKITZA, A. & M. ETXEBARRIA, 2004, *Hizkuntzalaritza orokorra: arazoak eta ikuspegiak*. Euskal Herriko Unibertsitatea & Arabako Foru Aldundia.

ETXEBERRIA, U., 2012, «The way the definite determiner affects quantifiers in Basque (and beyond)», *Noun Phrases and Nominalization in Basque*. Urtzi Etxeberria, Ricardo Etxepare & Myriam Uribe-Etxebarria (arg.): 79-110. John Benjamins Publishing Company.

ETXEBERRIA, U. & ETXEPARE, R., 2012, «Number agreement in Basque», *Noun Phrases and Nominalization in Basque*. Urtzi Etxeberria, Ricardo Etxepare & Myriam Uribe-Etxebarria (arg.): 149-178. John Benjamins Publishing Company.

EUSKALTZAINDIA, 1985, *Euskal Gramatika-Lehen Urratsak-I*. Iruñea: Euskaltzaindia, Comunidad Foral de Navarra. Departamento de Educación y Cultura Institución Príncipe de Viana.

———, 1993, *Euskal Gramatika Laburra: Perpaus bakuna*. Bilbo: Euskaltzaindia.

GAMINDE, I., 2007, *Bizkaian zehar euskararen ikuspegi orokorra*. Bilbo: Mendebalde Kultura Alkartea. Izaro Bilduma.

GOENAGA, P., 1980, *Gramatika bideetan*. Donostia: Erein.

———, 2012, «An overview of Basque measure phrases», *Noun Phrases and Nominalization in Basque*. Urtzi Etxeberria, Ricardo Etxepare & Myriam Uribe-Etxebarria (arg.): 111-148. John Benjamins Publishing Company.

IRIGOIEN, A., 1978a, «Erakusleez», *Euskera* XXIV (2. aldia): 713-735.

———, 1978b, «Deklinabideaz», *Euskera* XXIV (2. aldia): 737-759.

———, 1981, «Haur ola çirola», *Euskalarien nazioarteko jardunaldiak*. Iker-1. Euskaltzaindia: 365-402.

LABAYRU (arg.). (2002). *Bizkaia Euskararen Jarraibide Liburua. Lehenengo pausuk*. Bilbo: Labayru Ikastegia, BBBK Fundazioa.

LAFITTE, P., 1944, *Grammaire Basque (Navarro-labourdin littéraire)*, Elkar. Donostia, 1978.

LAKA, I., 1993, «The structure of inflection: A case study in X^o syntax», *Generative Studies in Basque Linguistics*. Jose Ignacio Hualde & Jon Ortiz de Urbina (arg.): 21-70. John Benjamins Publishing Company.

LARRAMENDI, M., 1729, *El Imposible Vencido. Arte de la Lengua Bascongada*, sarean: https://books.google.es/books?id=cSBKAAAACAAJ&printsec=frontcover&hl=es&source=gbs_ViewAPI&redir_esc=y#v=onepage&q&f=false.

MANTEROLA, J., 2012, 'Synchronic ubiquity of the Basque article *-a*: A look from diachrony'. *Noun Phrases and Nominalization in Basque*. Urtzi Etxeberria, Ricardo Etxepare & Myriam Uribe-Etxebarria (arg.): 179-206. John Benjamins Publishing Company.

MITXELENA, L., 1972, «Etimología y Transformación», Homenaje a Antonio Tovar. Madrid: Gredos, 305-317 (1985, *Lengua e Historia*, 296-308).

ODRIOZOLA, J.C., 1999, «Postposizioak EGLUn: egitura motak eta gramatika-kategoriak», *Euskera* 44 (2): 841-863.

———, 2004, «Construcciones con nombres locativo-relacionales en vasco», E. Pérez Gaztelu, I. Zabala & L. Gràcia (arg.). *Las fronteras de la composición en lenguas románicas y en vasco*. Deustuko Unibertsitatea/Universidad de Deusto: 569-602.

———, 2007, «Measure Phrases in Basque», *Studies in Basque and Historical Linguistics in memory of R.L. Trask. Supplements of International Journal of Basque Linguistics and Philology* 40 (1-2). J. Lakarra & J.I. Hualde (arg.): 739-762.

———, 2008, «Quantifying Compounds», *Gramatika Jaietan. Supplements of International Journal of Basque Linguistics and Philology* X. Artiagoitia & J. Lakarra (arg.): 503-518.

ODRIOZOLA, J.C. & ALTZIBAR, X., 2013, «Basque Complex Predicates and Grammar Change», *Fontes Linguae Vasconum* 45 (16): 171-189.

ODRIOZOLA, J.C. & ONDARRA, A., 2015, «Polaritate negatiboko osagaiak baiezko perpausetan», *Uztaro* 92: 67-86.

SCHUCHARDT, H., 1947, *Primitiae linguae vasconum*: versión española con notas y comentarios por A. Yrigaray, Salamanca: Colegio Trilingüe de la Universidad, Consejo Superior de Investigaciones Científicas.

TRASK, R.L., 1997, *The history of Basque*. USA, Canada: Routledge.

———, 2003, «The noun phrase: nouns, determiners and modifiers; pronouns and names», *A Grammar of Basque*, J.I. Hualde & J. Ortiz de Urbina (arg.): 113-170. Berlin: Mouton de Gruyter.

VILLASANTE, L., 1972, *La declinación del vasco literario común*. Oñate: Editorial Franciscana Aranzazu.

ZABALA, I., 2003, «Nominal predication: copulative sentences and secondary predication», *A Grammar of Basque*, J.I. Hualde & J. Ortiz de Urbina (arg.): 426-448. Berlin: Mouton de Gruyter.

ZABALA, I. & J.C. ODRIOZOLA, 2004, «Los complejos posposicionales en vasco», E. Pérez Gaztelu, I. Zabala & L. Gràcia (arg.). *Las fronteras de la composición en lenguas románicas y en vasco*. Deustuko Unibertsitatea/Universidad de Deusto: 281-315.



Euskal literatur itzulpengintza garaikidea: egituratzen ari den barne-eremua

**La traducción literaria vasca contemporánea:
un subcampo en vías de estructuración**

**La traduction littéraire basque contemporaine :
un sous-champ qui se structure**

**Contemporary translation of Basque literature:
an inner field in the making**

IBARLUZEA SANTISTEBAN, Miren
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)¹

Noiz jaso: 2017-10-17

Noiz onartua: 2018-04-28

¹ Lan hau MHLI (IT 1047-16) ikertaldearen jardunaren baitan egin da, US 17/10 (UPV/EHU) eta FFI 2017-84342-p (MINECO) ikerketa-proiektuetan.

Euskal itzulpengintzak erakundetze-prozesua bizi izan du azken lau hamarkadetan, eta lan honetan literatura itzuliak prozesu horren gurpilean izandako bilakabidea aztertzen da. P. Bourdieu soziologoaren eremuen teoria oinarri harturik, euskal literatura itzulia barne-eremu bat balitz bezala definitzen da hemen; ondotik, eremuak aztertzeko hiru analisi-mailen artetik (ekoizpen- eta zirkulazio-baldintzak; artisten jarrerak; eremuaren harrera eta irismena) lehenengoa aztertzen da xeheki: eremuaren egitura ardatzen duten erakunde eta eragileak dira aztergai nagusia (elkarteak, ikasketak...), eragileen profesionalizazioan, ikusgarritasunean eta jarreretan izandako eraginaren erakusgarri.

Gako-hitzak: Euskal itzulpengintzaren historia garaikidea, itzulpenaren soziologia, eremuen teoria

La traducción vasca ha vivido un proceso de institucionalización durante las cuatro últimas décadas. En este trabajo se estudia como se ha desarrollado dicho proceso. Cimentándose en la teoría de los campos del sociólogo P. Bourdieu, la literatura vasca traducida se define aquí como un intracampos. Posteriormente, se analiza detalladamente uno de los tres niveles de análisis para el estudio de los campos sociales: el objeto de estudio principal son las instituciones y los agentes que trazan la estructura del campo (asociaciones, estudios...), como muestra de la influencia que han tenido en la profesionalización, visibilización y actitudes de diversos agentes.

Palabras clave: Historia contemporánea de la traducción vasca, sociología de la traducción, teoría de los campos.

La traduction basque s'est institutionnalisée au cours des quarante dernières années. Cet article étudie comment s'est déroulé ce processus. En se basant sur la théorie des champs du sociologue P. Bourdieu, la littérature basque traduite est ici définie comme un sous champ. Ensuite, on a analysé en détail l'un des trois niveaux d'analyse des champs : Les principaux objets d'étude sont les institutions et les agents qui dessinent la structure du champ (associations, études...), ils montrent l'influence qu'ils ont eu dans la professionnalisation, la visibilité et les comportements de ces agents.

Mots-clés: Histoire contemporaine de la traduction basque, sociologie de la traduction, théorie des champs.

Over the last four decades Basque translation has undergone a process of institutionalisation and this work looks at how this process has transformed literary translation. On the basis of the sociologist P. Bourdieu's field theory, translated Basque literature is defined here as a subfield; subsequently, of three levels of analysis for examining fields (the conditions for production and circulation; artists' attitudes; the field's range and acceptance), the first is

looked at in detail: the organisations and agents that structure the field (associations, studies...) and how they reflect the influences exerted on agents' professionalisation, visibility and attitudes.

Key words: contemporary history of Basque translation, the sociology of translation, field theory.

Eremua, eremuen autonomia eta analisi-esparruak

Gero eta arreta handiagoa egiten zaie itzulpenaren ikerketan itzulpen-eragileen eta erakundeen sareei, botere-harremanen interakzioari, itzulpenari buruzko diskurtso sozialei... eta horiek denek eragin zuzena dute itzulpen-praktiketan eta prozesuan. Izan ere, itzultzea jarduera soziala da, gizarteak doitutakoa: jarduten duen itzultzailea ez dago isolatuta, gizartetik at; itzultzailea izaki soziala da, baina, horrez gain, gizarte-erakundeek ere itzulpen-fenomenoari bete-betean eragiten diote, itzulgaien hautaketan, zabalkundean zein itzulpen-estrategietan. Halaber, itzulpenak berak eragin jakin batzuk ditu gizartean, itzultzaileak funtzio eta rol jakin batzuk betetzen dituen aldetik. Itzulpen-ikasketa soziologikoen baitan biltzen dira ikergai horiek guztiak. Besteak beste, Pierre Bourdieuren eskolako jarraitzaileek zabaldu dute bidea itzulpen-ikasketa soziologikoen esparruan; J. Heilbron eta G. Sapiro aipa daitezke, adibidez. Bestalde, literatur itzulpenaren soziologiaren garapen-programa bat aurkeztu zuten Bachleitner eta Wolf iker-tzaileek 2010ean (Wolf, 2011: 1-16).

Pierre Bourdieu soziologo frantziarra estrukturalismo genetikoa edo estrukturalismo kritikoa deritzonaren aitatzat jotzen da. Jarraian ikusiko denez, Bourdieuk, eremuaren teoriaren bidez, hainbat kontzeptu eta tresna darabiltza gizarte-errealitateak deskribatzeko eta aztertzeko, eta kontzeptu eta tresna horiek baliatuko dira artikulu honetan, hain zuzen ere, euskal itzulpengintza garaikidearen historia aztertzeko.

Bourdieuren eremuen teoria elkar definitzen duten *eremu*, *kapital* eta *habitus* kontzeptuek ardazten dute, eta oinarritzko eskema bat eskaintzen dute gizarte-errealitateak (batez ere kulturalak eta sinbolikoak) deskribatzeko: harreman historikoek, botere-sareek edo balio ideologiko, kultural, ekonomiko zein sinbolikoek (hots, kapitalek) baldintzatutako kokaguneen sarea da eremua, eta sare horrek norbanakoengan utzitako lorratza da habitusa (Vizcarra, 2012). Lan honetan batez ere *eremu* kontzeptuari jarriko zaio arreta: euskal literatura itzulia eremuen teoriaren arabera definituko dugu eta eremuak deskribatzeko baliatzen diren tresnen arabera deskribatuko dugu, azken urteotan euskal literatura itzuliari lotutako egiturek bizi izandako bilakabidea; izan ere, eremuen autonomizaziorako ezaugarriak betetzen dira gurean.

Eremua espazio sozial egituratua da, hierarkia, indar-harreman, arau eta egitura jakinak dituena. Era berean, eremua egituratzailea da, hierarkiak, indar-harremanak, arauak eta egiturak sorrarazten ditu. Labur esanik: egitura jakin bat duen eta eragin egiten duen espazio soziala da eremua. Eragileek, erakundeek eta praktikek osatzen dute eremua. Eremuari berari dagozkion problematika komunak definitzen ditu eremu-kideak edo eragileak, eta eremuaren beraren egiturak agerian uzten du euren posizioa. Eremuko eragileek, kapitalak eta habitusa baliatuta eta kideak eta sare jakinak baliatuta, askotariko dinamikak sortzen dituzte (estrategia kontserbatzaileen zein eraldatzaileen arabekoak, adibidez). Eremuak, hortaz, indar-harremanak dira, eremuaren beraren funtzionamenduaren inguruan borrokan dabilzan eragileen gune hierarkikoak. Bestalde, eremuak dinamikoak dira: aldatu egiten dira, espezializatu, zabaldu, lausotu, desagertu, askatu, autonomizatu... Oro har, eremuen dinamikak zein eremuak sortzeko eta desagertzeko prozesuak aldaketa sozialen ispilu izaten dira (Bourdieu, 1984 & Vizcarra, 2012).

Eremuaren autonomiarako bidea hiru faktoreekin lotzen du Bourdieuk: a) gizarte-aniztasunarekin batera kontsumitzaile potentzialak handitu izanarekin; b) produktu sinbolikoen sortzaile eta merkatarien kopurua handituta independentzia ekonomikoa lortzeko ahalmenarekin; eta c) kultur legitimazioa lortzeko lehian kontsakrazio-agentziak (akademiak, azokak, difusio-erakundeak...) dibertsifikatu izanarekin (1984, 112-115).

Bourdieuaren jarraitzaile Sapiro (2010 & 2014) irakasleak hiru eragin- eta ikerketa-maila proposatzen ditu eremuen eta barne-eremuen autonomizazio-prozesua deskribatzeko. Lehenbiziko maila ekoizpen- eta zirkulazio-baldintzei dagokie, eta profesionalizazioan, erakundeetan eta horien eta eremuaren egituran azaleratzen da. Eremuaren bigarren eragin- edo ikerketa-mailan daude artisten jarrerak. Azkenik, eremuaren hirugarren eragin- eta ikerketa-maila eremuaren beraren harrerari eta irismenari dagokie. Sapiroren arabera, eremuaren autonomia loturik dago aditu talde bat sortzearekin eta aditu-talde horrek eremuaren jabetza eta eremuan sartzeko kontrola aldarrikatzearekin; horrez gain, eremuaren historia propioari buruzko erreferentziak (hots, eremuaren historia propio bat sortzeko ahalegina) autonomizazioarekin daude lotuta (Sapiro, 2014: 34-107).

Artikulu honetan Sapirok proposatutako lehenbiziko analisi-esparruan arituko gara: euskal literatur itzulpengintzako eragileen profesionalizazioa, erakundeen eratzea eta bilakatzea nola gertatu den azaltzea da artikulu honen helburua. Izan ere, eremuaren historia ez da gertaera-zerrenda bat, baizik eta eragileen ezaugarrien eta posizioen bilakaera jakin bat, eta bote-re-hartze eta -galtzeen marra dinamiko eta jarraitua.

Euskal literatura itzuliaren eremua: autonomia erlatiboko barne-eremua

Bourdieu-k zehazten dituen (barne-)eremuen autonomizaziorako faktoreak (1984, 112-115) gertatu egin dira euskal literatura itzuliari dagokionez: badira euskal literatura itzuliaren kontsumitzaileak, ekoizleak eta legitimazio-instantziak. Edonola ere, eta aurrerago ikusiko denez, euskal literatura itzuliaren barne-eremua ez da guztiz beregaina, eta ekoizpen urriko eremuiei dagozkien ezaugarriak ditu (albo-eremuen mendekotasuna, adibidez; Bourdieu, 1984, 1990, 1991).

Hauxe da gure abiapuntua: euskal literatura itzulia autonomia erlatiboko barne-eremu dinamikoa da, euskal itzulpen-eremuaren eta literatur eremuaren barruan koka daitekeena, eta, era berean, nazioarteko literaturaren espazioaren parte bat hartzen duena. Norabide anitzekoa eta transnazionala da, hortaz. Elkarri eragiten dioten indar-sareek egituratzen dute hizpide dudan barne-eremua, eta, aldi berean, barne-eremuko indarrek albo-eremuetan (itzulpen-eremua eta literatur eremua, esaterako) eragiten dute, beste albo-eremu batzue-takoek euskal literatur itzulpenaren barne-eremuan eragiten duten bezala.

Euskal literatura itzulia: egituraren historia labur bat

Itzulpenak rol garrantzitsua izan du euskal testuen historian (Jaka, 2005); alegia, euskal testuak ezagutzen ditugunetik egin izan dira euskararako itzulpenak; gainera, zenbait ikertzaileen lumatik ezagun da itzulpenek zenbait arotan «erdiguneko posizioak bete dituztela euskal literatura-sisteman, hau da, testu kanonikoak izan direla» (López Gaseni, 2010: 845-846).

XVIII. mendea baino lehenago, euskal itzulpenaren eta literaturaren eremua biak bat zirela esan dezakegu, darabiltzagun kontzeptuak aplikatuta (alegia, eragileak, erakundeak, praktikak, eraginak, pertzepzioak... denak bat ziren, gaur egun itzulpenaz eta literaturaz dugun ikuspegia aplikatuz gero). Auzia, gizarte-egiturekin ez eze, itzulpena eta literatura hautemateko moduarekin ere badago lotuta. Izan ere, *literatura* hitzaren jatorrizko esanahira joz gero, latinez 'instrukzio' esan gura zuen; beraz, literaturaren eduki semantikoa loturik zegoen jakintzarekin, idaztearen eta irakurtzearen artearekin, gramatikarekin, alfabetoarekin, erudizioarekin... (Aguiar e Silva, 1972: 11). Ikuspegi haren arabera, idatzitako guztia zen literatura (itzulpena barne). XVIII. mendetik aurrera, literaturak sorkuntza estetikoaren esangura duenetik aurrera, esan dezakegu apurka-apurka itzulpenarekin eta literatur sorkuntza estetikoarekin lotutako eragileak, praktikak eta pertzepzioak bereizten hasi zirela. XIX. mendetik aurrera literatur itzulpena barne-eremu gisa egituratzen hasi izanaren lehenbiziko aztarnak aurki ditzakegu. XX. mende erditik aurrera hasi zen, edonola ere, itzulpen-eremuaren autonomizazioa; nolabait, literaturaren autonomizazioarekin batera etorri da.

Itzulpengintza euskal letren historiaren hasieratik agertzen den arren, gizarte-entitate gisa (barne-)eremu berria da euskal literatura itzuliarena, beste eremu batzuen garapenaren eta dinamiken ondorioz sortutakoa. Beste sorkuntza-eremu batzuen kasuan gertatu bezala (ikusi Lasagabaster, 2007, 237-248), euskal literatura itzuliaren barne-eremuaren autonomizazioa Hego Euskal Herriko 1975az geroztiko aro demokratikoarekin hasi zen, EAEko eta Nafarroako hizkuntza-legeei loturik. Hezkuntzan, administrazioan eta komunikabideetan euskara legez txertatu beharrak eta gizartean hazitako itzulpen-beharrek handitu egin zuten itzultzaileen lan-zama eta, hortaz, baita itzultzaile profesionalen autonomia ekonomikorako bidea ere. Euskarazko produktuen merkatua sorturik, itzulpena (eta literatur itzulpena, horren barruan) merkatu horretako gakoetako bat izan da, eta itzulpena jorratu duten eragileak ez dira gutxi izan. López Gasenik 1970eko eta 1980ko hamarkadetan Lur eta Gero-Mensajero argitaletxeak, Eusko Jaurlaritzaren Antzerki Zerbitzua eta klasikoak itzuli zituzten eragileak aipatzen ditu, besteak beste, literatur itzulpenari bide eman zioten eragileen artean.

Esan bezala, 1970eko eta 1980ko hamarkadetan, euskal literatur itzulpenen kopurua nabarmen hazi zen; ez, ordea, lan horien kalitatea:

Itzulpen-kopuruaren igoerak, ordea, ez zuen itzulpenen kalitatea hobetu, kontrakoa baizik: itzultako testuen eskariak gora egitean, itzultzaile kualifikatu gutxi egotearekin batera, lantzean behingo zenbait itzultzaile erakarri zituen, batez ere hezkuntzaren arlokoak (filologiako eta kazetaritzako ikasleak, irakasleak...); izan ere, borondatea bai baina testu on gutxi eman zituzten oro har.

(López Gaseni:

<http://www.basqueliterature.com/basque/historia/itzulia>)

1970eko eta 1980ko hamarkadetan, beraz, batez ere idazleek, euskaltzaileek, irakasleek, kazetariak... egin zituzten literatur itzulpenak, kasu askotan modu desinteresatuan eta militantean. Orduko itzultzaile haiek egindako lanek, baina, ez zuten behar besteko kalitaterik, eta hortik etor daiteke, beharbada, zenbaiten artean euskal itzulpenek urteetan izandako ospe txarra.² Orduan itzulpen-lanetan aritu zirenak «erabat autodidaktak eta inolako prestakuntza teorikorik gabeak» zirela ondorioztatu zuen Zabaletak (1989, 15) itzultzaileen artean egindako inkesta baten harira. Edonola ere, garai hartan hasi ziren itzultzaileak profesionalizazio-beharraren kontzientzia hartzen, eta horri erantzuteko etorri ziren zenbait ikastaro. Mendiguren Bereziartuk azaltzen duenez: «1976an hasi eta 1980ko urrira bitarteko epean, hau da, Itzultzaile Eskolak bere ateak zabaldu arte, bost ikastaldi antolatu ziren Euskal Herriaren gune desberdinetan itzulpengintzaren inguruan kontzientzia sortzeko eta lehen ezagupen teorikoak eskaintzeko» (Mendiguren Bereziartu, 1984, 20). 1976ko lehenbiziko ikastaroa hiru ardatzen inguruan antolatu zuten:

Ikastaldi teoriko-praktiko hartako irakasleak hiru izan zirelarik, hiru sailetan banatu zen gaia:

² Ospe txar horren erakusgarri da, adibidez, itzulpenik irakurtzen ote zuen galdetuta, Urretabizkaiak emandako erantzun hau. «Ez, apenas. Nahiago frantsesez edo gazteleraz irakurri. Are ingelesez. Egin izan nuen bolada batez, aspalditxo, baina iruditzen zitzaidan itzulpena nahiko ortopedikoa zela» (Urretabizkai, 2013; elkarriketa argitaratugabea).

a) Sarrera, literatur testuen itzulpena, kazetaritzako testuen itzulpena eta Orixeren itzultze-modua (X. Mendiguren).

b) Testu didaktikoen itzulpena, «Bilboko Eskola» eta hizkuntza-ren finkapena, morfologia (aurrizki-atzizkiak) eta lexikologia (X. Kintana).

c) Testu teknikoen itzulpena eta analisi sintaktikoa (J. R. Etxebarria)

(Mendiguren Bereziartu, 1984, 20)

Mendiguren Bereziarturen beraren ikasgaietan ikus daitekeenez, literatur itzulpenak leku nabarmena izan zuen ikastaro hartan.

Ondoren emandako ikastaroak ildo beretik zein ardatz bakarren batean sakonduta egin ziren; bestalde, 1977ko irailean Bibliaren itzulpenari buruzko ikastaro berezi bat eman zuten Arantzazun, Eliza Ebanjelikoak euskara bat-urra ekarri gura zuela-eta Bibliaren itzulpena (Mendiguren Bereziartu, 1984, 21). Ikastaro horien ondoren, Euskaltzaindiaren eskariz, Mendiguren Bereziartuk aurretikosten bat prestatu zuen, Itzultzaile Eskola bat sortzeko (Mendiguren, 1984, 21). 1980an jarri zuen txosten hori Euskaltzaindiaren eskue-tan: «Itzulpenaren Mundua eta Euskal Itzultzaileen Oinarrizko Prestakuntzarako Eskola» (Mendiguren, 1981). Bestalde, IVAPek Lege alo-rrerako itzultzaile-eskola sortu zuen Gasteizen (Zabaleta, 1989, 61), baina li-teratur gaiak lantzen ez zirela eta, aipamen hau besterik ez dut egingo hemen.

Esan daiteke 1980ko hamarkadako lehenbiziko erdira arte itzulpen- eta itzultzaile-eskaria handitu egin zela, eta profesioaren kontzientzia hartzen hasi zirela zenbait eragile. Bestalde, hamarkadaren bigarren erditik aurrera hasi zen euskal itzulpenaren eremua erakundetzen, eremuko praktikak eta eragileak profesionalizatzen, profesionalentzako hezkuntza berezitua siste-mizatzen eta eremuaren erreferentzia espezifikoak eta kotsakrazio-agen-tziak sortzen. Izan ere, 1980an ireki zituen ateak Donostian Euskal Itzultzai-leen Oinarrizko Prestakuntzarako Eskolak (EIOPE). Honelaxe azaltzen du Mendiguren Bereziartuk eskolako programa (1984, 23):

Dossier-Aurre projektua aurkeztu eta berehala eman zuen ontzat Euskaltzaindiak Eskola sortzea eta urte berean, 1980an ireki zituen

bere atearak, Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipalak behin-behingoz Arbideko Dorreetan utzi zizkion geletan. Hona hemen 30 pertsonetako lehen ikaslego hark lau irakasleren eskutik ikasi zituen ikasgaien zerrenda:

- Euskara eta Euskal Literatura.
- Gaztelania eta Erdal Literatura.
- Linguistika Orokorra eta Estilistika.
- Itzulpen Teoria eta Praktika.
- Euskal-Itzulpenaren historia eta testu-konparaketarako metodologia.

(Mendiguren, 1984, 23)

Nabarmentzekoa da bost ardatzetako bi literaturari eskainiak izatea, eta uste izatekoa da teoria eta praktika lantzeko ardatzean ere literatur itzulpena landuko zela. Irakaskuntza-programa horren arabera lehenbiziko urte hura esperimental samarra izan zen (Mendiguren, 1984, 23-24), eta lehenbiziko bi urteko ikastaldiaz (1981/1982) geroztiko ikastaroak berregituratu egin ziren bai gaiei zegokienez, bai eskolaren antolamenduari zegokionez (Mendiguren, 1984; Urzelai & Auzmendi, 1989; Zabaleta, 1989; Zabalondo, 1988). Dena den, eskolaren asmoa ez zen soilik urtean hogeiren bat profesional merkatu-ratzea: «Aitzitik, langune desberdinetan barreiatu beharko lituzke bere indarrak, eta itzulpenarekin zerikusia duen guztiaren zentru dinamizatzaile izan beharko luke» zioen Koro Navarrok eskola abiarazi eta bost urtera egindako gogoetan (Navarro, 1984, 27-28). Hala, beren zereginen artean zeuden honako hauek: «a) dagoeneko lanean ari diren profesional-mota desberdinei birprestakuntza eskaini arratseko eta asteburutako ikastaldien bitartez; b) itzulpen teoria eta praktikaren ikerketa eta zabalkundea burutu eta bultzatu; c) bigarren horri begira argitalpen sail bat eta aldizkaria sortu» (Navarro, 1984, 28). Ildo horretan abiarazi zuen eskolak berak Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin itzulpengintzari buruzko liburu-sail bat. Honako hau izan zen emaitza, Koro Navarroren beraren hitzak hona ekarrita:

Hau dela eta, eta bereziki eskolako ikasleei laguntzeko asmotan argitalpen sail bat sortu du Itzultzaile Eskolak, Eusko Jaurlaritzaren Hez-

kuntza Sailaren diru laguntzaz, hiru liburu argitaratuak dira jadanik, eta beste bi ari gara prestatzen une honetan. Hauetariko batzu bereziki Eskolako ikasleentzat zuzenduak daude, hala nola Itzulgaiak (*Textu literario eta dragmatikoak*. K. Navarro eta X. Mendiguren). Besteak berriz gai hauetarik interesaturik legokeen irakurlego zabalago batentzat gerta litezke baliagarri: *Euskal Itzulpenaren Antologia I* Jesus Zabaleta; bigarren alea laster argitaratuko da), eta *Itzulpen teoriatzko ezagupenak* (K. Mendiguren). Boskarren liburu bat ere datorren urte hasieran azalduko da, hizkuntzalaritzaz, *Linguistika Orokorrezko Ezagupenak* (K. Navarro).

(Navarro, 1984, 30)

Beatriz Zabalandok zehaztu zuenez, «liburu eta materialen garrantzia ere ez da gutxiestekoa, orain arte batere landu gabe zegoen euskal traduktologiarena bezalako alor batean» (1988, linean). Mendiguren Bereziartuk (1989, 23-24) Itzultzaile Eskolako bibliotekan bildutako erreferentziazko lanak ere goraipatu izan ditu. Eremuari berezkoa zitzaion materiala sortzeko eta pilatzeko ekimen horren ildotik sortu zuten, halaber, itzulpen-gaiei buruzko *Senex* aldizkaria, 1984ko abenduaz geroztik argitaratu izan dena eta egun EIZIE elkarteak kudeatzen duena. Zabalandoren hitzetan, garai hartan eragin nabarmena izan zuen aldizkariak: «ideien zabalkunde eta sentiberatasunaren garatze nabaria eragin du itzulpen profesioaren eta teorizazioaren inguruan» (1988, linean). Iritzi berekoa naiz ni neu ere; izan ere, Zabalandok dioen moduan, *Senex* aldizkarian jaso ziren itzultzaileak prestatzeko euskarazko tresna bakarrak, falta zituzten teoriak eta kontzeptuak ikasteko zein tresna linguistikoak eskuratzeko. Azken batean, sortu zen garaian, hezkuntza formalaren egiturak falta zituen guztiz osatu gabeko eremu batean, aldizkaria hezkuntza-hutsuneak betetzera etorri zen. EIZIE elkarte profesionalak hartu zuen prestakuntzaren erantzukizuna, nolabait, eta euskal itzulpenaren eremua sendotu eta hezkuntza formala sendotu ahala (gerora, masterren eta lizentziaren bidez), esparruen banaketa handiagoa gertatu da. Egun badirudi maila teorikoko eta kontzeptualeko artikuluek leku gutxiago dutela *Senex* aldizkarian, eta oro har tarte handiagoa egiten zaiela itzulpen-praktikari eta langintzari buruzko idatziei.

Itzultzaile Eskolako bigarren promoziorako (1981/1984), bi urtetik hiru urtera aldatu zen ikastaldia, eta egoitza ere lekualdatu egin zen: Martutene-

ko Lanbide Hezkuntzako Ikastetxera eraman zituzten eskolak (Urzelai & Auzmendi, 1989, 28); hain zuzen ere, hortik datorkio izena Martuteneko Itzultzaile Eskolari. Bigarren eta hirugarren promozioetan (1983/1986) ikasgai berberak eman ziren, eta literatur gaiak ere jorratzen ziren, ikasturteen antolamenduan ikus daitekeenez:

Lehenengo ikasturtea.—Ingelesa, Gaztelania, Euskara, Itzulpen Teoria, Itzulpen Historia eta Itzulpen Praktikak.

Bigarren ikasturtea.—Ingelesa, Euskara, Literatura (teoria eta praktika), Itzulpen Teoria, Itzulpen Praktika eta Itzulpen Historia.

Hirugarren ikasturtea.—Ingelesa, Euskal Literatura, Erdal Literatura eta Itzulpen Praktika.

Itzulpen konparaketa, hizkuntz sakonketa eta beste gai batzuk ere tartekatzen ziren ikasketa hauetan. Programa zabala zen, ezin zitekeen bestelakoa izan Euskal Herrian hastapenetan aurkitzen zen Itzulpen-ikasketentzat.

(Urzelai & Auzmendi, 1989, 29)

Urzelairen eta Auzmendiren ustez, bigarren, hirugarren eta laugarren promozioak (1985/1988) izan ziren normalizatuena, eta arazo nagusiak eskolaren azpiegiturari, eskolaren egoerari berari eta itzulpen-titulua ezin lortzeari egon ziren lotuta. Izan ere, eginahalak eginda ere, ez zuten lortu Martuteneko Itzultzaile Eskolako ikasleek ziurtagiri ofizialik jasotzerik:

Ikasketak amaitu ondoren besapean ziurtagiri bat genuela atera ginen, ziurtagiri honek balio akademikorik ez du, baina halere esan behar da Euskal Herrian lizentziatura izatea modan jarri zen arte zenbait lanpostutara aurkezteko eta gainera lanpostua lortzeko merituen artean aintzakotzat hartua izaten zela.

(Urzelai & Auzmendi, 1989, 30)

Alde horretatik, esan daiteke ikasketak abiarazi eta denbora batera etorri zela, nolabait, ikasketen eta profesioaren aintzatespena. Edonola ere, zenbait alorretan lan egiteko aintzatespen sinbolikoa izanagatik, itzultzaileek ez zuten titulu ofizialik.

Zabalondok Itzultzaile Eskolak egindako ekarpenak zerrendatu zituen «Itzultzaile eskolen berri» dokumentuan (1988), eta komunikabideetan, administrazioan eta argitaletxeetan lanean zebiltzan profesionalak prestatu izanaz gain, honako hauek nabarmendu zituen:

Martuteneko Eskolak euskal gizartean izan duen eragina zabala goa izan dela aitortu beharra dago alde batetik, lotura eta harreman estuak ezarri ditu, Galizia, Katalunia eta Madrileko itzultzaile elkar-teekin, eta zenbait urrats eman ere egin du atzerrikoekin gauza bera egiteko; eta guzti honen ondorioz eta atergabe gure artean goraka joan den kontzientziaren eskariz, orain urte bete inguru EIZIE (Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien Elkarte) sortzeko beharrezko oinegituren parterik handiena atundu du.

(Zabalondo, 1988, linean)

Itzultzaile Eskola sortu izanak, hortaz, erakunde-sare bat sortzeko eta osatzeko bidea ireki zuen: horren argigarri da 1987an eskolako kideen ekimenez sortu izana EIZIE Euskal Itzultzaileen, Zuzentzaileen eta Interpreteen Elkarte (Zabaleta, 1989, 64). Del Olmok azaltzen duenez:

Martuteneko esperientziatik abiatutik, 1987. urtean Lurdes Auzmendik, Juan Mari Lekuonak, Xabier Mendigurenek eta Josu Zabaleak Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarte abian jartzeko akta sinatu zuten. «Urrezko Aroa» izendatu dugun aldia ezin uler liteke elkartearen eragintzarik gabe.

(Del Olmo, 2012, linean)

1988an egin zen elkartearen fundazio-biltzarra, eta 60 itzultzaile inguruk parte hartu zuten bertan; bada, bederatzi hilabetegarrenera 130 bazkide ziren «lau arlo nagusitan banatuak: administrazioa, komunikabideak, literatura eta interpretazioa» (Auzmendi, 1988, 237). Elkartearen lau ardatzetako bat zen literatura, hortaz. Hauexek ziren elkartearen hasierako helburuak: a) euskal itzultzaileei babes juridikoa eskaintzea eta lan-baldintzak hobetzea; b) euskarara eta euskaratik egindako itzulpenen kalitatearen alde egitea; c) askotariko literatur lanak euskarara itzultzea sustatzea; d) itzultzaileen prestakuntza hobetzea. Halaber, elkarteak bere egin zituen UNESCOren Biltzar Nagusiak itzultzaileen babes juridikorako 1976an egindako

gomendioak. Gisa berean, EIZIE elkarteak garrantzitsu zeritzon beste elkar-te batzuekiko harreman-sareak sortzeari:

EIZIE Elkarte bezala eratu aurretik, zenbait euskal itzultzailek bazituzten harremanak beste Elkarte batzuekin. Elkarteak harreman hauek duten garrantzia ahaztu gabe, harreman horiek sendotzea erabaki zuen eta pauso batzuk eman dira.

Beste Elkarteekiko harremanei dagokionez ekintzarik inportantea Madrilén maiatzaren 6 eta 7an burututakoa da. Estatuko hizkuntzen arteko literatur itzulpenari buruzko jardunaldiak ospatu ziren APETI, APTC/LC, ATG eta gure partaidetzarekin, literatur itzulpengintzaren iragana, oraina eta etorkizuna aztertu zirelarik.

Estatuko Itzultzaileen Elkarteekin dauden harremanetaz gain, Europako beste zenbait Itzultzaile Elkarteekin ere harremanetan gaude, batez ere Europako Itzultzaileen Etxeen bitartez.

Puntu honetan aipatu behar da baita ere FIT edo Itzultzaileen Nazioarteko Federazioa. Izenak adierazten duen bezala, munduko itzultzaileen elkarten Federazioa da hau eta gaur arte Estatu espainoletik ordezkari bat dago, APETI elkartekoa hain zuzen. Estatu espainolari bi ordezkari dagozkio federakundean eta bertan hizkuntzen ordezkaritza-ri buruzko planteamendu berri eta zabalago bat egiten ez den bitartean, birekin jarraituko da, beraz urte honen buruan konpondu beharko da Estatu Espainoletik zein Elkartetako ordezkariak joango diren FITera.

(Auzmendi, 1988, 238-239)

EIZIE elkartearen bazkideen banaketa eta elkartearen helburuak ikusita, esan dezakegu literatur itzulpena hasiera-hasieratik izan dela ardatz garrantzitsua elkartearen egitekoetan, eta, esaterako, literatur itzulpenen bilduma abiaraztea izan zen proiektu estrategikoetako bat:

Edozein herrik bere hizkuntzaren eta kulturaren normalkuntza lortu nahi badu, ezinbestekoa da ondare unibertsala itzultzea. Zentzu honetan EIZIEk proiektu bat aurkeztu zion Eusko Jaurlaritzari ondare hori itzultzeko eta argitaratzeko. Eusko Jaurlaritzak begi onez ikusi zuen proiektua eta denbora gutxian asko aurreratu dela esan behar da.

(Auzmendi, 1988, 239)

Halaxe sortu zen, hain zuzen ere, oraindik EIZIE elkartearen eta euskal literatura itzuliaren barne-eremuaren zein euskal itzulpen-eremuaren erdigunean kokatu beharreko *Literatura Unibertsala* bilduma.³ Bada, sortu zen unetik beretik itzulpenen kalitatea eta itzultzaileen lan-baldintzak zaintzea izan du helburu EIZIE elkarteak bildumaren bidez; besteak beste, itzultzaileen izenak paratestuetan agerrarazita, zuzenketa-prozedurak ezarrita eta tarifa duinak ordainduta. Onura nabarmenak ekarri dizkio bildumak euskal literatura itzuliaren barne-eremuari, EIZIE elkartearen hitzetan:

Estas medidas han conseguido garantizar un elevado nivel de calidad en las traducciones de esta colección, y ello ha redundado en beneficio de los propios traductores, que han visto incluso prestigia-dos personalmente, de manera que otras editoriales vascas cuentan ya con un buen referente de calidad para las traducciones que quie-ren publicar, hasta el punto de que se puede afirmar que en la actua-lidad las traducciones literarias en lengua vasca están aportando un nivel reconocido tanto por los lectores como por muchos escritores en lengua vasca.

(EIZIEk utzitako barne-dokumentua)

Sortu zenez geroztik, EIZIE elkarteak euskal itzulpengintzaren eragile nagusia izan da, eta, dagoeneko aipatu dugunez, literatur itzulpena izan du ardatz nagusietako bat (hala ikus daiteke, esaterako, elkartearen proiektuetan eta antolatu izan dituen ikastaroetan). Besteak beste, literatur itzulpenen kalitatea zaintzea izan du xede, eta ildo horretan EIZIE elkarteak beste eragile, agentzia, erakunde edo instantzia batzuekiko bitartekari, bidelagun eta aholkulari ere izan da literatur itzulpenari buruzko gaitan.

Euskal literatura itzuliaren barne-eremuaren egituratzea erakundetzen eta sarea sortzen hasi zen itzulpen-eremu hartan kokatzekoa da, hortaz. Edonola ere, erakundetzeak beste erakunde batzuen mende egotea ere badakar, eta erakunde-aldaketa bat tarteko, Euskaltzaindiaren eskuetatik Eusko Jaurlaritzaren eskuetara aldatu zen Martuteneko Itzultzaile Eskola, eta administrazioarekiko tentsioak eta gobernu-aldaketa bat gertatu zirela-

³ Bildumari buruzko artikulura jo daiteke informazio gehiago lortzeko: Ibarluzea (2013).

rik (Mendiguren Bereziartu, 1989, 20), eskola ez-ofizial hark antolamendua aldatu behar izan zuen:

Balantze bat egiteko orduan, fruitu guzti hauek ekipo lan eman-korrari zor zaizkiola aitortu behar da, zenbait unetan lanerako indarrak eta ilusioak moteldurik geratu badira ere bultzatzaile izan behar-ko zuketena arduradun eta politikarien ulermen gabezia eta zurrunkeria, nahiz eta gerora hazirik erein gabeko sorotik uzta biltzeko prest agertu izan diren. Baina nekeak neke eta oztopoak oztopo, Martuteneko Itzultzaile Eskolak aro historiko bat bete eta burutu du, Gasteizen administrazio eta lege arloko itzultzaile-eskola bat nola sortu den ikusi du eta hasieratik bertatik esaten zenaren arabera, itzultzaileen prestakuntza bere gain hartu beharko lukeen Unibertsitate ekimenaren erantzunaren zain geratzen den bitartean, urteroko birtziklai edo prestakuntzaldiak antolatzeari hobetsi dio.

(Zabalondo, 1988, linean)

Eskolaren proiektu garatua aurrera atera ezinda (Mendiguren Bereziartu, 1989, 21), ordutik aurrerakoan, eskolaren azken urteetan (1988-1989) urtebeteko «Idazketa-eta Itzulpen Ikasturteak» eskaini zituen: UBI eta EGA ikasketa-mailak gaindituta zeuzkatenentzako ikastaroak ziren, eta «ikastaldiaren helburua euskara sakontzea eta aberastea da lehenik, testu mota desberdinak idazteko erraztasuna lortzea eta gaztelaniazko testu pragmatiko eta literarioak itzultzen ikastea, horretarako beharrezkoa den hornidura teorikoa ere eskeiniz» (Zabalondo, 1988, linean). Mendiguren Bereziarturen hitzetan, ikastaro haietan «hizkuntza eta idazketari buruzko sarreraren ondoren, ikasturtearen gainerakoa testu pragmatiko eta literario mailakatuak itzultzeak eta zuzentzeak hartzen du denborarik gehiena» (1989, 23); bidenabar, orduko ikastaldi haietan ere bazuen tartea literatur itzulpenak. Aurrerantzean, baina, ez zuen eskolak bide luzeagorik egin: itzultzaileen prestakuntza ez-ofizialean hainbat urteko bidea eginda, Martuteneko Itzultzaile Eskolak atekatu zituen eta itzultzaileen prestakuntzarako bideak beste batzuk izan ziren orduz geroztik. Nolanahi ere den, eskolak sustapen-lanak egin zituen EIZIE elkarte sortu berriarekin batera, eta elkarriketak abiarazi zituen, esaterako, Euskal Herriko Unibertsitatearekin eta Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin, itzultzaile-ikasketak arautzeko

aurreproiektuei ekiteko (Zabaleta, 1989, 62). Nafarroako Unibertsitate Publikoak ez zuen lankidetzarik eskaini; UPV/EHUrekin, oster, lankidetzari hasi zuten EIZIEko, Itzultzaile Eskolako eta HAEEko Itzultzaile eskolako ordezkariak: «Itzultzaile ikasketen diseinua. Euskal Herriko Unibertsitateari Proposamendua» ikasketa-diseinua ondu zuten (EIZIE *et al.*, 1989, 77-100). Euskarazko itzultzaile-ikasketak, hizkuntzaren beraren testuinguru soziolinguistikoa kontuan harturik, beste hizkuntzetako itzulpen-ikasketak ez bezala antolatu beharra aldarrikatzen zuten (*idem*). Lizentzia-ikasketak etorri baino lehenago, baina, itzulpengintza-master bat eskaini zuen UPV/EHUk 1990eko hamarkadan.⁴ Bestalde, Deustuko Unibertsitateak ere itzulpengintzari buruzko master-ikastaro bat abiarazi zuen 1989an, 1200 ordukoa (*idem*).⁵ Master horiei buruzko balorazioak jasotzen dira 1992ko *Senex* 13 aldizkarian.

UPV/EHUko masterrari buruzko balantzea Garmendiak egin zuen; masterraren lehenbiziko urteen ondoren zenbait alderditan planifikazio-beharra sumatzen zuen, eta, bestalde, ikerketa-beharra zegoela nabarmendu. 1990eko hamarkada hartako ikuspegiaren arabera, unibertsitateak behar zuen itzulpengintza irakasteko eta ikertzeko espazioa, eta hori garrantzitsua da lanbidea hautemateko moduari dagokionez:

(...) gaur egun itzulpen-ikasketak ia erabat Unibertsitatearen ildo-tik baitoaz, horixe baita seguruenik itzulpen-ikasketen lekua. Ikerketa ere aipatzen da aurreko hitzetan eta, jakina, munduko optimismorik handienak ere ez gaitu libratuko alor horrek zegoen-zegoenean jarraitzen duela esatetik. Halaxe baita, izan ere, eta halaxe jarraituko baitu itzulpen-ikasketen birplanteamendu sakonik egiten ez den artean.

(Garmendia, 1992, linean)

Martuteneko Itzultzaile Eskolaren itzulpen-irakaskuntzarako ahaleginek emandako fruituez ari da Zabaleta 1989an: «Gaur arteko ikasketa eta irakaskuntza ahaleginek fruitua izan dutela dudarik ez dago. Itzultzaile ikaske-

⁴ Literatur itzulpena ikasgai bat zen masterrean (Garmendia, 1992, linean).

⁵ *Senex* 13 aldizkariko «Deustuko Postgraduko Itzulpen Masterra» artikuluan ez da aipatzen literatur itzulpena ikasgaia ote zen, eta lan hau egin bitartean ez dut master hartako programarik lortu.

tak Euskaltzaindiaren eraginez formalizatzen hasi zirenetik hona euskal itzulpengintzak, fenomeno sozial bezala, berebiziko aldea egin bait du» (Zabaleta, 1989, 63). Itzultzaileen Eskola zein bestelako ikastaroak «elkarreki-ko topagune eta bakartasunaren hausle, itzultzaile kolektiboaren egitura-tzaile» izan zirela ere badio (*idem*, 64). «Kolektibo» bat sortu izanaren kontzientzia zuten, beraz, eskola hartako parte-hartzaileek, eta hori euskal itzulpen-eremuaren egiturak sortzen hasi eta autonomizatzen hasi izanaren zantzu gisa interpreta daiteke. Horrez gain, Zabaletak berak loturik dakuski ikasketak eta profesioaren estatusa:

Itzultzaile statusaren duintasunari dagokionez, ikasketa mailarekin lotura estua du, zalantzarik gabe. Hain zuzen ere, euskal itzultzaileen artean egin diren inkestetan puntu honi buruz galdetu izan deanean, eman izan zaizkion erantzunetan ikasketak lotuago agertu izan dira statusarekin prestamenarekin baino, ikasketen definizioak baino titulazioa eskatzen bait zen lehenago: lizentzia edo diploma titulua. Tituluaren latria bultzatzen den gizarte honetan, euskaldungoaren gehiengoa elebidun delarik, hizkuntz ereduaren zalantza eta definitziorik ezarekin uneoro topo egiten dela, ez da harritzekoa itzultzaileen artean halako gora nahi bat, bere statusa zalantzak uki lezakeen sailetik ateratzeko nahi bat somatzea.

(Zabaleta, 1989, 71)

Beraz, lanbidearen estatusa goratu beharrez, irakaskuntzari eta titulazioari ofizialtasuna eman beharrez, profesionalen talde hark berak Jaurlaritzaren esku utzi zuen profesiorako sarbidea arautuko luketen ikasketak bideratzeko erabakimena. Edonola ere, bidelagun eta aholkulari izan zen 1989ko dokumentu hartatik aurrera, hamar urte geroago UPV/EHUko Letren Fakultatean Itzulpengintza eta Interpretazioa lizentzia ireki zen arte. Esan bezala, 2000. urtean abiarazi zen Euskal Herriko Unibertsitateko Letren Fakultatean Itzulpengintza eta Interpretazioa lizentzia (gaur egun gradu-ikasketak dira).

J.A. Lakarra dekanor eta G. Bilbao dekanorde ziren orduan UPV/EHUko Filologia eta Geografi-Historia Fakultatean, eta Bilbaok 2006ko *Senex* 30 aldizkarian eman zuen ikasketen sorreraren, planen eta aldaketen berri, «Itzulpengintza eta Interpretazioko ikasketak Euskal Herriko Unibertsitatean» artikuluan.

UPV/EHUko Gasteizko Letren Fakultateko webgunean zehazten denez, hauxe da ikasketa horietako graduatuek lortzen duten profila:

Graduatuek prestakuntza orokorra eta sendoa izango dute itzulpen eta interpretazioko metodo eta tekniketan. Horri esker, graduatuek itzulpen orokorrak nahiz espezifikoak egin ahalko dituzte ikasten diren hizkuntzetan. Graduatuek interpretazio-mota desberdinetarako gaitasunak izango dituzte ikasten diren hizkuntzetan. Era berean, honako hauek eskatzen dituzten lanak egin ahalko dituzte: datuak landu eta interpretatzea, itzulpen- eta interpretazio-metodoak eta teknikak aplikatzea, ikasitako informazioa hartu eta transmititzea eta informazio bibliografikoa eta tresna informatikoak erabiltzea. Gaitasun horiek ezinbestekoak dira gradu honentzat proiektatu daitezkeen ia jarduera profesional guztietarako, izan ere, jarduera horietako gehienek adierazpen zuzena (interpretazioa, irakaskuntza, komunikabideak) edo zeharkakoa (itzulpengintza, kulturaren industria, etab.) eskatzen baitute.⁶

Eta hauexek, iturri beretik, graduatuei aurreikusten zaizkien irtenbide profesionalak:

Itzultzaile orokorra. Itzultzaile espezializatua (arlo juridikoa, ekonomikoa, ikus-entzunezkoa, literarioa, zientifiko-teknikoa). Interpretea: loturazkoa, biltzarretakoa, soziala. Hizkuntza-irakaslea. Testuen edizio eta zuzenketetarako aholkularia. Komunikazio-arduraduna. Harreman publikoak. Kanpo-merkataritza.⁷

Aurreko pasarteetan eta ikasketa-plana jasotzen eta arautzen duen Espainiako Aldizkari Ofizialean⁸ zein UPV/EHUko Letren Fakultateko webgunean bertan Itzulpengintza eta Interpretazioa graduari buruzko informazioa eta irakaskuntza-eskaintza epigrafean jasotzen denez⁹, literatur

⁶ <https://www.ehu.eus/eu/web/letrak/itzulpengintza-eta-interpretazioko-gradua-aurtengo-ikasturtea> (Kontsulta-data: 2017-10-09).

⁷ *Idem*.

⁸ BOE: <https://www.ehu.eus/documents/1690128/1983906/BOE-A-2011-2206.pdf> (Kontsulta-data: 2017-10-09).

⁹ <https://www.ehu.eus/eu/web/letrak/itzulpengintza-eta-interpretazioko-gradua-aurtengo-ikasturtea> (Kontsulta-data: 2017-10-09).

itzulpenak berak ez dauka ikasgai propiorik graduko programan: itzulpen-praktiketako ikasgaiak orokorrak dira, eta horietan txertatzen da literatur itzulpena. Gaur egun, literaturari lotutako ikasgai espezifiko bakarra 2. mailan eskaintzen da: Literaturaren Teoria. Bestalde, literatur itzulpenari lotutako graduondokorik ez dago UPV/EHUko Letren Fakultatean.

Edonola ere, itzulpengintza eta interpretazioa egin izan duten hainbat ikaslek itzulpengintzari lotutako gaiak ikertu dituzte bai Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia masterrean, bai Literatura Konparatua eta Literatur Ikasketak masterrean, eta hortik etorri dira, besteak beste, azken urteotan euskal itzulpengintza literarioari (zuzenean eta zeharka) eskaintako zenbait tesi. Halaber, egon da, jakina, itzulpen-ikasketak sortu aurretik itzulpenaren ikerketan hasitakoek bideratutako tesi-lanik literatur itzulpenari loturik. Denak ere 2000. urtetik aurrera aurkeztutakoak dira, Espainiako Hezkuntza Ministerioaren TESEO datu-basean kontsulta daitekeenez.¹⁰

Euskal literatura itzuliaren barne-eremuak prestakuntza-erakunde ofizial eta profesionalen erakunde bereziturik eduki ez arren, kokatzen den itzulpen-eremu zabalagoaren barruan badu bere lekua bai praktikari dagokionez¹¹, bai erreferentziei dagokienez, bai kapital sinbolikoari dagokionez. Azken horri loturik, nabarmentzekoa da azken urteetan euskal literatur

¹⁰ 2000. urtekoa da López Gaseniren *Euskarara itzulitako haur eta gazte literatura: eraginak, funtzioak eta itzulpen-estrategiak*. Genaro Lópezek 2004an defendatu zuen Grimm anaien *kinder-und hausermärchen* euskaraz: itzulpenen eta egokitzapenen azterketa. Aiora Jakak 2011n aurkeztu zuen *Itzulpenari buruzko gogoeta eta itzulpen-praktika* Joseba Sarrionandiaren lanetan. Elizabete Manterolak 2012an defendatu zuen *Euskal literatura beste hizkuntza batzuetara itzulia*; Bernardo Atxagaren lanen itzulpen moten arteko alderaketa. Naroa Zubillagak 2013an defendatu zuen *Alemanetik euskaratutako haur- eta gazte-literatura: zuzeneko nahiz zeharkako itzulpenen azterketa corpus baten bidez*. Koldo Bigurik 2016an irakurri zuen *Euskararen eta gaztelaniaren arteko itzulpenaren estilistika konparatu baterako materialak: perpaus erlatibo esplikatiiboak euskaratik gaztelaniara eginiko literatura-itzulpenetan* (Gaiak: itzulpengintza, estiloa eta erretorika, sintaxia eta analisi sintaktikoa). Ikusi: <https://www.educacion.gob.es/teseo/irGestionarConsulta.do>. 2017ko ekainean aurkeztu zuen Miren Ibarluzeak berea: *Itzulpengintzaren errepresentazioak euskal literatura garaikidean: eremuaren autonomizazioa, literatur historiografiak eta itzultzaileak fikzioan*.

¹¹ EIZIEk gaur egun 363 kide ditu (334 kide aktibo eta 29 ohorezko bazkide). Horien arteko 150 dira liburu-itzultzaileak EIZIEk utzitako barne-dokumentuen arabera. Horrek esan gura du gero eta gehiago direla kidego berean elkartu gura duten profesionalak.

itzulpenaren onespina eta balioa handitu egin dutela bai aurretik aipatzen genuen moduko ikerketek, bai itzulpen-praktikak berak, bai erdietsitako kalitateak eta kalitate hori aintzatetsi izanak. Izan ere, estatusa goratzea itzulitako literatur testuek lortutako mailari ere zor zaio. Urteek aurrera egin ahala, nola itzultzaileen profesionalizazioak eta espezializazioak hala hizkuntzaren eta literaturaren bilakaerak berak ez dute aurrera alferrikerik egin: gaur egungo itzulpenak asko hobetu direla egitatea da, bai eta euskal literatur itzultzaileek ekarpen nabarmena egin dutela euskal literaturaren garapenean ere, literatur espazioko hainbat eragilek azpimarratu izan dutenez (*Behinola*, 2009: 7-13; Olaziregi, 2012, 160; Ibarluzea, 2015, 69).

Literatura itzulia argitaratzeko eta barne-eremuaren kapital propioa sortzeko eragiletzaz denaz bezainbatean, zenbait argitaletzek egindako ahalegina aipatu behar da: 1992an argitaratu zuen Elkarrek Mendiguren Bereziarturen *Itzulpengintza. Historia eta Teoria*, eta 1995ean *Euskal Itzulpengintzaren historia laburra*. Halaber, kapital propioa sortzeko eragiletzaren adibide bezala hainbat erakunderen artean sustatutako eta kudeatutako proiektuak nabarmendu daitezke, denak ere 1990eko hamarkadaz geroztikoak.

Literatura Unibertsala bilduma abiarazi zuten 1990ean Eusko Jaurlaritzak eta EIZIE elkarteak. Lehiaketa bidez esleitzen dira lanak: EIZIEk deitutako batzorde batek (EIZIE, Eusko Jaurlaritza, argitaletxe esleipenduna) izenburuen zerrenda hautatzen du. Izenburuen zerrenda badelarik, urtean-urtean, maiatz aldera, itzulgaien zerrenda kaleratu eta lehiaketarako deialdia egiten da. Deialdiari men eginez, itzultzaileek itzulgaien laginak prestatzen eta aurkezten dituzte. EIZIEk deitutako epaimahaiak laginak hautatzen ditu eta esleipena egiten du. Bildumaren lehenengo aroa 1990-2002 tartean argitaratutako 100 liburuk osatzen dute, eta Ibaizabal argitaletxeak plazaratu zituen. Bidenabar, nabarmentzekoa da argitaletxea aukeratzeko ere lehiaketa-prozedura baliatzen dela. Bildumaren bigarren aroa 2002-2010 urte-tartean argitaratutako 52 liburuk osatzen dute; kasu horretan, bildumako obrak kaleratzeko ardura Elkar eta Alberdania etxeena izan zen. Gaur-gaurkoz, *Literatura Unibertsala* bildumaren hirugarren aroan gaude. 2011n abiatu zen, eta argitalpenaren ardura Erein, Alberdania eta Igela argitaletxeek dute. Horrez gain, lehenengo aroko liburuak agortuta zeudela

eta, *Urrezko Biblioteka* izeneko bilduma abiarazi da, hautatutako obra-multzo bat zuzendu eta kaleratzeko.¹² Beste adibide bat da *Pentsamenduaren klasi-koak* bilduma. Testuok jasotzen dituen webgunean (<http://www.ehu.eus/ehg/klasikoak/>) zehazten den moduan, 1990ean abiarazi zuten BBV Fundazioak (gerora BBVA), Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako Kutxek, Euskal Herriko Unibertsitateak eta Deustuko Unibertsitateak. 2010era arteko tartean 130 liburu argitaratu ziren.¹³ Argitaletxe pribatuez denaz bezainbatean, adibide batzuk aipatzearren, Elkar argitaletxea modu sistematikoan hasi zen itzulpe-nak plazaratzen 1983an, Igela argitaletxeak literatura itzuliari atxikita irau-n du, Erein argitaletxeak *Bartleby* bilduman itzulpen laburrak plazaratu zituen eta Alberdania argitaletxeak zenbait itzulpen gainerako hizkuntzetako edi-zioen epe berberetan aurkeztea lortu izan du (Del Olmo, 2012, linean). Au-rretik aipatutakoez gain, azken urteotan hainbat bilduma eta argitaletxe sortu dira, beren-beregi itzulpenak editatzeko. Pasazaite argitaletxeak, esate-rako, «inportazioko liburuak» argitaratzen ditu, argitaletxearen webgunean zehazten duenez; bildumei dagokienez, Susa argitaletxearen *Munduko Poesia Kaierak* bilduma aipa daiteke, bai eta *Batera* bilduma ere, Erein etxearena.

Argitalpenaren esparruko espezializaziorako joera horrek ere islatzen du, gure ustez, euskal literatura itzuliaren barne-eremuaren autonomizaziorako joera: denak ere Boltanskik (1975, 37) azaltzen duen fenomeno baten adi-bide dira; hain zuzen ere, eremuaren produktu espezifikoaren pilatze siste-miko selektiboaren adibide. Euskal literatura itzuliarekin lotutako artikulu zientifiko, corpus, ikastaro eta ekitaldiak ugaritu izana ere fenomeno bera-ren erakusle da. Literatur jaialdietan zein azoketan euskal literatur itzulpe-nari emandako mahai-inguruak, lantegiak, prentsan euskal itzulpenari egin-dako tokiak, itzulpen-praktikari zein itzulpenari buruzko hausnarketari eta gogoetari buruzko sarrerak biltzen dituzten blogak eta bestelakoak eremua-ren erreferentzia propioen pilatzeari, eta, hortaz, (barne-)eremuaren auto-nomizazioari lotzekoak dira. Produktu espezifikoak pilatzeko joera horretan,

¹² Bildumari buruzko informazio osagarria nahi izanez gero, ikusi Ibarluzea (2013) zein EIZIEn webgunea: http://www.eizie.eus/Argitalpenak/Literatura_Unibertsala (kontsulta-data: 2017-10-09).

¹³ Zehaztasun gehiago nahi duenak linean aurki ditzake: <http://www.ehu.eus/ehg/klasikoak/> (kon-sulta-data: 2017-10-09).

esate baterako, EIZIE elkartearen «Nor da Nor» itzulpenen eta itultzaileen katalogoa aipa daiteke (<http://nordanor.eus/>). Gaur-gaurkoz, euskaratik eta euskarara egindako hainbat literatur generotako itzulpenak daude kontsultagai. Itultzaileei dagokienez, datu-baseko itultzaileei buruzko datuak ez eze, elkarteko kideen datuak ere jasotzen dira bertan. Datu-basea literatur itzulpenak soilik jasotzeko sortu ez bada ere, nabarmentzekoa da literatur itzulpenak oraindik datu-base horretan duen zentraltasuna, bai eta elkar-tearen beraren proiektuetan duen zentraltasuna ere.

Euskal literatura itzuliaren barne-eremuaren autonomizazio erlatiboaren beste adierazle bat berariazko kontsakrazio-agentziak agertu izana da. Bada, 1989an Garmendiak aurreratzen zigunez: «Ugalduz doaz azken urteotan Euskal Herrian itzulpengintzaren inguruko sariketak, beka, dirulaguntza eta honelakoak» (Garmendia, 1989, 237): Euskadi Saria, Jokin Zaitegi Itzulpen Laburren Sariketa, Orixe Saria, Bizkaiko Aldundiaren saria, Eusko Jaurlaritzaren bekak eta Literatur ondare unibertsala euskaratzeko proiektua zerrendatu eta azaldu zituen (Garmendia, 1989). Horiei gehitu beharrekoak dira, halaber, Gasteizko Udalak haur- eta gazte-literaturaren alorreko itzulpenak saritzeko abian jarritakoa eta UPV/EHUko Letren Fakultatean ikasleentzat antolatzen zen Félix Ugarte itzulpen-lehiaketa. Horiek guztiak modu sistematiko xamarrean antolatutako sariketak izan ziren (batzuek gaur egunera arte iraun izana da horren adibide).

Esan dezakegu, hortaz, 1980ko hamarkadatik aurrera hasi zirela itzulpen-sariak espezifiko bihurtzen eta sistematizatzen. Bestalde, 2014an Espainiako Itzulpen Sari Nazionala Josu Zabaleta euskal itultzaileari esleitu izana ere euskal literatur itzulpenaren eremuaren autonomizazioaren islatzat jo daiteke, hain zuzen ere, eremuz kanpoko agentziek euskal literatur itzulpenaren eremua balioetsi zutela erakusten baitu.

Orain arte Hego Euskal Herriko ekimenez aritu naiz, baina lehenago ere esan dut euskal literatur itzulpenaren barne-eremua transnazionala dela: aipatzekoa da Ipar Euskal Herrian ere badituztela eragileak eta sareak bai euskal itzulpen-eremuak, bai euskal literatura itzuliaren barne-eremuak.

Apalategik periferikotasun bikoitza esleitzen dio Ipar Euskal Herriko literaturari: «munduko literatur sistema nazioartekoan arras periferikoa den gure

euskal literatur sistema xumearen periferian aurkitzen den azpi-sistema literario bat da: Iparraldeko euskarazko literatura. Periferiaren periferia beraz» (Apalategi, 2005, linean). Bada, gure marko teorikora eta euskal literatura itzuliaren barne-eremura etorrira, esan dezakegu euskal literatura itzuliaren barne-eremuak indar-sare ahulagoak dituela Ipar Euskal Herrian: gutxiago dira itzultzaileak eta itzulpenak, eta urriagoa da itzulpenen irismena.

2008an bildu ziren Ipar Euskal Herrian ziharduten zenbait itzultzaile Iparraldeko itzulpenari buruzko mahai-inguru batean,¹⁴ eta bilerari buruzko aktan jasotzen denez, «mugaz bestaldeko euskal itzultzaileen arteko harreman eta ezagutza eskasa» azpimarratu zuten partaideek (Alegria, 2008, linean). Antza, ez dute kolektiboaren sentimendurik, baina, nonbait kidetzekotan, Hego Euskal Herriko elkarteko kide egiten dira, oro har, ez Frantziako itzultzaileen elkarteetako kide: «Itzultzaile-elkarteei dagokionean, mahai-inguruan parte hartu genuen denok EIZIEko kideak bagara ere, aitortu behar izan genuen elkartea ezezaguna dela Iparraldean, eta, beraz, lana egin beharko litzatekeela gabezia hori betetzeko» eta «Gutako inor ez da Frantziako itzultzaile-elkarte bateko kide» (*idem*). Hara hor beste arrazoibide bat euskal literatura itzuliaren eremua nazioz gaindikoa dela esateko.

Prestakuntza-arazoei buruz jardun zuten aipatutako bilera hartan ezen, Iparraldeko itzultzaileen konbinazio-eskari ohikoenak frantsesa-euskara (eskaera hori izaten da Iparraldean) eta euskara-frantsesa (horixe da Hegoaldetik egin ohi den eskaria) badira ere, egun ez dago Frantziako euskara aintzakotzat hartzen duen itzultzaile-eskola edo fakultaterik: «Euskaratik frantsesera eta alderantzizko itzulpenak hizkuntza-ikasketetan soilik landu daitezke, hots, euskal filologiako ikasketetan, edozein atzerriko hizkuntza-ikasketetan egiten den moduan» (*idem*). Bestalde, Hego Euskal Herriko prestakuntza-sareak ez die irtenbide erabatekorik ematen beren hizkuntza-norabideetan trebatzeko: «gure mahaikide baten esperientziaren arabera, Gasteizko itzulpen-ikasketetan ez da lantzen euskaratik frantsesera edo gaztelaniatik frantseserako itzulpena, alderantzizkoa baizik» eta «Gainera,

¹⁴ Hain zuzen ere, Ipar Euskal Herrian diharduten lau itzultzaile bildu ziren: Kattalin Totorika, Fermin Arkotxa, Nahia Zubeldia eta Edurne Alegria.

jakina da Hegoaldean azken hamarkadetan frantsesaren irakasteari utzi zaiola ingelesaren mesedetan, horrek ekarri dituen ondorio ezin txarragoe-kin (horien artean frantsesera itzulitako testuen kalitate eskasa)» diote (*idem*). Beraz, euskaratik frantseserako itzulpena suspertzeko premia agerian geratu zen euren solasaldian, bai eta frantsesetik euskarara gutxi itzultzen dela ere. Hara zer aipatu zuten bilera hartan literatur itzulpenaz:

Itzulpen literarioa. Mahai-inguruan geunden batzuk Iparraldeko eta Frantziako argitaletxeekin lan egin izan dugu, esate baterako, Gatuzaín, Quai Rouge, Castor Astral, Atlantica, Pimientos. Esperimentziak desberdinak izan arren, esan daiteke oso gutxi itzultzen dela euskaratik frantsesera eta are gutxiago frantsesetik euskarara. Maila horretan, nabaria da itzulpen-politika baten falta Iparraldean. Aztertu gabe geratu ziren beste lan-esparruak, hala nola, administrazioko beste zerbitzuak, enpresa pribatuak, turismoa eta ostalaritza, hezkuntza mundua, etab.

(Alegria, 2008, linean)

Mahai-inguruan aipatutakoez gain aipa daitezke, halaber, *Maiatz* aldizkariarena bezalako ekimenak: bertan hainbat itzulpen argitaratu izan dituzte hainbat idazlek.¹⁵ Bestalde, arlo akademikoan ere egin dira, UPPA unibertsitateari, Michel Montaigne unibertsitateari eta IKER-UMR5478 ikerketa-laborategiari lotuta, euskal literatura itzuliaren barne-eremuan koka daitezkeen zenbait ikerketa-lan; batzuk aipatzearren, Aurelie Arcocha-Scarciak, Ur Apalategik, Mirentxu Irigarayk, Natalia Zaikak zein Joana Pocheluk egindakoak, gehienak *Lapurdum* aldizkarian argitaratu direnak. Arlo akademikotik at, baina, euskal literatur itzulpenari lotutako eragileak gutxi eta xumeak dira Ipar Euskal Herrian, egoera soziolinguistikoa dela eta, euskarak ez baitu inongo ofizialtasun-estatusik Frantzian. ElZIEk deituta egindako eta aipatu berri dugun mahai-ingurua egin zen garai bertsuan jarri zen martxan Office Publique de la Langue Basque (OPLB) erakundea.¹⁶ Hizkuntza-politika ere egiten du erakunde horrek Iparraldean;

¹⁵ Ikusi, esaterako, Itxaro Bordak bertan argitaratutakoen berri «Itxaro Borda bortxaz itzultzaile» (Jaka, 2015) artikuluan.

¹⁶ Ikusi: <http://www.mintzaira.fr/>

besteak beste, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza-rekin lankidetzan. Erakundearen beraren eta hizkuntza-teknikarien eskariz sortutako itzulpen-beharrez gain, ez da erakundearen txostenetan biltzen literatur itzulpenari eragiten dion politikarik. Hara zer zioen Alegriak aurretik aipatu txostenean:

Hona zer aurreikusten den «Hizkuntza Politika» txosteneko 6. kapituluan: *Europa, Frantzia, Akitania mailan, eta Euskal Autonomia Erkidegoan argitalpen alorrean eskumena duten erakundeekin lan harreman iraunkorrak eraiki, laguntza egitura ezberdinekin lotura segurtatuz* (6-1.1). Eta bertan esplizituki aipatzen da: *Euskarazko itzulpengintza lagundu* (6-1.2), *honako hau gehituz: Ekoizpen elebidumen eta frantsesezko liburu klasikoan itzulpenen argitalpena lagundu* (6-1.3).

(...)

Gai honi buruz Jean Claudek esan zigun itzulpen lanak aurkez daitezkeela beste lanekin batera eta hautatu lanak beren laguntzarekin argitaratzen direla. Arlo honetan beraz, ildo bat ireki daiteke.

(Alegria, 2008, linean)

Eragiletza pribatutik sortutako proiektuak laguntzeko modua badago Ipar Euskal Herrian, modu xumean bada ere, baina ez erakundeek bideratutako proiektu egituraturik.

Erakundeekin jarraituz, EIZIEk aurrerapausoak eman ditu Ipar Euskal Herriko itzulpen-eremuarekiko harremanetan, eta aurreko bileraren haritik, hainbat ekimen sustatu ditu; kasurako, Pauen 2012an egindako «Idazlea itzultzaileen lantegian».¹⁷ Horrez gain, EAEtik eta euskal eremutik haragokoak dira erakundeen arteko sareak:

Por fin, para terminar queremos hablar de la importancia que EIZIE ha dado siempre a las relaciones con otras asociaciones de traductores. Ya en los primeros años de andadura, EIZIE ha tenido estrechos contactos con las diferentes asociaciones españolas. Igualmente, llevados por la inquietud de estar en contacto con traductores de distin-

¹⁷ Argibide gehiago hemen: http://www.eizie.eus/Jarduerak/idazlea_eta_itzultzaileak/itzulika12a-maiera (kontsulta-data: 2017-10-10).

tas lenguas y culturas, también entramos en el año 1990 a formar parte de la FIT, cuya comisión de lenguas minoritarias fue presidida durante cuatro años precisamente por un miembro de nuestra asociación. Asimismo, EIZIE es miembro de CEATL desde 1992.

(EIZIEk utzitako barne-dokumentua)

1992az geroztik, beraz, EIZIE elkarteak CEATLeko (Europako literatur itzultzaileen elkarteak biltzen dituen erakundea) kide da. Bada, euskal literatura itzuliaren barne-eremuaren erakunde-sarearen adibide da azken hori; izan ere, sare horren xedea da literatur itzultzaileen itzulpen-jarduna legitimatzea, negoziazio-espazioez jabetzea eta merkatu-politikekin lotutako gai eta lan-baldintzei buruzko erabakimena lortzea, adibide batzuk aipatzearren.

Euskaratik beste hizkuntza batzuetara egindako literatur itzulpenei dago-kienez, norabide horretako itzulpenak sustatzeko itzulpen-politikak ere sortu dira: Eusko Jaurlaritzak 2000. urteaz geroztik hainbat laguntza eta poltsa bideratu ditu euskaratik beste hizkuntza batzuetara itzulpenak egiteko. Gaur egun, 2012tik zehazki, Etxepare Euskal Institutuak sustatzen ditu beste hizkuntza batzuetarako itzulpenak eta merkatu-politikak: katalogoak argitaratzen ditu, itzulpenak laguntzeko deialdiak ateratzen ditu, argitaletxe, autore eta itzultzaileentzako bekak eta egonaldiak sustatzen ditu, eta nazioarteko azoketan euskal literaturaren presentzia bultzatzen du. Arlo horretan egindako lanaren beste adibide bat da Etxepare Euskal Institutuaren webgunean txertatutako *basqueliterature.com* ataria, lehenago EIZIEk kudeatzen zuena. Halaber, 2015ean, Etxepare Euskal Institutuak eta Laboral Kutxak euskararen eta euskal kulturaren sustapenean eta elkarlanean aritzeko Etxepare-Laboral Kutxa Itzulpen Saria sortu zuten, jatorriz euskaraz idatzi eta beste hizkuntza batean argitaratutako obra baten itzulpena saritzeko. Itzulpenaren kalitatea eta argitaletxearen sustapen-plangintza aintzat hartu, eta bi-biak (itzultzailea eta argitaletxea) saritzeko xedea du lehiaketak. Ikusten denez, euskal eremuan egindako literaturaren itzulpenak ezagutzera emateko ahalegina saritu nahi da. 2016an, bestalde, Etxepare Institutuak eta DSS2016-k «Itzultzaile Berriak» izeneko egitasmoa jarri zuten martxan, euskal literatura atzerrian ezagutarazteko: nazioarteko literatur itzultzaileak euskaraz trebatzeko deialdi bat antolatu zuen Etxepare Euskal Institutuak. Nork bere proiektua aurkeztu eta zortzi literatur itzul-

tzaille eskarmentudun hautatu ziren. Ondoren, itzultzaileek euskara-eskolak jaso zituzten barnetegi batean (lau itzultzailek sei hilabeteko egonaldi luzea egin zuten, eta beste lauk hilabeteko egonaldi laburra). Bada, egonaldi horien helburua hauxe zen, EIZIEren webgunean bertan irakur daitekeenez: «beren itzulpenetan euskara ere zubi nahiz sorburu hizkuntza gisara erabili ahal izateko hizkuntza gaitasuna lortzea» (http://www.eizie.eus/Jarduerak/itzultzaile_berriak, kontsulta-data: 2017-10-10). Horrez gain, egonaldi luzea egin zuten lau itzultzaileek diru-laguntza jaso zuten euskal literaturako obra bat gaztelania ez den beste hizkuntza batera itzultzeko eta lan hori argitaratuko duen argitaletxea aurkitzeko.

Jarduera horiek guztiek indartu egiten dute euskal literatura itzuliaren barne-eremuaren autonomizazioa eta barne-eremuko produktu espezifikoak sortzea; izan ere, Etxepare Euskal Institutuak nazioartean egindako sustapenak eta zabalkundeak euskal literatura ikusarazteko bestelako bideak zabaltu ditu, eta, nahitaez, itzulpenaren mende dago ikusgaitasun hori. Lehenago ere ematen zituen laguntzak Eusko Jaurlaritzak euskaratik beste hizkuntza batzuetara itzulpenak egiteko, baina Etxepare Euskal Institutua agertu aurretik, esaterako, laguntzek ez zuten biltzen nazioarteko jaialdi eta azoketan aurkezpenak egiteko aukera zein literatur itzulpenerako prestakuntzan eta zabalkundean ari diren erakunde-sareetan parte hartzeko aukera. Diru-laguntzak ugaltzearekin bat, gero eta handiagoa da euskaratik beste hizkuntza batzuetara itzultitako lanen pilatze sistemiko selektiboa ere: besteak beste, honako ekimen hauek aipa daitezke: Atenea argitaletxe madrildarraren «Biblioteca vasca bilingüe», Nevadako Unibertsitateko William Douglass Center for Basque Studies (Reno) zentroak bideratutako «Basque Literature Series» bilduma (2004-) edota «collane m30» bildumak euskal literaturari eskaintzen dion lekua, esaterako. Azken hori Gran Via Edizioni argitaletxearen bilduma bat da, «Espainia pluralaren narratiba»-ko zenbait lan biltzen duena; halaber, hortxe dago Malinc argitaletxe esloveniarrarekin ere, euskal literaturari tartea egin diona, bai eta Holandan (Herbehereak) kokatutako Zirimiri Press edo Moskuko (Errusia) Gernika ere. Horrez gainera, euskal literatura itzuliaren espazioari eusten dioten elkarteak ere badira; kasurako, Euskalema elkarte alemaniar eta euskaldunak euskaratik alemanera itzultitako hainbat lan argitaratu ditu.

Badirudi, beraz, euskal literatura esportatzeko joera handitzen ari dela, eta euskal literaturaren itzulpenean espezializatzen ari diren itzultzaileak (batzuek zuzenean itzultzen dute euskaratik) agertzen ari direla, Etxepare Euskal Institutuak emandako datuen arabera.

Ondorioak

Artikulu honetan azaldu dudanez, (barne-)eremu baten lehenbiziko eragin- eta ikerketa-maila (barne-)eremuaren beraren egituraketa da, eta loturik dago eremuaren erreferentzia propioak sortzearekin, produktuen ekoizpena eta zirkulazioa baldintzatzen duten erakundeak eta eragileak agertzearekin, eta profesionalizatzearekin; hau da, eremua espezializatzearekin eta erakundetzearekin. Bada, euskal itzulpen-eremua espezializatzen eta erakundetzen hasia da, espezifikotasunerako joera hartu du; hala ere, oraindik erabat baldintzatzen dute albo-eremuek eta eremua bera kokatzen den espazioak (batez ere hizkuntzaren egoera soziolinguistikoak), eta horrexegatik esaten dut autonomia erlatiboko eremua dela euskal literatura itzuliaren barne-eremua, ezen, ezinbestean, bateko eta besteko eragileen sarean ari baita garatzen. Oro har, esan daiteke erakundetzea gertatu egin dela itzulpen-eremuan, bai eta itzulpen-eremuaren erreferentzia propioak ugaltu egin direla ere. Edonola ere, literatura itzuliari dagokionez, profesionalizazioa ez da erabatekoa, ez alderdi ekonomikoari dagokionez, ez jardueraren eskusibotasunari dagokionez: ezagun da oraindik ez dagoela ia literatur itzulpenetik soilik bizibidea ateratzeko modurik duen itzultzaile profesionalik (literaturatik soilik bizi diren profesionalak ere gutxi diren modu bertsuan). Horrez gain, literatur itzulpenari lotutako erakundeak gutxitan dira soilik literatura itzuliari dagozkionak, nahiz eta literatura ardatz nagusietako bat izaten den gehientsuenetan.

Bibliografia

AGUIAR E SILVA, V. M., 1972, *Teoría de la literatura* (trad. García Yebra). Madrid: Gredos.

ALEGRIA, E., 2008, «Itzulpengintza iparraldean», *Senez*, 35 (2008) linean: <http://www.eizie.eus/Argitalpenak/Senez/20081028/alegria>.

APALATEGI, U., 2005, «Iparraldeko azkenaldiko literatura euskal literatur sistemaren argitan (eta vice versa)», *Lapurdum*, 10 (2005) 1-18.

AUZMENDI, L., 1988, «Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien Elkar-tea», *Senez*, 7 (1988) 237-244.

BEHINOLA, 2009, «Hiru euskal argitaletxe itzulpengintza inguruan», linean: <http://www.galtzagorri.eus/behinola/dokumentuak/hitz-eta-pitz-5.pdf>.

BOLTANSKI, L., 1975, «La constitution du champ de la bande dessinée», *Actes de la recherche en sciences sociales*, 1-1 (1975) 37-59.

BOURDIEU, P., 1984, «The Market of Symbolic Goods», in *The field of Cultural Production: Essays on Art and Literature*. New York: Columbia University Press, 112-144.

———, 1990, «El campo literario. Prerrequisitos críticos y principios de método» (trad.: Desiderio Navarro), *Criterios* (1990) 25-28.

———, 1991, «Le Champ littéraire», *Actes de la recherche en sciences sociales*, 89 (1990) 3-46.

DEL OLMO, K., 2012, «Itzulpengintza Euskal Herrian; Urrezko aroaren hasiera: XX. mende amaieratik XXI. mende hasierara», *Aunamendi Eusko Entziklopedia*, linean: <http://www.euskomedia.org/aunamendi/ee154049/143433>.

EIZIE, Itzultzaile eskola & HAEEko Itzultzaile Eskola, 1989, «Itzultzaile ikaske-ten diseinua (Euskal Herriko Unibertsitateari proposamendua)», *Senez*, 8 (1989) 77-100.

GARMENDIA, M., 1989, «Itzulpen sariketak eta beste», *Senez*, 8 (1989) 237-240.

———, 1992, «Itzulpengintza masterra: planifikazio baten beharra», *Senez*, 13 (1992) 151-154.

IBARLUZEA, M., 2013, «Literatura Unibertsala bildumaren bideak», *Lapurdum*, XVII (2013) 93-107.

———, 2015, «The Translation Habitus of Contemporary Basque Writers», *Estudios de traducción*, 5 (2015) 59-75.

JAKA, A., 2005, «Translating Basque Literature», *Transcript*, 20 (2005) linean: <http://www.transcript-review.org/en/issue/transcript-20-basque/translating-basque-literature>.

LASAGABASTER, J.M., 2007, «Sobre la historia de la literatura vasca: diagnóstico y perspectivas», *ASJU*, XLI-1 (2007) 237-248.

LÓPEZ GASENI, J. M., 2010, «Genero periferikoen agerpena euskal literaturaren historietan», *Euskera*, 55-2 (2010) 841-852.

MENDIGUREN BEREZIARTU, X., 1981, «Itzulpenaren mundua eta euskal itzultzaileen oinarritzko prestakuntzarako eskola. (Dossier-Aurreproiektua)», *Euskera* 26 (1981-2) 933-1003.

———, X., 1984, «1. Itzultzaile Eskola», *Senez*, 1 (1984) 19-26.

———, X., 1989, «Euskal Itzultzaileen Ikasketak: Hamarkada baten ikuspegia», *Senez*, 8 (1989) 15-26.

NAVARRO, K., 1984, «2. Itzultzaile Eskola: Orainaldia», *Senez*, 1 (1984) 27-33.

OLAZIREGI, M. J., 2002, *Euskal eleberraren historia*. Bilbo: Labayru Ikastegia & Amorebieta-Etxanoko Udala.

SAPIRO, G., 2010, «L'autonomie de la littérature en question», in *Bourdieu et la littérature*, (Martin, J. P. dir.). Nantes: Éditions Cécile Defaut, 45-61.

———, 2014, *La sociologie de la littérature*. Paris: Editions La Decouverte.

URZELAI, J. & AUZMENDI, L., 1989, «Martuteneko Itzultzaile Eskolaren ibilbide historikoa: sorrera, emandako pausoak eta gaurko egoera», *Senez*, 8 (1989) 27-31.

VIZCARRA, F., 2002, «Premisas y conceptos básicos en la sociología de Pierre Bourdieu», *Estudios sobre las Culturas Contemporáneas*, VIII 16 (2002) 55-68.

WOLF, M., 2011, «Mapping the field: sociological perspectives on translation», *International Journal of the Sociology of Language*, 207 (2011) 1-28.

ZABALETA, J., 1989, «Itzultzaile ikasketen etorkizunerako argibideak», *Senez*, 8 (1989) 61-76.

ZABALONDO, B., 1988, «Itzultzaile eskolen berri», *Senez*, 7, linean: <http://www.eizie.eus/en/Argitalpenak/Senez/19890130/zabalon>.



Orixeren egitasmoa klasiko greko-latindarrak euskaratu eta argitaratzeko

**Un proyecto de Orixé para la traducción y publicación
en lengua vasca de los clásicos grecolatinos**

**Le project de Orixé pour traduire et publier en basque
les classiques grecs et latins**

**Orixé's plan to translate and publish Greek and Latin
classics in Basque**

BILBAO TELLETXEA, Gidor
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Noiz jaso: 2018-03-10
Noiz onartua: 2018-04-11

Euskera. 2017, 62, 2. 375-397. Bilbo
ISSN 0210-1564

Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka eta Artxiboan, Nikolas Ormaetxea «Orix» idazleak 1919an Pedro Lardizabal euskaltzain urgazleari bidalitako gutun bat dago. Gutun horretan, bere bitartekaritza eskatzen dio, Euskaltzaindiari egitasmo bat aurkezteko: bilduma bat sortzea klasiko greko-latindarrak euskaratu eta argitaratzeko, jesuiten ikastetxeekin lankidetzan. Artikulu honetan gutun hori argitaratzen da eta egitasmoa ulertzeko behar den testuingurua aztertzen da, arreta berezia eskainiaz Orixeren eta Pedro Lardizabalen arteko harremanari eta *Jesus'en Biotzaren Deya* aldizkariari. Gero, proiektua zehaztasun handiagorekin irudikatu ahal izateko, garai hartako beste bilduma batzuen ezaugarriak gainbegiratzen dira. Azkenik, 1921ean eta 1928an klasiko greko-latindarren itzulpenaren inguruan Euskaltzaindiak bultzaturiko ekimen bi aurkezten dira.

Gako-hitzak: Itzulpenaren historia, Klasiko greko-latindarrak, Euskaltzaindia, Nikolas Ormaetxea «Orix», Pedro Lardizabal Valenzuela, *Jesus'en Biotzaren Deya*.

En la Biblioteca y Archivo Azkue hay una carta enviada por Nikolas Ormaetxea «Orix» al académico correspondiente Pedro Lardizabal, en 1919. En esa misiva, pide la intermediación de la Academia para presentar un proyecto: Crear una colección para traducir al euskera y publicar los clásicos greco-latinos, en cooperación con los colegios de los Jesuitas. En este artículo se publica esa carta y se analiza el contexto cultural en el que se impulsa ese proyecto, dedicando especial atención a la relación entre Orix y Pedro Lardizabal y a la revista *Jesus'en Biotzaren Deya*. A continuación, para poder explicar mejor el proyecto, se repasan las características de otras colecciones de esta época. Para finalizar, se presentan dos iniciativas impulsadas por Euskaltzaindia en el ámbito de las traducciones de los clásicos greco-latinos, en 1921 y 1928.

Palabras-clave: Historia de la traducción, clásicos greco-latinos, Euskaltzaindia, Nikolas Ormaetxea «Orix», Pedro Lardizabal Valenzuela, *Jesus'en Biotzaren Deya*.

La Bibliothèque et les Archives Azkue abritent une lettre envoyée en 1919 par Nikolas Ormaetxea «Orix» à l'académicien correspondant Pedro Lardizabal. Dans cette missive, il sollicite la médiation de l'Académie pour présenter un projet qui consiste à créer une collection destinée à traduire en basque les classiques grecs et latins, en collaboration avec les collèges des Jésuites. Cet article publie cette lettre et analyse le contexte culturel dans lequel se situe ce projet. Il s'intéresse plus particulièrement aux relations entre Orix et Pedro Lardizabal, ainsi qu'à la revue *Jesus'en Biotzaren Deya*. Ensuite et afin de mieux présenter ce projet, l'article étudie les caractéristiques des autres collections de cette époque. Pour terminer, l'article présente deux initiatives lancées par Euskaltzaindia dans le domaine des traductions de textes classiques grecs et latins, en 1921 et 1928.

Mots-clés : Histoire de la traduction, classiques grecs et latins, Euskaltzaindia, Nikolas Ormaetxea «Orix», Pedro Lardizabal Valenzuela, *Jesus'en Biotzaren Deya*.

In the Azkue Library and Archive of Euskaltzaindia, the Basque Language Academy, there is a letter from the writer Nikolas Ormaetxea «Orix» addressed in 1919 to the Academy member Pedro Lardizabal. In the letter, Orix asks for Lardizabal's mediation to present a plan to Euskaltzaindia: to create a collection of Greek and Latin classics, translated and published in collaboration with Jesuit education centres. In this article the letter is published and the historical context is considered, necessary for a better understanding of the project. Special attention is paid to the relationship between Orix and Pedro Lardizabal and also to the magazine *Jesus'en Biotzaren Deya*. In order to give a more precise insight into the project, we then provide an overview of the characteristics of other collections of the time. Finally, we present two initiatives in the field of translating Greek and Latin classics, promoted by Euskaltzaindia in 1921 and 1928.

Key words: history of translation, Greek and Latin classics, Euskaltzaindia, Nikolas Ormaetxea «Orix», Pedro Lardizabal Valenzuela, *Jesus'en Biotzaren Deya*.

1. 1919ko gutun argitaragabea

Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka eta Artxiboaren dokumentazio-bildumaren katalogoa beste lan baterako aztertzen ari nintzela,¹ deigarri gertatu zitzaidan Orixeren 1919ko dokumentu baten deskripzioa:²

Pedro Lardizabal euskaltzain urgazleari zuzendutako gutuna proposamena eginez, Euskaltzaindiaren ardurapean, greziar eta latindar idazle klasikoen euskarazko itzulpenak argitaratzeko.

«Hektor'en da Andromake'ren izketaldia» Orixeren eskuzko itzulpena.

Ez nuen gogoratzen gai horren inguruko Orixeren gutunik irakurri izana, eta lehenengoz ikusten nuen Homeroren *Iliadako* pasarte ezagun hori Orixek euskaratu zuelako berria. Azkue Bibliotekan dokumentua ikusi eta baieztatu nuen Josune Olabarria bibliotekari-artxibozainaren deskripzioa zuzena eta zehatza zela. Paulo Iztuetaren azken urteetako lan eskergak³ asko erraztu zuen hurrengo egunetan, badaezpada, testu bi horiek argitaragabeak direla ziurtatzea.

Artikulu honetan, gutunean azaltzen den egitasmoa aztertuko dugu, Homeroren itzulpena beste lan batean argitaratu baitugu.⁴ Hona hemen gutunaren transkripzioa:⁵

¹ Lan hau MINECOren *Monumenta Linguae Vasconum 5: Periodizazioa eta kronologia* (FFI2016-76032-P) ikerketa-proiektuaren baitan egin da.

² Hau da dokumentuaren identifikazioa Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka eta Artxiboan: «Erreferentzia-kodea: 1.102.08.1919-09. Funtza: EUS. Dossier-kodea: 1919-09. Biltegi-kodea: KEA. Kopapen-zenbakia: 0001. Izenburua: Orixeren argitalpenetarako proposamena». Euskaltzaindiaren administrazio-artxiboan (ez artxibo historikoan), zuzendaritzaren kanpo-gutuneriaren atalean, sailkatua izateak azaltzen du, seguruenik, ikertzaileak orain arte ez ohartzea testu bien garrantziaz.

³ 1991ko *Idazlan Guztiak* eta *Orixeko eta bere garaia* erraldoiei gehitu behar zaizkie Utriusque Vasconiae argitaletxean 2003an argitara emaniko berrargitalpen osatuak, eta, jakina, Ibai semearekin batera 2006an argitaraturiko *Orixeko Gutunak (1917-1961)*, aurkibide zinez lagungarri hornitua.

⁴ Gure ustez, Bilbao 2018 artikuluan erakutsi gura izan dugun moduan, Homeroren itzulpena ez dago, berez, gutun honi lotua.

⁵ Bifolio lerrodunaren lau orrialdeetako hirutan idatzi du Orixek gutuna bere eskuz, garbi-garbi; bifolia erditik tolestuta eta orri-zulagailuz zulatuta dago (zulo birekin, artxibatzeke moduan). Orrialde-zenbakiak lapitzez gehitu dira, seguruenik Azkue Bibliotekan; guk kako zuzen artean

[1r]

JHS

Castillo de Javier, 4 de diciembre de 1919.

Carísimo Padre Lardizabal:

Acudo a Vuestra Reverencia como a correspondiente de la Academia de lengua vasca, por si me pudiera responder a una curiosidad, si no por sí mismo, con preguntas que haga usted, por ejemplo a su pariente Julio Urquijo, académico nato.

He hablado con el Padre Atucha acerca de algunos textos que se pudieran editar de clásicos griegos y latinos, más completos que los trozos escogidos ordinarios, siguiendo más bien el plan de dar obras completas, en cuanto se pueda, con su versión, observaciones gramaticales y vocabulario de cada autor. Como, por otra parte, hemos leído que la Academia fomentará las versiones de obras literarias universales, nos ocurre que pudiéramos contribuir a ellas, con tal de que en beneficio nuestro quisieran editarlas en la lengua original juntamente. De las condiciones habría que hablar después: por lo menos nos habían de dar el número suficiente de ejemplares de cada edición.

Aparte de la salida que pudiera tener una escogida [1v] colección en los centros de Vitoria, Durango, Andoain, Gordejuela, etc. ¿no habría curiosos que la compraran a título de la versión vasca? La utilidad pedagógica para nuestros jóvenes sería enorme, y no digamos nada de la formación literaria sólida. La utilidad y autoridad de una versión concienzudamente hecha sería casi la menor ventaja. Si vieran ustedes la trascendencia que pudiera tener la solidaridad y unión de esfuerzos de los centros indicados, favorecidos por esa suprema corporación, se animarían sin duda a poner una imprenta griega, cosa indispensable, o a editar entre tanto esas obras, aunque sea en París o en Barcelona.

Tengo sobre la mesa un lindo tomo de los *Diálogos de los muertos* del autor Luciano, editado en la librería de Colin (París), que serviría

eman ditugu (r eta v gehituta). Testua Orixeren grafian eman dugu, baina puntuazioa gaurko erara moldatuta (oso aldaketa gutxiarekin); laburdurak (*P.*, *V.R.*, *Vd.*, *Affmo.*, *J.C.*) osatuta eman ditugu; Orixek lerroartean gehitu dituenak bakoitza bere lekuan txertatuta transkribatu ditugu, oharrik gabe. Artikulu honen eranskinean eman dugu Orixeren eskuzko gutunaren argazkia.

de comienzo. Detrás vendrían la *Ciropedia* de Jenofonte y otras obras históricas, poéticas y oratorias. Dígase lo mismo de las *Vidas de varones ilustres* de Cornelio Nepote, *Cartas* y tratados filosóficos de Cicerón, etc., etc., cuya traducción me animaría a emprender. En las notas literarias y gramaticales, y en el vocabulario vasco y castellano, para los que no entienden aquella lengua [2r], me ayudarían otros.

A ver si tienta Vuestra Reverencia el terreno y responde a esta carta. El asunto de ella no es quimérico sino muy realizable, práctico y necesario, si queremos hacer cosa derecha y no desorientarnos en el movimiento que comienza.

Acabo de recibir el número de *Deya* que, prescindiendo de lo de Z.P., cuyas páginas ya instintivamente ni las recorro (iqué pasará a otros no iniciados!), prescindiendo de eso –digo–, ha llegado a dar en el *quid*, como yo no me atreviera a augurar. Esto en cuanto al tomo literario; que en lo demás, por lo interesante, como la carta del Padre Zenón, la música tan bien presentada (¡lástima que la letra me resultó prosaica, por atarme al Evangelio!), lo de Pedro Miguel, la relación del Estanislao de Zumaya, y sobre todo la de Arrieta D., más el postre de agri-dulces, es un número modelo; ideal iba a decir, hecha la salvedad primera. Mil enhorabuenas. Si se sostiene así, hará una campaña excelente.

Yo todavía nada le envío. Veremos para el mes de enero.

Afectísimo en Jesucristo,
N. Ormaechea. S.J. [errubrikarekin]

Ikusten denez, gutuna Xabierren, hain zuzen jesuiten ikastetxean, 1919ko abenduaren hasieran idatzia da. 1919koa urte gogorra izan zen Orixe-
rentzat. Patxi Altunak (1989, 107-108) azaltzen du teologia-ikasketak
hasi baino lehen hiru urte egin ohi zirela maisu-txiki bezala (magisterio-ur-
teak), mutil gazteen irakasle-lanetan, baina nagusiek Orixei sei urte egina-
razi ziotela eginkizun horretan, zigor gisa-edo, agian euskal gaitan denbora
larregi ematearren; Orixe berak 1943an idatzitako *De mi vida externa*
apunte biografikoetan (Iztueta & Iztueta 2006, 511-525) zehazten du are
sendagile psikiatra batenera bidali zutela nagusiek, zoro gaixotzat hartuta,
baina 1918-1919 ikasturtea amaitu ondoren Orixe jesuiten probintzialari
eta bisitatzailari idatziriko gutunetan (Iztueta & Iztueta 2006, 31-48) ikus-

ten dugu bestelako salaketen aurrean ere bere burua defendatu beharra ikusten duela: irakasle txarra izatea, ikasleak mendearen hartzen ez jakitea, marmarka aritzea, nagusiekin manugaitz izatea, euskaltzale eta are abertzale izatea, literaturako eskoletan gai lizunak erabiltzea... haien ustez ezdeusa izatea. Nolanahi ere, 1919ko gutunaren alderdi batzuk ulertzeko, axola handikoa da jakitea Xabierko ikasturte horretan (1919-1920an) latin-gramatika eta grekoa irakasten ziharduela.

Gutuna Aita Lardizabali zuzendua da. Pedro Lardizabal Valenzuela jesuita (Ziburu 1880 - Donostia 1928)⁶ Ignacio Lardizabal segurarraren semea zen, hain zuzen EAJren GBBko lehenengo presidentearen semea, Gipuzkoako familia handienetako bateko kidea. Gutunean aipatzen den Julio Urkixorekiko ahaidetza, Urkixoren emazte Vicenta Olazabalen bidez zetorkion.⁷ Jakina denez,⁸ Julio Urkixo Euskaltzaindiaren sorrerako euskaltzain osoen laukotekoa zen (Resurrección María Azkue, Arturo Campión eta Luis Eleizalderekin batera, Oñatiko 1918-09-05eko sorrera-batzarrean izendaturik); Pedro Lardizabal 1919ko urriaren 26ko batzarrean hautatu zuten euskaltzain urgazle,⁹ eta, Ziburun jaioa izan arren, hasieratik agertzen da gipuzkoarren artean, Segurako jatorriagatik. Gogorazi behar da Euskaltzaindiaren lehen batzar horietan garrantzi berezia izan zutela euskal aldizkariak,¹⁰ eta

⁶ Pedro Lardizabali buruzko informazioa lortzeko, bi hauek izan dira gure iturri nagusiak: Intxausti 2014, 255-256 eta Zavala y Fernández de Heredia 2008, 29, 61, 87, 137 (hainbat autoreren artean idatziriko liburuan zehar sakabanaturik daude datuak). Zavala Artxiboko familia-gutunak ere irakurri ditugu, Euskadiko Artxibo Historikoaren webgunean (<https://dokuklik.euskadi.eus/>); horietan *Perico* eta *Pericocho* deitzen diote, eta *Perico S.J.* sinatzen du.

⁷ Vicentaren aita (Tirso) eta Pedorena lehengusu propioak ziren. Gainera, Borja Aginagalde dioenez (Zavala y Fernández de Heredia 2008, 138), Tirso Olazabalek aurkeztu bide zion Ignacio Lardizabali gero emazte izango zuena.

⁸ Iturri zuzena *Euskera* aldizkarian argitaraturiko txostenak dira (Elgezabal & Landaburu 1920 eta Euskaltzaindia 1920b), baina baliagarri dira Onaindia 1977, 134-138 eta Torrealdai & Murua 2009 ere.

⁹ Orixe bera ere saio horretan bertan izendatu zuten euskaltzain urgazle.

¹⁰ 1918an aurkezturiko estatutuen zirriborroan kapitulu gehigarri bat zegoen: «Capítulo adicional: [...] La elección de los Académicos restantes lo harán como compromisarios [...] las personas que designen las revistas *Jaungoiko Zale*, *Euzko Deya*, *Josuren Biotzaren Deya*, *Euskal Erria*, *Euskalerriarren Alde*, *Revista Internacional de Estudios Vascos* y *Euskalduna* de Bayona» (ikusi *Euzkadi* egunkaria, 1918-10-24, edo *La Libertad* egunkaria, 1918-10-25).

hain zuzen horietako baten izenari lotuta agertzen da Lardizabal, *Jesus'en Biotzaren Deya* aldizkariaren lehenengo zuzendaria eta arduraduna izan baitzen 1917tik 1920ra, seguruenik hain zuzen lan horren zigor gisa Burgo-sera erbesteratu zuten arte, abertzaletasuna bultzatzen zuelakoan edo.¹¹

Orixeren eta Pedro Lardizabalen arteko lotura ere aldizkari honi zor zaio, hain zuzen *Jesusen Biotzaren Deyan* argitaratu baitzituen Orixek bere lehenengo euskal idazlanak, hain justu Pedro Lardizabalek bultzatuta. Hona hemen Santi Onaindiaren hitzak (Onaindia 1975, 229-230):

Nork jarri ote zuen orexatarra euskal bidean, idaz-lanean batez ere? Segura'ko seme ta euskal idazle jator Aita Lardizabal izan zan nunbait, Orixe'ren doai bereziak ikusiz, idazkortza artu-erazi ta idazten ezarri zuena. A. Lardizabal'ek, A. K. Basabe ta beste josulagun batzuekin, sortu zigun Bilbo'ko «Jesus'en Biotzaren Deya» (1917-1937) aldizkaria. Emen agertzen dira Orixe'ren lenengo lanak, bertsoz eta itz-lauz agertu ere. Aldizkari orren lendabiziko zenbakian dator «Igesi» olerkia, Orixe'ren lenengoa noski, argitaratua. Ondoren ere ortxe eman zizkigun ainbat latin eresi euskerazturik, eta prosazko «Ni naiz bidea», «Igandea», «Onezko amesa», «Gizonen argia», ta «Jainkozko biziera ta ongienera eldutzeko Lasterbide bikaña», Nieremberg Aitak erderaz egiña, euskeraztuta, batez ere. Zenbaki bakoitzean bi lan argitaltzen zizkioten geienetan.

Eta jesuita-nagusiek aginduriko isiltasuna eta zigorra ere bie bateratsu iritsi zitzaizkien, nonbait, hain zuzen 1919ko amaieran edo 1920ko hasie-

¹¹ Aldizkariari buruz, Onaindia 1977, 145-152 eta Iztueta 1991, 490-494 irakur daitezke. Pedro Lardizabalen zoriari buruz, jakingarria da Iñaki Goenaga jesuitak Pako Suduperi esandakoa (Sudupe 1999, 17): «Aita Bianchi [jesuiten errektorea] erregezalea zen, Alfonso XIII.aren zalea [...]. Erregearen ahaide egiten zen Segurako Lardizabal, *Jesusen Biotzaren Deya* aldizkaria sortu zuena 1917an; Orixeri, eta ahotan ditugun juniorrei, besteak beste, idazteko plaza eskaini ziena gerra aurrean. Aldizkari hau dela eta, kexu zen erregea bere familian ere eusko nazionalismoaren gaitza hedatua zelako. Burgosa bidali zuen ahaidea, euskal kutsuz garbitzeko». Zergatik ziren ahaide Lardizabal jesuita eta Alfontso XIII.a? Pedoren anaia, Jose María Lardizabal, Josefa Silvarekin ezkondu zen, eta honen ahizpa, María Luisa Silva, Fernando Baviera Borboikoarekin, zeina Alfontso XIII.aren lehengusua eta Espainiako Infantea baitzen. Garai hartako prentsan (*La esfera*, *La correspondencia de España*, *El Cantábrico*, *La ilustración artística...*) ikusten denez, Pedro Lardizabalek ezkondu zituen infanteak 1914an, Hondarribian.

ran.¹² Patxi Altuna Orixeren isilaldi behartuaz ari da lerro hauetan (Altuna 1989, 105):

Deya-ren [...] 1920ko hamabi aleetan ez dago Orixeren lanik bat ere. Beraz galtzeko arrisku handirik gabe egin genezake apustu Agintariek debekatu ziotela hartan jarraitzea, edota onbeharrez eskatu isil zedin eta lantegi hartatik geld.

Dena den, hemen argitaratu dugun gutuneko azken paragrafoan ez da halakorik antzematen, Orixe normaltasun-itxuraz ari baita 1919ko abenduko zenbakiaz,¹³ eta are aditzera ematen baitu zerbait bidaliko duela 1920ko urtarrileko lehenengo zenbakirako. Gure ustez hilabete horietantxe gertatu bide ziren jesuita-nagusien presio gogorrenak Orixeren aurka, eta akaso hurrengo hilabeteetan (urtarrila eta maiatza bitartean) gertatu ziren Lardi-

¹² Aita Pedro Lardizabalek 1920ko ekainaren 23an idazten du Burgoseko erbestealdiko lehenbiziko gutuna (Soledad lehengusinari zuzendua), eta zehazten du bezperan abiatu zela Deustutik. Baina aurreko gutunetan ere nabari da erbeste-zigorraren berri dakiela; 1920-06-03an Madriletik Soledatxori idatzitakoan, antzematen da seguruenik zigorraren berri jasotzera joan dela Madrilera (cf. Zavalá Artxiboko familia-gutunak, Euskadiko Artxibo Historikoaren webgunean (<https://dokuklik.euskadi.eus/>)).

¹³ Orixek aipatzen dituen artikulua *Jesus'en Biotzaren Deyaren* gipuzkerazko bertsiokoak dira, 36. zenbakikoak (1919ko abendua). Orixek atsekabez eta mespretxuz aipatzen duen *Z.P.*, gure ustez, *Zugatzaga'tar Pillipa* izan behar da, hots Felipe Zugatzaga Galiarzagaitia (Zornotza 1866 - Loiola 1929); 1919ko zenbaki guzti-guztietan idazten du lehenengo artikulua, *Asmoak* atalekoa; eta, lantzean behin, baita besteren bat ere; dirudienez, euskara eredua da Orixeri atzeraka eragiten diona («Zingien (ziñiste-gabien) biurpena (ontzea)» da artikulua izenburua); bere gainerako lanei buruz, ikusi Onaindia 1977, 150. *Padre Zenon* deitua Zenon Aranburu Urkiola da (Urretxu 1879 - Loiola 1969), Wuhuko (Txina) gotzaina izango zena, bere idazlanak Txinatik bidali ohi zituen (Onaindia 1977, 149). Musika ondo aurkeztua eta letra prosaikoegia aipatzen dituen, *Artzayak* abestiaz ari da, zeina Nemesio Otañoren musikaz eta Orixeren beraren letraz paratua baita. Hurrengo hiru aipuak *Jesus'en Biotzaren berri onak* atalari dagozkio: *Pedro Miguel* deitua Pedro Migel Urruzuno Salegi (Elgoibar 1844 - Mendaro 1923) da, eta Mendaroko kronika idazten du garai hartan hango moja-komentuan zegoelako abade (Onaindia 1974, 187-192); Zumaiaetik idazten duena anonimoa da, San Estanislaoaren Kongregazioko edozein izan baitaiteke; Arrasateetik idazten duen *Arrieta'tar D.*, aipatzeko moduagatik, ez dirudi Orixerentzat ezaguna zenik, baina Domingo Arrieta «Onalde» izan behar da, *Jesus'en Biotzaren Deyan* bezala, hurrengo urteetan *Euzkadi* eta *El Diako* euskal orrietan eta *Argia* astekarian ehunka artikulua idatzi zituena. Azkenik, *el postre de agri-dulces* Pedro Lardizabalek berak aldizkariaren garai honetako zenbaki guztietan idatzi ohi zuen *Gazi-gezak* atala da.

zabalen aurkakoak, eta seguruenik artean ez zuten bata bestearen egoeraren berri.¹⁴

Bestalde, Orixeren eta Lardizabalen arteko beste gutunik argitaratu ez den arren, pentsatu behar da, 1917-1919 tartean, sarri idatzi bide ziotela elkarri, *Jesus'en Biotzaren Deyako* kontuen inguruan. Horren zantzuak agertzen dira Orixek Aita Leza Probintzialari 1919-08-21ean idatziriko gutunean (Iztueta & Iztueta 2006, 32), non Lardizabalek Orixeri idatziriko zazpi gutunetatik ateratako pasarteak aipatzen baitira, beti Orixek *Jesus'en Biotzaren Deyan* argitara emandako idazlanen inguruan.

2. Klasiko greko-latindarrak argitaratzeko proiektua

Hemen argitaratu dugun gutunean, bestelako gai bat agertzen da, Orixek proiektu berri bat (guretzat ezezaguna orain arte) aurkeztu gura baitio, Pedro Lardizabal euskaltzain urgazlearen bidez, Euskaltzaindiari. Klasiko greko-latindarren bilduma sortzea proposatzen du, honako osagai hauekin: jatorrizko testua grekoz edo latinez, Orixeren euskal itzulpena, literatura eta gramatikari buruzko oharrak, euskarazko hiztegia eta gaztelaniazko hiztegia.

Proiektuaren ezaugarriak hobeto ulertzeko, uste dugu aski argigarria dela proposatzen duen eredia ezagutzea. Aipatzen duen Luziano Samosatakoaren liburua hau da: *Lucien. Choix de dialogues des morts, avec notes et lexique par R. Pessoneaux*. Lehenengo edizioa 1891koa da, baina hainbat aldiz berrargitaratu zen XX. mendearen hasieran. Argitaletxea *Librairie Armand Colin* da, Pariskoa. Armand Colin eskola-liburuetan espezializaturiko argitaletxea da; 1870-1880ko hamarkadetan, argitaletxearen hasierako urtee-

¹⁴ Gutxi aztertu da *Jesus'en Biotzaren Deyaren* historia, baina gauza ezaguna da aldizkariaren lehenengo urteetan bi edizio argitaratzen zirela, biak Bilbon: bat «Bizkaiko euskeraz» eta bestea «Gipuzkoa'ko euskeraz». 1920ko lehenengo zenbakiaz geroztik, edizio bakarra egiten da (diru-ara-zoengatik, aldizkariaren 37. zenbaki horretan diotenez). Pedro Lardizabalen sinadura Gipuzkoako euskarazko edizioan bakarrik agertzen da (batzuetan izen osoarekin, bestetan *P.L.*, eta noizbait *Laurgain* goitizenarekin), ez Bizkaiko euskarazkoan, protagonismo handiarekin 1917-1919. urteetan; 1920an, *Gazi-gazak* atala baino ez du sinatzen (eta beste artikulua solteren bat), eta 1921az geroztik ez da gehiago agertzen.

tan, lehen hezkuntzako ikasliburuak argitaratu zituzten, baina, 1880ko hamarkadaren amaieran, bigarren hezkuntzako ikasliburuekin ere arrakasta lortu zuten eta, geroztik, haur eta gaztetxoek hezkuntza-ibilbide osorako sortu zituzten eskola-liburu arrakastatsuak (Bermond 2008, 57):

Armand Colin s'oriente, à la fin des années 1880, vers les manuels pour le secondaire, investissant des moyens et des compétences à la mesure des ambitions qui sont désormais les siennes : accompagner l'instruction des jeunes Français de la petite enfance à la fin de l'adolescence, des premiers savoirs de l'école élémentaire au programme du baccalauréat, voire au-delà. Ainsi la Librairie propose une collection de classiques latins et une de classiques grecs, sous la direction d'universitaires connus et reconnus, selon la politique de l'éditeur qui veut que la qualité de la signature fasse la qualité de l'ouvrage.

Garaitsu horretan, Parisko argitaletxeak klasikoek bilduma bi zituen: *Collection de Classiques Grecs, publiés sous la direction de M. Alfred Croiset* grekozko autoreekin, eta latinezkoentzat *Collection de Classiques Latins, publiés sous la direction de M.A. Cartault*. Baina bilduma bi horietan (bietan antzera) ez dago jatorrizko testua eta frantsesezko itzulpen osoa dituen libururik. Liburu horiek egitura hau izaten zuten: hitzaurrea frantsesez (luzera eta sakontasun desberdinetakoak, autorearen arabera); testua grekoz edo latinez zutabe bakarrean (batzuetan atal bakoitzari dagokion aurkezpen-sarrerarekin, frantsesez); azpian, oharrak frantsesez zutabe bitan, jatorrizkoa ulertzen laguntzeko (eskola-ohar ohikoak); batzuetan, testu osoaren ondoren, grekoa-frantsesa edo latina-frantsesa hiztegia. Eredu moduan Orixek mahai gainean zeukan alean, osagai horiek guztiak daude, gehi, grekozko testuen ondoren, tarteka, François Fénelonen *Dialogues des morts* laneko dagokion zatia, grekozkoan inspiratua («Passage á rapprocher de ce dialogue»). Armand Colin argitaletxeak bestelako bilduma batean argitaratzen zituen frantsesezko itzulpenak: *Lectures littéraires. Pages choisies des grands écrivains* bilduman (hor argitaratu ziren, adibidez, Sofokles, Euripides eta Eskiloren tragediak, edo Homero).

Bistan da Orixek bi asmo batu gura dituela proiektu bakarrean: jesuiten ikastetxeetan grekoa eta latina gaztelaniaz irakasteko balioko zuten liburuen bilduma egitea, eta klasiko greko-latindarren euskal bertsioen bilduma sortzea.

Lehenengo asmoa jesuiten ikastetxeen onerako litzateke («en beneficio nuestro»). Asmo horri dagokionez, Aita Atutxaren autoritatea aipatzen du; pentsatzen dugu Antonino Atutxa Aldekoa izan behar dela, erretorika-irakaslea jesuiten ikastetxean Orixerekin batera.¹⁵ Nolanahi ere, ez litzateke oso itzal handiko autoritatea izango, Orixeren beraren adinekoa baitzen, eta ez, guk dakigula, irakasle-nagusi izen handikoa.

Bigarren asmoari dagokionez, Euskaltzaindiaren egitasmoetako bat gauzatzeko balioko luke, Orixeren esanetan: «hemos leído que la Academia fomentará las versiones de obras literarias universales» dioenean, *Euskaltzaindiaren sortarauak* dokumentuan jasoriko hitzez ari da. Hitzez hitz hone-lak dakar, helburuen atalean (Euskaltzaindia 1920a, 3):

Idazteunak, eta giza-gutunetakorik omen diran ospatsuenak, euskerara itzulerazen ekingo du.

Promoverá la traducción de los libros divinos y de los universalmente reconocidos como capitales en la literatura general.

Euskaltzaindiak 1920-06-22/23ko batzarrean onartu zuen testu hori, baina 1918an argitaratu zen zirriborroa (gaztelaniaz bakarrik) garai hartako aldizkari eta egunkarietan, 1918-11-08ra arteko epea emanez zuzenketak proposatzeko.¹⁶

Klasiko greko-latindarren bildumarako Orixek hautatu zituen lanak aztertzea geratzen zaigu, baina lehenago iruzkina behar dute beste hitz hauek

¹⁵ Zeharkako datuak baino ez ditugu Aita Atutxa hori Antonino Atutxa Aldekoa bide dela pentsatzeko. Jokin Zaitegiren bidez dakigu («Urkiaga ta biok» 1974ko artikuluan ospetsuan dioelako) 1920-1921 ikasturtean «Aita Atutxa Antonino» zela Durangoko jesuiten ikastetxean erretorikako ikasleen (hots, laugarren kurtsoko ikasleen) «erderazko itzaldi ederrak» zuzendu zituena. Bestalde, Josemari Velez de Mendizabalek Gaizka Barandiaran jesuita itzultzailearen bizitza laburtzean zehazten du «Antonino Atutxa zeanuritarrarekin elkarrizketatu ondoren» onartu zutela 1928an Durangoko komentuan. Euskadiko Artxibo Sistemaren agiri sakramentalen datu-basean ikusi dugu Zeanurin bataiatutako Antonino Atutxa bakarria Antonino Atutxa Aldekoa dela, Zeanurin 1881-09-02an bataiatua. Bestalde, 1912ko *Cartas edificantes de la Provincia de Castilla* urtekarian Xabierko ikastetxeari dagokion txostena Antonino Atutxa honek sinatua da.

¹⁶ Gasteizko *La Libertad* egunkarian, adibidez, 1918-10-25eko lehenengo orrialdean argitaratu zen, «Academia de la lengua vasca. Bases de su constitución» izenburuarekin. Bezperako *Euzkadi* egunkarian (1918-10-24), egunkariaren erredakzioan idatzitako sarrera erantsi zioten aurretik: «Un paso importante para el euzkera».

ere: «más completos que los trozos escogidos ordinarios, siguiendo más bien el plan de dar obras completas». Hitz horiek jesuita-nagusiei zuzendua direla uste dugu, egitasmoa jesuiten beste lan batzuen osagarri (eta ez lehiakide) gisa aurkezteko. Gorago aipatu ditugun apunte autobiografikoetan Orixek berak esanik dakigu,¹⁷ 1919-1920 ikasturtean, Orixe gutuna idazten ari zen ikasturtean, latin-gramatikako ikasliburu berria ezarri zutela nagusiek Xabierko ikastetxean, hain zuzen Orixeren ikaskide izaniko Ignacio Errandonearena (Errandonea, 1918). Liburu horretako atal bakoitzak «Trozo de traducción» bat dauka eta, autoreak ohar batean (Errandonea 1918, V) aipatzen duen arren *Antología latina* bat argitaratuko duela laster gramatikaren osagarri gisa, ez zen geroztik halakorik argitara eman, guk dakigula. Baina interesgarria da *Eugenio Subirana Editor y Librero Pontificio* argitaletxeak¹⁸ liburuaren amaieran egiten duen publizitatea, jesuiten ikastetxeetan erabiltzen ziren beste hainbat eskulibururen artean iragartzen baitu *Selecta ex optimis Latinis auctoribus*, lau liburukitan, erosleentzako dei honekin (Errandonea 1918, 328):

Muy conocida es esta colección de selectísimos fragmentos de prosa y poesía latinas, dispuestos en orden didáctico ascendente, para servir de texto en las aulas de latinidad, y aclaradas con oportunas y utilísimas notas.

Antologia hori mundu osoko jesuita-ikastetxeetan erabiltzen zen,¹⁹ grekozko beste honekin batera: *Selecta ex optimis Graecis auctoribus ad usum*

¹⁷ Hona hemen Orixeren hitz zehatzak: «Sucedió que aquel año [1919-20] se cambió el texto de Gramática: la del portugués Álvarez en latín por la del P. Errandonea en español. El profesor que explicaba segundo de latín se negó a explicarlo, y llamándome el Superior me propuso si yo estaba dispuesto a sustituirle. Le dije que el texto me era indiferente, y que lo haría con mucho gusto» (Iztueta & Iztueta 2006, 518). Errandonearen eskuliburu Kolonbian argitaratu zen lehenbizikoz, 1911n; horregatik, Bartzelonako 1918ko argitalpenak «Segunda edición» dakar.

¹⁸ Jatorrian erlijio-gaietan espezializaturiko argitaletxea zen, 1862an sortua; baina XX. mendeko lehenengo hiru hamarkadetan, jesuiten ikastetxeetan erabiltzen ziren ikasliburu eta eskuliburuak argitaratu eta saldu zituzten, jesuitek idatziak edo itzuliak (Llanas 2005, 197-201).

¹⁹ Adibidez, Denver (Colorado) urruneko College of The Sacred Heart jesuita-ikastetxeko 1909-1910 ikasturteko ikasketa-programan, latinezko antologia hau aipatzen dute (lau liburukiak, kurtsoen arabera).

scholarum Societatis Jesu (bi liburukitan). Bi antologia hauekin lehiarik ez agertzeko, zerbait bereizgarria behar zuen Orixeren egitasmoak: idazlanen zati hautatuak izan beharrean, idazlan osoak argitaratzea.

Eta autoreetan, ba al dago bat-etortzerik? Errandonearen gramatikako itzulgai hautatueta, autore hauen lanetako zatiak agertzen dira: Zizeron (gutunak, solasaldiak eta hitzaldiak), Plinio Gaztea, Kinto Kurtzio, Zesar, Fedro eta Salustio. Jesuiten ikastetxeetarako paraturiko latinezko antologian, hauek: (1) Zizeron (gutunak eta hautaturiko zatiak), Kornelio Nepote, Fedro. (2) Zizeron (gutunak eta hautaturiko zatiak), Zesar, Ovidio. (3) Zizeron (gutunak, solasaldi filosofikoak eta hitzaldietako zatiak), Kinto Kurtzio Rufo, Tazito, Katulo, Tibulo, Propertzio, Virgilioren *Bukolikoak*, Virgilioren *Georgikoak*, Kintiliano, Zizeronen hitzaldiak, Tito Livio, Martzial, Ovidio, Virgilioren *Eneida*, Horazio. (4) Zizeron (*De oratore* eta hitzaldiak), Tito Livio, Salustio, Tazito, Horazio, Virgilio, Plauto. Grekozko antologian, autore hauek bildu dira: (1) Esopo, gutun hautatuak, Isokrates, San Basilio, Tuzidides, Herodoto, Xenofonte, Luziano Samosatakoa (*Encomium patriae*), San Krisostomo, Demostenes. (2) Anakreonte, epigrama hautatuak, epitafio hautatuak, San Gregorio, Teokrito, Bion Esmirnakoa, Safo, Pindaro, Homero. Hor dugu, beraz, garai hartako jesuiten ikastetxeetan latina eta grekoa irakasteko erabiltzen ziren klasikoen kanona.

Orixeren Luziano eta Xenofonte, Zizeron eta Nepote horien artean dira, jesuita-eskoletako klasikoen kanonetik hautatuta, hain zuzen oinarri-oinarrizko mailetakoetatik. Hautua Orixeren une horretako irakasle-lanari loturik dago, gure ustez, eta ez geroago literaturaren eta itzulpenaren zertarakoaz garatuko duen gogoetari.²⁰

Esan beharrik ez dago edukiari begira bertutearen eta moralaren irakasle direla hautaturiko autore guztiak. Luziano litzateke badaezpadakoa moral

²⁰ Gai honi buruz, Ruiz Arzalluz 2009 eta 2010 dira ezagutzen ditudan azterketarik zorrotz eta zehatzenak. Aipaturiko bigarren lanean dago, bestalde, Orixek urte horietan euskaratu zituen klasikoen erreferentzia zehatzena: Horazioren *Epodoak* II (1919an), Virgilioren *Georgikoak* III, 75-88 (1919an) eta Homeroren *Iliada* XXIII, 708-739, 754-784 (1921ean). Horiei gehitu behar zaie gutun honekin batera dagoen Homeroren *Iliada* VI, 466-496 argitaragabea, gure ustez proiektu honekin loturirik ez duena.

estuaren ikuspegitik,²¹ eta, zalan-tza gutxi daukat Orixek ez zukeela hildakoen solasaldien liburua osorik euskaratuko, ondo garbituta baino (izan ere, proposatzen duen eredua bera ere *Choix de dialogues des morts* da, solasaldi hautatuak).

3. Euskaltzaindiaren ekimen bi klasikoen itzulpenaren inguruan

Ez dakigu Pedro Lardizabalek gutun honi erantzun zion ala ez. Gutuna hitzez hitz irakurritz gero, Lardizabal bitartekaria baino ez zen Orixerentzat. Baina lerroartean irakurtzen badugu, Orixek ez zuen hautatu Lardizabal Urkixoren ahaide zelako bakarrik. Orixek dioenean jesuiten ikastetxeek alfabeto grekoko tipoak erosiko lituzketela («los centros indicados [...] se animarían sin duda a poner una imprenta griega, cosa indispensable, o a editar entre tanto esas obras, aunque sea en París o en Barcelona»), ezinbestean izan behar du buruan *El Mensajero del Corazón de Jesús* argitaletxea, izen bereko aldizkaritik abiatutik, 1915az geroztik, argitaletxe-lana egiten zuena, Remigio Vilariño jesuita gernikarraren zuzendaritzapean. Argitaletxe horrek debozio-liburuak argitaratzen zituen gehienbat, baina 1920an bertan, adibidez, Julian Egia bibliotekariaren *Mi biblioteca* argitaratu zuen, funtsean bibliotekonomiako eskuliburu bat; geroago, 1924an, *Sófocles. Edipo Rey* Ignacio Errandonearen itzulpena argitaratu zuen (gastelaniaz, grekozko testurik gabe). Bilduma berriko lanak Bartzelonan inprimatzeko aukera mahaigaineratzean, Orixek *Eugenio Subirana Editor y Librero Pontificio* argitaletxea izan zezakeen buruan, hain zuzen gorago aipatu duguna. Jakinik zein estua zen *Jesús'en Biotzaren Deya* aldizkariaren eta *El Mensajero del Corazón de Jesús* aldizkari eta argitaletxearen arteko lotura,²² pentsatu behar

²¹ Llanas 2005en bilatu dugu jesuiten irakaskuntzari buruzko dokumentu nagusietan zelan epaitzen diren lau autore hauek. Luzianoren kasuan, Josephus Juvenciusek *De ratione discendi et docendi* (1703) liburuko zati hau interesatu zait: «caute admodum, nec totus, legendus est» 'kontuz baino ez da irakurri behar, eta ez osorik'.

²² Pedro Lardizabalen 1914-06-04ko familia-gutunean (euskarazko *Jesús'en Biotzaren Deya* aldizkaria sortu baino lehen) ikusten denez, gastelaniazko *El Mensajero del Corazón de Jesús* aldizkariari loturik

dugu Orixeren ustez Pedro Lardizabal beste edozein euskaltzain urgazle baino leku hobean zegokeela bere egitasmoa bideratzen lagundu ahal izateko. Ez zekien, seguruenik, Pedro Lardizabal bera ere jesuita-nagusien susmopean zegoela ordurako, euskaltzaleegia zelako edo.

Baina proiektua iritsi zen iritsi behar zuen lekura, Euskaltzaindira, erakunde honen artxiboan baitago dokumentua gaur ere. Aztertu al zuen Euskaltzaindiak eskaria? *Euskera* aldizkarian agerturiko hurrengo batzar-agiritan (1919ko abendutik 1920ko uztailera artekoetan) ez da Orixeren proposamena aipatzen, ezta klasikoen argitalpenarekin edo itzulpenarekin erlazionaturiko beste ezer ere.

Klasikoen itzulpenarekin erlazionaturiko hurrengo berria, Euskaltzaindiaren inguruan, 1921eko Durangoko Euskal Egunen kariaz antolaturiko literatura-sariarena da. Euskaltzaindiak urtero antolatzen zuen halako sari-keta, eta urtero erabakitzen ziren sail eta gai berriak. 1921ekoari dagokionez, apirilean argitaratu ziren oinarriak *Euskal-Esnalea* aldizkarian; sei sail iragartzen ziren, eta seigarrena da hemen interesatzen zaiguna: «Gerkera naiz laterazko elerti-ereduren baten euskeralpena lerrojaregiñez eta edozein euskalkiz» (Aztertze, 1922a). Epaimahaiaren ebazpena iragartzean, gaztelaniaz jakinarazi zuten: «Traducción en prosa, en cualquier dialecto, de algún trozo literario del clasicismo greco-latino» (Aztertze, 1922b).²³ Lan saritua (Virgilioren I. Bukolikoaren itzulpena, Luzio Arregi urnietarrak euskaratua «Melibeo ta Titioren arteko alkar-izketa» izenburuarekin), 1923an

ikusten du bere burua («nosotros los del Mensajero» idazten du). Bestalde, «El Mensajero del Corazón de Jesús - Sal Terrae - De broma y de veras - Rayos de Sol» komunikazio-taldearen idazpurua zuten orriak erabili zituen 1914-02-27ko bere gutunean, eta «Redacción. El Mensajero del Corazón de Jesús - Sal Terrae - De broma y de veras - El Siglo de las Misiones - Jesús en Biotzaren Deya - Rayos de Sol - Repertorio Músico Sal Terrae» taldearen idazpurua zuten orriak 1918-07-01eko bere gutunean.

²³ Euskaltzaindiaren artxiboan hiru dokumentu daude (karpeta bakarrean) lehiaketa-modalitate honetako sarituarekin erlazionaturik: 1) Gregorio Maidagan idazkariak irabazleari (Luzio Arregi urnietarrari) 1922-04-21ean mekanografiaturiko gutunaren kopia. 2) Irabazleak Gregorio Maidagani 1922-04-24an bidalitako erantzuna (eskuz idatzia). 3) Irabazleak sinaturiko idatzia (1922-04-30), sariari dagokion dirua jaso duela egiaztatzen duena. Hau da Euskaltzaindiaren Azkue Artxiboko erreferentzia zehatza: «ABA.KEA. Saila: Sariak eta bekak. Literatura sariak. Kokapen kodea: KEA-0005. Erreferentzia-kodea: 1.415.01.1922-22».

zazpi orrialdeko liburuxka gisa argitaratu zuen Euzko-Argitaldariak, urte horietan Euskaltzaindiaren inguruko lanak argitaratu ohi zituen argitaletxeak; eta, gero, bigarrenenez, 1925eko *Euskera* aldizkarian argitaratu zen. Euskaltzaindiaren sariketa horietan ez zen berriro, guk dakigula, klasikoak euskaratzea proposatu. Orixeren eskariaren oihartzun gisa uler daiteke 1921ekoa? Ez dakigu, baina ordurako Nikolas Ormaetxea bazen norbait euskalaritzan, eta hain zuzen Durangoko Euskal Egunetan bi hitzaldi eman zituen Euskaltzaindiak gonbidaturik, eta horietako batean Homeroren *Iliadako* bi pasarte (XXIII, 708-739 eta 754-784) irakurri zituen euskaraz, biak *lerrojaregiñez*, prosan (Ormaetxea 1922, 36-37).²⁴ Nolanahi ere, Euskaltzaindiaren Artxiboan daude sariketako oinarrien zirriborroak, eta horietan ez da agertzen Nikolas Ormaetxearen izenik ez eskurik.²⁵

1928an agertzen da, Euskaltzaindian, autore klasiko greko-latindarrak euskaratzeko beste egitasmo bat. Kasu honetan, Euskaltzaindiko zuzendaritza (Azkue euskaltzainburua) proiektuan zuzenean inplikaturik agertzen da. 1928ko hiru gutun dira: 1) Juan Gorostiaga ikasleak (1905-1988) Gregorio Maidagani Erromatik eskuz idatzia, 1928-03-07ko datarekin. 2) Piarres Lafitte gazteak (1901-1985) Okzitaniako Tolosatik Azkueri eskuz idatzia, datarik gabe. 3) Azkueren erantzuna Piarres Lafitteri (kopia mekanografiatua), 1928-03-01eko datarekin.²⁶ Ezin ditugu hemen gutunak osorik transkribatu, baina, elkarri idazten diotenetik ondorioztatzen denez,

²⁴ Bilbao 2018n berrargitaratu ditugu pasarte biak.

²⁵ Euskaltzaindiaren artxiboan, dossier bat dago Durangoko Euskal Egunetako hainbat dokumenturekin, eta dossier horretako 4. atala zehazki sariketari dagokio: «ABA.KEA. Saila: Jardunaldiak eta Kultura ekitaldiak. Kultura ekitaldiak. Edukia: Euskaleguna Durangon: sariketak. Kokapen kodea: KEA-0003. Erreferentzia-kodea: 1.210.01.1921-14». Karpeta honetan, hiru dokumentu daude sariketaekin erlazionaturik: 1. Sariketako oinarrien zirriborro bat, euskaraz. 2. Sariketako oinarrien bigarren zirriborro bat (lehenengoan oinarritua), euskaraz, argitaratu zenaren gertuagokoa. 3. Sariketako arauen kopia mekanografiatua, gatzelaniaz. Ez dakigu nork idatzi zituen euskarazko zirriborroak (ez daude sinaturik, eta ez dugu idatzi duen eskua ezagutzen), baina ez da Orixeren eskua. Lehenengo zirriborroari ohar bat erantsi zion Juan Bautista Eguzkitza euskaltzainak, eta zirriborrogileari eskatzen zion Luis Eleizalde euskaltzainari erakusteko sariketako oinarriak, argitaratu baino lehen.

²⁶ Karpeta bakarrean daude hiru gutunak, erreferentzia zehatz honekin: «ABA.KEA. Saila: Sariak eta bekak. Literatura sariak. Kokapen kodea: KEA-0010. Erreferentzia-kodea: 1.102.02.1928-04. Izenburua: Autore klasikoaren itzulpenak egiteko egitasmoa».

1928ko otsailean Euskaltzaindiko idazkariak, Gregorio Maidaganek, Azkueren izenean, hainbat gazteri idatzi zien (Lafitte eta Gorostiaga biak dira atzerrian ikasten ari diren 23-27 urteko gazteak, eta pentsatzekoa da halako beste batzuei ere idatziko zitzaizela), grekozko eta latinezko autore klasikoak euskaratzeko. Hona hemen Lafittek Azkueri idatzitakoa: «[Maidaganek] dionaz, [zuk, Azkuek] nahi zinueke lankide batzuen laguntzerat ethor nadin, Athenako eta Erromako idazki zaharren eskuaralat bihurtzen».

Dirudienez, bakoitzaren esku geratzen zen zein autore euskaratu nahi zuen erabakitzea. Seguruenik asmoa ez zen liburu osoak euskaratzea, zati hautatuak baino. Lafittek Xenofonte aukeratu zuen: «Xenophon zenaren *Orhoitzapenak* eta *Etxeko-ona*²⁷ askitto itzul-erraxak zaizkit eta gure herriarrentzat badukete mami bezanbat gozo. Ez ditut lan horiek bururen buru itzuli nahi, zathiak hautatuz baizik»; Gorostiagak Homeroren *Iliadako* bi pasarte ezagun («Hektor'en azken agurra» eta «Akilesen mazmarroa (escudo) zelan egin zan») eta «Tirteoren olerki bat»²⁸ aipatzen ditu, hasteko.²⁹ Azkuek zioenez, egitasmo horretako lanak «aurrenez gure *Euskera*-n eta gero gutun berezian azalduko dira».³⁰

Kasu honetan ere ez dakigu Euskaltzaindiaren egitasmoan Orixeren proiektuaren oihartzunik ote dagoen; baina gogorarazi behar da ordurako Orixe Euskaltzaindiko langile zela (1923az geroztik), Maidagan idazkariaren,

²⁷ Xenofonteren *Apomnemonemata* (*Memorabilia*) eta *Oeconomicus* solas sokratikoak dirateke, hurrenez hurren.


²⁸ Hektorren azken agurra *Iliada* VI, 376-502 da; Akilesen ezkutua *Iliada* XVIII, 478-608 pasarteak deskribatzen da. Tirteoren olerkiaren hasiera ematen du grekoz eta I Kantuari dagokio («Hiltzea ederra da aberriaren alde...»).


²⁹ Gorostiagak gogo biziz hartzen du proposamena, baina asti gutxirekin dabilela abisatzen du. Lafittek gogo gutxirekin onartzen du egitekoa: «Ederki. Erran behar dut hargatik edozein bertze sail bati lotu nahiago nukeela [...]. Bainan zer galdatzen daukuzuen nehorik baino hobeki baitakizue, aitzina...».

³⁰ Artikulu honen harirako funtsezkoa ez den arren, ezin dugu aipatu gabe utzi Lafittek eta Azkuek hizkuntz ereduaz diotena. Hona Lafitteren hitzak: «Eskuetaratu dauzkidate hor gaindiko liburu eder zombait, mintzaire garbi-garbiz orhatuak eta, dioten bezala, ulert-gaitzak. Holako lanek ez baitukete irakurlerik ez Laphurdin, ez Benabarren, ez Ziberon, xedea, xede zina banuke eskuara xehe-xehe artzeko». Eta hona hemen Azkueren erantzuna: «Zerorrek ederki diozunez itzulpen oiek ulert-errezak izan bear dute, bestela euskereari indarra eman bearrean kalte aundia egiten diote».

Azkue euskaltzainburuaren eta batik bat Olabideren ondoan; ez dirudi Azkueren ekimena Orixeren 1919ko proiektuari emaniko erantzun zuzena denik, baina Orixe egitasmo berriaren jakitun izan zen, zalantzarik gabe. Nolanahi ere, hurrengo urteetan ez dugu aurkitu xede honen emaitzen arrastorik.

Eranskina: Orixeren eskuzko gutuna





2

qua, me ayudaría otros.

A ver si tiene V.R. el tiempo y responde a esta carta. El asunto de ella no es quimerico sino muy realizable, práctico, y necesario, si queremos hacer cosa derecha y no desorientarnos en el movimiento que comienza.

Acabo de recibir el número de "Boya" que prescindiendo de lo de L.P. cuyas páginas ^{me} instintivamente me las recorro, y que pasará a otros no iniciados, prescindiendo de los díg. ha llegado a dar en el quit como ya no me atrevo a augurar. Esto en cuanto al tono literario, que en lo demás ^{por lo interesante como} la carta del P. Lénin, la misma tan bien presentada. (lastima que la letra me resulte prosaica por atarme al Evangelio!), la de Pedro Miguel, la relación del Estanislao de Zumaya y sobre todo la de Aniceta D., mas el postre de agri-dulces, es un número modelo, ideal ita a decir, hecho la salvedad primera. Mil enhorabuenas. Si se sostiene así habrá una campaña excelente.

Yo todavía nada le envío: veremos para el mes de Enero.

Affine a J.C. N. Duacque S.P.

Iluma: Azkue Biblioteka eta Artxiboa.

Erreferentziak

ALTUNA, P., 1989, «Orixek Jesusen Lagundian emaniko urteak (1907-1923)», *Euskera*, 34 (1989), 71-122.

AZTERTZALLE, 1922a, «Euskaltzaindiaren sariketa», *Euskal-Esnalea*, 208 (1922, jorrraila), 90-91.

———, 1922b, «El Certamen de la Academia», *Euskal-Esnalea*, 224 (1922, dagonilla), 166.

BERMOND, D., 2008, *Armand Colin. Histoire d'un éditeur de 1870 à nos jours*. Armand Paris: Colin.

BILBAO, G., 2018, «Orixeren itzulpen argitaragabea: Homeroren *Iliada* VI, 466-496», in G. Bilbao, P. Gartzia eta M. K. Menika (koor.), *Bai, jauna, bai: fisika euskaraz! Jose Ramon Etxebarria irakaslearen omenez*. Bilbo: UEU, 271-281.

ELGEZABAL, C. eta LANDABURU, F., 1920, «Euskaltzaindia nola ta noiz jaio ta geitu zan», *Euskera*, 1 (1920), 35-48.

ERRANDONEA, I., 1918, *Gramática latina*. Bartzelona: E. Subirana Edit. y Lib. Pontificio.

EUSKALTZAINDIA, 1920a, *Euskaltzaindiaren sortarauak. Estatutos de la Academia de Lengua Vasca*. Bilbo: Euzko Argitaldaria.

———, 1920b, «Euskaltzaindiaren lenengo urteko batzarrak», *Euskera*, 1 (1920), 49-80.

INTXAUSTI, J., 2014, *Euskara eta hizkuntzak, gizartean I. Aitorpenak. Ekinbideak*. Bilbo: Euskaltzaindia [Etxeberri Bilduma. EHS].

IZTUETA, P., 1991, *Orixeta bere garaia*. Donostia: E.J. & Etor.

———, 2003a, *Orixeta saiogilea*. Donostia: Utriusque Vasconiae.

———, 2003b, *Orixeta auxitan*. Donostia: Utriusque Vasconiae.

———, 2003c, *Orixeta gaitzetsia*. Donostia: Utriusque Vasconiae.

IZTUETA, P. & IZTUETA, I. (ed.), 2006, *Orixeta. Gutunak (1917-1961)*. Donostia: Utriusque Vasconiae.

LLANAS, M., 2005, *L'edició a Catalunya: el segle XX (fins a 1939)*. Bartzelona: Gremi d'Editors de Catalunya [Història de l'Edició a Catalunya bilduma].

LULL MARTÍ, E., 1997, *Jesuitas y pedagogía: el Colegio San José en la Valencia de los años veinte*. Madril: Universidad Pontificia Comillas.

ONAINDIA, S., 1974, *Euskal literatura III. Bi menderen artean: 1895-1920*, Etor, Donostia.

———, 1975, *Euskal literatura IV. 1910-1935*. Donostia: Etor.

———, 1977, *Euskal literatura V. 1915-1940*. Donostia: Etor.

ORMAETXEA «ORIXE», N., 1922, «Eusko olerkitzaz», in Euskaltzaindia (ed.), *Le-nengo Euskalegunetako itzaldiak*. Bilbo: Euzko-Argitaldaria, 31-41.

ORMAETXEA «ORIXE», N. [Paulo Iztueta ed.], 1991a, *Idazlan guztiak I. Sorkun-tzazkoak*. Donostia: E.J. & Etor.

———, 1991b, *Idazlan guztiak II. Itzulpenak*. Donostia: E.J. & Etor.

———, 1991c, *Idazlan guztiak III. Artikulu eta saiakerak*. Donostia: E.J. & Etor.

REY FAJARDO, J., 2017, *Fuentes documentales de la Paideia Jesuítica*. Caracas: Uni-versidad Católica Andrés Bello abediciones.

RUIZ ARZALLUZ, I., 2009, «Literaturaren zertarakoa, itzulpenak eta hizkuntzaren auzia Orixerengan», *ASJU*, 43.1-2 (2009) [Beñat Oihartzabali gorazarre], 805-818.

———, 2010, «Traducciones vascas de los clásicos griegos y latinos (1802-1936)», in F. García Jurado et al. (edd.), *La historia de la literatura grecolatina duran-te la Edad de Plata de la cultura española (1868-1936)*. Málaga: Universidad de Má-laga, [Analecta Malacitana. Anejos, 78], 487-508.

SUDUPE, P., 1999, «Sarrera», in P. Sudupe (ed.), *Andimaren idazlan hautatuak*. Donostia: Elkarlanean, 7-40.

TORREALDAI, J.M. & MURUA, I., 2009, *Euskaltzaindia. Ekin eta jarrai*. Bilbo: Eus-kaltzaindia.

ZAVALA Y FERNÁNDEZ DE HEREDIA, L.M. (koor.), 2008, *Política y vida cotidiana II: la sociedad vasca del siglo XIX en la correspondencia del Archivo de la Casa de Za-vala*. Lasarte-Oria: Etor-Ostoa.



Jean-Baptiste Dasconaguerre: datu biografiko berriak

Jean-Baptiste Dasconaguerre: nuevos datos biográficos

Jean-Baptiste Dasconaguerre : nouvelles données
biographiques

Jean-Baptiste Dasconaguerre: new biographical details

FOIX AGERRE, Oliber

Euskaran eta euskal literaturan litzentziaduna

Noiz jaso: 2018-02-12

Noiz onartua: 2018-06-29

Euskera. 2017, 62, 2. 399-452. Bilbo
ISSN 0210-1564

Lan honen helburua da argi berri bat ematea 1870ean *Atheka-gaitzeko oihartzunak* argitaratzeagatik euskal eleberraren aitatzat hartzen den Jean-Baptiste Dasconaguerre idazlearen biografiari. Gaur egun arte nahiko utzita egon den biografia hau zein egoeratan dagoen aztertuko dugu lehenik, akats eta zentzugabekeria batzuk aipatuz. Ondoren, biografia eguneratzeko asmoz, ez bakarrik zuzenketak baina ere orain arte ezagutu gabeko datu berriak plazaratuko ditugu.

Gako-hitzak: Euskal literaturaren historia, XIX. mendeko idazlea, Dasconaguerre, biografia zuzenketa.

El objetivo de este trabajo es aportar nueva luz sobre la hasta hoy poco estudiada biografía del escritor Jean-Baptiste Dasconaguerre, considerado padre de la novela vasca por haber publicado, en 1870, la obra *Atheka-gaitzeko oihartzunak*. Lo primero, estudiaremos en que situación se encuentra la biografía hasta ahora publicada, citando algunas informaciones carentes de fundamento alguno. Posteriormente, presentaremos nuevos datos con el objetivo de actualizar y corregir dicha biografía.

Palabras clave: Historia de la literatura vasca, escritor del siglo XIX, Dasconaguerre, corrección de biografía.

L'objectif de ce travail est d'apporter un nouvel éclairage à la biographie de l'écrivain Jean-Baptiste Dasconaguerre, peu étudiée jusqu'ici. Cet écrivain était considéré comme le père du roman basque car il avait publié en 1870 l'œuvre intitulée *Atheka-gaitzeko oihartzunak*. Tout d'abord, nous étudierons dans quel contexte a été écrite la biographie déjà publiée, en soulignant certaines informations dénuées de tout fondement. Puis, nous présenterons de nouvelles informations afin d'actualiser et de corriger cette biographie.

Mots-clés: Histoire de la littérature basque, écrivain du XIX^e siècle, Dasconaguerre, biographie corrigée.

The aim of this work is to shed new light on the, until now, somewhat forgotten biography of the writer Jean-Baptiste Dasconaguerre, considered the father of the Basque novel for the publication of *Atheka-gaitzeko oihartzunak* in 1870. Firstly we shall look at the current state of this biography, highlighting several mistakes and some nonsensical information. With the intention of updating the biography we shall then proceed not only to offer corrections but also bring to light some previously unknown biographical details.

Key words: history of Basque literature, 19th century writer, Dasconaguerre, biographical corrections.

Liburu famatu bat

1870eko ekainean *Atheka-gaitzeko oihartzunak* liburua argitaratu zelarik Jean-Baptiste Dasconaguerre idazleak euskal literaturaren historian leku erabat garrantzitsua hartu zuen. Liburu honekin, lehen aldiz, euskara sartzen zen eleberri alorrean, ordura arte gai erlijioso edo olerkigintzan mugatu zelarik.

Ganix Anchordoquy¹ (1806-1872) Makeako mugalariaren abentura baten aipamen nobelatua irakur daiteke. Nola, lehen gerla karlistaren testuinguruan (1833-1839), lortu zuen eramatea Maria Teresa de Bragança printzesa mugaz bestaldera, Lapurditik Nafarroara, soldadu eta polizia frantsesen kontrolak saihestuz, azkenean, hainbat gorabehera tarteko, Elizondoko karlisten kanpamenturaino iristeko.² Printzesa ezkondu zen geroxeago Don Karlos erregearekin, Azkoitian, 1838ko urriaren 20an.

Dasconaguerrek ezagutu zuen Ganixen ahotik gertakari hura eta liburua idatzi zuen. Salmenten dirua Ganixentzat izango zen.

Dena den, liburu honen itzulpenak «aurretik» argitaratuak izan ziren, lehenik frantsesez, *Les échos du Pas de Roland* (1867), gero gaztelaniaz, *Ecos del paso de Roldán* (1868) eta hainbat berrargitalpen egin ziren euskarazko jatorrizko testua argitaratu baino lehen.

Ondoko urteetan Dasconaguerrek beste bi liburu argitaratu zituen, frantsesez biak. Lehena, 1880an, *Golfe de Gascogne et Pays Basque*, Euskal Herriko (Iparraldeko mendebalde zehazki) deskribapena egiten duena; bigarrena, 1883an, *Mendigor-Içareder, récit basque*, euskaldunen emigrazioaren ondorio latzak erakusten dituen.

Argitaratu eta berehala, Julien Vinson orientalista euskaltzaleak *Atheka-gaitzeko oihartzunak* liburuaren aipamen ona egin zuen *Revue de linguistique et de philologie comparée* aldizkarian.³

¹ Zabalo, J., 1993, *Le carlisme – La contre-révolution en Espagne* (199 or.)

² *Mémorial des Pyrénées* (1838.10.23 eta 1838.10.25)

³ Vinson, J., 1870, in *Revue de linguistique et de philologie comparée* (4. zenbakia, 1870eko uztaila, 75. or.)

Urte batzuk beranduago, aldiz, *Golfe de Gascogne...* liburuan, Dasconaguerrek Vinsonen laudorioa egiten zuen.⁴ Bi hauen artean harreman oso ona zela nabarmena da.

Baina, geroxeago, Julien Vinson berak, *Essai d'une bibliographie de la langue basque* euskal bibliografiaren bilduma argitaratzerakoan, 1891an, ohar guztiz bereziak egiten ditu *Atheka-gaitzeko oihartzunak* liburuari buruz. Gauzak ez dira izan uste zen bezala.

Ez da inoiz izan jatorrizko euskal idazlanik Ganixen abenturak kontatzeko. Frantseseko lehen argitalpenak aipatzen zuen «*traduit du basque*» (euskaratik itzulia) oharra, «*pur artifice de librairie*» (liburugintza amarru hutsa) besterik ez zela! Eta ez zen horretan mugatzen Vinson.

Horrela kontatzen du historia guztia:⁵

- Dasconaguerrek Ganix ezagutu zuen eta entzun zituen bere abenturak.
- Dasconaguerri egokia iruditu zitzaion liburu bat idaztea, frantsesez.
- Frantseseko idazkia, Dasconaguerri idazlan baten gainean oinarritua baldin bada ere, beste hainbat pertsonen lan amankomunaren emaitza da. Izenak isilpean mantentzen ditu Vinsonen, pertsona hauek oraindik bizirik daudelako.
- Liburua argitaratu zen «**euskaratik itzulia balitz bezala**».
- Gaztelaniazko itzulpenak frantseseko testutik itzuliak dira.
- Arrakastaren ondorioz, euskarazko argitalpena eskatzen zaio Dasconaguerri, baina jatorrizko testurik ez zegoen.
- Dasconaguerrek liburua itzuli behar zuen frantsesetik euskarara. Baina ez du berak itzulpena egiten. Horretarako enkargua egiten die, lehenik, Bernard Larréguy apezari (1878an hila), eta gero, Edmond Guibert olerkariari (1872an hila). Emaitza ez da Dasconaguerriren gus-tuko. Hirugarren itzultzaile anonimo (oraindik bizirik delako) batek

⁴ Dasconaguerre, J.B., 1880, *Golfe de Gascogne et Pays Basque* (82. or.)

⁵ Vinson, J., 1891, *Essai d'une bibliographie de la langue basque* (336. or.)

egingo du azkenean. Eta azken zuzenketak Julien Vinsonek berak eta beste lagun anonimo batek egingo dituzte!

Hau azalpena! Hau amarrua! Liburua argitaratu eta 21 urtetara!

Pentsa daiteke, Vinsonen lekukotasun eta aitormen hauek irakurtzera-koan, Dasconaguerren oniritziarekin argitaratu dela dena.

Bizirik legoke orduan Dasconaguerre, baina zergatik ez du berak aitormena egiten? Vinsonek ez luke interesik izango esateko hori guztia egia ez balitz. Eta egia baldin bada, badirudi ez dela kezkatzen Dasconaguerren erreakzioaz. Vinsonek oso ondo zaintzen ditu hitzak eta Dasconaguerren ohorea salbu uzten du. Badirudi biek adostu dutela aitormen honen argitaratzea. Oraindik bizirik dauden beste partaideak anonimatuan geldituko dira betirako. Hildako bien izenak aipatuko dira soilik.

Julien Vinson (1843-1926) garai hartako euskalgintzaren panoraman ezinbesteko aktorea zen. Eztabaida sutsuak bideratu zituen euskararen egoerari eta etorkizunari buruz baina erreferente guztiz sinesgarria zen.⁶ Euskaltzaindia sortu zelarik, 1919an, ohorezko euskaltzain titulua jaso zuen.

Ez dirudi polemika handirik izan denik Vinsonen aitormen hauen ondortik. Inork ez ditu baieztapen hauek zalantzan jarri, inork ez du Dasconaguerren defentsa egin eta azken hau isilik geratu da. Esate baterako, garai berean, *Altabizkarko kantua* obrak eztabaida oso sutsua sortu zuen eta denboran asko luzatu zen.⁷ Baina kasu honetan Vinsonen baieztapenak onartuak izan dira besterik gabe.

Ondorioz, zalantzak daude, gaur egun ere, *Atheka-gaitzeko oihartzunak* kokatzeko euskal literaturaren barnean. Benetan kontsideratu behar da lehen euskal eleberria bezala? Batzuen iritziz aurrekaria izan da.⁸ Liburu honekin euskara hedatu da eleberrigintzara. Baina Dasconaguerren ama-

⁶ Granja Pascual, J.J., 1986, *Julien Vinson, el euskara y una polémica del XIX* in ASJU, 20-1 (217-235. or.)

⁷ Cirot, G., 1936, «Le Chant d'Altabiscar» in *Bulletin Hispanique*, 1936, 38-1 (65-67 or.)

⁸ Adibidez, Koldo Mitxelena («*Historia de la literatura vasca*», 1960), Rodolfo Bozas («*Atheka-gaitzeko oihartzunak*», 1970), Patxi Salaberri («*Iraupena eta lekukotasuna*», 2002) ...

ruak zoritxarrezko eragina egiten dio. Eta, behar bada, Juan Antonio Mogelen *Peru Abarka* eleberriak izan beharko luke aurrekari postua, baina 1801ean idatzia izan baldin bada ere, bakarrik 1881ean argitaratuko da lehen aldiz.

Azkenean, egungo tendentziak Txomin Agirreren *Auñemendiko Lorea* (1898), *Kresala* (1906) eta *Garoa* (1912) eleberriak lehenesten ditu euskal eleberrigintzaren hastapen gisan.⁹

Kasu guztietan, Dasconaguerre eta *Atheka-gaitzeko oihartzunak* ezinbesteko aipamenak dira euskal literaturaren historiaren obretan.

Atheka-gaitzeko oihartzunak behin eta berriz argitaratua izan zen, euskaraz, frantsesez eta gaztelaniaz.

Hauek dira euskarazko argitalpenak:

- 1870: Baiona, Lamoignon (Dasconaguerreren eskutik)
- 1919: Donostia, Martin, Mena y C^a (Euskal Esnalea elkartearen eskutik)
- 1970: Donostia, SGEP (Rodolfo Bozas Urrutiaren eskutik, elebiduna euskara-gaztelania)
- 1990: Donostia, Elkar (Ander Lakarraren eskutik)
- 2008: Donostia, Hiria (Luis Haranburu Altunaren eskutik)

Bestalde, erran daiteke liburu hau atalka argitaratua izan dela bederen ondoko agerkarietan:

- *Gure Izarra* astekaria (Lehen zenbakia bakarrik, 1888ko urriaren 30)
- *Californiaco Eskual-herria* aldizkaria (1895ean zehar)¹⁰

⁹ Adibidez, K. Izagirre eta X. Mendiguren («*Euskal literaturaren antologia*», 1998)

¹⁰ Salaberri, P., 2002, *Iraupena eta lekukotasuna*

Dasconaguerre, idazle ezezaguna

Jean-Baptiste Dasconaguerre, XIX. mendeko euskal «figura» bat da beraz, batez ere *Atheka-gaitzeko oihartzunak*, euskarazko «lehen» eleberria, idazteagatik, baina, ongi begiratuta, nahiko gutxi dakigu bere bizitzaz. Bera aipatzerakoan behin eta berriz agertzen dira ohiko datuak bere pertsonari buruz: notario eta politikaria ospetsua, idazle ohargarria, euskal gizarteko eredu bat.

Gaur arte nagusitu da denen artean bere gaitasuna idazle bezala eta zer-nolako ekarpena egin zion euskal literaturari, eleberri alorrean batez ere.

Horrela ezagutua da gaur egun: Dasconaguerre, idazle edo euskal idazle.

Baina hortik haratago gizona bera nahiko ezezaguna gelditzen da, eta gainera ohartzen gara beste datu biografikoak bederen «nahasiak» direla, ez baldin badira kontrajarriak edo okerrak.

Dasconaguerrearen kasuan nahiko agerian gelditzen da biografia oso eskasa dagoela. Baina azkenean mende eta erdi besterik ez da pasa bere garaitik, bere idazlanei buruz *best seller* edo *berehalako arrakasta* aipatzen da¹¹, gaur egun arte berrargitaratuak dira (ez dira idazki galdu ezezagunak) eta halere nahiko utzita edo zaindu gabea dago bere biografia.

Atheka-gaitzeko oihartzunak liburuaren Euskal Esnalea elkartearen berrargitalpenean ez da ematen datu biografikorik (1919). Lehen mendeurreneko berrargitalpenan Rodolfo Bozas Urrutiak onartzen du ez dakiela ezer idazleari buruz (1970). Lehen ikerketa biografiko zehatza agertzen da 1990eko berrargitalpenean, Ander Lakarraren eskutik, baina hutsuneak daude. Orduetik hona ez da ezer berririk aipatu.

Egia da, bere obrak oraindik interesa pizten du literatura munduan. Gehiegi atzera begiratu gabe, aurkitzen ditugu bere idazlanen berrargitalpen batzuk, Pirinioetako bi aldeetan eginak. *Atheka gaitzeko oihartzunak* (1870ean argitaratua) eleberri nagusiaren bi berrargitalpen aurkitzen ditugu, bata 1990ekoa (Elkar, Donostia), Ander Lakarraren eskutik, bestea,

¹¹ Haranburu-Altuna, L., 2008, sarrera in Dasconaguerre, J.B., *Atheka-gaitzeko oihartzunak* (11. or.)

gugandik hurbilagoa, 2008koa (Hiria, Donostia), Luis Haranburu Altunaren eskutik. Hau Pirinioen hegoaldean. *Golfe de Gascogne et Pays Basque* (1880an argitaratua) beste idazlan nagusiaren berrargitalpen soila 2006an dago egina, Frantzian (La Découverte, Arroxela).

Beraz, mende laurden baten epean, bederen 3 berrargitalpen, hauetatik bi azken hamarkadakoak.

Ohargarria idazleari buruzko datuak zein eskas diren.

Datu gehienak eta interesgarrienak Ander Lakarrak bildu zituen due-la 25 urte baino gehiago. Garai hartan, aspaldiko lehen berrargitalpen modernoa egiterakoan, saiatu zen ahal bezainbat datu biltzen idazleari buruz, baina onartzen zuen hutsune asko zeudela biografia osoa osatzeko, batez ere «azken urteak». Ahoz ahoko lekukotasun baten arabera «Afrikako iparraldean» edo «Tunisian» bukatu zuen bizitza, «zituen guztiak hondatuta».

Baina argitalpen horretan bukatzen dira informazioak. Alegia, 2006an eta 2008an oso informazio urria ematen da Dasconaguerri buruz: zehaztu gabea, Haranburu Altunaren aldetik, edo okerra¹² (!) La Découverte argitaletxearen aldetik.

Hots, Lakarrak seinalatzen zituen hutsuneak ez bakarrik ez dira osatu baina gainera ez da orain nekea hartzen ezagunak diren datuak aipatzeko ere.

Azkenean azalarazten da editoreen ezjakintasuna Dasconaguerri buruz. Orduan biografia guztiz laburtuta dago, edo isildua. Topiko batzuekin (notario, politikari, Tunisia) betetzen da hutsa besterik gabe. Hori berrargitaratutako liburuei buruz.

Baina Interneten besterik gabe murgiltzen bagara ez da hobe, alderantziz.

Bi oinarritzko adibide konparatuko ditugu (baina gehiago aipa genitzake): Euskal Herriko Unibertsitateko fitxa bat eta BNFko (Bibliothèque Nationale de France) beste bat, Interneten aurkitzen direnak. Bi instituzio hauen

¹² «né à Saint-Jean-de-Luz...»

fidagarritasun maila altua da eta erreferentziazkoak izan behar lukete idazle baten datuak biltzeko.

Lehenik, EHUkoa (Manu Lopez Gaseniren eskutik):¹³

«Jean-Baptiste Daskonagerre (Donibane Lohitzune, 1844-1927)

Jean Baptiste Daskonagerre Laxalde Donibane Lohitzunen jaiotza eta hil zen (1844-1927). Zuzenbidea ikasi zuen Parisen; han frantses idazle ospetsu handiekin egin zituen harremanak eta joera erromantiko zein errealisten berri izan zuen: Lamartine, Hugo, Stendhal, Balzac...). Lapurdia itzulita, Baionako abokatuen elkargoan eman zuen izena eta notario gisa lan egin zuen Baionan eta Bastidan. Kontseilu Nagusiko kide hautatua izan zen, eta urteetan zehar eutsi zion ardura horri. 1884an Afrika iparraldera joan zen bizitzera, eta seme bat abokatu izan zuen Tunisian.»

Paragrafo honen ondotik aztertzen da modu sakonean bere obra nagusia, *Atheka-gaitzeko oihartzunak*, eta honen inguruan sortu zen polemika.

Datu hauek A. Lakarrak ekarritakoak dira, jaiotze eta heriotza datuak salbu. Azken hauek guztiz garaiz kanpo gelditzen dira!

Bigarrena, BNFkoa:¹⁴

Jean-Baptiste Dasconaguerre (1815-1897?)	
Pays:	France
Langue:	français
Sexe:	masculin
Naissance:	Bayonne (Pyrénées-Atlantiques), 07-06-1815
Mort:	Londres, 1897
Note:	Romancier. - Notaire à Labastide-Clairence (Pyrénées-Atlantiques). - Conseiller général des Basses-Pyrénées.
Autre forme du nom:	J.B. Daskonagerre (1815-1897?)

¹³ *Euskal literaturaren hiztegia* (<http://www.ehu.eus/ehg/literatura/idazleak/?p=285>)

¹⁴ http://data.bnf.fr/13598983/jean-baptiste_dasconaguerre/

ISNI:	0000 0000 8156 8941
Ses activités:	(11 documents)

(*Aurkezpen honen ondotik aipatzen dira bere idazlanak.*)

Laburbilduz, horrela ulertzen da:

«Jean-Baptiste Dasconaguerre (1815-1897?),

Baionan jaioa 1815eko ekainaren 7an, Londresen hila 1897 inguruan
(?). Eleberrigilea, notario Bastidan, kontseilari orokorra.»

Lakarrak eman zigun jaiotze dataren berria. Ikusten da hemen ere datu batzuk errepikatzen direla bere kokapen soziala zehazteko (idazle, notario, politikari). Nobedadea hemen heriotzari buruzkoa da, zalantza ikurra baldin bada ere: Londresen, 1897 (?).

Informazio hauek guztiak aztertu ondoren, berehala ohartzen gara alde «misteriotsu» bat dagoela eta ikusten ditugun datuek galdera asko sortzen dizkigute.

Ez dago adostasunik jaiotze (1815 ala 1844) eta heriotza (1897? ala 1927) urteei buruz, ezta ere jaioterriaz (Donibane Lohizune ala Baiona) edo heriotza guneaz (Donibane Lohizune ala Londres). Lakarrak perfektuki aipatu bazuen jaiotzeari buruzko informazioa 1990ean, nola da posible gaur egun beste data oker batzuk ikustea euskal literaturari buruzko webgune gehienetan?

Baina ohargarrienak dira aipamen «exotikoak» Ipar Euskal Herriko jaun notable batentzat: Ipar Afrika eta Tunisia (alegiatzko bizitokia), edo Londres (Ingalaterra), alegiazko heriotza gunea. Erosoago irakur genezake Txile edo Uruguai, garai hartan ohiko helmugak euskaldunentzat. Baina ez da kasua: Londres eta Tunisia agertzen dira. Eta ez dugu ikusten harremana bata bestearekin.

Zer misterio dago honen atzetik? Zergatik heriotza data ezberdinak? Aro garaikideko pertsona publikoa (notario eta politikaria) eta famatua (idazlea) izanez gero arraroa dirudi datu nahasketa horrek.

Jakin-mina pizturik, ikerketa xumea burutu dugu Interneten arakatzuz honen guztiaren inguruan informazioak biltzeko. Horretarako probetxu handia izan da artxibo asko Interneten digitalizatuak izatea, batez ere Frantziakoak, herri hartan dagoen genealogia zaletasunaren ondorioz.

Familia jatorria

«Dasconaguerre» abizena zalantzarik gabe euskalduna da (Azkonagerre) eta oso gutxi zabaldua. Horrek, behingoz, laguntzen du datuak biltzeko.

Bernard de Charritte, «Asconaguerre» etxeko jaunaren aipamena aurkitzen dugu, XVI. mendean.¹⁵ Ez dago daturik baina pentsa dezakegu abizen hori etxe hartatik datorrela nolabait. Zuberoako Sarrikotapea herrian Azkonea izeneko auzoa dago (Ascon edo Dascon, frantsestua).¹⁶

Dena den, erregistro zibileko artxiboetan miatu ondoren Dasconaguerre sendiaren zuhaitz genealogikoa osa dezakegu.

Aurkitu dugun familiako kide zaharrena, **Pierre Dasconaguerre**, zurgin patroia, Zuberoakoa zen, Arüekoa, 1737 inguruan jaioa (Arüe eta Sarrikotapea herri auzoak dira). Baionan finkatu zen bere ofizioa garatzeko eta han ezkondu zen 1765eko ekainaren 11n **Marie Gastambide** ainhoarrarekin.¹⁷ Pierre Dasconaguerre hil zen Baionan VI. urteko belardunaren 20an¹⁸ (1798ko ekainaren 8an) 61 urte zituelarik. Marie Gastambide hil zen Baionan 1813ko azaroaren 11n¹⁹ 80 urte zituelarik.

Dasconaguerre-Gastambide ezkontzatik bederen bi seme sortu zirela aurkitu dugu: Jean-Baptiste eta François. Zalantza dago aurkitu dugun familia-ko beste kide bati buruz, Jean Dasconaguerre baionarra, *Le Diable à Quatre*

¹⁵ Chaix d'Est-Ange, G., 1909, *Dictionnaire des familles françaises anciennes ou notables à la fin du XIX^e siècle* - t. VIII (319. or.)

¹⁶ AD64 – Cadastre napoléonien – Charritte-de-Bas – Tableau d'assemblage E-3 - «Ascon»

¹⁷ AD64 – Bayonne – Paroisse Notre Dame – Registres 1757-1765 – 5MI102/17/1145

¹⁸ AD64 – Bayonne – État-civil – an II-an IX – Décès – 5MI102/0582

¹⁹ AD64 – Bayonne – État-civil – Décès 1811-1825 – 5MI102/42/0260

Bordeleko itsasontzi kortsarioko boluntarioa, 1800eko urrian «*La Tamise*» ingeles fragatak preso hartua. Plymouthen preso egon ondoren, Cherbourgera eramana izan zen, 1802ko apirilaren 16an, preso trukaketa baten kariaz. Jean Dasconaguerre garai hartan 30 urtekoa zen, behar bada Pierre Dasconaguerreren beste seme bat.²⁰

Jean-Baptiste Dasconaguerre seme nagusia 1768an jaio zen Baionan. Elizari lotu zen. Ordenazioa jaso zuen Baionan 1790eko maiatzaren 29an.²¹ Berehala jasan izan behar zituen Frantziako Iraultzak sortutako gorabeherak. Erretore eta bikario izendatua izan zen gero San Espiritu parrokiari (1815-1822) eta urte batzuk geroago Bastidan²² (1822-1832). Han egon zen 1832ko otsailaren 19an zendu arte.²³ Jean-Baptiste Dasconaguerre honek eman zion izena iloba famatuari.

François Dasconaguerre, aurrekoaren anaia, Baionan jaio zen 1772ko apirilaren 28an.²⁴ Anaia nagusia Elizari lotuta izanik, berak hartu behar zion segida aitari eta negozioetan murgilduko da gazterik. Ezkondu zelarik Baionan V. urteko lilidunaren 17an²⁵ (1797ko maiatzaren 6an) negozio-gizon bezala agertzen zen. Emaztetzat hartu zuen Françoise Larrère Landetako Saint-Aubin herrikoa. Françoise Larrère hil zen gazterik Baionan 1809ko apirilaren 8an 35 urte zituelarik, **Marie-Thérèse** alaba (Baionan jaioa 1800. urtean) eta **Jean-Maurille** semea (Baionan jaioa 1803an) utziz.

François Dasconaguerre, negozio-gizona, 5 urteko alargunaldiaren ostean, berriz ezkondu zen Donibane Lohizunen 1814ko abuztuaren 10ean.²⁶ **Catherine Laxalde** emaztea hartuz. Catherinen anaia Dominique Laxalde hiri hartako alkatea zen orduan (1814-1816 bitartean).

²⁰ Marinsetcorsaire – migrations.fr (Échange de prisonniers de toute la France provenant des prisons anglaises à compter de 1797 arrivés à Cherbourg et autres lieux)

²¹ Dubarat, V., eta Haristoy, P., 1895, *Études historiques et religieuses du diocèse de Bayonne* (112. or.)

²² Dubarat, V., eta Haristoy, P., 1896, *Études historiques et religieuses du diocèse de Bayonne* (349. or.)

²³ AD64 – La Bastide-Clairence – État-civil – Décès 1823-1832 – 5MI289/6/0174

²⁴ AD64 – Bayonne – Paroisse Notre Dame – Registres 1767-1784 – 5MI102/18/0365

²⁵ AD64 – Bayonne – État-civil – Mariages 1793-1806 – 5MI102/32/0207

²⁶ AD64 – Saint-Jean-de-Luz – État-civil – Mariages 1813-1822 – 5MI483/5/0906

Catherine Donibane Lohizunen jaio zen 1777ko irailaren 17an.²⁷

Dasconaguerre-Laxalde bikoteak hiru haur izan zituen: **Jean-Baptiste** mutikoa (Baionan jaioa 1815eko ekainaren 7an)²⁸, famatua izango zena, eta bi neska, **Jeanne-Apolline** (Baionan jaioa 1816ko uztailaren 23an)²⁹ eta **Catherine** (Baionan jaioa 1820eko irailaren 14an)³⁰, anaia baino bizitza diskretuagoa izango zutenak.

François Dasconaguerrek, beste negozioen artean, Ternuako kanpainak antolatzen zituen, eta ez da arraroa bere haur zaharrenak ezkontzen ikustea itsasgizon familietan: 1828an³¹, Marie-Thérèse ezkondu zen Jean-Baptiste Dhiariart kapitainarekin, eta urte berean³², Jean-Maurille semea ezkondu zen Jeanne Bardoitz kapitain baten alabarekin. Jean-Maurille bera, zuzenean, Ternuako nazioarteko gatazketan³³ murgilduta egon zen. Oso gazte hil zen 1834an, 30 urte zituelarik, alaba jaioberria utziz.

François Dasconaguerre hil zen Donibane Lohizunen 1839ko abuztuaren 30ean, 67 urte zituelarik.³⁴

Prestatu zion bidea Jean-Baptiste semeari Parisera ikasketak egitera igo-
ritz, baina ez zuen ikusiko zer-nolako pertsonaia bilakatuko zen.

Catherine Laxalde, alargunduta, Donibane Lohizunen segituko du bizi-
tzen zendu arte 1861eko azaroaren 20an, 84 urte zituelarik.³⁵ Berak bai
ikusitako semearen bidea: 1861ean notarioa, alkatea eta kontseilari oroko-
rra zen!

²⁷ AD64 – Saint-Jean-de-Luz – Baptêmes, mariages, sépultures 1727-1791 – 5MI483/3/1198

²⁸ AD64 – Bayonne – État-civil – Naissances 1814-1825 – 5MI102/25/0124

²⁹ AD64 – Bayonne – État-civil – Naissances 1814-1825 – 5MI102/25/0227

³⁰ AD64 – Bayonne – État-civil – Naissances 1814-1825 – 5MI102/25/0557

³¹ AD64 – Saint-Jean-de-Luz – État-civil – Mariages 1823-1832 – 5MI483/5/1074


³² AD64 – Saint-Jean-de-Luz – État-civil – Mariages 1823-1832 – 5MI483/5/1076

³³ Ducéré, É., 1892, «Les pêcheurs basques à Terre-Neuve», in *Bulletin de la Société des sciences, arts et lettres de Pau*, serie 2, tome 22 (310-324. or.)

³⁴ AD64 – Saint-Jean-de-Luz – État-civil – Décès 1833-1842 – 5MI483/6/1094

³⁵ AD64 – Saint-Jean-de-Luz – État-civil – Décès 1853-1862 – 5MI483/6/1495

J.B. Dasconaguerre: arbasoak



Laburbiltzeko, Jean-Baptiste Dasconaguerre idazle famatuaren jatorria Zuberoan aurkitzen dugu.

Bere aitona izan zen lehena Baionan finkatzen, 1765 baino lehenago. Ordutik, familia Baionakotzat jo daiteke, baina, Baionakoak baldin badira ere, dasconaguerretarrak ezkontzen dira Lapurdiko familia euskaldunetan (Marie Gastambide, Ainhoakoa 1765ean, Catherine Laxalde, Donibanekoa 1814an). Harreman hauekin mantentzen da familia kontaktuan euskal giroarekin, eta Baionan bertan naturalki euskaraz hitz egingo zen haien etxean segur aski. Dasconaguerre abizena bera euskalduntasun markadore garrantzitsua zen eta harrotasunez eramaten zen. Aski da ikustea *Mendigor-Içareder...* liburuan pertsonaia ezberdinek sistematikoki euskal abizen «luzea» eramaten dutela (Aritzhandibéhère, Eyheracindéguy, Çabalçagaray, Issouribéhère...) euskalduntasuna indartzeko.

Kontuan hartuz ere familiako kide bat elizgizona zela, euskarari bezala fede katolikoari lotua izango zen etxea.

Bestalde, ikusten da familiaren estatus aldaketa hiru belaunalditan zehar. Aldaketa hori gauzatu da Iraultzako giroan. Aukeren garaia zen. Aitona zurgin patroia baldin bazen, aitik negozio enpresa antolatu zuen eta Donibaneko alkatearen arrebarekin ezkondu zen, eta azkenean semeak aukera izan zuen, formakuntza sendo bat jaso ondoren, prestigiozko karguetara iristeko: notariotza eta politika.

Gaztaroa eta formakuntza

Jean-Baptiste Dasconaguerre, beraz, Baionan jaio zen 1815eko ekainaren 7an. Ander Lakarrak adierazi zuen datu hori duela 25 urte baino gehiago. Ulertezina da oraindik beste data bat eta beste leku bat aipatzea. Ikusi dugu arrebak nola jaio diren Baionan 1816an eta 1820an. Jean-Baptiste-ren haurtzaroa hiri honetan garatu da, beraz, bederen bost urte izan arte, Prébendés karrikan, katedraletik oso hurbil.

Aldiz, 1828an, arreba- eta anaierdiak ezkontzen direlarik, familia Donibane Lohizunen kokatua da, segur aski urte batzuk lehenagotik. Dascona-

guerrek gaztaroa, beraz, Donibanen pasa zuen. Testuinguru honetan ulertu behar da *Golfe de Gascogne...* liburuaren aitzinsolasean «je me trouvais à Saint-Jean-de-Luz, ma ville natale» idaztea.

Ikus dezakegu orain Arturo Campion (1854-1937) euskaltzaleak idatzitako Dasconaguerreri buruzko notizia 1880ko *Revista Euskara* aldizkarian.³⁶ Campionek egiten du Dasconaguerreren gaztaroaren aipamen ohargarria (horrela itzul genezake):

Familia xume bezain ohoragarrikoa, ikasketa klasiko oso onak egin zituen Pasaian, gero Parisera joateko Zuzenbidea ikastera. Kultura handiko pertsona bilakatuko da eta lagun minak izango ditu, Châteaubriand-en iloba edo Malakoff-eko dukea besteak beste, kultura eta literatura zirkuluetan parte hartuz.

Baionara itzultzerakoan abokatu bezala hasiko da lanean, baina laster notario gisa egokituko da Bastidan. Orduan joko politikoa sartuko da.

Campionek idazten duelarik, Dasconaguerre guztiz ezaguna da eta pertsona eredugarria da garai hartako ikuspegitik. Campionen informazio hori gaur egun arteko Dasconaguerreren biografia guztien jatorrizko iturria bakarra da.

Ikusi dugu bere familia ez zela hain xumea, ongi kokatua zela Baionan eta Donibanen. *Golfe de Gascogne...* liburuan Pasaiaiko ikastetxeaz aipamen polita egiten du («un collègue célèbre, (...) toujours aimé de ceux qui l'ont connu et apprécié»).

³⁷

Pariseko egonaldiari buruz ez daukagu informazio gehiago, eta Campionek erraiten duena zuzena baldin bada orokorki, zehaztu dezakegu Malakoff-eko dukea izango zena, Pelissier komandantea (1794-1864), Parisen zegoela 1831 eta 1839 bitartean, Gerlako ministerioan lanean. Ezaguna da gehienbat armagizon bezala, baina ez da oso agerian gelditzen bere literatu-

³⁶ Campion, A., 1880, «Escritores euskaros contemporáneos» in *Revista Euskara*, III (329-336. or.)

³⁷ Dasconaguerre, J.B., 1880, *Golfe de Gascogne et Pays Basque* (11. or.)

ra zaletasuna. Eta Chateaubriand-en iloba, behar bada Charles du Boishamon (1813-1885) idazlea, Dasconaguerren adin berekoa zen kasik.

Baina ez dago zalantzarik, bere traiektoria ikusiz, Dasconaguerre gazteak ongi aprobetxatu zuela Pariseko egonaldia ikasketa onak egiteko eta goi-mailakoen mundua ezagutzeko.

Hala, 1840an, 25 urterekin, abokatu gisan gizarteratzen delarik, Jean-Baptiste Dasconaguerre da familiaburua. Aita berriki hil zen (1839an). Ama gelditzen zaio bakarrik, eta arrebak. Anaierdia 1834ean hil zenetik, berari zegokion aitaren ondorengoia izatea, baina badirudi aitaren negozioak laster likidatuko dituela ongi pentsatutako beste norabide probetxagarriago bat hartzeko.

Eta berehala nabarmenduko da, ikasketak aparte, ikasi zuela Parisen «munduan» bizitzea. Alegia, oso urte gutxitan, lortuko du posizio garrantzitsua Ipar Euskal Herriko elitean.

Lehen urratsa ematen du 1841ean, Nafarroa Behereko Bastidan, Jean-Épiphan Darrieux notarioari ondorengotza hartzen diolarik.³⁸

Darrieux (1788an jaioa) zen orduko Bastidako eta kantonamenduko figura garrantzitsua: notario, alkate, bake epailea eta barruti kontseilaria.³⁹ Ez zuen haurrik izan ezkontzatik eta segur aski nahi zuen gustuko ondorengo bat bere karguetarako.

Nolatan Dasconaguerre? Bizi izan zen Donibanen eta Baionan, eta Parisetik itzuli berria zen. Segur aski harremana aurki daiteke Dasconaguerren osabarengan. Osaba hau, Jean-Baptiste Dasconaguerre, izan zen Bastidako erretorea 1832an hil arte. Aita, François Dasconaguerre, harremanetan mantendu zen behar bada (1832-1839) semeari buruzko erreferentziak eginez, eta hortik letorke Darrieux-Dasconaguerre lotura.

Jean-Épiphan Darrieux-ek utzi zuen orduan notariotza eta Dasconaguerre finkatu zen buru-belarri zeregin honetan. Pixkanaka bere ospea eta izen

³⁸ AD64 - Filiation des Etudes notariales des Pyrénées-Atlantiques depuis l'an XII

³⁹ «conseiller d'arrondissement» frantsesez

ona zabalduko dira Nafarroako inguru hauetan. Horrela kokatu behar da 1846an Apolline bere arrebaren ezkontza Donapaleuko Jean-Baptiste Iriart negozio-gizonarekin.⁴⁰ Beste arreba, Catherine, ezkonduko da 1853an Donibane Lohizunen Jean Duplom Saint-Pau infanteria kapitainarekin.⁴¹

Ospe handiko ezkontza

Azkenean, bere estatusa sendotzeko, ezkontzea falta zitzaion. 1848ko urriaren 19an⁴² gertatuko da hori, **Marie-Caroline Fagalde** anderearekin ezkondu zenean. Bera baino 8 urte gazteagoa zen, 1823ko martxoaren 15ean jaioa Mugerren, errentadun baten alaba.

Fagaldetarrak familia onekoak ziren eta ongi ikusiak. Emaztegaia zen, esate baterako, Pierre-Victor Duséré politikariaren iloba. Duséré (1780-1847) berriki hil zen ordurako. Baionako epaitegi zibilaren presidentea izan zen hil arte, diputatua Parisen (1833-1835 bitartean)⁴³ eta Bidaxune eta Bastidako kontseilari orokorra (1834-1835 bitartean)⁴⁴. Bestalde, Pierre Fagalde, Marie-Caroline-ren aitona, bake-epailea izan zen eta baita ere Baionako barrutiko kontseilaria (1831n hil zen arte)⁴⁵. Azkenik, Dominique de Saint-Bois (1791n hila), Caroline-ren birraitona, Hazparneko Navailles-ko azken baroia izan zen.

Seme-alaba andana bat izan zuten:

- Dominique Arthur (1849-1850), Bastidan jaio eta hila.
- Catherine Marie Gabrielle (1851), Bastidan jaioa.
- Pierre Arthur (1852), Bastidan jaioa.

⁴⁰ AD64 – Saint-Jean-de-Luz – État-civil – Mariages 1843-1852 – 5MI483/5/1233


⁴¹ AD64 – Saint-Jean-de-Luz – État-civil – Mariages 1853-1862 – 5MI483/5/1301

⁴² AD64 – Mouguerre – 1754-1877 – 5MI407/1/1232

⁴³ Robert, A., eta Cougny, G., 1890, *Dictionnaire des parlementaires français*, t. II

⁴⁴ Bayaud, P., 1957, «Le conseil général des Basses-Pyrénées sous la monarchie de Juillet» in *Actes du 82^e congrès national des sociétés savantes* (405 or.)

⁴⁵ Guyot eta Scribe, 1831, *Almanach royal et national pour l'année MDCCCXXXI*

J.B. Dasconaguerre: emaztearen jatorria

- Jean-Baptiste Dominique Ferdinand (1854), Bastidan jaioa.
- Bruno Dominique Alfred (1857), Bastidan jaioa.
- Seme bat (1863), Baionan hilda jaioa.
- Gabriel Pierre Albert (1865), Baionan jaioa.

Gehitu behar da ere ezkontzatik kanpo jaiotako ustezko alaba bat:

- Marguerite Oxoby (1850), Arruta-Sarrikota herrian jaioa, Madeleine Oxobyren alaba. Jaiotze agirian agertzen da Bastidako Asconaguerre (sic) jaunak ezagutua izan zela 1857ko apirilaren 10ean.

Ongi ezkontuta eta familia zabala baten aita, Dasconaguerre notarioa bide berri bat jorratzen hasiko da: politika.

Dasconaguerre politikari

Atalez atal, edo karguz kargu, ikusiko dugu nola Dasconaguerre instalatu zen jaun handi baten figuran. Informazio gisan, garai hartako Frantzian gertatu erregimen aldaketak gogoratuko ditugu:

- 1830-1848: Monarkia konstituzionala
- 1848-1851: Bigarren Errepublika
- 1851-1870: Bigarren Inperioa
- 1870etik aurrera: Hirugarren Errepublika

Notario Bastidan (1841-1861) eta Baionan (1861-1884)

Notario gisan segitu zuen beraz bere lana, baina aldaketa sakona gauzatu zuen 1861ean. Utzi zuen Bastidako kargua eta jabetu zen Baionakoaz.⁴⁶ Alegia, hartzen zion segida Théophile Doussy notarioari. Azken hau, nota-

⁴⁶ AD64 - Filiation des Etudes notariales des Pyrénées-Atlantiques depuis l'an XII

rio izateaz gain, San Espirituko alkatea izan zen (1843-1848). Bastidako notario kargua, aldiz, Ange-Gustave Magnelli italiar jatorriko baionarrari utzi zion Dasconaguerrek.

Eremu eta kategoria aldaketa handia zen. Baserri mundutik hiri nagusira notario aktibitateak jauzi handi bat suposatzen zuen, eta diru sarreraren alde-tik igoera oso interesgarria, zalantzarik gabe.

Dasconaguerre aberasten ari zen notario bezala baina, bestalde, eragin handiko politikari bilakatzen ari zen.

Bastidako zinegotzi (1843-1851) eta alkate (1851-1868)

1843ko ekainaren 25ean udal hauteskundeak burutu zirelarik Frantzian, Dasconaguerre udal kontseilari hautatua izan zen Bastidako herrian.⁴⁷ Karguaren iraupena sei urtekoa zen. Dena den, 1848ko otsaileko Iraultzaren ostean, berriro hautatua izan zen uztailaren 3ko hauteskundeetan.

Geroxeago, 1850eko abenduaren 13an, Jean-Épiphan Darrieux Bastidako alkatea hil zen. Udal kontseilua bildu zen ondorengoa izendatzeko, eta Dasconaguerre hautatua izan zen 1851ko urtarrilean. Erabaki logikoa izan zen, ikusita Darrieux-ek berak ondorengotzat hartu zuela notariotzan 1841ean. Geroxeago, Inperioaren garaian, alkatetza mantendu zuen arazorik gabe.

Karguan egon zen 1868 arte. Lekua utzi zion Jacques Lafourcaderi. Hogeita bost urtez egon zen udaletxean, eta ordurako Dasconaguerre ospe handiko pertsona zen eta kargu hori txiki geratu zitzaion.

Baionako barrutiko kontseilari (1851-1859)

Jean-Épiphan Darrieux-en heriotzarekin hutsik gelditu zen ere bai bere aulkia Baionako hautesbarrutiko kontseiluan. Hauteskunde partziala antolatzen ondorengoa izendatzeko eta horrela 1851ko hasieran Bastidako

⁴⁷ Datu hau ondorioztatzen dugu Ohorezko zaldun izendapenaren dekretuaren arabera: 1867an, «24 urtez zerbitzuan»

alkate berria, Dasconaguerre, hautatua izan zen. Bonaparteren estatu kolpearen ondotik, hauteskunde berriak antolatuak izan ziren 1852ko abuztuaren lehenean. Dasconaguerre berriro hautatua izan zen. Hurrengo hauteskundeetan ere hautatua izan zen 1855eko ekainaren 3an.

1859an, kontseilari orokorra hautatua izan zelarik, hautesbarruti kontseilari kargua utzi zuen. Dena den, Bastidako kontseilari orokorra izanez, nolabaiteko eragina mantenduko du hautesbarruti kontseilaria hautatzera koan. Bere lehen ondorengoa postu honetan Jean-Timothée Darrieux-Juson izan zen (1859-1867), Jean-Épiphanie Darrieux-en lehengusua, eta hurrengoa Ange-Gustave Magnelli (1867-1871) Bastidan kokatu zuen notarioa. Zalantzarik gabe esan dezakegu Magnellik Dasconaguerreren babesari zor diola garaipena hura.

Irabazitako hauteskundeak:

- 1851ko martxokoa (hauteskunde partziala, Darrieux ordezkatzeko),
- 1852ko abuztuaren 1ekoa eta
- 1855eko ekainaren 3koa.

Baionako barrutiko kontseilua Baionako suprefetak biltzen zuen urtean zehar. Bederatzi kontseilari zeuden, bat kantonamendu bakoitzarentzat.

Departamenduko kontseilari orokorra (1859-1884)

1859ko urtarrilaren 20an, Parisen hil zen Michel-Charles Chegaray, Bastidako kantonamenduko kontseilari orokorra. Pertsonalitate handia izan zen ordura arte.⁴⁸ Diputatua Parisen (1837-1852) eta kontseilari orokorra Pauen (1839-1859). Heriotza hori izan da Dasconaguerrarentzat aukera erabakigarria bere pisua neurtzeko goi mailako politikan. Hautesbarrutiko kontseilaria zen eta, orduan, lehentasuna zuen hautagaitza aurkezteko Chegarayren aulkian jartzeko. Hauteskunde partzial hartan, 1859ko ekainaren 19an, dena ongi atera zitzaion, aurkaririk gabe aurkeztu zen, eta 1.461 bo-

⁴⁸ Robert, A., eta Cougny, G., 1890, *Dictionnaire des parlementaires français*, t. II

totatik 1.455 bereganatu zituen.⁴⁹ Gainera, hauteskunde partziala baldin bazen ere, hautatua zegoen 1867 arte (Chegaray 1858an hautatua izan zen, eta garai hartan agintaldia 9 urtekoa zen).

Ordurako, Dasconaguerre politika mailan gorenean dago. Gorago Pariseko diputatu kargua dago, baina badaki ez duela inoiz horretarako aukerarik izango. Helburua, geroztik, Pauko kontseilari orokorraren postua mantentzea izango da.

Gauzak ongi egiten zituela politika mailan ikus daiteke 1871ko hauteskundeetan. Orduan Errepublika berriz ezarri zen Frantzia eta aurreko errejimeneren ordezkarienez une zailak izan ziren. Baina Euskal Herrian beste giro bat zegoen eta aldaketa gutxi gauzatu zen. Dasconaguerrek bere aulkia mantentzea lortu zuen. Errepublika garaian beste bi aldiz hautatua izango da, 1874an eta 1880an.

Azkenik, Dasconaguerrek dimisioa aurkeztu zuen 1884ko maiatzaren 5ean argudiatuz osasunaren aldetik gaizki zegoela, eta ezin zituen bere funtzioak normaltasunez bete (berez, 1886ko hauteskundeak egin arte karguan egon behar zuen).

Irabazitako hauteskundeak:

- 1859ko ekainaren 19koa (hauteskunde partziala, Chegaray ordezkatzeko),
- 1867ko abuztuaren 4koa,
- 1871ko urriaren 8koa,
- 1874ko urriaren 4koa eta
- 1880ko abuztuaren 1koa.

Hogeita bost urtez karguan egon zen (1859-1884), bi errejimenez ezberdinen garaian: Bigarren Inperioa (1859-1870) eta Hirugarren Errepublika (1870-1884).

Kontseilu Orokorra Pauen biltzen zen eta 40 kontseilari osatua zegoen, departamenduko kantonamendu bakoitzetik bat.

⁴⁹ *Mémorial des Pyrénées* (1859.06.21)

Baionako kantonamenduko bake epailearen ordezkari (1862-1884)

Badakigu *La Presse* egunkariaren bitartez Dasconaguerre Baionako Ipar-Ekialdeko kantonamenduko bake epailearen ordezkari izendatua izan zela dekretuz 1862ko apirilaren 23an.⁵⁰ Mantendu zuen postu hau 1884 arte. Urte hartako ekainaren 28an dekretu batek bertan behera utzi zuen izendapen hau.

Ohorezko Legioaren zaldun (1867)

Dasconaguerrek beste ohore handi bat eskuratu zuen 1867an. Urte hartako azaroaren 7an⁵¹ Ohorezko Legioaren zaldun izendatua izan zen egin-dako merituengatik: «kontseilu orokorreko kidea, alkate ohia, 24 urtez zerbitzuan». Ohore honen neurria izateko, jakin behar da, adibidez, 1884an, Pirinio Apaletako 40 kontseilari orokorretatik 5 bakarrik direla Ohorezko Legioaren zaldun!⁵²

Daskonaguerrenen legionario txostenean Ohorezko Legioaren Kantzileria Nagusiak onartzen du berari buruzko informazioa falta zaiola 1870tik goiti, eta aipatzen du hil zela Londresen 1897 inguruan. Aurretik bere heriotzari buruz ikusi dugun BNFko informazioa txosten horretatik dator segur aski.

Akademia aitzindari (1870)

Akademia aitzindari⁵³ izendapena jaso zuen Dasconaguerrek 1870eko maiatzaren 7an.⁵⁴ Titulu hau unibertsitate ohorea zen eta honelako aipamena irakurri daiteke *Le Constitutionnel* egunkarian:⁵⁵

⁵⁰ *La Presse* (1862.04.25)

⁵¹ Base Léonore, Dasconaguerre

⁵² F. Lalheugue, *Annuaire administratif, judiciaire et industriel, du département des Basses-Pyrénées, pour l'année 1884 (bissexile)*

⁵³ «officier d'académie» frantsesez.

⁵⁴ *Bulletin administratif de l'instruction publique*. Tome XIII, n°242 (Paris, 1870) p. 218

⁵⁵ *Le Constitutionnel* (1870.05.12)

Dasconaguerre, auteur de l'intéressant ouvrage Les échos du Pas de Roland, a été nommé officier d'académie. C'est là une récompense justement décernée à un bon livre et à une bonne action (...)

(Dasconaguerre, *Les Echos du Pas de Roland* obra interesgarriaren idazlea, akademia aitzindari izendatua izan da. Hau da liburu on bati eta ekintza on bati zuzentasunez emandako saria (...)) [itzulpena gurea]

Baina kasu guztietan ez da nahasi behar izendapen hau Frantziako Akademiako kide izatearekin, batzuetan agertzen den bezala (Cristina Jarillot Rodal eta Ibon Uribarri Zenekorta⁵⁶ edo Claude Mehats⁵⁷, adibidez)!

Mazarin kardinalaren etxea

Dasconaguerren ospea beste hainbat alorretan ere garatu zen. Bazuen etxe bat Donibane Lohizunen *Chibau* izeneko, Mars karrikan kokatua, baina *Dasconaguerre etxea* bezala ezaguna zena. Etxe honetan hil zen bere aita 1839ko abuztuaren 30ean.

Badirudi jakin-mina zegoela Donibanen etxe honen historia ezagutzeko. Dasconaguerrek baimendutako arkeologo (anonimo) batek indusketa batzuk egin zituen etxean eta frogatutzat jo zuen Mazarin kardinalak berak 1659an ostatu hartu zuen etxea zela!

Laster, 1856an, Léonce Goyetche (1822-1885) *Saint-Jean-de-Luz historique et pittoresque* liburuan zabaltzen du aurkikuntza eta frogen berria⁵⁸ (Goyetche Dasconaguerren kidea izango zen Kontseilu Orokorrean, 1864-1870 urteetan).

⁵⁶ Cristina Jarillot Rodal, Ibon Uribarri Zenekorta, «Politiques de la traduction dans un environnement multilingue: le cas basque» in È. de Dampierre, A.L. Metzger, V. Partensky et I. Poulin (éd.), *Traduction et partages: que pensons-nous devoir transmettre?* (Université Bordeaux Montaigne, Ouvrage issu du XXXVIIe Congrès de la SFLGC)

⁵⁷ Claude Mehats, 2012, «Eskual Herria: journal des basques français du Río de la Plata» in *Vasconia*, 38 (447-478 or.)

⁵⁸ Léonce Goyetche, 1856, *Saint-Jean-de-Luz historique et pittoresque* (100. or.)

Eta horrela, hemendik aurrera, *Chibau* edo *Dasconaguerre etxea*, *Mazarin etxea* bilakatzen da. *Luis XIV. etxea* eta *Infantaren etxea* baldin baziren Donibane Lohizunen, orain gehitzen da *Mazarin*.

Etxe honetan beste ohore handi bat gertatu zen. Alegia, ezustean hor gelditu zen 1859ko irailaren 9an Napoleon inperio-printze txikia, Napoleon III.aren semea, hiru urte eta erdiko mutikoa, bere eskolta guztiarekin, Donibaneko hondartzan txango bat egin ondoren. Dasconaguerre andereak askaria prestatu zion. Prentsan gertaera kontatu zen eta etxea agertzen da orduan *Mazarin etxea* izenarekin.⁵⁹

Azkenean, Donibaneko udal batzarrak karrika-izen aldaketa batzuk onartuko ditu 1883ko otsailaren 14an, tartean *Mazarin* karrika, *Dasconaguerre*ren etxe famatua kokatua zen karrika.⁶⁰ *Dasconaguerre*ren eragina edo itzala ikusi behar da zalantzarik gabe erabaki honetan.

Etxea 1913an suntsitu zuten, ez dakigu zein baldintzatan, bere lekuan etxe berri bat eraikitzeko: gaur egungo *Villa Ugaina*.

Dasconaguerre eta Belokeko abadia

Bastidan zelarik, notario eta alkate gisan, bizitzen zen XVIII. mendeko beste etxe dotore batean, herritik kanpo, Ahurtiko lur eremu zabal baten erdian. Etxe hori ezaguna izan da izen ezberdinekin: *Grand Bayonnès* (jatorrizko izena), *Château de Navailles* (emaztearen birraitona Navailles-ko barroia zen) edo *Dasconaguerre baita* (jabearen izena). Egiazko jabea Caroline Fagalde zen, emaztea.

Baionan notariotza 1861ean hartu eta Bastidako alkatetza 1868an utzi ondoren, *Dasconaguerre*rek baztertu zuen etxe hori. Uda garaian soilik han bizitzera etortzen zen bere emaztea.

⁵⁹ *Le Constitutionnel* (1859.09.15)

⁶⁰ Pierrette Bruyères, 2007, «La rue Mazarin» in *Magazine Berriak*, 45

Etxe honen inguruan Dasconaguerrek lagunduko du beneditarren monasterio berriaren sortzea.

Dasconaguerrek, bai politikari bezala, eta bai idazle bezala, «euskaldun fededun» prototipoa bezala ezagutarazi zuen bere burua. Bere atxikimendua fede katolikoarekin oso nabarmena zen. Iritsiko da Belokeko monasterio berriaren sustatzaile garrantzitsu izatera. *Bellocq* izeneko baserri bat erosi zuten beneditarrek, *Grand Bayonnès* etxetik hurbil. Salmenta egin zen Dasconaguerre notarioaren aurrean 1872ko azaroaren 13an; saltzailea Charles Darrieux-Juson zen, eta erosleak, Jean-Pierre Arbelbide abadea eta Arnaud-Cyprien Caillava irakaslea.⁶¹

Eta horrela ikusten dugu 1875eko irailaren lehenean zer-nolako ospakizunak antolatu ziren Belokeko monasterio beneditar berria estreintzeko: Chesnelong eta Dufaur diputatuak, Celhabe eta Dasconaguerre kontseilari orokorrak, Félix Saubot prefektu ohia, inguruko parrokietatik 125 apez eta 4.000 pertsona baino gehiago ekitaldi ezberdinetan parte hartzeko. Lavigerie artzapezpikuak berak parte hartu behar zuen, baina azken unean gaixotu zen.⁶²

Harreman on hauen ondorioz, beneditarrek proposatu zioten *Grand Bayonnès* etxea arrandan hartzea serora-abadia berria sortzeko. Dasconaguerrek azkenean onartu zuen eta 1883ko maiatzaren 22an lehenbiziko hiru serorak han kokatu ziren.⁶³ Urte batzuk beranduago, aldiz, diru afera txarreatik, Dasconaguerrek adostuko du bere etxea saltzea abadiari.⁶⁴ Orduetik hona Santa Eskolastika monasterio beneditarra etxe horretan kokatua dago. Salmentaren data ez da guztiz ziurra baina datua hor da: Dasconaguerren etxea monasterio bihurtua, gaur egun arte!

Gogoratuko dugu Ander Lakarrak beneditarren ahotik entzun zuela Tunisia eta Afrikako iparraldearen aipamena Dasconaguerri buruz.

⁶¹ AD64 – Minutes notariales – Notaires du département des Pyrénées-Atlantiques – Bayonne – Etude VII – Dasconaguerre (Jean-Baptiste) – 1861-1884 – 1872 – cote 3E17404/0270

⁶² *Le Figaro* (1875.09.05)

⁶³ Doucet, M., 2009, *Des hommes travaillés par Dieu* (145. or.)

⁶⁴ *Herria* (1705. zenbakia, 1983.06.02)

Dasconaguerre idazle

Garai oparo hartan (1860-1884 gutxi gorabehera), Dasconaguerrek hainbat idazlan interesgarri argitaratuko ditu, eta, gaur egun, lan hauengatik da ezaguna gehienbat.

Lan hauen azterketa eta kritika literario nahiko sakona eginga izan da, eta horregatik ez gara luzatuko aspektu honen inguruan.

Horrela, bere politikari figura apaindu zuen idazlearen famarekin. Bere idazlanen bitartez ikus daiteke zer-nolako ikuspegia zuen politikaren aldetik.

Atheka-gaitzeko oihartzunak (1867) Napoleon III.aren garaikoa da. Aldiz, *Golfe de Gascogne...* (1880) eta *Mendigor-Içareder-Récit basque* (1883) Errepublikara garaian argitaratuak dira. Dasconaguerrearen ideologia agertzen da. Fededun katolikoa da, klerikalismoan erori gabe, eta tradiziozalea, baina ere bai garapen zalea: trenbideak, zubiak, industria, hidrografia eskola... aldarrikatzen ditu Euskal Herriarentzat; kritikatzeko du Frantziako hizkuntza politika eta eskatzen du euskararen katedra baten sortzea. XIX. mendeko aldatetarako gizon egokia Euskal Herriarentzat. Eroso dago hirian (Baiona) zein herrian (Bastida); betiko euskalduna da, baina beldurrik gabe garai berriei irekia. Idazki guztietan nabarmentzen da bere harrotasuna Euskal Herriaz eta herri honen zabaltzailea izateko gogoia.

Bizitza eredugarri hau puskatu zen bat-bateko ezuste galanta gertatu zelarik.

Bat-bateko erorketa (1884ko apirila)

Irakurri dugu, beraz, *Herria* aldizkarian (1983) «Dasconaguerre-tarrek afera txarrak egitearekin, (etxea) saltzera jinen zaie». eta ikusi Ander Laka-rrak idatzi zuela (1990) «(Dasconaguerre) ospez inguratuta bizi bazen ere, zituen guztiak hondatuta, 1884an notaritza utzi eta bere bi semeekin Afrikako iparraldean babesa bilatu bide zuen». Bi ohar hauek daukate iturria Belokeko monasterioan.

Zerbait gertatu zen, alegia, 1884an, bat-batean Dasconaguerrek uzten dituelarik bere kargu guztiak. Edo galtzen dituelarik. Kronologia ikus dezagun:

- Apirilaren 7an, Dasconaguerrearen azken akta notario gisan.⁶⁵
- Apirilaren 10ean, Dasconaguerrearen notariotza estudioa enbargatuta gelditu zen.⁶⁶
- Apirilaren 21ean, Kontseilu Orokorreko apirileko bilkuran ez zuen Dasconaguerrek parte hartu, 25 urtetan lehen aldikoz. Ez da oharrik aipatzen falta izate honi buruz.⁶⁷
- Apirilaren 23an, Baionako Epaitegi zibileko Presidentearen ordenantza batek notariotza estudioa beste notario bati esleitzen dio behin-behineko⁶⁸, **Dasconaguerre auzipetua eta ihes eginda dagoelako!**

(→ ikus lehen eranskina [itzulpena gurea])

<i>Le Procureur de la République soussigné, Attendu que le Sr. Dasconaguerre, notaire à Bayonne, est inculpé d'abus de confiance et sous le coup d'un mandat d'arrêt à l'exécution duquel il s'est dérobé par la fuite, Vu l'article 61 de la loi du 25 ventôse an XI, Requiert qu'il plaise à monsieur le Président du Tribunal de 1ère instance ordonner, vu l'urgence, que les minutes et répertoire du dit Sr. Dasconaguerre seront confiés à Me. Novion, notaire à Bayonne, à toutes fins utiles.</i> <i>Au Parquet, à Bayonne, le 23 avril 1884</i> <i>E. de Ribeaux</i>	<i>Izenpetzen duen Errepublikaren Prokuradoreak, Baionan notario den Dasconaguerre jauna konfiantza abusuagatik auzipeturik dagoenez gero, eta bere aurkako atxilotze aginduaren aurrean ihes eginda dagoenez gero, XI. urteko haizekorren 25eko legearen 61. artikulua ikusirik, Galdegiten du atsegin bekiola Lehen Instantziako Epaitegiaren Presidente jaunari agintzea aipatu Dasconaguerre jaunaren minuta eta errepertorioa, premia ikusirik, Baionan notario den Novion jaunari utziko zaizkiola, behar diren ondorioetarako.</i> <i>Epaitegian, Baionan, 1884ko apirilaren 23an.</i> <i>E. de Ribeaux</i>
--	--

⁶⁵ AD64 – Minutes notariales – Notaires du département des Pyrénées-Atlantiques – Bayonne – Etude VII – Dasconaguerre (Jean-Baptiste) – 1861-1884 – 1884 – cote 3E17433/0292

⁶⁶ *La Semaine de Bayonne* (1884.04.11)

⁶⁷ CG64, 1884, *Rapports et délibérations du conseil général des Basses-Pyrénées* (1884, apirila)

⁶⁸ AD64 – Minutes notariales – Notaires du département des Pyrénées-Atlantiques – Bayonne – Etude VII – Dasconaguerre (Jean-Baptiste) – 1861-1884 – 1884 – cote 3E17433/0301/002

- Apirilaren 29-30ean, Dasconaguerre ihes eginda zegoela prentsan zabaldu zen.
- Maiatzaren 4an, hauteskunde munizipalak burutu ziren.
- Maiatzaren 6an, prentsan zabaldu zen, gutun baten bitartez, Kontseilu Orokorreko lehendakariari iragartzen diola kontseilari orokorreko kargua uzteko duen asmoa osasun arazoengatik.⁶⁹
- Ekainaren 28an, Errepublikaren Egunkari Ofizialean agertu zen dekretua, bere bake epaile ordezkari kargua deuseztatzeko.⁷⁰
- Abuztuaren 3an, hauteskunde partziala burutu zen Bastidako kantonamenduan dimisioa eman zuen Dasconaguerre ordezkatzeko.⁷¹

Erabateko eskandalu bat lehertu zen beraz Ipar Euskal Herri lasai hartan. Bat-batean justiziak, salaketa batzuen ondorioz, Dasconaguerreren aurka hartu zituen neurriak.

Zer gertatu zen?

Baionako notario eta politikari ospetsuak, urteetan zehar, antolatu omen zuen iruzur handi bat bere bezeroen kaltetan.

Salaketa emana zen «mailegu bezala utzitako dirutza desbideratzeagatik» (*détournement de sommes, à lui confiées, à titre de dépôt*). Atxilotze agindua «konfiantza abusuagatik» (*abus de confiance*) luzatua izan zen, baina polizia bere etxean aurkeztu zelarik, Dasconaguerre ihes eginda zegoen eta erbeste-teratua.⁷² Badirudi *Ganixen etxearen setioa* irakurtzen dugula.

Erorketa ikusgarria zen.

Jaun estimagarria, egun batetik bestera, errekaratua, notariotza eta kargu politikoak galduta, izen ona zikinduta, gaizkiletzat hartuta. Nola zen posible?

⁶⁹ *L'Indépendant des Basses-Pyrénées* (1884.05.06)

⁷⁰ *Journal Officiel de la République française*, 16. urtea, 177. zenbakia (1884.06.29)

⁷¹ *Rapports et délibérations du Conseil général des Basses-Pyrénées* (août 1884)

⁷² *La Lanterne* (1884.04.30)

Afera garrantzitsua zirudien, baina nahiko isilpean mantendu zen prentsan. Ohar gutxi batzuk besterik ez ditugu aurkitu.

Batzuen ustez, Dasconaguerrearen ustelkeria kasua nahita isildua izan zen eta, haratago, Dasconaguerrek berak, bere aurkako eginbideez abisatua izanik, izan zuen denbora epe bat erabaki bat hartzeko egoera honen aurrean.

Zentzu honetan irakurri dezakegu beste artikulua bat non salatzen diren Jacques-Édouard de Ribeaux Errepublikaren prokuradorearen eta Dasconaguerrearen arteko harreman hurbil-hurbilak. De Ribeaux jaunak, lagunaren egoera judiziala ezagutuz, abisatu zuen, eta denbora nahita utzi zuen pasatzen ihesaldia antolatzeko.⁷³

Erabaki guztiz ohargarria hartu zuen Dasconaguerrek: ihes egitea justiziatik eta Euskal Herritik, ahal bezain urrun, betirako. Ordurako 69 urte zituen. Bere jarrera ulertzeko gogora dezakegu 1880an *Golfe de Gascogne...* liburuan idatzi zuen pasarte, berez intsumisioari buruz:

Pour punir notre insoumission, imposez-nous toutes sortes de sacrifices, moins la prison qui pour nous est une flétrissure et dont la seule pensée nous retient en pays étranger.

(espetxealdia orban iraingarria da guretzat eta bakarrik horretaz pentsatzeak atzerrian mantentzen gaitu [itzulpena eta azpimarra, gureak])

Afera hau, dena den, kokatu behar da garai hartan laikoan (errepublikazale amorratuak) eta klerikalen (kontserbadoreak, lehengo erregimenaren nostalgikoak) arteko borroka sutsuan eta, zehazkiago kasu honetan, udal hauteskunde bezperan (1884ko maiatzaren 4an). Gainera, ikus daiteke ez gaudela kasu bakan baten aurrean, hilabete gutxi batzuk beranduago, 1884ko urriaren 21ean, Baionako beste notario bat, Augustin Tucoulat, zalantzarik gabe Dasconaguerrearen ezaguna, antzeko egoeran akusatua delarik. Tucoulat ere ihes eginda ibiliko da.⁷⁴

⁷³ *La Lanterne* (1885.06.29)

⁷⁴ *L'Indépendant de Mascara* (1885.03.19)

Ihesaldia uler dezakegu urte batzuk beranduago Boulanger jeneralarekin gertatu zena aipatuz. Alegia, 1889an Boulanger jenerala mehatxu larria bilakatu zen Errepublikarentzat. Bere aurkako neurri zuzena hartu ordez, informatu egin zitzaion atxilotze agindu bat bere aurka zuzenduko zela, nahiko denbora utziz ihesaldia hauta zezan. Eta horrela egin zuen: ihes egin, bere sinesgarritasun politikoa galduz. Maniobra honekin bi alderdien arteko indar proba bertan behera geratzen zen, ez zen nehor ausartzen iheslaria defendatzen, eta ez zen zehazten ere zertaz akusatua zegoen eta zeintzuk ziren bere aurkako probak! Boulanger jeneralaren kasua 1889koa baldin bada ere, pentsa dezakegu 1884an ere horrelako maniobrak posible zirela. De Ribeaux prokuradoreak Dasconaguerre abisatu zuen (alderdi berdinekoak biak) ihesaldia ahalbidetuz, ez Dasconaguerreri faborea egiteko, baizik eta alderdi kontserbadoreari kalte txikiena eragiteko! Ez da inor atxilotzen, ezta epaitzen ere, azkenean kasu pertsonala da eta alderdi kontserbadoreak ez dauka ezer ikusteko afera honekin.

Azkenik ihes egitea ez zen, behar bada, hainbestetarako, erregimen aldaketak ohikoak baitziren garai hartan. Aurreko erregimeneko erbesterratuak ongi etorriak ziren berriro aldaketa baten ondorioz. Baina, Dasconaguerren kasuan, erregimen aldaketa ez zen gertatu (Boulanger jeneralaren porrota, adibidez) eta Errepublika tinko mantendu zen. Atzerrian segitu behar zuen, orduan.

Ez dakigu afera nola bukatu zen epaitegietan, ezta ere Dasconaguerre saiatu zenetz bere defentsa antolatzeri. Badirudi konfiantza-abusu delituak sei urteren buruan preskribatzen duela. Protagonista ihes eginda, behar bada, kasua itxitzat jo izan zen, denborarekin.

Hots, datua, Dasconaguerrek ihes egin zuen eta inork ez zekien non zegoen gordeta.

Eufemismo ederra da beraz biografietan irakurtzea «1884an (...) joan zen bizitzera (...)».

Non dago Dasconaguerre?

Haurrak

Hemendik aurrera kasik ez dago daturik berari buruz, baina bere haurren datuen arabera bere pista lortuko dugu azkenean. Ez baldin badakigu aita non dagoen, haurrak non dauden begira dezagun.

Ihesaldiren garaian bost seme-alaba zituen, lau mutil eta neska bat. Erre-pasatuko dugu bakoitzari buruz aurkitu duguna, baina kasu gehienetan oso datu eskasak aurkituko ditugu.

Gabrielle, alaba bakarra, Bastidan jaio zen 1851n. Aitak dedikatu zion *Golfe de Gascogne...* liburua 1880an. 1884an, 33 urterekin, ezkongabea zen. Aitaren ihesaldiak eragina izango zuen berarentzat. Nor ezkonduko zen berarekin orain?

Berriro aurkitzen dugularik, 1891n, Ingalaterran kokatua zen⁷⁵, ezkongabea, haur hezitzailea familia dotore batean, East Lulworth herrian, Dorseteko konderrian.

Arthur, Bastidan jaioa 1852an. Orléanseko seminario txikian egiten zituen ikasketak 1868an.⁷⁶ Geroxeago armadan sartu zen, eta ikusten dugu Egunkari Ofizialean 1885eko abuztuaren 24an Infanteriako 16. erregimentuaren gorputzeko azpi-teniente izendatua dela.⁷⁷ Bere urratsak galtzen ditugu geroztik, 1896ko abenduaren 21a arte, New Yorkera itsasontziz iritsi arte.⁷⁸ Estatu Batuetan kokatua, asmatzaile gisa patente bat erregistratuko du mineralak separatzeko zentrifugagailu batentzat. Patentearen deskribapenean horrela aurkezten du bere burua (1900eko uztailaren 17an):

⁷⁵ England and Wales census (1891)

⁷⁶ *Annales religieuses et littéraires de la ville et du diocèse d'Orléans*, vol. IX, 1868 (854. orr.)

⁷⁷ *Journal Officiel de la République française*, 17. urtea, 238. zenbakia (1885.09.02)

⁷⁸ New York Passenger Arrival Lists (1896)

Ni, Arthur Dasconaguerre, Frantziako Errepublikako hiritarra,
Mexikoko hiriko bizilaguna, (...).⁷⁹

Ferdinand, Bastidan jaioa 1854an. Haurren artean ezagunena. Orléanseko seminario txikian zegoen ikasle 1868an. Gero, zuzenbide ikasketak egin zituen eta 1883ko maiatzaren 21ean abokatu gisan apuntatu zen Tunisén.⁸⁰ Han garatuko du karrera ederra zendu arte 1928ko uztailean.⁸¹

Alfred, Bastidan jaioa 1857an. Aurkitutako lehen datuak erakusten digu Ingalaterran kokatua zegoela 1901ean Scorton herrian (Yorkshire).⁸² Han segitzen zuen 1911ko erroldan.⁸³

Albert, Baionan jaioa, 1865ean. Armadan sartu zen boluntario gisan 5 urterako 1886an. Bi urteren buruan, 1888an, eskatu zuen Tunisiako ehiztari erregimentuan sartzea. Han egon zen 1890 arte, armada utzi arte.⁸⁴ Alegia 1890ean Albert itzultzen da Frantziara, Parisera. Euskaldun asko bezala, intsumiso egongo da denbora luzean (1894-1908). Léon Bloy idazlearen *Egunkarian* aipatzen den Albert Dasconaguerre segur aski bera da (1895. urtean). Albert, dirurik gabe, agertzen da ezkondu nahian Louise Colemanekin, andere alargun gazte aberats batekin. Ez du lortuko bere asmoa anderearen gurasoen oposizioarengatik.⁸⁵

Tartean, nahiz eta Parisen bizi, 1905. urtean ikusten dugu Albert Blidako (Aljeria, garai hartan frantsesa) lur batzuen erosketa egiten.⁸⁶ Eta 1907an, bere jabegoan, hilketa gertatu zela ere bai!⁸⁷

⁷⁹ US653792 A patentea

⁸⁰ Lambert, P., 1912, *Dictionnaire illustré de la Tunisie*

⁸¹ *L'Afrique du Nord illustrée* (1928.08.04)

⁸² England and Wales census (1901) «Dasconagaure»

⁸³ England and Wales census (1911)

⁸⁴ Registres de recrutement militaire – Archives départementales des Pyrénées-Atlantiques

⁸⁵ *Léon Bloy – Journal inédit I 1892-1895* (1996ko arg.)

⁸⁶ *Journal général de l'Algérie et de la Tunisie* (1905.04.20)

⁸⁷ *Le Petit Parisien* (1907.09.27)

Urte batzuk beranduago, 1913an, Albertek segitzen du Parisen bizitzen.⁸⁸ Aurkitu dugun bere azken aipamena 1925ekoa da.⁸⁹

Nabaria da familiaren barreiatzea 1884. urtearen ondotik: Ingalaterra, Mexiko, Estatu Batuak, Paris, Tunisia eta Aljeria dira helmuga batzuk. Tunisia eta Ingalaterra aipatuak izan dira jadanik Dasconaguerren balizko bizitoki edo heriotza gunetzat.

Dasconaguerre Tunisian? Ipar Afrikan ?

Hau da lehen pista. Lakarrak eta EHUKo fitxak aipatzen zuten herrialde hau. Belokeko abadiatik zetorren informazio hori:⁹⁰ «bere bi semeekin Afrikako iparraldean babesa bilatu bide zuen».

Badakigu Tunisian zegoela ongi kokatua Ferdinand semea 1883tik. Abokatu famatua izan behar zuen. Eta beste semea Albert ere egon zen soldadu Tunisian 1888tik 1890 arte.

Ohargarria da ikustea Tunisian bi semeak une bereberetan batera agertzen. Familia ez da ba bildu Tunisian eskandaluaren ondotik? Tunisia ordurako berriki pasa zen Frantziaren babespera (Bardoko ituna, 1881). Dasconaguerre bezalako notable familia bat ongi etorria izan behar zen han. Garai hartan abenturazale eremua zen, gizarte zibil europarra osatu behar zen eta administrazio militar frantsesak ixten ahal zituen begiak Baionako aferarengatik. Kolono europar askok bizi berri bat bilatzen zuten han azkenean.

Ferdinand semea orduan abokatua zen Tunis. Ongi kontsideratua. Haurren artean bakarra zen ongi kokatua. Eta Albert gazteak urte batzuk pasa zituen Tunisiako armadan. Garai hartako Frantziako inperio kolonialaren hedapena kontsideratuz ohargarria litzateke menturaz igorria izatea Tunisiara. Albertek eskatu zuen destino hau bakarrik anaiarengandik hurbil izateko? Behar bada, gurasoak han zeuden bizitza diskretua egiten? Ino-

⁸⁸ *Paris-Hachette, annuaire complet commercial, administratif et mondain* (1913)

⁸⁹ *Annuaire du commerce Didot-Bottin* (1925)

⁹⁰ Lakarra, A., 1990, sarrera in Dasconaguerre, J.B., *Atheka-gaitzeko oihartzunak* (9. or.)

ri ez litzaioke bururatuko pentsatzea abokatu honen aita zahar hura gaizkile eta justiziatik ihesia zela! Dena den, ez dago ziurtasunik beste behin ere.

Baina han egon badira iheslaria eta bere emaztea, ez dirudi betirako izan dela. Alegia, Ferdinand abokatuak segitzen du Tunis en eta bere arrakasta ez zatekeen posible izango bere aitaren gorabeherak guztiz ezagunak izan baziren, denborarekin gertatuko zena han irauten bazuen.

Hots, eskandaluaren eta ihes egitearen ondoren, Dasconaguerre Tunisian egon baldin bada denboraldi batez (ez dago datu zehatzik, baina bere semeak han zeuden) azkenean handik ere joan zen berari buruzko misterioa mantenduz.

Dasconaguerre Ingalaterran?

Tunisian bi seme denboran batera egon baldin badira ere (1888-1890), ikusi dugu beste bi haur Ingalaterran daudela ondoko urteetan.

Ikusi dugu Gabrielle alaba agertzen dela 1891ko zenbaketan East Lulworth herrian bizitzen *gouvernante* bezala. Eta Alfred, beste seme bat, Scorton herrian bizitzen zen 1901 eta 1911n.

Gogoratu behar da, bestalde, Ohorezko Legioaren kantzilieriaren informazio batek suposatzen zuela Dasconaguerre Londresen hil zela 1897 inguruan.

Orduan, zergatik ez pentsatu Tunisiako balizko behin-behineko egonaldi baten ondotik (larritasunak bultzatuta, han zegoen semearen laguntza izateko) Dasconaguerre geroxeago Ingalaterrara joan zela era antolatutako batean han bertan bizitzeko eta bederen bi seme-alaben konpainiarekin?

Bitxikeria gisan, Dasconaguerren semeen artean nahiko izen «ingele-sak» agertzen dira: Arthur, Alfred, Albert, Victoria erreginaren senarra (Albert printzea) eta seme batzuk bezala (Alfred eta Arthur dukeak).

Ferdinand semearen ezkontza agiria

Seme-alabei buruzko ikerketa testuinguru horretan, Dasconaguerre non izan zitekeen bilatzerakoan, aurkikuntza erabakigarria izan da: Ferdi-

nanden, Tunisian kokatutako semearen, ezkontza agiria. Ezkontza burutu zen Houeillès herrian (Lot-et-Garonne) 1901eko irailaren 12an!⁹¹ Tunisiatik milaka kilometrotara! Lekua eta urtea bitxiak lehen begiradan, Tunisiara eta Ingalaterrara mugatzen garelarik. Internet bidez lortu zen ezkontza aipamena eta Lot-et-Garonne departamenduko artxiboei buruz bilaketa eginez ikusten zen ezkontza datuak digitalizatuak zeudela urte eta herri honentzat! Hortik etorriko da azkenean argia Dasconaguerreren azken urratsei buruz.

Ferdinand, beraz, abokatua, Bastidan jaioa, Tuniseko bizilaguna, ezkonitzen da Gaskoinian! Eta hauxe da agertzen den informazioa bere gurasoei buruz:

(→ ikus 2. eranskina)

Ferdinand Dasconaguerre, ... fils majeur et légitime de Jean-Baptiste Dasconaguerre, décédé à Londres le six novembre mil huit cent quatre-vingt dix-neuf, et de Marie-Caroline Fagalde, décédée à Londres le cinq juillet mil huit cent quatre-vingt treize....

[Jean-Baptiste Dasconaguerre, Londresen hila 1899ko azaroaren 6an, eta Marie-Caroline Fagalde, Londresen hila 1893ko uztailaren 5ean [Itzulpena gurea].)

Azkenean agertu zitzaigun datu zehatz bat Dasconaguerreri buruz! Argitaratu gabeko datu garrantzitsu bat. Non eta noiz hil den!

Ferdinand semeak ez zuen beste daturik eman ezkontzarako, adibidez gurasoen ofizioari buruz. Ez zen, alta, jende xumearen semea. Ama familia onekoa zen ikusi dugun bezala, aita politikari ospetsua izan zen, notario, idazle... baina ezer ez. Eskandalua eta 23 urte berantago (!) semeak nahiago du xehetasunetan ez sartzea, Houeillès herrian! Baina bai, heriotza data eta lekua aurkitu ditugu.

Ingalaterrako pista baieztatzen da.

⁹¹ AD47 – Houeillès – État-civil – Naissances, mariages, décès 1893-1902 – 4E118/15/186

Erresuma Batuko Artxiboak

Heriotza agiria

Frantziako agiri ofizial batean agertzen badira ere lekua eta datak, orain datu hauekin hasi dugu bilaketa berria Erresuma Batuko artxibo digitalizatuen artean.

«General Register Office» eta «Free BMD» orriak bisitatu ditugu. Eta aukera izan dugu Ferdinanden gurasoen heriotz agiriak eskuratzeko. Hauek dira emaitzak Dasconaguerrei buruz:

(→ ikus 3. eranskina [itzulpenak gureak])

When and where died	Twenty sixth november 1899 Saint Josephs Home	Noiz eta non hil	1899ko azaroaren hogeita sei Saint Josephs Home
Name and surname	Jean-Baptiste Dasconaguerre	Izena eta abizena	Jean-Baptiste Dasconaguerre
Sex	Male	Sexua	Gizona
Age	85 years	Adina	85 urte
Occupation	Solicitor of Basses-Pyrénées, France From Chelsea (<i>ezin irakurri</i>) 6 years	Lana	Abokatu, Pirinio Apalak, Frantzia Chelseakoa (<i>ezin irakurri</i>) 6 urte
Cause of death	Senile decay exhaustion certificied by JM Robertson MD	Heriotzaren zergatia	Zahartasun gainbehera agortzea JM Robertson medikuak ziurtatua

Signature, description and residence of informant	J. Russell present at the death, St Josephs Home, Portobello road	Informatzailearen izenpetze, zehaztapen eta bizilekua	J. Russell, heriotzaren lekukoa St Josephs Home, Portobello road
When registered	Twenty eighth november 1899	Noiz erregistratua	1899ko azaroaren hogeita zortzia
Signature of registrar	CR Barnes Registrar	Erregistratzailearen izenpetze	CR Barnes erregistratzailea

Hilobiratzea

Inglaterra agiri hauek eskuraturik eta Londresen Saint Mary's Cemetery hilerri katolikoa Saint Joseph's Home ospitalearen inguruan kokatua dagoela ikusirik, harremanetan jarri ginen aipatu hilerriko arduradunekin eta haiek konfirmatu digute Dasconaguerren hilobia lokalizatuta daukatela! 1899ko azaroaren 29an hilobiratua izan zen 4.349 zenbakiko hilobian, bere emaztearen ondoan. Dena den hilerrira bertaratutako ezagun batek jakinarazi du hilobiaren identifikazioa zaila izango dela hilarrien egoera kaskarragatik, eta hori bertako administratzaileen laguntzarekin ezinean bilatzen ibili eta gero.

(→ ikus 4. eranskina)

Datu bitxi gisan, **Luis Luziano Bonaparte** printze euskaltzalearen hilerri berberean lurperatuta dago Dasconaguerre! Ohoretan hurbilak⁹², erbestean eta heriotzan ere bai beraz...

Azken ohar bat heriotza dataren inguruan: Houeillès-eko agirian «azaroaren 6an» agertzen da eta Londreseko datuetan «azaroaren 26an». Ontzat hartuko dugu azken hau, noski, hilobiratze datak konfirmatzen duena. Houeillès-ekoa transkripzio akatsa besterik ez da.

⁹² Printzeari eskaintza egin zion Dasconaguerrek *Atheka-gaitzeko oihartzunak* argitaratzerakoan.

Eta heriotz aipamenekin bukatzeko, Ingalaterrako erregistroan «Age: 85 years» agertzen baldin bada ere, ulertu behar da Dasconaguerrek 84 urte beteta zituela (85.-ean sartuta zeguela alegia).

Azken urteak Londresen

Puntu honetara iritsita Dasconaguerrearen azken urteei buruz dokumentuen araberrako azterketa kronologikoa gelditzen zaigu.

- 1884ko apirila: Dasconaguerrek Euskal Herritik ihes egiten du, arrastorik utzi gabe.
- 1888-1890: bi seme Tunisian daude elkaturik. Ez dago ziurtasunik iheslariaren presentziari buruz.
- 1891, Vinsonek publiko egiten ditu «*Atheka-gaitzeko oihartzunen*» amarruak. Adostuta?
- 1891, English & Wales Census-en arabera, alaba Gabrielle Dasconaguerre Ingalaterran dago ofizialki bizitzen.
- 1891-1893: Dasconaguerre eta emaztea Londresen kokatzen dira. Etxea leku on batean daukate (5 Holbein Buildings, Pimlico Road, South Chelsea, London)⁹³. Diru arazorik ez daukatela ondoriozta daiteke.
- 1893ko ekainaren 5ean, emaztea, Marie-Caroline Dasco (sic), Londresko bere etxean hil zen. Gabrielle alabak heriotza erregistratzen du.
- 1893ko ekainaren 6an, Marie-Caroline emaztea Saint Mary's Cemetery hilerri katolikoan lurperatzen da.
- 1894ko azaroaren 2an, Gabrielle alabak zuzenketa erregistratzen du: amaren heriotza agirian, «*Dasco*» ordeztuta «*Dasconaguerre*» irakurri behar da.
- 1893-1899: Dasconaguerre, alarguna, Londresen bizi da, segur aski Gabrielle alabak lagunduta.

⁹³ Marie-Caroline Fagaldere heriotz agiria.

- 1899ko azaroaren 26an, Dasconaguerre idazle famatua hil zen 84 urte zituelarik, Londreseko Saint Joseph's Home ospitalean, zaharkitua eta agortua. Erregistratuta dago abokatu bezala, Frantziako Pirinio Apale-tako jatorrikoa, eta Chelseako bizilagun bezala.
- 1899ko azaroaren 29an, Saint Mary's Cemetery hilerrian lurperatua izan zen, bere emaztearen ondoan.

Ez da, beraz, gure ustez Dasconaguerre inoiz itzuli ez Frantziara ezta ere Euskal Herrira. Ez dago ziurtasunik bere Tunisiako egonaldiaz, baina 1890 eta gero bai kokatu da argi ta garbi Londresen, emaztearekin eta Gabrielle alabarekin.

Datu berri hauekin, Dasconaguerre euskal idazlearen biografia osatuagoa daukagu orain.

Badakigu zein ibilbide publiko egin zuen, badakigu zergatik eta zein baldintzatan «desagertu» zen. Eta orain badakigu non eta noiz hil zen. Ez da gutxi.

Bere pertsonaren inguruko misterio zati bat kendu dugu, baina, oraindik asko falta da jakiteko bere bizitzako azken 15 urteei buruz. Sorpresaz betetako gizona zen azkenean: *Atheka-gaitzeko oihartzunak* liburuaren polemika literarioaz gain, ezkontzatik kanpo izandako alaba, notario ustela eta justiziatik ihes eginga... zer datu berri aurkituko da hurrengoan?

Londresen hil zen 1899an. Ohorezko Legioaren kantzileriararen 1912ko informazioa nahiko zuzena zen azkenean (orduan 1897. urtea aipatzen zen heriotzarako).

Gaur egun, hasieran ikusi dugun BNFko fitxa, informazio hau emanez, nahiko fidagarria da.

EHUko fitxan agertzen dena, aldiz, zuzendu behar da, nahiz eta Tunisiari buruzko aipamena mantendu daitekeen.

Ez dugu aurkitu M. Lopez Gasenik eta beste askok jaiotze eta heriotza daten inguruan egiten duten nahasketaren iturburua. Segur aski hala-nolako nahasketa Ferdinand semearekin. Ez da lehen aldia gertatzen dena. Ez

da kasu bakarra. Aski da aipatzea Martin Goyhetche eta Léonce Goyetche idazleen arteko nahasketa, gaur egun argitua.⁹⁴

Zaila izan daiteke orain arte argitaratutako akats edo oker guztiei konponbidea ematea, baina uste dugu hemendik aurrera ez direla berriz errepikatuko.

Gogoeta batzuk

Dasconaguerre Iparraldeko eliteko goi karguduna izan da, batez ere Kontseilu Orokorreko kidea izan zen denboran (1859-1884). Hogeita bost urtez harremanetan izan da Euskal Herriko eta Frantziako goi mailako jendearekin. Bere idazlanetan, 1867an, 1870ean, 1880an edo 1883an beti euskalduntasunaren bozeramaile bezala agertu da.

